

# ZENBAIT GAI EUSKARA TEKNIKOAREN INGURUAN

*Juan Carlos Odriozola (koordinatzailea)*






ZENBAIT GAI EUSKARA  
TEKNIKOAREN INGURUAN



# ZENBAIT GAI EUSKARA TEKNIKOAREN INGURUAN

*Juan Carlos Odriozola* (koordinatzailea)

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco  
servicio editorial

Euskal Herriko  
Unibertsitatea  
argitalpen zerbitzua



Liburu hau Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntzaz argitaratu da.

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, bai eta berorri tratamendu infomatikoa ematea edota liburua ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein eratarata, baldin eta *copyrightaren* jabeek ez badute horretarako baimena aurretik eta idatziz eman.

Lanaren egilea eta jatorrizko izenburua:

© *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*  
Juan Carlos Odriozola (Koord.), 1999  
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

I.S.B.N.: 84-8373-208-4

Lege gordailua: BI-2483-99

Fotokonposaketa: Ipar, S. Coop. - Bilbao  
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Itxaropena, S.A.  
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)



3.2. -Gazko .....	35
3.2.1. Izenlagun erabilerak .....	36
3.2.1.1. Bi norabideko erlazioa, oinarrian -gaz deklinabide- atzizkia duena.....	36
3.2.1.2. Norabide bakarreko erlazioa (gaztelaniazko « <i>para</i> <i>con ...</i> », « <i>en relación a ...</i> » preposizio-sintagmen or- daintzat erabil litekeena) .....	36
3.2.1.3. Izen konkretuak mugatuz.....	37
3.2.2. Adizlagun erabilera.....	37
3.2.3. Laburbilketa .....	38
3.3. -Kilako izenlaguna .....	38
3.3.1. Izen abstraktuekin. Gehienetan bi norabideko erlazioa adie- razten duena .....	38
3.3.2. Izen konkretuekin. - <i>dun</i> edo - <i>ko</i> atzizkien edo <i>edun lukan</i> adi- tzaren ordain.tzat eman daitekeena. Deskribapenak egiteko edo norbait/zerbait identifikatzeko.....	40
3.3.3. Instrumentalaren ordezeko - <i>kin</i> oinarrian duen egitura .....	41
3.3.4. Laburbilketa .....	42
4. -Kiko-ren gaur eguneko erabilerak .....	42
4.1. Adizlagun erabilerak.....	43
4.2. Izenlagun erabilerak .....	44
5. -Kiko eta bestelakoak hizkera teknikoetan.....	46
5.1. -(R)en araberako + ordenazioa, aldaketa, sailkapena, mugimendua... ..	47
5.2. -(R)ren gaineko + eragina, nagusitasuna .....	47
5.3. -(R)en bidezko + asistentzia, tratamendua, profilaxia,... ..	48
5.4. -(R)en aurreko (-r)en aurrakako) + erantzuna, jokaera, joera, alergia, hipersentsibilitatea, erresistentzia... ..	48
5.5. -(R)engatiko (zergatia) + hepatitis, toxikotasuna (gaixotasunak).....	49
5.6. -Dun, -ko /perpaus erlatiboa... + gaixoak, animaliak (bizidunak: izen konkretuak...) .....	49
5.7. -Kiko + harremana, lotura, erreakzioa, elkarreragina, menpekota- suna,... ..	49
6. Ondorio-proposamenak.....	51
7. Bibliografia .....	53
EGINEZ, EGINIK ALA EGINDA? .....	55
<i>Juan Carlos Odriozola</i>	
0. Sarrera .....	55
1. Bibliografian zer esan den .....	63
1.1. Ohiko gramatketan.....	63
1.2. Axularren <i>Gero</i> .....	68



2. Euskal literaturan zer egin den.....	69
2.1. Instrumental deklinabide-atzizkidun partizipioa .....	70
2.2. Partitibo deklinabide-atzizkidun partizipioa.....	71
3. Modua, zergatia, argudioa, emendioa, denborakidetasuna, izaerakidetasuna eta aurretiakotasuna zer diren .....	73
3.1. Modua eta zergatia .....	73
3.2. Argudiozko harremana.....	83
3.3. Emendiozko harremana .....	86
3.4. Denborakidetasuna eta aspektua .....	93
3.4.1. Denborakidetasuna eta izaerakidetasuna .....	94
3.4.2. Aurretiakotasuna (eta ez denborakidetasuna) .....	97
3.4.3. Denborakidetasuna eta ondorioa/gerokotasuna direlakoak ..	99
4. Ondorioak .....	101
5. Husturiko literatur lanak .....	102
6. Bibliografia .....	104
 IZEN-SINTAGMA KONPLEXUAK: ADJEKTIBOEN SEGIDAK .....	107
<i>Igone Zabala</i>	
0. Sarrera .....	107
1. Izena lagun dezaketen kategoriak .....	109
1.1. Kokapenaren arabera sailkapena .....	109
1.2. Gramatika-kategoriaren arabera sailkapena.....	111
1.3. Semantikaren arabera sailkapena.....	112
1.4. Perpausak diren modifikatzaileak.....	115
2. Izenlagunak .....	115
2.1. Izenlagunak eta adizlagunak .....	115
2.2. Izenlagunak testuinguruaren arabera gauzatzeko moduak.....	117
2.2.1. Aditzik gabeko izen-sintagmak .....	117
2.2.2. Izen-sintagma perpaus batean txertaturik dagoenean.....	119
2.3. Noiz <i>-ren</i> eta noiz <i>-ko</i> ?.....	119
2.3.1. <i>-ren</i> eta <i>-ko</i> atzizkien bereizketarako erabili ohi diren irizpideak .....	119
2.3.2. Zalantzarik gabe <i>-ren</i> eskatzen dutenak .....	121
2.3.3. Zalantzarik gabe <i>-ko</i> eskatzen dutenak .....	123
2.3.4. <i>-Ko</i> zein <i>-ren</i> onartzen duten kasuak.....	125
2.3.5. Irizpide berriak <i>-ren</i> eta <i>-ko</i> atzizkien arteko bereizketarako...	128
3. Noiz <i>-dun</i> eta noiz <i>-ko</i> .....	133
3.1. Oinarri modura izena dutenak.....	133
3.2. Oinarri modura [izena + izenondoa] dutenak.....	135
3.3. Oinarri modura [zenbatzailea + izena (+ izenondoa)] dutenak .....	136

3.4. -ren + izena + -ko / -ko + izena + izenondoa + -dun . . . . .	137
3.5. Laburbilpena (-ko / -dun) . . . . .	138
3.6. -zko / -dun . . . . .	139
3.7. Bestelako aukerak . . . . .	140
4. -Tar atzizkia . . . . .	141
4.1. Oinarria, esangura eta eratorrien kokapena . . . . .	141
4.2. Erreferentziazko adjektibo tematikoak eta sailkatzaileak . . . . .	142
4.2.1. Erreferentziazko adjektibo tematikoak . . . . .	143
4.2.2. Erreferentziazko adjektibo sailkatzaileak . . . . .	144
4.3. -tar / aposizioa . . . . .	144
4.4. -ar bukaera duten erdal izenondo erreferentzialak . . . . .	145
5. Adjektiboen eta izenlagunen kateamenduak . . . . .	146
5.1. Izenarekiko distantzia: adjektiboak eta izenlagunak bereizteko beste irizpide bat . . . . .	146
5.2. Tasunezko eta erreferentziazko adjektiboen hurrenkera . . . . .	147
5.3. Izenlagunen hurrenkera . . . . .	148
5.3.1. Hurrenkera semantikak erabakitzen duenean . . . . .	148
5.3.2. Hurrenkera sintaxiak erabakitzen duenean . . . . .	149
5.4. Izenaren laguntzaileen artean erlatiboazko perpausak daudenean . . . . .	151
5.5. Izen baten bidez adierazten den ekintza edo gertaera espazioan kokatu behar dugunean . . . . .	152
6. Izen-sintagma gabe perpausa behar denean . . . . .	153
6.1. Izenlagunak modifikatu nahi dugun izenerako egokiak ez direnean . . . . .	153
6.2. Nominalizazioa edo adjektibazioa nekez onartzen duten testuinguruak . . . . .	154
6.3. Ekintzaren subjektua eta objektua adierazi nahi ditugunean . . . . .	155
7. Bibliografia . . . . .	155
<b>ZEHAZTASUNA ETA GARDENTASUNA . . . . .</b>	<b>159</b>
<i>Igone Zabala</i>	
1. Zehaztasuna: hizkuntza teknikoaren bereizgarria . . . . .	159
2. Hitzak polisemikoak dira eta terminoek aldiz, monosemikoak izan behar-ko lukete . . . . .	161
3. Teminoak gehienetan ez dira hitz bakarrekoak . . . . .	164
4. Maileguzaletasunak eta garbizaletasunak ez dute zerikusirik zehaztasunarekin . . . . .	167
5. Hitz elkartuen idazkera eta zehaztasuna . . . . .	173
5.1. Bi motatako eraikuntzei lotuta bi adigai ditugunean . . . . .	173
5.2. Adigai bakarra adierazteko bi motatako izen elkartuak aukeran ditugunean . . . . .	174
5.3. Oro har anbiguotasunik sortzen ez duten hitz elkartuak . . . . .	176

6. Eratorpena eta zehaztasuna.....	178
6.1. Ekintza- edota ondorio-izenak sortzen dituzten atzizkiak .....	178
6.2. <i>-Garri</i> eta <i>-kor</i> atzizki izenondo-sortzaileak.....	179
7. Erdal izenondo erreferentzialak eta zehaztasuna .....	183
8. Zehaztasuna terminologiatik kanpo .....	185
9. Ondorioak .....	187
10. Bibliografia .....	188



## Hitzaurrea

Lan sorta hau, jadanik euskara teknikoaren inguruan plazaratu diren beste zenbait lanen bide bera jorratzeko asmoa gauzatu da. Mota honeko lanen helburu-metodologiak behin baino gehiagotan aldarrikatu eta erabili ditugularik, hitzaurre honetan, bildu diren lanek dituzten berezitasunen berri besterik ez dugu emango.

Lehenengo lanean euskara teknikoan eta zehazkiago terminologian oso emankortasun handia azaltzen ari den *-kiko* atzizkiaren ezaugarri zehatzak eman dira, euskal literaturan nabari daitekeen usadioa aztertuz eta hizkuntzaren gaur eguneko erabiltzaile berezituak izan ditzaketen beharrak tradizio-ildo horretatik bideratuz. Lan honek, Euskal Herriko Unibertsitatearen diru-laguntza izan du, UPV 033.310-HA022/96 proiektuaren bitartez.

Bigarren lanean ere, literatur tradizioa hartu da abiapuntu, gaur eguneko testu teknikoetan instrumental edo partitibo deklinabide-atzizkia dararmaten menpeko perpausak euskararen erabilera berezitueta izan dezaketen ekarpena finkatzeko edota garatzeko. UPV 033.323-HA194/94 proiektuaren barruan diru-laguntza eskuratu zuen *Testu-Loturarako baliabideak* liburua hasia genuen jadanik morfosintaxi teknikoaren esparru honen azterketa. Lan hau, UPV 033.310-HA022/96 proiektuaren barruan ildo horretatik aurrera joateko egin den beste ahalegin bat izan da. Izan ere, proiektu horretan, izen-sintagma eta menpeko perpausak ziren helburu.

Hirugarren lanak, sorta honen lehenengo lanarekin batera eta aipaturiko UPV 033.310-HA022/96 proiektuaren barruan, izen-sintagmaren esparruari eutsi dio, hizkuntza teknikoak ekoizten dituen segida korapilatsuak aztertuz.

Laugarren lanak, hizkuntza teknikoaren muinean dagoen gaia jorratu du, oso lagungarria gertatuko den ikuspegi orokor bat eskaintzeko: erabilera berezitu honek behar dituen zehaztasun eta gardentasunaren bideak. Lan hau, 033.310-HA081/97 proiektuaren diru-laguntzari esker egin da.



# -*Kiko* atzizki konposatuaz<sup>1</sup>

*Jesus Mari Makazaga*

Euskal Herriko Unibertsitatea. Farmazia Fakultatea

## 0. SARRERA

Denok ezagutzen dugu euskarak duen baliabidea jatorriz adizlagunak diren formak izenlagun bihurtzeko. Adizlagunak sortzeko zenbait deklinabide-atzizkiri *-ko* erantsi besterik ez dugu egin behar horretarako.

Horrela, perpaus erlatiboen bidez osatu ditugun ondorengo sintagma hauek

- (1) Latinetik hartutako maileguak
- (2) Lagunarengandik jaso dudana gutuna
- (3) Etxera daraman bidea
- (4) Euskara batuari buruz egindako hitzaldia
- (5) Emakumeentzat antolatu diren Osasun Saioak
- (6) Harriz egindako etxea

eman ditzakegu *-ko* atzizkiaren bidez:

- (1') *Latinetiko* maileguak
- (2') *Lagunarengandiko* gutuna
- (3') *Etxerako* bidea
- (4') *Euskara batuari buruzko* hitzaldia

---

<sup>1</sup> Lan hau egiteko *Orotariko Euskal Hiztegiaren* corpusaz baliatu naiz. Horko datuak funtsezkoak eta oinarritzkoak izan dira niretzat. Datu horiek aukeratu eta biltzeko lanean UZEIko Miriam Urkia izan dut laguntzaile. Horregatik adierazi nahi diot lerro hauen bidez nire eskerro-na, lan hau ezinezkoa izango baitzen bere laguntzarik gabe. Horretaz gain, laguntza handikoak izan zaizkit Juan Carlos Odriozolaren, Beñat Oihartzabalen eta Igone Zabalaren oharrak. Guz-tiei, eskerrak.

- (5') *Emakumeentzako* Osasun Saiok
- (6') *Harrizko* etxea

Gauza bera egin dezakegu deklinabide-atzizki soziatiboarekin:

- (7) Nire lagunekin ditudan harremanak
- (8) Irakaslearekin izan dudan solasaldia
- (9) Nire familiarekin dudan lotura

-*Ko* atzizkiaren bidez —eta perpaus erlatiboko aditza ezabatuta— eman ditzakegu goiko hauek ere:

- (7') *Nire lagunekiko* harremanak
- (8') *Irakaslearekiko* solasaldia
- (9') *Nire familiarekiko* lotura

Artikulu honetan atzizki<sup>2</sup> —hala dei badiezaiokegu behintzat— edo atzizki-metaketa hau (soziatiboa + *-ko*) aztertuko dugu. Batetik, horren sintaxi-erabileraz arituko gara; hau da, orain arteko adibideetan bezala, izenlagun gisa bakarrik erabili behar den ala adizlagun gisa ere erabil daitekeen erabakitzen saiatuko gara. Beste era batera esateko, izen baten ezkerretara eta izen horrekin izen-sintagma osatuz (7'-9' bitartekoak, kasu) bakarrik erabil daitekeen ala aditzaren mende legokeen sintagma gisa ere erabil daitekeen. Adibidez, ondorengo egiturak:

- (7'') Estimatu handia dut *nire lagunekiko*
- (8'') *Irakaslearekiko* dudan errespetuak bultzatu nau hori egitera
- (9'') *Nire familiarekiko* dudan jarrera ez dute gogoko nire lagunek

Bestetik, esanahiari egingo diogu erreferentzia; alegia, *-kiko* zein balio edo esanahirekin erabiltzen den aztertuko dugu. Puntu honetan, ea soziatiboa erabiltzen den kasu guztietan *-kin* + *-ko* metaketa hori egin dezakegun argitzen saiatuko gara, hau da, edozein izenekin egin dezakegun operazio hori (*lagunekin egin dugun lana* → *lagunekiko lana*; *txakurrarekin datorren gizona* → *txakurrarekiko gizona*; eta abar).

Horretaz gainera, eta *-kiko*-ren erabilera azken aldiotan gero eta hedatuagoa egiten ari dela ikusirik —hauetako asko tradizioan izan ez dituen erabilerak dira—, erabilera horiek aztertzen eta euskaraz erabiliagoak eta arruntagoak izan diren egituren berri ematen ahaleginduko gara.

---

<sup>2</sup> Hala deituko diogu aurrerantzean era eroso batez aritzeagatik. Bestalde, *-kiko* aldaera erabiliko dugu normalean oro har soziatiboa + *-ko* atzizki-metaketari erreferentzia egin behar diogunean. Hedatuena delako hautatu dugu hori, baina bestelako erreferentzia geografikorik edo formari buruzkorik egiten ez badugu, aldaera guztiez hitz egiteko erabiliko dugu *-kiko*. Bukatzeko, genitibo-hondarraren berririk ez ematea erabaki dugu, *-(r)ekiko* edo areago, *-(r)e)kiko* bezalako zeozer lan honetan zehar hainbeste aldiz ez errepikatzekeo.



Beraz, kontua litzateke gaur egun hainbeste erabiltzen den atzizki honen erabilera zedarriztatzea edo finkatzea. Horretarako, orain arteko gramatiketan zer esan den, *Orotariko Euskal Hiztegiko* (OHE) datuetatik —literatur tradizioko datuetatik alegia— garai eta euskalki desberdinetako erabilerezer zer ondorio atera daitekeen eta azken urteotako testuetan (batez ere testu teknikoetan) nola erabili den aztertzen saiatuko gara. Hori egin ondoren, eta ahal dugun neurrian, ondorioak edo gomendioak ateratzen saiatuko gara, hizkera arrunteko nahiz teknikoko erabileretan.

## 1. -KIKO ATZIZKIARI BURUZKO LITERATURA

Oro har, ez da euskal gramatiketan aipamen luzeegirik egin *-kiko* atzizkiari buruz. Atzizki hori zehazki aztertu baino gehiago, *-ko* atzizkiaren erabilerak aztertu dira; horien artean, *-ko* hori soziatiboari erantsiz lortzen dugun *-kiko*, noski. Edozein kasutan ere, biak elkarri lotuak daudenez, bien azterketan egin diren aipamen eta aurrerakuntzen berri emango dugu ondorengo lerrootan, laburki bada ere.

R.L. Traskek (1985) bere lanean erakusten digu *-ko* atzizkiaren azterketak gure gramatika eta gramatikariaren artean izan duen ibilbidea. R.M. Azkuek bere *Morfología Vasca*-n (1923-25) birdeklinaketa moduko bat onartzen zuen eta zenbait deklinabide-atzizkiri izan ezik *-ko* atzizkia gaintzeko edozein deklinabide-markari jarraiki ahal zitzaioela defendatzen zuen. Salbuespenak ergatiboa, datiboa eta inesiboa ziren.

Pierre Landhek bere hiztegian (1926) interpretazio zorrotza egin zuen *buruko* hitza *buru* + *-ko* analizatu beharrean *buruan* + *-ko* analizatuz. Ez zuen, ordea, analisi honek eragin handiegirik izan euskalariaren artean.

Sebero Altubek bere *Erderismos*-en (1929) *-ko* atzizkiaren analisisia alde batera utzi eta zenbait adibide ematen ditu: *ume lotsa-galduko hori*, *osasun ederreko mutila*, eta abar.

Rene Lafonek (1965), berriz, *-ko* atzizkia genitibotzat hartzen zuen eta egin zituen saiakerak *-ko* eta *-ren* atzizkien arteko bereiztasuna identifikatzen ahalegindu ziren.

Pierre Lafittek (1944) *hiriko* hitza *hirian* + *-ko* zatietan banatzen du; hala ere, Trasken ustez egokia ez den lekuan, kasu-atzizkien artean, sailkatzen du *-ko* atzizkia.

Koldo Mitxelenak (1972) ere jakinarazi zigun *mendiko* formaren azpian zetzana *\*mendiango* zela (euskal literatura zaharreko formak ere eman zitzigun: *barruangoak*, adibidez). Honekin bi aspektu argitzen ditugu Trasken ustez. Izan ere, inesiboarekin loturik aurkitzen dugu *-ko* atzizkia, era horretan esplikatzuz zergatik ez dugun aurkitzen *-ko* atzizkia inesiboari loturik, formalki bederen; gainera, esplikatzen ahal dugu nondik datorren *-ko* atzizkiaren lekuzko esanahia: ez atzizkitik bertatik, azpian duen inesibotik baizik. Hala ere, Trasken esanetan, ez du *-ko* atzizkiaren

barneko natura ikertzen, ez eta ez digu esaten ere zergatik erantsi ahal zaion atzizki hau ia edozer gauzari.

Hurrengo pausu garrantzitsua Patxi Goenagak (1978) emango du ondorioztatuz *-ko* atzizkia adizlagunei eranstean zaiela izenlagunak eratorriz.

- (10) Gizona mendian dago → Mendian dagoen gizona → Mendiko gizona
- (11) Trena Bilbora doa → Bilbora doan trena → Bilborako trena
- (12) Nik zurekin harremanak ditut → Zurekin ditudan harremanak → Zurekiko harremanak

Traskek berak lanaren bukaeran *-ko* izenlagun sortzaileaz gain beste *-ko* bat ere badela azaltzen digu. Bigarren *-ko* hori eratorpen-atzizkia litzateke, *-dun*, *-tsu*, *-kor*, *-koi* eta abar bezalaxe. Hauek bezala, *-ko* ere izen-multzoari erantsiko zaio eta ez, aurreko kasuetan bezala, adizlagunari. Adibidez:

- (13) Osasun ederreko mutila
- (14) Hiru urteko umea
- (15) Bihotz biguneko andrea

Trasken planteamendua jasotzen du Euskaltzaindiaren *EGLUk* (*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*) ere bere *EGLU I*-en eranskinean. Bi *-ko* be-reizten dira hemen ere: bata adizlagunak izenlagun bihurtzen dituen (*Linguistikari buruzko liburua da hau; Ene amarekilako maitasuna samurra da; Amarentzako erregalua duzu hori*) eta bestea izen multzoaren gainean eraikia (*Hitzeko gizona, Begi urdineko neska*). *EGLU I*-ean, ordea, lekuzko deklinabide-atzizkien artean sailkatua agertzen da *-ko* atzizkia. Hori da, hain zuzen ere, Traskek eta geroago R. de Rijkek (1998) erabaki gal-garrizat jotzen dutena.

Azken hizkuntzalari holandar honen iritziz, *-ko* atzizkia adizlagunei, eta hauei bakar-bakarrik, eranstean zaien atzizkia da. Nola esplikatzen ditu, bada, izen-multzoari ere eranstean omen zaien *-ko* atzizkidun kasuak (*Jantzi gorriko gaztea; Begi urdineko neska bezalakoak*)? Hauek ere azpian adizlagundunak direla dio de Rijkek. *-Ko* eranstean zaien zenbait deklinabide-markarekin (inesiboa, elatiboa, adlatiboa, sozatiiboa eta instrumentala) gertatzen omen da batzuetan oinarrizko deklinabide-marka horien isiltzea. Adibidez:

- (16) Har ezazu nire *bihotzetikako* agurra →
- (16') Har ezazu nire *bihotzeko* agurra
- (17) *Zerutikako* ogia →
- (17') *Zeruko* ogia
- (18) *Bilborako* autobusa →
- (18') *Bilboko* autobusa

Gauza bera gertatzen dela dio sozatiiboarekin ere:

- (19) Ez da bihotzaldi *handiekiko* poeta →
- (19') Ez da bihotzaldi *handiko* poeta

- (20) Jantzi *gorriarekiko* gaztea →  
 (20') Jantzi *gorriko* gaztea<sup>3</sup>

Juan Carlos Odriozola eta Igone Zabalak (1992) ere izen-sintagmari eskaintako lanean *-kin* adizlaguna eta *-kiko* izenlagunaren arteko erlazioa aztertzen dute, beste adizlagunezko kasu-markekin batera. Soziatiboa *-kiko* bilaka daitekeela diote bi norabideko harremana dugunean. Adibidez,

- (21) Gurasoekin beti egon dira harreman pitxiak  
 (22) *Gurasoekiko harremanak ...*  
 (23) Tenperaturarekin, oso dependentzia estua du  
 (24) *Tenperaturarekiko dependentzia ...*

Ezinezkoa da, ordea, soziatiboaren beste erabilera batean izenlagun bilakatzea. Adibidez, laguntza fisikoa adierazten denean:

- (25) Zinemara Joan naiz Mikelekin  
 (26) ??*Mikelekiko* joanaldia (zinemara)

Azkenik, bi lan ditugu espreski *-kiko* atzizkia aztertzen dutenak: Beñat Oihartzabalena (1994) eta Miren Azkaraterena (1995). Hauetan bietan *-kiko*-ren balioen eta erabileren berri (iparraldekoak zein hegoaldekoak) ematen da laburki adieraziz izenlaguna izan dela batez ere tradizioan eta galdera eginez gaur egun hedatuak diren zenbait adizlagun-egituraren gramatikaltasunaz:

- (27) ? Errespetu handia zuen *lehendakariarekiko*  
 (28) ? *AEKrekiko* zabaldu diren komunikazio kanal berriek hori adierazi dute  
 (29) ? Gorrotoa sentitzen zuen *lagunekiko*

Jakina, galdera horri erantzuteko OEHko datuetara jo beharko dugu, *-kiko*-ren erabilera finkatzen lagunduko gaituen itxaropenarekin jo ere. Datu horiek aztertu ondoren bakarrrik erantzun ahal izango diogu galdera horri eta *-kiko*-ren erabileraz egokitzen zaizkigun beste zenbaiti.

Bukatzeko, gramatikez gain, estilo-liburuetan ere egiten dira, laburrak izanik ere, aipamenak *-kiko* atzizkiak.

*Euskara hobean hobe* liburuan (1985), adibidez, beste adizlagunen deklinabide-atzizkiekin batera soziatiboarena ere ematen dute *elkarrizketa*, *tratu*, *lotura*, *burruka* edo *elkartasuna* bezalako izenekin lotura egiteko (*Semeak gurasoekiko lotura hautsi du; Etsaiekiko burruka; Lagunekiko elkartasuna...*).

---

<sup>3</sup> ■kusi era berean liburu honetan izen-sintagma konplexuei buruz Zabalak eskaini digun lana.

EITBren esku-liburuan (1992) *-kiko* hori sustantiboekin lotzeko erabiltzen dela bakarrik (*Ordezkariekiko bilera*) aipatzen da, Euskaldunon Egunkariarenean (1993) ez bezala atzizkiari inolako marka negatiborik ezarri gabe. Izan ere, azken honetan adibide bat bi eratara ematen dute eta «artifizialtasun»-marka ezartzen diote *-kiko* atzizkia duenari.

(30) Estatu Batuek *Libiarekiko* harremanak eten dituzte<sup>4</sup>

(31) Estatu Batuek harremanak eten dituzte Libiarekin

Bi adibide hauen artean bigarrena (31. adibidea) jotzen dute euskaraz arruntagotzat eta hobestekotzat, bestea (*-kiko*-duna) kasu honetan eta beste zenbaitetan behartuegia geratzen dela adieraziz. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da estilo-arazoa dela hori eta ez gramatikaltasuna ikutzen duena. Estiloaren aldetik egokiagoa ikusten da (31) adibidea, bestea, (30)koa, inolaz ere txartzat eman gabe gramatikaren ikuspuntutik.

## 2. SOZIATIBOA + *-KO* METAKETAREN ALDAERA DESBERDINAK

Euskal literatur tradizioan aldaera desberdinak izan ditu soziatiboa + *-ko* metaketak, aldaera geografikoak direnak batez ere.

Ekialdeko testuetan *-kilako* forma da ia gehienetan erabiltzen dena, zenbait kasutan mendebaldean eta batez ere gipuzkeraz erabiliena den *-kiko* forma ere erabiltzen baita. Bizkaierazko testuetan *-gazko* forma ere erabiltzen da *-kiko*-rekin batera.

Hiru forma nagusi horien ondoan (*-kilako*, *-kiko* eta *-gazko*) aurki daitezke metaketaren emaitza desberdinak; hala nola, *-kingo* eta *-kinko*. Nolanahi ere, oso erabilera urrikoak lirateke aldaera hauek.

Ekar ditzagun hona aldaera desberdin horien zenbait adibide, *-kiko* (32-33), *-kilako* (35-38), *-gazko* (39-43), *-kingo* (44-48) eta *-kinko* (49) dutenak

---

<sup>4</sup> Egia da soziatibotik (eta elatibo eta motibatibotik) sortzen diren izenlagunak ez direla adizlagun-aldaerak bezain arruntak eta nonbait hizkera jasoagoari dagozkiola. Hala ere, berdin azpimarratu behar da adizlagun/izenlagun aukera bikoitza ez dagoela joskera- edo esangura-testuinguru guztietan eskuragarri. Hori dela eta, testuan ikusia dugu (25)eko adizlagunen ordezkere jar daitekeela (26)ko izenlaguna. Era berean, izenlaguna da aukera bakarra euskal gramatikaren zenbait gunetan.

- (i) a Libiarekiko harremanaz mintzatu dira informabideak behin eta berriro
- b \*Libiarekin harremanaz mintzatu dira informabideak behin eta berriro
- b' \*Libiarekin harremanak
- c \*\*Harremanaz (Libiarekin) mintzatu dira informabideak behin eta berriro
- c' Harremanak Libiarekin

(i)ko frogak, ondorio berberak emango lituzke literatur tradizioko hainbat eta hainbat kasutan azaldu diren *-kiko* / *-kilako* / *-gazko* izenlagunen ordezkere adizlaguna ezarriko bagenu: ikusi adibidez (32-48)koak.

- (32) Betiko eten bagenituen *elkarrekiko adiskidetasunak*? (A. Barriola, *Goi Argi*, 51)
- (33) Euskal eta erdal hitzak zifraz markatuak dato, ohi bezala, batzuen *besteekiko harremanak* erakusteko, baina erdarazkoak 5arekin bukatzen dira, euskarazkoak 7raino heltzen diren arren (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak* VII, 100)
- (34) Horrelakoak gizartean gertatzen dira, jendartean, *elkarrekiko tratuan* (*Ibidem*, VII, 42)
- (35) Baina mediumekiko batzarre haboroenetan, bitariko fenomenuak nahastuta gertatu ohi dira (J. Mirande, *Miranderen Idazlan hautatuak*, 320)
- (36) *Elgarrekilako batasuna* da hari emaiten dioena edertasuna, indarra, balhorea (M. Duhalde, *Meditazioneak*, 126)<sup>5</sup>
- (37) Iñazio gelditzen da *harekilako solaser* denbora gehiagoren emaita gatik (F. Laphitz, *Bi saindu eskualdunen bizia*, 82)
- (38) Zonbat argi, zonbat grazia, zonbat kontsolazione etzituen izaiten *harekilako konbertsazionean!* (Jauretche, *Meditazioneak*, 360)
- (39) (...): *etsai izigarriarekilako gudu beltzean*, ez bide da izan gure herri-tarrak bezalakorik zango-besoz, begiz, hatsaz, asmuaz, beldurrik gabeko gemen iraunkorraz (J. Etchepare, *Beribilez*, 100)
- (40) Gizon nai giza-aldra bakotxak *besteakazko artu-emonetan* alkarri zor dauksen zuzenbidea, gizabatz osoak bazkide bakotxari zor dauztana baño askoz be ertsi ta estuagoa da (J. Eguzkitza, *Gizarte-Auzia*, 179)
- (41) Gogoen lokarri ta lotzaiki *alkargazko maitasun* da (*Ibidem*, 190)
- (42) Alan sendatzen zan *Josegazko maitasuna* (J.M. Etxeita, *Josetxo*, 46)
- (43) *Josetxogazko batzarrak* bakarrik salatzen ebazan (*Ibidem*, 220)
- (44) Aren buruko uleak, ez zan guzurra, bien bitartean, ez eben egundaino orraziagaz *alkarregazko tratu edo itunerik* egin, esatekorik beintzat (E. Erkiaga, *Batetik Bestera*, 34)
- (45) Arrezkero ez zan giro izango *erekingo artu-emonetan* (J. San Martin, *Zirikadak*, 29)
- (46) Nekazaritza lan gogorra da *lurrarekingo burruka*, bizitza onek aitona zarrok oso aspertuak gauka, (...) (G. Anduaga, *Aitonaren Uzta*, 112)
- (47) Bigarren, batelarixak esan zetsen, *nerekingo kontu ori* banaka amaittu biarko dozuela (T. Etxebarria, *Ibiltarixanak*, 455)
- (48) Jakizu, ezertara ausartzen bazara, ez dotela besterik gura nere senarra baño, eta *nere zurekingo jardunak* txantxetakuak izan diran eta barre eraitteko! (*Ibidem*, 478)
- (49) Eta nere zintzotasunak agintzen zestan erantzuna emonarren, zazkar ari, aiiñ artu detsat gorrotua eta ikusi-eziña, geixago ezin detsat arpegira begiratu; eta au izanda errazoia nere gelan ezkutatzeko *zurekingo gozamena* galdurik, egun onetan (*Ibid.*, 479)

---

<sup>5</sup> Literatur tradizioko adibideak jasotzean liburuen izenburuetako grafia eguneratu egin dugu; horrekin batera izenburu luzeak laburtu ere egin ditugu irakurlea gehiegi ez nekatzeko. Liburu horien grafia originala eta izenburu osoak ezagutu nahi duenak *Orotariko Euskal Hiztegi*ko aurkibide bibliografikora jo besterik ez du.

### 3. LITERATUR TRADIZIOKO ERABILERA

Aldaera nagusitzat joko ditugun hirurak aztertuko ditugu hemen, *-kiko*, *-gazko* eta *-kilako*, alegia. Aldaera bakoitzaren azterketaren barnean irizpide bateratuak erabiltzen saiatuko gara.

Azterketarako lehen irizpidea formari buruzkoa izango da. Horren arabera, aldaera bakoitzaren izenlagun eta adizlagun erabilerak (azken hau izango balu) bereiziko ditugu hasieran.

Ondoren, eta bigarren irizpide bezala, izenlagun eta adizlagun erabilera horien barnean esanahiaren araberrako azpisaikapen bat egiten saiatuko gara. Ez zaigu iruditzen oso erraza azken zeregin hau eta kasu batean baino gehiagotan zalantzak sortuko zaizkigu; izan ere, irristakorrak iruditzen zaizkigu balio edo esanahi desberdinen arteko mugak. Horregatik —baita ahalik eta informazio gehien eman nahi izan dugulako ere— bildu ditut hona zenbait irakurle neka ditzaketen hainbeste adibide. Nolanahi ere, irakurleak informazio gehiago eskuratzeko modua du era honetan; hartara, zalantza edo desadostasuna lukeenak berak egin lezake bere sailkapen propioa. Aitzitik, hartarako interesik ez duenak, adibide guztiak irakurri gabe ere egin dezake aurrera artikulua dena galdu gabe.

Azpisail desberdinen izenburua jartzea ere nahikoa zaila izaki, ez zaigu hori hain inportantea iruditzen egindako sailkapenaren zentzuarekin konparatzen badugu behintzat.

Gatozen, bada, aldaera desberdinen azterketarekin.

#### 3.1. *-Kiko*

Literaturako datuak aztertu ondoren, aldaera honek bai izenlagun bai adizlagun erabilera izan duela ohartzen gara. Lehen erabileratik hasiko gara.

##### 3.1.1. IZENLAGUN ERABILERA

###### 3.1.1.1. *Bi norabideko erlazioa. Oinarrian -kin deklinabide-atzizkia duena*

*-kiko*-ren erabilera honek oinarrian *-kin* deklinabide-marka duen perpaus erlatibo bat izan dezake (*zurekin dudan tratua* → *zurekiko tratua*). Bi norabideko erlazioa adierazten duten izenak mugatzen ditu *-kiko*-k. Hauxe da *-kiko*-ren erabilerarik zaharrena eta erabiliena, gaur egunera arte ere erabili izan dena.

Hona hemen lehen erabilera honetan *-kiko* atzizkiaren segidan agertzen diren izenak:

(i)	harreman	hartu-eman	lotura
	lokarri	elkarrekintza	tratu
	batzarre	jardun	ibilaldi
	ibili	mintzo	elkarriketa
	elealdi	bizitza	adiskidetasun
	elkargo	solas	elkarganitze
	batze	batasun	ahaidetasuna
	lagunarte	guda	borroka
	borrokaldi	...	

Erlazioa bi norabidekoa dela adierazten duen *elkar* izenordain elkar-karia ere ageri zaigu adibide askotan.

Beraz, erlazioaren bi norabidekotasuna berekin duten izenak (goiko zerrendakoak) agertuko zaizkigu erabilera honetan eta ezaugarri hori hala-beharrez<sup>6</sup> ez duten izenak ere, baina izenordain elkarkariaren (*elkar*-en) laguntzarekin azken hauek.

Ekar ditzagun hona *-kiko*-ren lehen erabilera honen zenbait erakusgarri:

- (50) Ezen zure konsolazioneak eztira gizonen *elkarrekiko solhasak* bezalakoak (S. Pouvreau, *Iesusen Imitazionea*, 216)
- (51) Eta ni hartara iarten ezpanaiz (...) ezin duket barreneko bakerik eta dagokeien bihotzeko finkamendurik, ez eta espirituzko argimendurik ez eta *zurekiko batasun osorik* (*Ibidem*, 191)
- (52) Orai ere ikusten dugu senhar, emazte, haur, adiskide batzuk, (...), milla egiteko manera tilletsu iauntsten tuztela *elkharrekiko adiskidetasunaren tratuetan*, edo elkharri amori eginez, edo batak bertzeak bezala egin nahiz (S. Pouvreau, *Philotea*, 312)
- (53) Ez tute beraz zer arrankuratu *bestiekiko konparazinoaz*? (Etxeberri Sarakoa, *Obras vascongadas*, 172)
- (54) Berboen konjugazinoak eta hekien ondoko *kausekiko komunztadurak*, zein diferentak diren ikhusi duzu, noiz eta ere mintzatu baitgara eskuararen zuhurtziaz: (...) (*Ibidem*, 128)
- (55) (...): eta bien *alkarrekiko amore onen* bitartez dator Aitagandik, ta Semeagandik, batarekin, ta bestearrekin berdin dan, Espiritu Santua (J.A. Ubillos, *Kristau doktriñ berri-ekarlea*, 126)
- (56) (...) ta ez du hau egiten bere konfesioa egin ondoan bere bizian egin bear duena egin balu bezain lasai bizi denak eta begitan arzen ez duenak bakatu berrirako bidea ta *lagun gaiztoekiko ibillkunz galgarria*,

<sup>6</sup> Zerrendakoen artean, badira norabide bakarreko esangura adieraztea daukatenak (i).

- (i) a Izaskunek Jonekiko adiskidetasuna sumatzen du bere baitan, baina Jonek ordea, ez du gauza bera sentitzen
- b #Izaskun eta Jonen elkarrekiko adiskidetasuna
- (ii) a Izaskunek Jonekiko adiskidetasuna sumatzen du bere baitan, eta Jonek gauza bera sentitzen du
- b Izaskun eta Jonen elkarrekiko adiskidetasuna

3112. sailean ikusiko ditugun izenek, (i) aukera baizik ez dute.

- ez eta gauz onak onen gain egiñez graziaren bizte berrian sendorzen ez denak ere (S. Mendiburu, *Idazlan Argitaragabeak I*, 296)
- (57) Hau da lenago berak adirazi zien gauza, esaten ziela: Anitz luzatu bage bukatuko dira *nere zuekiko egonzak* eta gordeko naz zuen begietatik; (...) (*Ibidem*, 315)
- (58) *Baso-aberekiko indarleietan* ere, gain gañekoak dira Gipuzkoatarrak (J.A. Iztueta, *Gipuzkoako Probintziaren Kondaira*, 247)
- (59) Geroztik ere itzpide au aipatua izan zan berriro milla zazpi eun irurogei ta amabigarren urtean Hernaniko Errian *Probinzia guztiarekiko Batzarrean*; (...) (*Ibidem*, 118)
- (60) Utzi *urliarekiko adiskidetasun anima galgarri ori*: utzi etxe ori, non galdu dezun zere anima (J.A. Agirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 601)
- (61) Juduak eta Samaria'rrak Erlejioko gauza askotan bat etzetozen; beragatik *elkarrekiko artu-eman eta adiskidetasun* andi gabe bizi ziran; (...) (F.I. Lardizabal, *Testamentu Zarreko ta Berriko Kondaira*, 376)
- (62) *Filistin'tarrakiko gerrak* bukatu ziranean, Dabid'ek iñoren ere bildurrik etzukan (*Ibidem*, 204)
- (63) Animak garbi jarri ditzagun al bada kristau guziyak, / eta irabazi gogor egiñaz *etsaiakiko auziyak*; / pekatutikan zer datorkigun ondo gaude ikasiyak, / gero damurik ez du izango munduan ondo bizi yak, / orretarako lagun deigula Jaungoikuaren graziyak (Xenpelar, *Xenpelar bertsolaria*, 347)
- (64) *Lagunakiko tratabidea*, lagunarte galgarriak eta komedi eta ikuskari periltuak uzten badituz, basati bat egiñ naizela, esango dute (G. Arrue, *Mayetzeko illa*, 068)
- (65) Nola nebilke *arekiko artuemanik* gabe? (T. Agirre, *Uztaro*, 194)
- (66) *Mutilarekiko ibilliak* kilikatzen zioten biotza (*Ibidem*, 258)
- (67) Betiko eten bagenituen *elkarrekiko adiskidetasunak*? (A. Barriola, *Goi Argi*, 51)
- (68) Iskillua soldadu edo gudariarentzat bezala da otoitza kristauarentzat, *etsaiekiko borrokaldietan* eskutik utzi ez ditteken gauza (D. Inza, *Kristau Ikasbidearen Azalpena*, 124)

### 3.1.1.2. *Norabide bakarreko erlazioa (gaztelaniazko «para con», «en relación a» preposizio-sintagmen pareko izan daitekeena)*

Lehendabiziko erabilera ez bezala, bigarren honetan norabide bakarrekoa da izen-sintagmako bi osagaien arteko erlazio ezinbestekoa. Horrez gain, lehendabizikoak parafraseatzeko *-kin* deklinabide-marka erabil zitezkeen bezala, oraingo honetan ez dago hain argi *-kin* deklinabide-markaren bidez egin dezakegun. Gehiago litzateke destinatibo kutsuko erlazioa. Gaztelaniazko «*para con*», «*en relación a*» edo «*con respecto a*» preposizio eta preposizio-sintagmen ordain gisa erabiltzen ditugun egituren parekoa litzateke *-kiko*-ren erabilera hau.



Bigarren erabilera honetan, beraz, norabidea alde batetik besterakoa bakarrik dela adierazten duten izenak ditugu, sentimenduzkoak dei genitzakeenak Hala nola,

(ii)	eginkizun	obligazio	ardura
	behar	errespeto	esker
	eskubide	eginbide	karitate
	miserikordia	zor	bihozperatasun
	pena	zitalkeria	itzal
	kreditu	estimazio	honra
	lanbide	egiteko	obedientzia
	gurari	egintza	beldur
	amorio	debozio	jaiera

Alegia, *Nire Jainkoarekiko eginkizunak* edo *obligazioak* esatean, erlazioa norabide bakarrekoa dugu; nik ditut Jainkoarekiko eginkizunak kasu horretan, eta ez gara ari, nire eginkizun horietaz gain, Jainkoak nirekiko izan ditzakeenez.

Balio destinatiboa-edo duela esan dugu gorago, eta baliteke horregatik izatea erabilera hau, aurrerago ikusiko dugun bezala, adizlagun gisakoa bilakatzeko erraztasuna.

- (i) [Jainkoarekiko eginkizunak] ditugu → [Eginkizunak] ditugu [Jainkoarekiko]

Askotan aurkitu ditugu bikoiztapen honen adibideak literatur tradizio-ko testuetan.

Kronologiari erreferentzia egiten badiogu, aurreko erabilera baino berrixeagoa dela esan daiteke honako hau, XVIII mendetik aurrerakoa.

Ekar dezagun zenbait adibide:

- (69) Ekusten dezu nolakoa lendabizitik ere S. Francisco Xavieren *eri gaisoekiko urrikaltza?* (S Mendiburu, *Idazlan Argitaragabeak II*, 345)
- (70) Esan begit, zeñetan *Jesusen biotzarekiko debozioaren* gaia obeto, ederkiago, gozoroago berezia dagoan, zuzendua, ta apaindua? (M. Larramendi, *Carta a Mendiburu*, 278)
- (71) Erein dezu Jesusen *biotzarekiko jaiera* Euskalerrietan; (...) (*Ibidem*, 280)
- (72) Dotrinaren puntu txit bearrak dira, umeak Jainkoaren bildur santuan azitzeko legeak: Guraso, ta familia-buruak oriek ondo zuzentzeko, eta umeen *Gurasoakiko amorio, obedientzia, ta errespetoaren obligazioak*: (...) (A. Kardaberaz, *Euskeraren Berri Onak*, 54)
- (73) Berak mundurako pobreak, baña *Jainkoarekiko birtuteetan* txit aberatsak ziran (A. Kardaberaz, *Ejertzizioak*, 178)
- (74) Zenbat birtutetan dago Erljioa edo Kristauaren *Jainkoarekiko egin bide, ta egiteko* guzia? (J.A. Ubillos, *Kristau Doktriñ Berri Ekarlea*, 123)
- (75) Zer izango da, bada, *bere artaldearekiko lanbideak* egindakoan, mendian geldirik egon bear daben artzainarentzako au baino irabazbide eroagorik aifñ denpora gitxirako? (J.I. Izueta, *Gipuzkoako Pro-bintziaren Kondaira*, 158)

- (76) 2a galdu eragiten dio zenzua, eta juizioa, eta tontatzen du Kristaua; (...); eta galtzen du *jendeakiko kreditoa, estimazioa, eta honra* (J.I. Guerrico, *Saiakera II*, 62)
- (77) Gaitz-bide edo eskandaloko pekatua *Jaungoikoarekiko zor* guziz andia da (G. Arrue, *Mayetzeko Illa*, 64)
- (78) Gure aberriaren adiskide ta *arerioekiko zure gurariak*, oietxek dira, ziñez (J. Zaitegi, *Sopokel'en Antzerkiak*, 166)
- (79) *Illarekiko eskubiderik ez al dut?* (*Ibidem*, 43)
- (80) Jaungoikoaren aginduetaz geiago: *Jaungoikoarekiko ta geidiarekiko eginkizunak* (*Kristau Ikasbidea Gipuzkoako Euskeraz*, 38)
- (81) *Gorputzarekiko erruki egintzak* oiek dira: Lenengoa, eri daudenak ikustera joatea; Bigarrena, (...) (*Ibidem*, 65)
- (82) Gure lagun urkoai *anima ta gorputzarekiko bearretan* laguntzeko, dira erruki-egintzak (*Ibidem*, 65)
- (83) Espiritu Santuaren Emaitzak, zazpi dira: Lenengoa, (...); Seigarrena, *Jaungoikoarenkiko biozperatasuna*, Zazpigarrena, *jaungoikoarekiko bildurra* (*Ibidem*, 22)
- (84) (...) eta lurrean dauden beste lagun urkoentzat Jaunaren laguntza ugari beren bearretarako ta induljentzien bidez ta beren *Jaunarekiko zorrak* garbitzea ere bai (D. Inza, *Kristau Ikasbidearen Azalpena*, 105)

Bestalde, *-kiko-k* mugatzen duen izenaren elipsia egin ondoren geratzen zaigun egitura oso errotua dugu euskal literaturan: *Norbaitekikoa(k) egin Kasu honetan Zurekiko (obligazio, betebeharrak, zor, eginkizun,...)-ak egin ditut* litzateke oinarritzko egitura.

- (85) *Aitarekikoa* Jakob'ek onela egin bazuen ere, ez ordea anaia Esau'ren aierkunea itzali (F.I. Lardizabal, *Testamentu Zarreko ta Berriko Kondaira*, 34)
- (86) *Mandatariarekikoa eginda*, Juez-aulkira itzuli zan, eta Jesus bere ondoan artuta, iskanbillan ziardun jendeari galdetu zion: Zein nai dezute, eman dizazutedan? (*Ibidem*, 453)

### 3.1.1.3. *Izen konkretuak mugatuz*

XIX mendetik aurrera zenbait autorengan (ez askorengan, egia esan) agertzen hasten da deskribapenak egiteko-*kiko* atzizkiaren erabilera. Hala-koetan izen konkretuak mugatuz agertzen zaigu atzizkia (*jende, emakume, gizon, zuhaitz, kutxa, etxe, janari, erreka, gauza, toki, lantegi, tropa, gurdi* eta abar).

Hegoaldeko euskaran ohikoagoak diren egitura batzuen baliokidea litzateke *-kiko*-ren erabilera hau; hala nola, *-dun* edo *-ko* atzizkiak nahiz *edun / ukan* aditzaz baliatuz egindako perpaus erlatiboak. Iparraldeko euskaran, *-kilako* aztertzean ikusiko dugun bezala, badirudi halako egiturak hegoaldean baino askoz ere ohikoagoak direla.

Adibidez, *hosto berdeekiko zuhaitza* bezalako bat hartzen badugu, goian eman ditugun egitura baliokideak erabil ditzakegu horren ordez:

*hosto berdedun zuhaitza* edo *hosto berdeak dituen zuhaitza* esan dezakegu, *-kiko-z* baliatuz egin duguna baino erabiliagoak biak, zalantza izpirik gabe.

Hona hemen *-kiko*-ren erabilera ezohiko honen adibide guztiak (OEHko corpuseko guztiak bederen):

- (87) Beragaitik izaten zeban onek ain jaso andia España barrura, ikusi izan ditugun bezala askotan *Dunba andiarekiko mando* erreskada luze Gaztelakoak, Arritzagan atera eta landutako kobre txapa ederrakin di-jotzela (*Ibidem*, 68)
- (88) Iturri onetako urak sendatzen ditu *eritasun andiakiko (jende, lagun) asko*, eta batez ere legendar zikin, eta maizanre likitsakin tortikaturik daudenak (*Ibid.*, 81)
- (89) (...) jendea ornidutzeko daukate bi iturri gertuan, (...); zeintzuk egi-ñerazten dituzten *beren izenakiko erreka bi*, eta oek batutzen dira, Txaparenea, Zususpe, Lasao, Mapillerreka, ta Saria esaten zaitotena-kin; (...) (*Ibid.*, 105)
- (90) Ez det esaten nik, ez eta esan nai ere, Gatzagako mugapea, Leniz-ko Ibarra eta Hernioko mendia ez daudela zuaitzez ondo janziak, baizikan, badirala Gipuzkoan *baso ugariagoakiko tokiak*, (...) (*Ibid.*, 135)
- (91) Edozeñek daki, bada, Probinzia onetako *jaiotarrak* berenez dirala gor-putz liraiñ, gálant, *larmintz me zuri-gorri ederrakiko osasuntsuak*; er-berestekoai arpegiera ona egiten dakitenak; (...) (*Ibid.*, 213)
- (92) Bizileku txikitxo onetan eukitzen dituzte agiri agirian beren janariak, egiten dituzten gaztaiak, eta izaten dituzten diru apurretarañokoak, aiñ seguru ta osotoro, nola *burniazko kutxa lodi giltza askorekiko ba-tean* gordeak izango lirakean (*Ibid.*, 225)
- (93) Nork ez daki, bada, munduaren lendabiziko adiñetik diradela emen ezarri ditudan *izenakiko gauza guztiak?* (*Ibid.*, 236)
- (94) Don Juan de Idiakez, seme Don Alonsorena, Felipe bigarren eta iru-garrenaren goarpelari onbidekoa, (...), izan zan *gizon arretatsu eta oitu-ura onakikoa*; (...) (*Ibid.*, 462)
- (95) Milla seieun ta amalaugarren urtean eraman zeban Flandesa *Eskuadra bat ogei ta bi ontzirekikoa* tropa leorreratzeoakin; (...) (*Ibid.*, 482)
- (96) Gatza txit asko gustatzen zaio abereari, eta txit on egiten dio pixkatxo batek; zergatik *gatzarekiko jana* askoz obeto digeritzen da, eta gatza jaten duen aberearen aragiak du askoz gusto ohea (A. Iturriaga, *Diá-logos*, 57)
- (97) Senako erriaren inguruan arkitzen zan Rabaquianoko etxe-santua; aruntza eldutzian, bideko makillatxua sartu zuan lurrian, zeña bigara-mun goizerako egin zan *aritz osto berdekiko zuaitz aundi ta üzaltsu* (C. Beovide, *Asisko Loria*, 174)
- (98) Plaza zabala, baño *bea bakarrekiko etxeak* (A. Anabitarte, *Aprikako Basamortuan*, 26)
- (99) *Zaldi bakarrekiko gurdia* zan, gañean oial zuria estalgarritz itzalean egoteko (*Ibidem*, 27)

- (100) Goizean jeikita, gidaria etorri baño len, hotelari kanpotik begiraldi bat egin nion: *etxe* polita, leku bakarrean, *lur-bizitza* bakarrekikoa, etxe luzea, zuria, Sudango erara egiña, ondarra ta palmera batzuk inguruan, eskallera ederrarekin sarreran (*Ibidem*, 43)
- (101) Berrogeita lau urteko *etxe*koandre maratz, txukun eta langillea zan, argala ta zaintsua, *bular apalakikoa*, baiñan arpegiz legun eta mardula (Y. Etxaide, *Joanak Joan*, 27)
- (102) *Tobera munstra izenekiko antzekizunetan* nor naik ar zezakean parte ta ortaratzen ziran guziak, bi gazteen artean makil batekin egindako zubipetik igaro bear zuten lerro-lerro euren arteko itunaren sendogarriztat (*Ibidem*, 172)
- (103) Ondoren, musikalariai jarraitzen zitzaizkion txirula ta ttuntunarekin eta beroen laguntzalle *Kaskarot izenekiko dantzari talde* bikain bat (*Ibidem*, 173)
- (104) Mutil potoloak klarineta jotzen zuan, tonto-papera egiten zuanak *giltzakiko kornetiña*, nagusiak tronboia ta emakumeak saltzeko ugala lepo atzetik kendu ta zanpa ta txintxinak jotzekoa jarri egiten zuan (A. Anabitarte, *Poli*, 82)

Ikus daitekeenez, bost autoreren testuetan bakarrik ageri zaizkigu *-kiko*-ren erabilera honen adibideak: ez dirudi, beraz, hegoaldeko literaturan oso hedatua denik.

#### 3.1.1.4. *Instrumentalaren parekoa*

Batzuetan deskribapenak egiteko baino gehiago instrumentalaren erabilera gertuago legoke *-kiko* atzizkia, beti ere izen konkretuei lagunduz. Ikus adibidez honako adibide hauek:

- (87) Erri onetako jendearen irabaz-biderik erosoena da *kisuarekiko lanbi-dea* (J.I. Iztueta, *Gipuzkoako Kondaira*, 53)
- (88) Ainbesterañoko aomena ta jasoa artu dute Azpeitiaren mugapeko arriak, ezik, ifini dituzte *bi lantegi urarekikoak* Nabarria zerratzeko, eta landutzen dituzte beretan, lodi ta me, luze ta zabal, nai dan neurri guztirakoak (*Ibidem*, 55)
- (89) Ernaitzaga esaten zaion *baserri-etxearen* ondoan dago bat *arri area-tsuareskikoa*, baiñan garbitzen neke andikoa, aspaldiko urteetan lurrikara andiak gañera erori izan zaiozkalako (*Ibid.*, 58)

#### 3.1.1.5. *Gaia adierazten duena: -ri buruzko posposizioaren ordain izan daitekeen -kiko-ren balioa*

XIX mendean hasi baina batez ere XX mendean hedatu den erabilera dugu honako hau; berri samarra, beraz *-ri buruzko* edo batzuetan *-ren inguruko* posposizio-sintagmen ordain izan daiteke *-kiko* atzizkiaren itzuli hau eta, posposizio-sintagma horiek bezala, pentsamenduzko edo komuni-

kaziozko izenekin ageri da. Hona hemen *-kiko*-k mugatzen dituen izen horien zerrenda bat:

(iii)	kontu	xeetasun	auzi
	berri	iritzi	aburu
	gorabehera	kontakizun	iardunaldi
	oroitzapen	eztabaida	uste
	hitz	erantzun	ikerlan
	liburu	kezka	bertso
	jakite	jakintza	literatura

xx mendeko beste zenbait autorek erabiltzen badute ere, Koldo Mitxelena dugu balio honetaz gehien baliatu den autorea.

Hona hemen adibide batzuk:

- (108) Bereala joan ziran anaia arrebak landarea zegoen tokira eta bera ain mardul begitangoa arkitu zebalako zoratu nai zitzaion Irizar jaunari pozaren pozez; eta asi zitzaion arrebari kontatzen *landare arekiko* gertaerak, lenago izkribuz gaztigatu zion baino luzeago (J.I. Iztueta, *Gipuzkoako Kondaira*, 163)
- (109) Ta, neretzako, auxe da arazo *orrekiko egia*: erderaz mintzatzea erre-zago degula, erderaren bidez geren buruok, batzarretan-eta, ederragotu egiten ditugula; erderaz ari-bearra bidezkotzeko asmatzen ditugun guziak, maratil uts dirala ta ez arrazoi (Lizardi, *Itz-lauz*, 90)
- (110) Zure baranoan ikara natzaizu, *nirekiko berriren bat* ala urtez berrizturiko zarren bat ote duzunetz ausnartuz (J. Zaitegi, *Sopokel'en antzerkiak*, 61)
- (111) Lenengo-lenengo, *nerkiko berriak* esan gura dizkitzut (*Ibidem*, 167)
- (112) Ez dira txantxetakoak *osasurekiko gauzak*, jardetsi zun osaba Martinek (T. Agirre, *Uztaro*, 120)
- (113) Dena den, erraz froga daitekeenez, hizkuntzak indarra eta lurra, zedarrietan eta barrenean, galdu ahala, ugalduz doa aitzitik beronen premia eta landu *beharrarekiko ardura* (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan guztiak* VI, 37)
- (114) *Xenpelarren bizitzarekiko berri bat*, 18gn orrialdean, ez dakit zuzen dagoen (*Ibidem*, 107)
- (115) Gaiak: Mendibururen bizitza eta lanak, Burgosko dotrinaren gorabeherak, *Euskal herriko dantzekiko eztabaida*, Mendibururen hizkera eta gainerakoak (*Ibid.*, 110)
- (116) Eta Iztueta ez zen, oraingoz ikusten dugunez, arras oker ibili bere *etorkizunarekiko usteetan* (*Ibid.*, 72)
- (117) Buru honetan sar daitezke bai sintasisekiko bai *estilistikarekiko hauziak*: gramatika-formen balioa eta erabiltzeko moldea, hitz ordena, esaerak, etc (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 114)
- (118) Hogeitahogei hogeitamar urte honetan gorabehera gaitzak ikusi dituzte gauzek eta, gauzekin batean, *gure gauzekiko iritziek* (*Ibidem*, 292)

- (119) Itza bestera dezagun: elerti ta *iakintzarekiko edozein aburu* irutara azter diteke (J. Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 27)
- (120) Dirudienez, bi ataletan sailkatu zituen *bere aburuak: egiarekikoak, aurrenean, eta ustearekikoak*, bigarreanean ezarriz (*Ibidem*, 44)

### 3.1.2. ADIZLAGUN ERABILERAK

#### 3.1.2.1. *Pertsona-izenordainekin*

-*kiko*-ren erabilera sustraitu eta tradizio luzekoa dugu hau<sup>7</sup>. *Pertsona-izenordainekin* erabiltzen da (*berekiko, nerekiko*) *esan, pentsatu, egin, ari izan, ihardun* bezalako komunikazio edo pentsamenduzko aditzei lagunduz XVIII mendearen hasieratik gaur egun arteko testigantzak ditugu.

Geroago ikusiko dugun bezala, bizkaierazko eta iparraldeko euskalkietako idazlanetan ez dago era honetako baliorik. Bizkaierazkoetan, gainera, -*kiko* erabiltzen dute esanahi hau adierazteko.

Hona hemen erabilera honen erakusgarri zenbait:

- (121) Onela prestatu zueneko Konfessoreak ikusi zuen, nola Jaun orrek, len oi ziran urre fiñezko botoi eder batzuek soñekoan zekartzien: ta *berekiko esan zuen*: (...) (A. Kardaberaz, *Ejertzioak III*, 390)
- (122) Bere bidean bazijoan, ta *berekiko*: onela bagoaz, zion, nere botoi guziak laster dijoaz emendik (*Ibidem*, 391)
- (123) Kontu polita dek auxe, *esan zuen* Konradok *berekiko*; (...) (G. Arrue, *Santa Genobebaren Bizitza*, 40)
- (124) Dukeak penaren andiz hitzik ateratzen etzuen, eta *berekiko zion*: Gure familian onelako ezegokia gertatu-bearra, (...) ondo ala-bearreko patu gaiztoa degu: (...) (*Ibidem*, 128)
- (125) —Gizon au, berariz ari ez ba da, eroa duk, *esan zuen* apezak *berekiko* (Orixe, *Mireio*, 36)
- (126) Yainkoa, *esan zun berekiko*; au arrigarri da; ta laister ta laister, ara yo zun zuzen, iru Donamarien il-etxea an bai legon (*Ibidem*, 120)
- (127) Iñazio Marik berriz, *berekiko*: Ezingo naiz mutil zar gelditu —*esan oizuan*— (Tx. Agirre, *Garoa*, 33)
- (128) Etxe otza dek au, ostatu legorra dek au —*zion berekiko*— (*Ibidem*, 328)
- (129) Ez diat zorion makala, *diot nerekiko* (Lizardi, *Itz-lauz*, 23)
- (130) *Nerekiko*, urrengo auxe da egia, ta auzi ontako iltzea (*Ibidem*, 61)
- (131) Ez *erabilen berekiko*, erretolika makala Txato'en emazteak (E. Erkiaga, *Arranegi*, 90)
- (132) Ez jakin ba, *berekiko zer erabilen* (*Ibidem*, 98)
- (133) Eta *berekiko jardunik*, iraganiko gauzak gomuta zituan (*Ibid.*, 160)
- (134) Baña nork sortu arazi dio nere emazte Mariari aurtxo ori, *ziagon* Jose doatsuak *berekiko* (M. Atxaga, *Gaztetxo*, 20)

<sup>7</sup> Adizlagunak joskera-baliabideak direnez ez dira hiztegieta (ihartuak) heltzen, baina oraingo honetan dugun -*kiko* hau, ordea, azaltzen da adizlagun gisa.

3.1.2.2. *Psikologiazko edo sentimenduzko kutsua duten zenbait izenekin nahiz izenondorekin erlazioan Gaztelaniazko «para con», «en relación a» eta antzeko preposizio eta preposizio-sintagmen ordain gisa erabiltzen ditugun egituren pareko*

Literaturako testuetan bada, oso ezaguna ez izaki, gehiegitan aipatu ez den beste erabilera bat, hau ere adizlagun erakoa. Erabilera honek tradizio luze samarra duela esan daiteke eta ez dira adibide gutxi honi buruzkoak. Izenlagun erabileretako batekin (3112 sailekoekin) harreman estuan dago, azken hau baino bakanagoa bada ere adizlagun gisako erabilera.

a) Izenarekiko erlazioan

Formaz adizlaguna bada ere, zentzuz psikologiazko erlazio bat adierazten duen izen bati lotua dago gehienetan (batzuetan ez da era horretako izenik ageri, eta aditzari bakarrik lagunduz ageriko zaigu *-kiko*); horregatik genion bazuela izenlagun erabilera batekin harreman estua. Izan ere, izen bereberekin agertzen zaizkigu izenlagun den kasu horietan eta adizlagun den hauetan *-kiko* atzizkia. Batzuetan sintaktikoki izen horiei loturik (izenlagun erabilera) eta besteetan esanahiaren aldetik bakarrik loturik, sintaktikoki aditzari loturik (adizlagun erabilera) agertzen den bitartean<sup>8</sup>.

Esan bezala, maiztasunaren aldetik gehienetan izenlagun gisa agertzen zaigu *-kiko* atzizkia izen hauekin. Alabaina, adizlagun erako egituraren maiztasuna eta antzinatasuna (XVIII. mendearen hasieratik jaso ditugu lekukotasunak) ez dira gutxiestekoak.

Era honetako izenekin erlazionatua ageri da normalean *-kiko* adizlagun hau:

Jaungoikoarekiko, lagunekiko + dugun +

(iv)	obligazioa	jarrera	eginkizuna
	eginbidea	ezin ikusia	miserikordia
	izen ona	fama	itzala
	inozentzia	jaiera	eskerra
	karidadea	urrikaltza	maitasuna
	menpetasuna	zorra	

<sup>8</sup> Izan ere, ikuspegi teoriko batetik, perpaus erlatiboan izen isil bat izango genuke, perpaus erlatiboaren buruaren erreferentzia bera izango lukeena.

- (i) a Lagunekin jarrera jakin bat<sub>1</sub> dut  
b Jarrera hori<sub>1</sub>, ona da
- (ii) a Lagunekin --<sub>1</sub> dudan jarrera<sub>1</sub>, ona da  
b Lagunekiko alg --<sub>1</sub> dudan jarrera<sub>1</sub>, ona da

Hasiera batean behintzat, (iib)koan ez daukagu izenlaguna, adizlaguna baizik. Hala ere, deigarria da horrelako erabilera asko eta asko isilik doan izen bat izan behar duen erlatibo batean azaldu izana.

Gatozen, bada, adibideekin<sup>9</sup>:

- (135) Pizten ez badegu maiz *Jainkorekiko* bear degun *amantza*; emendatzen bazaigu izotz egiñikan; gogortu eta ezin ibillirik arkituko gera (M. Larramendi, *San Agustin*, 15)
- (136) Bat dirudi izatez, baña *Jangoikoarekiko* daukan *garra* milloi bat betetzeko diña bada, eta geiago (*Ibidem*, 14)
- (137) Etzinioke, ariñ argi, ta garbi saill oni egingo Jainkoak eman ezpazizun Jesusen *bihotzarekiko* dezun *jaiera* hori, ain bizia, ta sutua (M. Larramendi, *Carta a Mendiburu*, 277)
- (138) Erein dezu Jesusen biotzarekiko jaiera Euskalerrietan; erneko da, zorituko da, ta bilduko dezu iñon ere *nerekiko* bildu dan uztarik ederrena, ta ioriena (*Ibidem*, 280)
- (139) Zure *Jaungoiko arekiko* dezun *obligazio* au ondo ezagutu, ta orri ondo eranzun nai badiozu: (...) (A. Kardaberaz, *Euskeraren Berri Onak*, 29)
- (140) Santak orduan bere bizi modu, ta *gizonarekiko*, esan degun *tratamendu*, ta *itzegiteko bere lezio*, ta *konseju onak* ematen ziesten (A. Kardaberaz, *Ejertzizioak III* 374)
- (141) Konsejari ona bill-ezazu, zure azienda, *Jainkoarekiko*, ta *munduarekiko* galdu nai ezbadezu (*Ibid.*, 228)
- (142) Baña eskusa, ta ezin orrek *Jainkoarekiko* eztu balio (*Ibidem*, 386)<sup>10</sup>
- (143) Orra zein andia *emalle onekiko* ta emalleen dirua artzen zuten behartsu berentzat S. Francisco Xavierren *urrikaltza ta karidadea* (S. Mendiburu, *Idazlan Argitaragabeak II*, 345)
- (144) Aurrera aldatu bear ditugu gure asmoak, eta deseok: eskerrak sari eman bear diozkagu *gurekiko* izan duan *miserikordia* miragarriagatik: (...) (J.I. Guerrico, *Saiakera I*, 400)
- (145) 2a ikusiko dituzue argiro, zuen *obligazioak*, ala *Jaungoikoarekiko*, nola *zuen buruarekiko*, eta zuen lagun proximoarekiko *dituzuenak*: 3a ikusiko dituzue orobat zuen utsegiteak (*Ibid.*, 400)
- (146) 1o gure Jaungoikoa gure egiazko Aita, guztiz maitetsua, eta guztiz maitagarria dala gogoan ondo sarturik eduki: eta hume onai, leialai, eta esker onekoai dagokien *biotza* Jaungoiko, gure Aita *onarekiko* eduki bear degu (*Ibid.*, 412)
- (147) 2o *Jaungoikoarekiko*, *eren buruekiko*, eta *eren proximoekiko* dituen *obligazio* jeneralak, eta partikularrak, mandamentu santuetan explikatuturik daudenak, sarri gogoratzea, edo konsideratzea (*Ibid.*, 434)
- (148) Gero, *munduarekiko* ere argiro agertu zuen Jaungoikoak Job bere sierboaren *inozzeria* (*Ibid.*, 454)

---

<sup>9</sup> Literaturako adibide gehientsuenak ekarri ditugu hona atal honetan, iruditzen zaigulako *-kiko*-ren erabilera hau ez dela oso ezaguna izan gure artean. Beste ataletako adibideekin ez bitez, beraz, konpara hauek maiztasunaren aldetik, besteetan askoz gehiagoren artean egin dugun aukeraketa bat besterik ez baita izan; beti ere, espreski adieraziko ditugun salbuespenak salbuespen.

<sup>10</sup> *Balio* aditzat har daitekeen neurrian, erabateko adizlaguna izango genuke hemen.



- (149) 2a Deseo edo gogo orrek alaitzen, eta animatzen gaitu Jaungoikoarekiko, gerekiko, eta *gure lagun projimoarekiko* ditugun *obligazioak* ondo ikastera, eta ezagutzera; (*Ibid.*, II, 76)
- (150) Jauna, gurasoari esaten badiot, galduko du urliak *bere izen ona*, edo *fama gurasoarekiko* (J.B. Agirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak* III, 487)
- (151) Onela bizi zan anima doakabe au, munduaren begietan ongi baña *Jainkoarekiko* txit gaizki (*Ibidem*, 532)
- (152) Itxumendi ta jakiñeza aldendu ta aiena bitez ere *euskerarekiko*, eta bestera gertatuko da (J.I. Arana, *San Ignacioren Bizitza*, 209)
- (153) Ordun illik, ez nintzan nire adiskide ta *nire buruarekiko* onenbesteko nekegarri izango (J. Zaitegi, *Sopokel'en antzerkiak*, 95)
- (154) *Zeintzuk eginkizun* ditugu *Jaungoikoarekiko*? (*Kristau Ikasbidea Gipuzkoako Euskeraz*, 38)
- (155) Jaungoikoagatik geren buruak bezelaxe bera maite izateko *eginkuzuna* degu *lagun urkoarekiko* (*Ibidem*, 39)
- (156) (...); elizkizunak betetzeko era guztioi errestutzea, eta iñori lan-aldian, pekturako biderik ez ematea dira nagusiak *langilleekiko* dituzten *eginkizunak* (*Ibid.*, 54)
- (157) Aren esanetara egoteko *eginkizuna* du bereziki emazteak *senarrarekiko* (*Ibid.*, 54)
- (158) Nolatan bear nauen ez du ajolik; dena dela, gaur eta emen, ni bear banau, *zorretan nago arekiko*, ta nere laguntza eskeñi bear diot (Txillardegi, *Leturiaren Egunkari Ezkutua*, 138)
- (159) Hor, (...) fonologiak eta sintasiak *elkarrekiko* dituzten *harreman estuak* miratzen dira, luzaro eta astiro (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 32)
- (160) *Batzar lagunekiko* dudan *eskerra eta zorra* adierazi nahi nituzke, azkenera baino lehen (*Ibidem*, 96)
- (161) Ez dut inoiz ulertu San Agustinen *hautzaroarekiko* agertzen duen *nakaitza eta ezin-ikusia* (*Ibid.*, 171)
- (162) Eta zergatik *itzal eta izu-laborri ori jakintsuarekiko*? (L. Villasante, *Kristau Fedearen Sustraiak I Jainkoa*, 128)
- (163) 3, Ezkonduak *elkarrekiko* dituzten *eginbideak* nola zaitu Jainkorik eypadago? (*Ibidem*, 154)
- (164) Gauzak nolana gertatu diren, ari isillik egotea dagokio eta iru gauza galdetzen zaizkio: *maitasuna, itzala eta menpetasuna bere gurasoekiko* (*Ibid.*, 168)
- (165) Bi haurrek, beldurti ez izaki, *hizpide bat* asmatu zuten *jotzailearekiko*: ukaldi batek A esan nahiko zuen, ukaldi bik B, ea (J. Mirande, *Miranderen Idazlan Hautatuak*, 314)

## b) Izenarekiko erlazioan

Batzuetan izenondodun perpaus kopulatiboetan ere agertzen zaigu *-kiko* adizlaguna, sintaktikoki aditzari lotua, baina izenondoarekin ere erlazioa duela. Adibidez,

(v) zintzo  
lotsagarri  
on  
Jaungoikoarekiko + errugabe + izan<sup>11</sup>  
lagunekiko sentibera  
eraile  
mutu

- (166) Ordea baldin hitzak zer erran nahi duen ez baldin-badakit, *barbaro* izanen naiz *mintzo naizenarekiko*, eta halaber barbaro izanen da, niri hala mintzo zaitana (J. Etxeberri (Sarako), *Obras Vascongadas*, 396)
- (167) S. Basiliok (...) bada dio: Zein *ona* ta zein *urrikaltia* gaizto *galdu*-*kiko* Jangoiko-gizon maitagarria! (S. Mendiburu, *Idazlan Argitaragabeak I*, 120)
- (168) O zenbat obra *munduarekiko onak*, an utsak arkituko diran! (A. Kardaberaz, *Ejercicioak II*, 109)
- (169) Garaitzalleak *begirune ta modu onekoak Iñigo erituarekiko*, izan ziran, eta bere kemen ez-nolanaikoaren miratzalleak; (...) (J.I. Arana, *San Ignacioren Bizitza*, 9)
- (170) Aurrerontzean ere *on* izan zaite, *Jaungoikoarekiko eta zere guraso*-*kiko* lotsa zaitzakean ezer ez egin (G. Arrue, *Santa Genobebaren Bizitza*, 8)
- (171) *Eztabai-gaiarekiko ain axola gutxiko* ezpa-lira! (Lizardi, *Itz-lauz*, 58)
- (172) Gizona *gizonarekiko* dan baño *pizti gaiztoagorik* ba al-dek iñun? (T. Agirre, *Uztaro*, 88)
- (173) Itz egitean artarakoa zaitugu: ni, ordea, gaiztoa zureak ikasteko: *nirekiko biotz gogor eta odol gorri* azaldu baitzatzakit (J. Zaitegi, *Sopokel'en antzerkiak*, 72)
- (174) *Legearekiko errugabe* nauzu (*Ibidem*, 121)
- (175) Maite artu nuan nik ere, ez egiaren irakasle bezala, ortaz etsi bai nuan, baiña *nerekiko onbera* zalako (Orixe, *Aitorkizunak*, 121)
- (176) Nik neronek, beintzat, eztitut aitzikorik esango, *oiekiko gorrotagarri* gerta enadin (J. Zaitegi, *Platon' eneko Atarian*, 147)
- (177) Ta ez naiz *arekiko eralle bat* izan (Txillardegi, *Leturiaren Egunkari Ezkutua*, 141)
- (178) Astebete bazan *bata bestearekiko mutu* zirautela (Y. Etxaide, *Joan*, 128)
- (179) Orain ordea, emazte maite, emazte saindu, zin dagizut, Maider bizirik atera ala ez, *zurekiko zintzo* izango naizela gaugerero (*Ibidem*, 255)
- (180) Alabaiña, ni ere ez nago *garbi zurekiko* (*Ibid.*, 278)
- (181) Txuntxur bata beti agiri da *garai gurekiko*; beste berriz, oinpean, Estigi beltzaren eta lurpeko iratxoan ikusgarri (A. Ibiñagabeitia, *Bergiliren Idazlanak*, 74)

<sup>11</sup> Hasiera batean izenarekiko harremana duena eta hemengo hau oso antzekoak direla esan badaiteke ere, kontua zorrotzago aztertuz gero, erraz ikus daiteke (8) oharreko analisisa ezin eman diezaioketela honi, eta hemen inolako perpaus erlatiborik ez dugula azpimarratu behar da bereziki: izan ere, hemen ez dago izen isil baten antzekorik.

- (182) Euskaldunok, *musikarekiko* oso *sentiberak* ohi gara (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 137)
- (183) Ez genduke ahaztu behar *era lotsagarrian* jokatu dugula maiz euskaldunok aldi joanean, kultura gaietan batipat eta *geure hizkuntzarekiko* batez ere (K. Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*, 280)

### 3.1.3. LABURBILKETA

Honako hau esan genezake *-kiko* atzizkiaren erabileraz:

- a) *-Kiko* nagusiki izenlagun funtzioan erabili izan da literaturan.
- b) Erabilera arruntena eta zaharrena bi norabideko erlazioa adierazten duten izen abstraktuekin egiten dena da (oinarrian *-kin* atzikia duena): *harremana*, *lotura*, *solasaldia*, eta abar.
- c) Norabide bakarreko erlazioa adierazten duten izen abstraktuekin ere erabili izan da: *obligazio*, *betebehar*, *eginkizun*, *errespetu*, *zor*, eta abar. Kasu hauetan *-kiko* adizlagun funtzioan ere agertu izan da, beti ere izenlagun funtzioan baino dexente gutxiagotan, eta zenbaitetan perpaus erlatibo bat daraman itzuli batean.
- d) Izenlagun funtzioaren barruan izen konkretuei lagunduz ere erabili izan da *-kiko*, deskribapenak egiteko batez ere. Autore gutxi bartzuen testigantzak ditugu eta nahikoa bazterreko itzulia iruditzen zaigu hegoaldeko hizkeretan behintzat
- e) Izenlagun funtzioaren barruko balio berriena *-ri buruzko* posposizioaren ordaintzat har litekeena da Funtsean XX mendekoa da, baina erabilera hedatua izan du literaturan mende honetan.
- f) Adizlagun erabileraren barruan bada tradizioan oso errotua dena, izenordainekin erabilia, hain zuzen (*berekiko esan zuen*, *nirekiko pentsatu dut*, eta abar). Hegoaldeko testuetan bakarrik gertatzen da itzuli hau, gipuzkeraz nagusiki.

### 3.2. **-Gazko**

Bizkaierazko *-gaz* (*-kaz* pluralean) + *-ko* kasu-marken metaketaren ondorioz sortutako forma dugu hau. Ezin esan daiteke, literaturako datuak aztertuta, oso erabilia izan denik. Laurogei bat adibide bakarrik aurkitu ditugu OEHko datu-basean, guztiak, bizkaierazkoak, jakina XIX mendean hasi eta XX mendearen erdialdera arte erabilitako forma da. Badirudi *-kiko* nahiz iparraldeko testuetako *-kilako*-ren iduriz egituran (*-kin* + *-ko*) oinarritutako atzizki analogikoa izan litekeela *-gazko* atzizkia, literatur erabilera jasoan erabilia, baina ahozko erabileran presentzia handirik nabaritzen ez zaiona.

### 3.2.1. IZENLAGUN ERABILERAK

#### 3.2.1.1. *Bi norabideko erlazioa, oinarrian -gaz deklinabide-atzizkia duena*

Hauxe da *-gazko*-ren erabilera nagusia. *-Kiko*-ren izenlagun erabilera-  
ren barruko A ataleko adibideen baliokide litzateke.

Era honetako izenak mugatuz agertzen zaigu:

(vi)	tratu adiskidetasun maitasarre	itun batuera batasun	alkartasun hartu-emon aserrealdi <sup>12</sup>
------	--------------------------------------	----------------------------	--

Hona hemen zenbait adibide:

- (184) Beste neskatilla batsuk, *alkarregazko pasio, konbersazinoe* garbi, eureen arteko diru gitxiko karteeta, ta onelako gauzeetan (J.J. Moge, *Baserritarrentzako Eskolia*, 147)
- (185) Ez daguala beste olgantzarik erromerija, fiesta, dantza, ta *alkarregazko saltsa* orreek baño? (*Ibidem*, 148)
- (186) Ezkondua bazara emen gogora eikezuz zeure *lagunagazko aserre-al-diak*, deungaro esakaak, esku-yoteak, eta onelangoak; (...) (P.A. Añi-barro, *Esku Liburua*, 142)
- (187) Gizon nai giza-aldra bakotxak *bestea.kazko artu-emonetan* alkarri zor dautsen zuzenbidea, gizabatz osoak bazkide bakotxari zor dautsana baño askoz be ertsi ta estuagoa da (J. Eguzkitza, *Gizarte Auzia*, 179)
- (188) Gogoen lokarri ta lotzaiki *alkargazko maitasarra* da (*Ibidem*, 190)
- (189) *Jaungoikoagazko bake eta adiskidetasunean* gagozala, egiten doguzan egite on mueta guztikoakaz, parkamenak irabaziagaz, eta konfesoareak iminten deuskun penitentzia bete eta eginagaz (A. Iturzaeta, *Azalduerak*, 148)
- (190) *Jaungoikoagazko alkartasun edo batutasunean* maitetasunaren bitartez; alan irakasten dau argiro Santo Tomasek, eta bardin Aposto-loak, diñoanean: (...) (*Ibidem*, 199)
- (191) Aren buruko uleak, ez zan guzurra, bien bitartean, ez eben egundai-ño orraziagaz *alkarregazko tratu edo itunerik* egin, esatekorik beintzat (E. Erkiaga, *Batetik Bestera*, 34)

#### 3.2.1.2. *Norabide bakarreko erlazioa (gaztelaniazko «para con», «en relación a» preposizio-sintagmen ordaintzat erabil litekeena)*

*Beharrian, eginbehar, beldur, ardura, egikera, pekatu, erruki* bezalako izenak mugatuz erabiltzen da *-gazko* balio honetan *-kiko* izenlagunaren B saileko adibideen baliokide litzateke hau.

---

<sup>12</sup> Ikusi (6) oharra, aurreko atalean ikusitako *adiskidetasun* bezalako izenei buruz, batez ere oraingo *maitasarre* eta *aserrealdi* direlakoei begira.

- (192) Jarraitu egizuz, bada gaur bere, *nigazko ardura* alegiñezkoak: urrindu eizuz niganik arerio gaistoak (P.A. Añibarro, *Esku Liburua*, 10)
- (193) Espiritu Santuaren emaitzak zazpi onexek dira: (...); Zazpigarrena, *Jaungoikoagazko bildurra* (Kristau Ikasbidea Bizkaiko Euskeraz, 34)
- (194) Seme-alabak arduraz azi ta garaiz bizibide egokia emotea da gurasoen *umeakazko eginbearra* (*Ibidem*, 67)
- (195) Garbitasunaren kontrako berbak, gurariyak, gogorazinoak, edo *norberagazko nai besteagazko egikera loiyak eta ezainak* (A. Iturzaeta, *Azalduerak*, 102)
- (196) *Langilleakazko erruki ori* atxaki garbia izan da; benetako zio edo errazioa, langilleai jai-egunez lan eragi-az, ugazabai etorkien irabazia (J. Eguzkitza, *Gizarte Auzia*, 159)

### 3.2.1.3. Izen konkretuak mugatuz

Bi adibide besterik ez dugu aurkitu:

- (197) Praka odolestubak, abarka ta dagokazan *kalzerdi marragazkuak* ta buruban txapela (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 117)
- (198) Sarrerako *burni-agazko esi* sendoaren gibelaldetik luzatzen dan bolatokian, iganderoko goiz-meza entzun ondoren, bolan aritzen ziran inguru arietako baserritarrak (T. Agirre, *Uztaro*, 153)

### 3.2.2. ADIZLAGUN ERABILERA

Ez da erabilera hau bizkaierazko testuetan ere erabiliena. Lau adibide besterik ez dugu aurkitu OEHko datu-basean. Zenbait kasutan izenlagun erabilera norabide bakarreko erlazioa adierazten dutenekin zerikusia izaten dute, sintaktikoki adizlagun izanik ere, *eginbehar* bezalako izen batekiko lotura eginez.

- (199) Jaungoikoaren Legeko lenengo iru aginduetan, *Jaunagazko* doguzan *eginbearrak* dagoz ta geure geideagazkoak gañerako zazpiretan (*Kristau Ikasbidea Bizkaiko Euskeraz*, 55)
- (200) *Geure Jaunagazko* dogun *eginbearra* auxa da: Bera beste ezer baño maiteago izatea (*Ibidem*, 56)
- (201) Egija da, Jesu Kristo geure Jaunagan sinistutia, ta ari darraikon guttia dala, dan legez, txito *barrija euskeriagazko*; geure kristinautzako gauza barri askoren izenak bere barrijak dira; ta areetati ez gutxi kristandadiagaz beragaz Urrin-errijeetati etorriak (J.I. Arana, *San Ignacioren Bizitza*, 203)
- (202) Bere arimia ikusi al bagiñai Eguzkijaren onduan ifinita, onen argitasuna begitanduko litxakegu iluntasuna, *berriagazko* (J.J. Mogel, *Baserritarrentzako Eskolia*, 23)

### 3.2.3. LABURBILKETA

Honako ondorioak atera ditzakegu *-gazko-*ren erabilerari buruz:

- a) Ez da maiztasun handiko aldaera.
- b) Gehien-gehienetan izenlagun erabilera du.
- c) Oso gutxitan du adizlagun erabilera Hori duenean, *-kiko-*k dituen bi balioetatik bat bakarrik du: psikologiazko edo sentimenduzko izen batekiko erlazioa duena hain zuzen. Bestea (*berekiko esan zuen*) adierazteko ez da *-gazko* erabiltzen, *-kiko* baizik. Hori erakusten dute behintzat balio hori erabili nahi izan duten bizkaierazko autoreek.

### 3.3. *-Kilako izenlaguna*

Hegoaldean *-kiko* (*-kingo*, *-kinko*) eta *-gazko* erabiltzen den bitartean, iparraldeko testuetan erabiltzen den forma *-kilako* da.

Hegoaldeko testuetan *-kiko-*k eta *-gazko-*k adizlagun erabilera ere izan dutela ikusi dugu. Bada, iparraldeko testuetan izenlagun erabilera da *-kilako* atzizkiak duen bakarra. Horregatik jarri diogu izenburu hori atal honi. Salbuespenik gabeko joera da hau: beti agertzen zaigu izen bat mugatuz *-kilako* atzizkia.

Hiru erabilera bereiziko genituzke, alabaina, *-kilako-*ri dagokionez:

- a) Bata, azpian *-kin* deklinabide-marka garbia izanik —beti du, izan ere, oinarrian *-kin* atzikia *-kilako-*k—, normalean bi norabideko erlazioa adierazten duena eta izen abstraktuei lagunduz agertzen dena.
- b) Bestea, aldiz, *-ko* edo *-dun* atzizkia edo *ukan* aditzarekin osatutako erlatiboaren ordain izan daitekeena, izen konkretuekin agertzen da eta izen edo gauza konkretu horiek identifikatzeko edo horien deskribapenak egiteko erabiltzen da. Erabilera hau ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, iparraldeko tradizioan *-kin* deklinabide-marka duten egituretan datza.
- c) Hirugarren erabileran ere sozietiboko *-kin* kasu marka dugu oinarrian eta intrumentalaren balio bertsua luke *-kilako-*k.

Zehaztu ditzagun erabilera hauek hurrengo lerrootan.

#### 3.3.1. IZEN ABSTRAKTUEKIN GEHIENETAN BI NORABIDEKO ERLAZIOA ADIERAZTEN DUENA

Hegoaldeko *-kiko* izenlagunaren antzeko erabilera du, gutxi gorabehera. Hegoaldeko testuetan ikusi dugu *-kiko* atzizkiak mugatzen dituen izenen zerrenda. Bada, iparraldeko testuetako erabilera zaharrena eta heda-

tuena den honetan ere era horretako izenekin agertzen zaigu testu hauetan erabiltzen den *-kilako* atzizkia. Hauetan oso argi nabari da oinarrizko egituran duen *-kin* deklinabide-marka (*lagunekilako solasa* ← *lagunekin (izan) dudan solasa*).

Honako izen hauei loturik agertzen zaigu *-kilako* atzizkia:

(vii)	bakea	lokarria	batasuna
	bilkhua	sozietatea	konbertsazioea
	solasa	unioea	adiskidetasuna
	auzia	gudua	ahaidetasuna
	bizia	mintzaira	lehia

Ekar ditzagun hona erabilera horren adibide batzuk:

- (203) *Aingeruekilako batasuna* Jesusen bihotz sakratuaren adoratzeko eta zenbeit grazien ardiesteko (*Jesusen Bihotzaren Alderako Debozioea*, 442)
- (204) Garrazki defendatua da gure erregelamenduez deus ere saririk galdegitea, ez hartzea pagamendurik presenteko induljentzien plama hunentzat, ez eta ere *gurekilako sozietateari* behatzen zakoten deusentzat (*Ibidem*, 473)
- (205) *Elgarrekilako batasuna* da hari emaiten dioena edertasuna, indarra, balhorea (M. Duhalde, *Meditazioneak*, 126)
- (206) (...): bethi perilos izanen dire bi muetetako jenden *elkharrekilako ihardukitzeak*; (...) (*Ibidem*, 74)
- (207) (...), zein amultsuki eskeintzen zioen bere bekhauten barkhamendua ta *Jainkoarekilako adiskidetasuna* (*Ibid.*, 136)
- (208) Zonbat argi, zonbat grazia, zonbat kontsolazione etzituen izaiten *harekilako konbertsazioean!* (Jauretche, *Meditazioneak*, 360)
- (209) *Harekilako adixkidantza* bazaiote gure gizonei zerbaiz! (J. Hiriart Urruti, *Mintzaira Aurpegia Gizon*, 81)
- (210) Erran behar da bertzei eder bazitzaioten *harekilako ahaidetasuna*, bera ere jaun hori, bihotzez atxikia zela bere odolekoei (*Ibidem*, 100)
- (211) Buruzagien beren, eta heieri buruz bertzen zuzenak eta obligazioeak; *gobernamentuekilako bakea*; (...) (*Ibid.*, 134)
- (212) Eta oraiko misionestek *gobernamentu tzar hunekilako auzia* galdua zuketen segur (*Ibid.*, 150)
- (213) Bigarren liburuak, gerlako zerez baita egina, erakusten dauku aski garbiki: *etsai izigarriarekilako gudu beltzean*, ez bide da izan gure herritarrak bezalakorik zango-besoz, begiz, hatsaz, asmuaz, beldurrik gabeko gemen iraunkorraz (J. Etchepare, *Beribitez*, 100)
- (214) Daukat hirian ibiltzeak, aitzindari hanitzen manuer bizkarraren ukurtzeak; hainbertze eskualdetarik elgarretarat bildu *lagunekilako solasek* erakusten dakotela zerbeit (J. Etchepare, *Buruxkak*, 69)
- (215) Halere, barkatzen badautan, ene gogoaren aldaratze hunek ez bahitu bederen lotsatzen, hitzemaiten denat *elgarrekilako biziaren* esperantzari ez dutala uko eginen (*Ibidem*, 71)

- (216) Argia dela diozu, gauherdi orai'ez duzu; *enekilako denbora* luze iduritzen zazu; amodiorik ez duzu, orai zaitut ezagutu (J.D. Sallaberry, *Chantes Populaires*, 14)
- (217) Bainan Parisetik harat, zer jauzia ez du egin *Jainkoarekilako mintzaira hortan!* (Arradoy, *San Frantses Jatsukoa*, 310)
- (218) (...): badaukagu zerurat-eta ez zaikula geldituko karitatea baizen gure mundu huntako dohain xaharretarik, eta karitatea dukegula *Jaunarekilako lokarri* (J. Zaitegi, *Platon' eneko atarian*, 919)

### 3.3.2. IZEN KONKRETUEKIN -DUN EDO -KO ATZIZKIEKIN EDO EDUN/UKAN ADITZAREN ORDAINTZAT EMAN DAITEKEENA. DESKRIBAPENAK EGITEKO EDO NORBAIT/ZERBAIT IDENTIFIKATZEKO

'Aurreko adibide horietan *-kilako*-k mugatzen zituen izenak abstraktuak ziren; oraingo honetan, berriz, konkretuak.

Bigarren erabilera honen ordain ezagunagoak edo erabiliagoak, hegoaldeko usadioan behintzat, *-dun*, *-ko* atzizkiekin edo *edun / ukan* aditzarekin osatutakoak lirateke. Iparraldean, berriz, ohikoa da *-kin* deklinabide-marka erabiltzea lagun bat edo gauzaren bat identifikatzeko edo deskribatzeko orduan. Adibidez:

- (219) Begira *betaurrekoekin* den mutila!
- (220) Ikusi dugu zure laguna, atorra *zuriarekin*

Horiek adizlagunak lirateke eta izenlagun bihurtzeko *-ko* atzizkia eranstea eta aditza ezabatzea besterik ez zaigu geratzen. Hala,

- (221') Betaurrekoekin + ko mutila → Betaurrekoekilako mutila
- (222') Atorra zuriarekin + laguna → Atorra zuriarekilako laguna

Erabilera hau aski arrunta da iparraldean. Hala ere, esan behar da joera honen berri XIX mendearen erdialdetik aurrera bakarrik ematen digutela literaturako testigantzek. Gehienak XX mendekoak dira.

Goian esan bezala, batez ere izen konkretuei lagunduz agertzen da *-kilako* erabilera honetan: adibidez, *presundegi*, *jan*, *gizon*, *zigarro*, *landareska*, *mamu*, *armairu*, *zapata*, *liburu*, eta abar.

Hona hemen adibide batzuk:

- (223) Abereari gatza hainitz lakhet zaio, eta guti batek on hainitz egiten dio; zeren *gatzarekilako yana* hainitz hobekiago ehaiten baita, eta gatza yaten duen aberearen haragiak hainitzez gustu hobea du (J. Duvoisin, *Dialogues basques*, 57)
- (224) Framazonek, hirur urthe aitinetik, anontzatu zuten Uztailaren 14an 1789an zela izanen hartua eta barreatua Bastille deitzen zuten, eta Pariseko hiriaren erdian zen, *presundegia*, zoina baitzen gaztelu handi, gora, *zortzi dorhekilako bat* (J.B. Elissamburu, *Framazonak*, 76)



- (225) (...); ikusi gabe utzi behar dugu halaber komentuko liburutegia, adituak girelaketz berdin ez dela gehiago han Nabarreko erregeek gainean zin egiten ohi zuten *zilar-estalgiarekilako liburu handia* (J. Etchepare, *Be-ribilez*, 15)
- (226) Nabar-Goitiko ogi ona lagun, baderamatzagu kilimiliklik xerriki hotz xeheak eta lotuak gira ja *biperrekilako arroltze-moletari*, noiz ere ohartzen baikira gure bi botoila Rioja hautak hustuak ditugula azken xortaraino (*Ibidem*, 26)
- (227) Erakusten dauku, eremu puxka batean, egundaino ikusi ez ginuen bezalako xara bat: *osto ñimiño gordin batzuekilako landareska pollit* andana handi batek, elgarri tinki, beren abarrez elgar hunkitzen dutenak, (...) (*Ibidem*, 39)
- (228) Han, ezkaratz-barneko athe hartan, ene lehenbiziko ikustaldian zitzaitan bada agertu *apez-jauntziarekilako gizon ttipi gaztesko bat*, Jesuita batendako hartu nuena (*Ibidem*, 57)
- (229) Haren familiak etzikekan, orobat, othoitz-leku berezirik: *sainduekilako armairuño hori* ba, bakarrik, Inazio bere zortzi semetarik gaztenaren ohe-ondoan (*Ibid.*, 62)
- (230) Bat-batean agertzen zaizkigu, gizotsoak iduri, *hiru begiekilako mamu beltz larri batzu*, beren larru leuna dirdir (*Ibid.*, 92)
- (231) *Gizon* kexua zen, berriz ere diot, *elhe gutirekilakoa* (J. Etchepare, *Buruxkak*, 58)
- (232) Oinetan, caoutxuzko *zapata lodi batzu*, barnetik *olearekilakoak*, elhurra ez baitzeie lotzen eta zangoa baitaukate bethi idorrik (*Ibidem*, 113)
- (233) Berbala egiten dautzut, *prozedura bat gatz eta bipherrarekilakoa!* (J. Barbier, *Supazter Xokoan*, 48)
- (234) Ordu arte, jaten zituen ezteietarik ekartzen zuen doi doia, jaun espesak eman *zigarro erhaztunarekilako bat*, eta hura ere adixkideentzat (*Ibidem*, 63)

Nolanahi ere, aipagarria da adibide dexente gehiago agertzen direla iparraldeko literaturan hegoaldeko erabilera nagusiar buruzkoak, hau da, izen abstraktuekin eta bi norabideko erlazioa adierazten duten izenekin eta *elkar* izenordainarekin. Adibidez, *lokarria*, *batasuna*, *bilkhua*, *konbertsazioa*, *adiskidetasuna*, *solasa*, *gudua*, *unioea*, *berdintasuna*, *mintzaira*, *lehia*, *bakea*, eta abar. Hauekin batera, testu hauetan *elkar* (*elgar*, *elkhar*) izenordain elkarkaria ere (bi norabideko erlazioaren adierazlea) maiz aurkitzen dugu.

### 3.3.3. INSTRUMENTALAREN ORDEZKO -KIN OINARRIAN DUEN EGITURA

Aurreko bi erabileretan ikusi dugu beti dugula oinarrian *-kin* deklinabide-marka, batean izen abstraktuei lagunduz (bi norabideko erlazioa adierazten duten izenekin) eta bestean izen konkretuei (deskribatzeko edo identifikatzeko erabiltzen dena).

Bada, ordea, *-kin* deklinabide-markaren beste erabilera bat, instrumentalaren ordezkua edo litzatekeena Horietan ere izenlagun bilaka dezakegu adizlaguna (*-kin + -ko → -kilako*) izen batekiko lotura gauzatzeko.

Hala, *Aizkorarekin ebaki dut egurra* perpausa izen-sintagma bilaka dezakegu *Aizkorarekilako lana* eginez.

Hona hemen pare bat adibide:

(235) Diote zenbeitek, oraiko *xixterekilako jokoa* errebotean gaitzegia dela (Zalduby, *Obrak*, 86)

(236) Sehia eta hiru arrebak *orratzarekilako esku-lan* zerbeiti lotzen ziren (J. Etchepare, *Buruxkak*, 77)

#### 3.3.4. LABURBILKETA

Iparraldeko testuetako *-kilako* aldaerari buruz hau esan genezake:

- a) Beti da izenlagun.
- b) Beraz, ez da adizlagun gisa inoiz erabili.
- c) Oinarrian beti du soziaziboko deklinabide-marka (*-rekin*).
- d) Ez dago iparraldean hegoaldeko testuetako «en relación a», «para con» edo «con respecto a» itzulien ordaintzat eman daitekeen *-kilako*-ren adibiderik. Beraz, destinatibo kutsuko itzulirik ez du onartzen *-kilako*-k.

#### 4. *-KIKO*-REN GAUR EGUNEKO ERABILERAK

Literatur tradizioko erabilera aztertu ondoren, gatozen gaur egungo *-kiko*-ren zenbait erabilera aztertzeraz.

Azken urte hauetan badirudi *-kiko* atzizkia gehiegitxo hedatu dela bai hizkera arruntean bai teknikoetan ere. Izan ere, arazo nahikotxo planteatzen dizkigu atzizki metatu honek. Alde batetik, Euskaltzaindiak aztertu gabea da (eta, beraz, gomendio-araurik ez duena); bestetik, esanahiaren aldetik iduri du esparru nahikoa zabalduela eta gauza askotarako balio lezakeela Irudipen horrek izan dezake egiazko oinarria neurri batean (gogoratu tradizioko erabilera desberdinak); alabaina, gaur egun duen erabilera hain hedatua ikusita iristen gara batez ere hori uste izatera: idazleek eta esatariek hainbeste eta modu hain desberdinetan erabiltzen badute, askotariko erabilerak dituela uste dutelako izango da, antza.

Baina, benetan ongi al daude gaur erabiltzen ditugun *-kiko* guztiak?

Galdera horri ahal dugun neurrian erantzun ahal izateko aztertu dugun abiapuntu bezala literatur tradizioa. Hori egin gabe nekez has gitezke *-kiko*-ren erabileraz gomendioak edo azalpenak ematen

Lehendabizikoz, kapitulu honetan, komunikabideetan erabiltzen diren hizkera arrunteko adibideak aztertuko ditugu, zalantzarriak edo bazter-

tzekoak izan daitezkeen itzulien ordez egitura egokiak proposatuz. Ondoren (5 atalean) joko dugu hizkera teknikoetako adibideetara.

Gatozen, bada, *-kiko*-ren erabilera batzuk aztertzerara.

#### 4.1. Adizlagun erabilerak

(237) PPK Euskal Herriarekiko duen jarrera ez dut oso gustoko

Era honetako adibide asko erabiltzen dira gaur egun. Ez dira txartzat ematekoak: *-kiko* adizlagun funtzioan eta esanahiz «con respecto a», «en relación a» edo «para con» itzuliekin ongi datorren *jarrera* bezalako izen batekiko erlazioan erabili izan dira hegoaldeko literaturan, eta ez gutxitan erabili ere. Horrekin batera, ordea, izenlagun erabilera ere badugu, aurrekoa baino ohikoagoa gainera. Beraz, ondorengo ere proposa daiteke goikoarekin batera:

(237') PPre Euskal Herriarekiko jarrera ez dut oso gustoko

Hurrengo adibidean, ordea, tradizioan oinarririk ez duen erabilera bat dugu:

(238) ?? Pantanik ez zuen behar adinako alderik atera, bereziki lehen postuan zegoen *Indurainekiko*<sup>13</sup>

Kasu honetan *-kiko* erabili beharrean egokiagoa litzateke datiboa erabiltzea:

(238') Pantanik ez *zion* behar adinako alderik atera lehen postuan zegoen *Induraini*

Hurrengo adibidea ere beste deklinabide-marka bat erabiliz zuzendu daiteke:

(239) \**Zullerekiko* 10 minutura pasatu da Olano Aubisqueko mendatean

(239') *Zullerengandik* 10 minutura pasatu da Olano Aubisqueko mendatean / *Zulle baino 10 minutu geroago*

Hurrengo adibideko kasua ez dugu literaturako erabileren artean aurkitzen Horren orde (240') litzateke hobetsi beharrekoa<sup>14</sup>:

(240) ? Dolarra jaitsi egin da *markoarekiko* azken egunotan

(240) Dolarra, *markoarekin konparatuz*, jaitsi egin da azken egunotan

---

<sup>13</sup> Ikus berriro (8) oharreko analisia, hemen parekorik ez dugula egiaztatzeko.

<sup>14</sup> Egitura honek alde txikia du 3121. sailekoarekin, izenordaina kendu eta izena jarri, besterik ez baita egin.

Konparazioak egiteko itzuli egokiagoa litzateke hurrengo kasuan ere *-rekin konparatuz* edo *-ren aldean*:

- (241) ?? 5 jokalar berri ditu Errealak *iazko denboraldiarekiko*
- (241') 5 jokalar berri ditu Errealak *iazko denboraldiarekin konparatuz / -ren aldean*

Ondorengo adibidearen kasuan adierazi nahi den erlazioaren berri *-kiko*-ren bidez baino askoz egokiago beste posposizio-itzuli baten bidez emango dugu:

- (242) \*Apustu indartsu bat egin nuen *makrobiotikarekiko*
- (242') Apustu indartsu bat egin nuen *makrobiotikaren alde*

Tradizioko datuen argitan, ondorengo adibidea baino erabiliagoa litzateke, adizlagunezkoa txartzat eman gabe ere (hegoaldean behintzat), izenlagunezkoa:

- (243) *AEKrekiko zabaldu diren* komunikazio kanal berriek hori adierazten dute
- (243') *Zabaldu diren AEKrekiko komunikazio kanal berriek* hori adierazten dute

Edo:

- (243'') *AEKrekin zabaldu diren* komunikazio kanal berriek hori adierazten dute

#### 4.2. Izenlagun erabilerak

- (244) Espazio itxiekiko beldurra

*Beldur* bezalako izena mugatuz aurki genitzake testigantzak literatur tradizioan, baina oso-oso gutxi. Horrek esan nahi lezake euskarak baduela bide emankorragorik erlazio horren berri emateko. Adibidez, honako hau:

- (244') Espazio itxiei diegun beldurra / Espazio itxien beldurra

Ez dira falta literaturan *maitasun* hitza mugatzen duten *-kiko*-ren kasuak Hala ere, horren ondoan, askoz gehiago erabiliak izan diren beste egitura batzuk proposa daitezke:

- (245) *?Herriarekiko maitasunak* eraman zuen hiria utzi eta jaioterrira itzultzera
- (245') *Herriari zion maitasunak* eraman zuen hiria utzi eta jaioterrira itzultzera
- (245'') *Herriarenganako maitasunak* eraman zuen hiria utzi eta jaioterrira itzultzera

Oinarrian nora edo zertara duten sintagmak ere oso-oso gutxitan adierazi izan dira euskaraz *-kiko*-ren bidez:

(246) ?*Mendiarekiko joera* handia dugu

(246') *Mendirako joera* handia dugu / *Mendira joateko joera* handia dugu

Orobat ondorengo kasuan:

(247) ?? HIESaren *gaiarekiko hurbilketa* bat egin nahi izan du hizlariak

(247') HIESaren *gaira hurbildu* nahi izan du hizlariak

Egokia den hurrengo adibidea (bai formalki —izenlaguna— eta bai esanahiaren aldetik) beste egitura batek izan dezakeen anbiguotasuna saihesteko proposatu izan da. Izan ere, *emakumearen diskriminazioa* bezalako sintagma bi erataraz uler daiteke: zentzu aktiboan (emakumeek norbait diskriminatzen dute) edo pasiboan (emakumeak dira diskriminatutak). Zentzu pasiborako proposatu izan da *-kiko*-dun itzulia eta aktiborako *-ren*-duna.

(248) *Emakumearekiko diskriminazioa* oraindik zeharo baztertu gabea dugu gure gizartetik

Gure aldetik ez diogu arazorik ikusten bi esanahietarako *emakumearen diskriminazioa* erabiltzeari, erabiliagoa delako eta gehienetan (oraingoan, adibidez) testuinguruaren laguntza izango dugulako haren esanahia zehazteko<sup>15</sup>:

(248') *Emakumearen diskriminazioa* oraindik zeharo baztertu gabea dugu gure gizartetik (Argi dago kasu honetan emakumea dela diskriminatzen dutena)

Azken kasuan izen-sintagmaren barnean eta izenaren aurretik ezinezkoa zaigun soziatiboko marka zuzendu behar dugu:

(249) \**Ikasleok elkarrekin harremanak* hobetzeko egiten ditugu afariak

(249') *Ikasleonek elkarrekin harremanak* hobetzeko egiten ditugu afariak

Arazoak sortzen dituen beste itzuli bat erdaretako [IZENA + *a* preposizioa + IZENA] da. Hauek, beste preposiziodun sintagmak bezala, hizkeraren teknikoetan dira oso erabiliak eta hurrengo atalean landuko ditugu.

---

<sup>15</sup> Izan ere, bai aditzaren subjektuari (i) bai osagarri zuzenari (ii) egokituko litzaizkiokeenak, genitibo baten bidez gauzatzen dira aditzetatik eratortzen diren izenen aurrean.

- (i) a Gizarteak emakumeak diskriminatzen ditu
- b Emakumearen diskriminazioa gizarte-egiturari lepora dakioke
- (ii) a Emakume jakin batzuek zenbait gizaseme diskriminatzen dituzte era berean
- b Era berean, emakume jakin batzuen diskriminazioa dago, zenbait gizasemeren aurka

## 5. -KIKO ETA BESTELAKOAK HIZKERA TEKNIKOAN

Esan bezala, erdaretako [IZEN + preposizio + IZEN] egituraren ordainak ematean agertzen zaizkigu arazoak askotan. Preposiziodun sintagma hauek ugariak izaten dira hizkera teknikoetan eta horrelakoen ordainetan eman daitezkeen itzuliak finkatzea zail samarra egiten zaigu nahi baino gehiagotan.

(viii)	Alergia a ...	Hepatotoxicidad con ...
	Hipersensibilidad a ...	Tratamiento con ...
	Resistencia a ...	Pacientes con ...
	Vulnerable a ...	Hepatitis por ...
	Sensible a ...	Sintomatología por ...
	Movimiento en relación a ...	Preferencia por ...
	Dependencia de ...	Vitamina C en ...
	Enlace con...	Derivado de...
	Descenso hasta...	Movimiento hacia...
	Medida en...	Exposición a...
	Evolución desde...	Transporte hasta...
	Disipación por...	Medida en...
	Respuesta a...	Valor relativo a...
	Movimiento con respecto a...	Comportamiento con respecto a...

Horrelakoen itzulpen zuzena egiteak arazoak dakartzkigu, jakina baita ez direla onargarriak adizlagunak izen sintagmaren barnean (adizlagunei dagokienez, behintzat ikus Goenaga 1978). Konparazioetarako,

- (250) \*[Penizilinari erresistentzia]IS<sup>16</sup>  
 (251) \*[Antibiotikoekin tratamendua]IS

---

<sup>16</sup> Hala ere, (250) bezalakoek badute literatur tradizioaren babesa eta *zerurabide* bezalako egitura ihartuak ere kontuan hartu beharrekoak dira. Edonola, honelako egitura guztiek are on-dorio ezgramatikal nabariagoak ematen dituzte perpausetan txertatzen ditugunean.

- (250) \*Penizilinari erresistentzia garatu da  
 (251') \*Antibiotikoekin tratamendua agintzen dute medikuek  
 (252') \*Salizitatei alergiari aurre egin behar da  
 (253') \*Behe-tentsioarekin gaixoak ondo zaindu behar dira  
 (254') a \*Gaindosiagatik heriotz bat gertatu da  
           b Heriotz bat gertatu da gaindosiagatik  
 (255) a \*Dosi altuetan C bitamina eman da  
           b C bitamina dosi altuetan eman da

Hauetako batzuk ordea (254-255), onak dira hitz-hurrenkera aldatu eta adizlaguna izena laguntzeko saiorik egin gabe aditza laguntzeko moduko gune batean kokatzen dugunean. Areago, aditzik gabeko egiturak ere zilegiago dira hitz-hurrenkera aldatuz gero, eta nolabaiteko predikazioa daramaten testuinguruetan txertatuta:

- (250'') Erresistentzia penizilinari  
 (251) Tratamendua antibiotikoekin  
 (252) Alergia salizitatei  
 (253) Gaixoa begi-tentsioarekin  
 (254) Heriotz bat gandsosiagatik  
 (255) C bitamina dosi altuetan

- (252) \**[Salizitatoei alergia]*IS
- (253) \**[Begi-tentsioarekin gaixoa]*IS
- (254) \**[Gaindosiagatik heriotz bat]*IS
- (255) \**[Dosi altuetan C bitamina]*IS

Horien ordeez, izenlagunak (-*ko* edo -*ren*-en bidez osatzen ditugunak) egokiak dira edozein testuingurutan (hizkuntz mailen arabera bere erabilgarritasuna nahiko aldatzen bada ere).

Bestalde, joskeraren bestelako esparruetara jo dezakegu arazo hauek konpontzeko, -*kiko* erabili beharrean, beste deklinabide-marka eta egitura batzuk ere baditugula gogoratu behar baita: -(*R*)*en araberako*, -(*r*)*en gaineko*, -(*r*)*en bidezko*, -(*r*)*en kontrako laurkako*, -(*r*)*en aurreko*, -*ko*, eta -*dun*. Nahasterik ez sortzeko, baliabide guztien erabil-eremua (batez ere zein eratako izenekin ager daitezkeen) finkatzen ahaleginduko gara:

### 5.1. -(*R*)*en araberako* + *ordenazioa, aldaketa, sailkapena, mugimendua...*

Nola eman litezke ondorengo sintagmak?

- (ix) Ordenación por niveles: -*ren araberako* / \*-*kiko*  
 Cambio del metabolismo según la estación: -*ren araberako* / \*-*kiko*  
 Clasificación por orden alfabético: -*ren araberako* / \*-*kiko*
- (256) (Bizidunen) garapen mailaren araberako antolamendua
- (257) (Metabolismoaren) urtaroaren araberako aldaketa
- (258) (Hitzen) hurrenkera alfabetikoaren araberako sailkapena
- (259) (Bolumenaren) tenperaturaren araberako aldaketa

Ikus daitekeenez baliabide hau oso egokia da adierazi nahi dugun esangura norabide bakarrekoa denean, eta oro har, hirugarren izenak (*antolamendua*) adierazten duen izakiaren ezaugarriak bigarren izena (*maila*) irizpide gisan hartuz aztertzen direnean. Parentesien artean doan lehenengo izenak (*bizidun*) hirugarren izenaren ezaugarri-multzoaren jabegoa adierazten du.

### 5.2. -(*R*)*ren gaineko* + *eragina, nagusitasuna*

- (x) Influencia sobre los animales: -*ren gaineko* / \*-*kiko*  
 Cambio sobre la estructura original: -*ren gaineko* / \*-*kiko*  
 Preponderancia de los cánidos sobre los félicos: -*ren gaineko* / \*-*kiko*
- (260) (Tenperaturaren) animalien gaineko eragina
- (261) Jatorrizko egituraren gaineko aldaketa
- (262) (Kanidoen) felidoen gaineko nagusitasuna

Hemengo ereduari ere, norabide bakarrek harremana dago baina kasu honetan bigarren izenak era fisikoan ezartzen edo mantentzen du hirugarren izenak adierazten duena. Parentesien artean doan lehenengo izenak, hirugarren izenak daraman zehaztasunaren jabea edo jasalea adierazten du hemen ere.

### 5.3. *-(R)en bidezko + asistentzia, tratamendua, profilaxia, ...*

- (xi) Asistencia por ordenador: -ren bidezko / ?-kiko  
 Tratamiento con antibióticos: -ren bidezko / ?-kiko  
 Profilaxis mediante antibioticos: -ren bidezko / ?-kiko
- (263) a Ordenadore bidezko asistentzia / ?-kiko asistentzia  
 b Ordenadorearen bidez egindako asistentzia
- (264) Antibiotikoen bidezko tratamendua / ?-kiko tratamendua
- (265) Antibiotikoen bidezko profilaxia / ?-kiko profilaxia

Kasu hauetan erlatiboan oinarrituriko itzulginguruak ere baliagarriak dira baina edonola, esanguraren aldetik begi-bistakoa da tresna edo prozedura adierazteko ahaleginetan ari garela.

### 5.4. *-(R)en aurreko /-(r)en kontrako, aurkako + erantzuna, jokaera, joera, alergia, hipersentsibilitatea, erresistentzia...*

- (xii) Sensibles a la luz (izenondoa): -ren aurrean / ? -kiko  
 Resistentes a la temperatura (izenondoa): -ren aurrean /?-kiko  
 Alergia a salicitatos: -ren aurreko / -ren aurkako / ? -kiko  
 Resistencia a la degradación por el calor: -ren aurka / -ren aurreko / ? -kiko  
 Resistencia a los antibióticos: -ren aurkako / -ren aurreko / ? -kiko
- (266) Zizareak sentiberak dira argiaren aurrean / ? -kiko
- (267) Tenperaturaren aurrean erresistentea da sendagai hori / ? -kiko
- (268) Salizitaoen aurreko alergia / ?? -en kontrako / ? -kiko
- (269) Beroagatiko degradazioaren kontrako erresistentzia / -ren aurreko / ? -kiko
- (270) Antibiotikoen kontrako erresistentzia / -ren aurreko / ? -kiko

Ikusi dugu literaturako adibideetan bazela «con respecto a», «en relación a» edo «para con» preposizio-sintagmen ordain izan daitekeela *-kiko* ere. Alde horretatik, hemengo adibideetan ere ez litzateke saihesteko egituratzat eman beharko; bai ordea markatuagotzat. Edozelan, gogoratu beharrekoak dira nahiko hurbil dauden *lotura* edo *tratu* bezalakoak, literatur tradizioan errotoak. *Sentibera* bezalako izenondoan tradizioa ere, kontuan hartzekoa da bestalde.



### 5.5. *-(R)engatiko (zergatia) + hepatitis, toxikotasuna (gaixotasunak)...*

- (xiii) Hepatotoxicidad con dosis altas: -rengatiko / \*-kiko  
Hepatitis por salicatos: -rengatiko / \*-kiko
- (271) Dosi altuengatiko hepatotoxikotasuna / \*-kiko
- (272) Salizitatuengatiko hepatitis / \*-kiko

Hauek, agerian den bezala, ez dute inolako eragozpenik. Hala ere, erdal preposizioen itzulpena, ardua handiz egin beharko da *por* horretaz gain, *con* horrek ere beregana baitezake *-gatiko* euskal ordaina.

### 5.6. *-Dun, -ko /perpauis erlatiboa... + gaixoak, animaliak (bizidunak: izen konkretuak...)*

- (xiv) Pacientes con tensión alta: -ko / -dun / -a duten / ? -kiko  
Pacientes con trastornos: -dun / -ak dituzten / ? -kiko  
Reptiles con patas largas: -ko / -dun / -ak dituzten / ? -kiko  
Reptiles con patas: -dun / ? -kiko
- (273) Tentsio altuko gaixoak / altua duten gaixoak / (?) altuarekiko gaixoak
- (274) Gibel-funtzioko asalduradun gaixoak / asaldurak dituzten gaixoak / (?) asaldurekiko gaixoak
- (275) Hanka luzeko narratzia / hanka luzedun narratzia / hanka luzea duen narratzia / (?) hanka luzeekiko narratzia
- (276) Hankadun narratzia / (?) hankak dituen narratzia / (?) hankekiko narratzia

Hauetan guztietan ezin eman ditzakegu txartzat *-kiko*-dun itzuliak, tradizioan erabili izan baita deskribapen fisikoak egiteko orduan. Hala ere, hegoaldean behintzat ez da hain ohikoa eta markatuagoa dela esango genuke, bortxatuagoa.

### 5.7. *-Kiko + harremana, lotura, erreakzioa, elkarreragina, menpekotasuna, ...*

- (277) Entzimaren substratuekiko lotura
- (278) Gizakiaren animaliekiko harremanak / Gizakiaren eta animalien arteko harremanak
- (279) Beste produktu batzuekiko elkarreragina
- (280) Organismoen tenperaturekiko menpekotasuna

Orain arteko hauek izenlagun erabilerakoak izan dira. Zer gertatzen da adizlagun erabilerarekin? Hau da, aditzaren mende (zenbait kasutan ize-

nondo baten laguntzarekin) doan *-kiko*-rekin? Hona hemen parekaketa hauek:

- (281) Entzimak substratuekiko duen lotura →
- (281') Entzimaren substratuekiko lotura
- (282) Gizakiak animaliekiko dituen harremanak →
- (282') Gizakiaren animaliekiko harremanak
- (283) Gizakiak naturarekiko dituen betebeharrak →
- (283') Gizakiaren naturarekiko betebeharrak

Bestela, beharrezko egiten bazaigu izenondoarekin erabiltzea, egin dezakegu hori ere (gogoratu berria dugu tradizioan ere izan direla halako erabilerak, asko izan ez badira ere).

- (284) Eritromizina da aukerako farmakoa gram positiboek sortutako infekzio askotan, pazienteak penizilinarekiko alergikoak direnean
- (285) Penizilinekiko hipersentikorrek diren pazienteen % 10 zefalosporinekiko ere alergikoak dira
- (286) Amidopenizilinak, mezillinam eta pibmezillinam kasu, beste antibiotikoekiko jarkikorrek diren enterobakteriazeoek sortutako infekzioetan erabilgarriak dira
- (287) Hala ere kontutan hartu behar da anpizilina eta bere analogoak garestiagoak eta gram positiboen gain eraginkortasun txikiagokoak direla penizilinasarekiko sentikorrek diren penizilinak baino

Izenondo horien oinarrian datzan izenaren erregimena zein den aztertu beharko dugu dagokion itzulia finkatzeko. Kasu hauetan, goian esan dugun bezala, *-(r)en aurrean* (*-(r)en aurreko*-ri dagokion adizlaguna) edo *-(r)en aurka* (*-(r)en aurkako*-ri dagokiona) eman litezke egokiagotzat. Hartara, *-kiko* adizlagunaren (beti ere markatuagoa denaren) behar handirik ez genuke kasu hauetan.

Edozein kasutan ere, hegoaldeko tradizioaren babesa behintzat badugu *-kiko* adizlaguna (izenondo baten laguntzarekin ere) erabiltzen dugun kasuetan. Hartarako beharra balitz, erabil liteke, areago orain arte ezagutu ez ditugun kontzeptu eta ideia berriak adierazteko darabilzkgun hizkera teknikoetan.

Bukatzeko, aipatu behar da kasu batzuetan arazoak izango ditugula sintagmaren oinarrian dagoen erlazioa identifikatzeko eta, horren ondorioz, zein kasu marka edo posposizio erabili jakiteko. Horrelako kasu askotan agertzen zaigu *-kiko* atzizkia. Artikulu honekin izan dugun asmoa *-kiko*-ren erabilera zertxobait gehiago finkatzea izan da. Hortik aurrera denborak esango digu zein bide hartzen duten zalantzazko erabilerek. Gerta liteke, literaturako datuen interpretazioaren laguntzarekin gauzak zertxobait zuzentzea eta baita zalantzarriak diren egiturek aurrera egitea ere. Oraingoz behintzat halako zerbait gertatzen da Farmaziaren inguruko

testuetan, zeintzuetan *-kiko*-ren erabilera gero eta hedatuagoa egiten ari baitzaigu:

- (288) Bere eragin kaltegarri nagusiak larruazaleko baso-zabalkuntzako krisiak dira (itobeharrak oso sarritan), hazkura, goragaleak, beheherakoa eta gutxiagotan glukosarekiko jasanezintasuna, hiperurizemia eta gibelesko toxikotasuna
- (289) Glukosarekiko jasangarritasunaren aldaketa; kolezistitis eta kolelitiasia, gibelesko adenoma onbera eta kasu arraragoetan kartzinoma hepatozelularra
- (290) Azido erretinoikoaren 13-cis isomeroa, isotretinoina, bestelako tratamendu-forma batzuekiko jarkikorra den akne grabearen aho bidezko tratamendurako erabiltzen da
- (291) Anemia sideroblastikoen era arraro zenbait piridoxinarekiko sentikorrek dira
- (292) Isoniazidarekiko erresistentzi kasuetan eta 9 hilabetez azpiko eredu motzetan dago egokitua
- (293) Beste eragin kaltegarri arrarago batzuk glukosarekiko tolerantziaren gutxitzea eta diabetea dira

## 6. ONDORIO-PROPOSAMENAK

Zein dira, beraz, orain arte esan ditugun hauetatik guztietatik atera ditzakegun ondorioak?

Jokaera bikoitza ikus daiteke iparraldean eta hegoaldean.

- a) Iparraldean argi dago izenlagun gisa bakarrik erabili behar dela *-kila*. Hango euskalkietan erabil dezakegu izen abstraktuak nahiz konkretuak mugatuz, baina gogorarazi nahi genuke oinarritzko egituraren sozietiboa izan behar dugula beti.
- b) Hegoaldeko egoera konplikatuagoa iruditzen zaigu. Izan ere, bai adizlagun bai izenlagun erabilera du euskalki hauetan atzizkiak.
  - b1) Literaturako datuek ematen diguten babesarekin ausartuko ginateke esatera erabilera nagusia eta hobestekoa izenlagun gisakoa izan daitekeela. Gomendio honen alde leudeke, alde batetik, bateko eta besteko lekukotasunen maiztasunak (askogatik, izenlagunaren aldekoak), eta bestetik, iparralderako eta hegoalderako itzuli bateratua gomendatu ahal izateko irizpidea.
  - b2) Ez dugu esan nahi honekin adizlagun erabilera baztertzekoa edo txartzat ematekoa denik; ez dugu uste hartarako eskubidea dugunik ere, baina esan dezakegu hegoaldekoa bakarrik dela eta hegoaldean ere ez dela izenlagun erabilerarekin alderatzen badugu hain hedatua izan.

c) Beste kontu bat litzateke gaur egun hainbeste hedatu zaizkigun *-kiko* adizlagunen hainbat eta hainbat kasu. Hauetako askok eta askok ez dute zerikusirik tradizioan erabili izan diren adizlagun erabilerekin (beti ere izen abstraktuekin eta destinatibo kutsuko balioarekin) eta zabarkeriaz hedatu zaizkigula esan genezake.

c1) Batez ere, hizkera berezituen kasua dugu hemen aztergai, bertan ere irizpide kontrajarriak aurkitzen baititugu. Izan ere, ohartu gara *-kiko*-k balio askotxo izan dituela euskalki eta garaia desberdinetatik egin dugun osteraren ondoren; beste era batera esateko, *-kiko*-dun itzuli bat ilun edo anbiguo gerta daki-gukeela zenbait kasutan. Hain zuzen ere, hizkera teknikoaren ezaugarri oinarritzkoenetako bat horren kontrakoa den zehaztasunarena da. Beraz, hizkera teknikoetan ere *-kiko* erabiltzen hasi aurretik ondo hausnartu beharko dugu adierazi nahi dugun kontzeptua edo erlazioa beste itzuliren baten bidez egokiagoa izan daitekeelakoan.

Horrenbestez, gogorarazi behar da badirela beste egitura batzuk gaur egungo *-kiko*-ren erabilera asko baino jatorragoak, ohikoagoak eta, zergatik ez esan, zehatzagoak izan daitezkeena. Horrela, *-(r)en araberako*, *-(r)en gaineko*, *-(r)en bidezko*, *-(r)en aurreko*, *-(r)en aurkako*, *-(r)engatiko* eta *-dun /-ko* behintzat, *-kiko* baino ordain hobeak izan daitezke kasu askotan.

c2) Hala ere literatur tradizioan erabili ez diren itzulien premia izaten dugu askotxotan eta literatur tradizioan pitin bat urruntzeko premian gerta gaitzke behin baino gehiagotan. Urruntze hori, hala ere erlatibo samarra izan daiteke. Berez, ikusia dugu zenbaitetan testuinguru sintaktikoak izenlaguna ezinbestez behar duela. Gerta daiteke izenlagun hori hizkera arruntetako erabileratik kanpo egotea, baina era berean gerta daiteke adizlaguna euskara osotik kanpo egotea eta beraz, izenlagunaren aukerari eutsi beharko litzaioke nonbait, hizkera berezituen kasuan behintzat.

c3) Bestalde, *-kiko* bestalde, bere izenlagun erabileran, izen abstraktuekin batera azaldu da batez ere literaturan (*-kiko adiskidetan, harreman, lokarri,...*). Lexikogintzan erabilgai dugun izen (berri)a abstraktua bada, edo abstrakzio maila jakin bat badauka, ez ginateke oso urrun ibiliko literatur tradiziotik *-kiko* erabiliko bagenu; hala ere, oso lur irristakorrean sartuko ginateke eta arreta handia jarri beharko zaio, argi baitago ezin eman daitekeela ontzat izen abstraktu *-kiko* -ri lagunduz.

Laburbilduz, tinko eutsi nahi diogu literatur tradizioari, eta horretarako tradizio hori ondo aztertzen saiatu gara. Azterketa horren ondorioz us-

tez tradizioarekiko apurketak zirenak, ez dira benetan horrelakoak edo apurketa egon izan bada, uste baino apurketa txikiagoa izan da. Alabaina, apurketa egiteko erabakia ez da edonola aholkatzeko modukoa: ongi justifikatua izan beharko da. Nolanahi ere, gogoratu beharrekoa da bukatzeko, hizkera berezitez bakarrik ari garela.

## 7. BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE, J.M. (1991). *Euskal Gramatika Deskriptiboa*. Labayru ikastegia. Bilbo.
- ALTUBE, S. (1929). «Erderismos». *Euskera* aldizkarian, 2. arg. 1975. Bilbo.
- AZKARATE, M. (1995). *Hobekuntza ikastaroa*. EHUko material argitaragabea.
- AZKUE, R.M. (1923-25). *Morfología Vasca*. Bilbao (2. arg., 1969, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao).
- EITB (1992). *Euskal Albistegietarako Esku-liburua*. Euskal Irrati Telebista.
- EUSKALDUNON EGUNKARIA (1993). *Estilo Liburua*. Euskaldunon Egunkaria. Donostia.
- EUSKALTZAINDIA (1985). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Euskaltzaindia eta Príncipe de Viana. Iruñea.
- EUSKALTZAINDIA (1987). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I (Eraskina)*. Euskaltzaindia. Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (1993). *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Euskaltzaindia. Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA. *Orotariko Euskal Hiztegia: Corpus informatizatua*.
- GOENAGA, P. (1978). *Gramatika Bideetan*. Erein. Donostia.
- LAFITTE, P. (1944). *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Elkar (1979). Donostia.
- LAFON, R. (1965). «Les deux génitifs en basque». *Bulletin de la Société Linguistique* 60: 131-159.
- LHANDE, P. (1926). *Dictionnaire Basque-Français*. Gabriel Beauchesne. Paris.
- MITXELENA, K. (1972). «Etimología y transformación». *Lengua e Historia* (1985) Paraninfo. Madrid.
- ODRIOZOLA, J.C. eta ZABALA, I. (1992). *Izen-sintagma*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.
- OYHARÇABAL, B. (1994). «Ekiko-keriarik ba ote den». *Euskaldunon Egunkariaren Orri debozinezkoa*: 1994-IX-2.
- RIJK, R. DE (1998). «Zer dut EGLU-ren kontra?» Hitzaldi argitaragabea. *Euskaltzaindiaren V Gramatika Ihardunaldiak*: Areatza, 1998-07-24.
- SALABURU, P. eta KINTANA, X. (1984). *Euskara Hobe* EHU. Bilbo.
- TRASK, R. (1985). «-ko atzizkia euskaraz». *Euskera* XXX (1): 165-173.



# *Eginez, eginik ala eginda?*<sup>1</sup>

*Juan Carlos Odriozola*

Euskal Herriko Unibertsitatea. Zientzia Fakultatea

## 0. SARRERA

Lan honetan mendeko perpaus adberbial delako izenaren azpian sailkatu ohi diren hiru perpaus mota aztertuko ditugu: instrumental deklinabide-atzizkia daraman partizipiokoa (aurrerantzean *-ez* mendekoa), partitibo deklinabide-atzizkia daraman partizipiokoa (aurrerantzean *-rik* mendekoa) eta azkenik, *eta* juntagailu enklitiko daraman partizipiokoa (aurrerantzean *-ta* mendekoa)<sup>2</sup>. Lan honetatik kanpo utziko ditugu *gero* bezalako kide enklitikoak, bai eta mendekotasunaren esparrutik at dagoen guztia ere<sup>3</sup>. Begi-bistakoa da Euskaltzaindiak bere Gramatika Batzordearen eskutik epe ertain baten barruan eskainiko digunak behin betiko baretuko dituela esparru honetan dauden ika-mikak: erakunde honen esanak izango dira eredu euskararen normatibizazioan. Hala ere, lan honetan hustuketa sakon bat egin nahi izan dugu euskal literaturan zehar, ateratako ondorioak euskararen berezitetan erabiltzeko asmoz. Funtsean, *-ez* mendekoak adieraz di-

---

<sup>1</sup> Nire eskerrona adierazi nahi diot Igone Zabalarri lan honen inguruan egin dizkidan iruzkingenatik.

<sup>2</sup> Gogora bitez edonola hiru mendeko hauen aldaera morfologikoak edo agian morfosintaktikoak, izendatzeko unean jasoko ez ditugunak:

- (i) a eginez/eginaz  
b etorritz/etorriaz
- (ii) a eginik  
b etorririk
- (iii) a eginda  
b etorrita

<sup>3</sup> Ikus Odriozola (1993) eta Zabala (1993).

tzakeen esanguren sorta finkatu nahi dugu: perpaus nagusiko gertaeraren modua edo zergatia batetik, eta bestetik nagusiaren gertaerarekin batera suertatzen den beste gertaera bat; oinarrian suma daitezkeen modu-, zergati- eta denborakidetasun-kutsu horiek elkarrengandik ondo bereizteko unean, ohiko gramatiketan jasotzen ez diren zehaztasun morfosintaktiko ugarik hartzen dute esku, eta hain zuzen ere zehaztasun horiei begira dago lan honen helburu nagusia. Bestalde, *-rik* eta *-ta* mendekoak ere aztergai izango ditugularik, askoz ere zabalagoa den esangura-esparruaz arituko gara: modua eta zergatia direlako horietaz gain, aurretiazkotasuna eta bestelako aspektu- edo denbora-zehaztasunak nagusiki. Laburbilduz, lan honetan zehar *-ez* mendekoaren adiera-zehaztasuna azpimarratuko dugu, *-rik* eta *-ta* mendekoen adiera sorta zabalaren aldamenean.

Dakusagun sarrera honetan arazoaren muina zenbait literatur adibidetan.

Gaur eguneko euskaraz behintzat, *-ez* mendekoak oso esparru semantiko zabala adieraz dezake. Erabilerarik hedatuenean, mendekoak nagusiko gertaeraren modua adierazten du, lehenengo (1a) zein bigarren (1b) gunean kokatuta.

- (1) a lagunduz lana asko arinduko diagu (ET.03.060)  
 b Eta izarak gainetik kentzen genituen, hankak astinduz (SZ.02.066)

(1a-b) bezalako perpaus elkartutetan, nagusiaren eta mendekoaren arteko denbora-harremana garbi samarra da: mendekoaren denbora erreala, nagusiarena baino lehenagokoa da, edo bestela, bi gertaerak denborakideak izango dira, tarte jakin batean behintzat. Horrela, (1)eko *laguntzea* eta *lana arintzea* batetik, eta *hankak astintzea* eta *izarak kentzea* bestetik, denbora-tarte jakin batean denborakide direla onar liteke, baina oro har, *laguntzea* eta *astintzea* horiek *arintzea* eta *kentzea* baino lehenagokoa den denbora-tarte bat daramate bere baitan.

Erabateko denborakidetasuna daramaten perpausak ere elkar daitezke gisa honetara. Horrelakoetan, perpaus nagusia atzetik joan daiteke (2a), baina batez ere perpaus elkartuen hasieran azaldu ohi da (2b).

- (2) a Gerritik besarkatuz, inoiz baino beroago, esango zidan (SZ.02.171)  
 b ezin zihoakeela erantzun zion, eskuz erakutsiz loturik zedukan katea (ME.01.106)

(2) bezalako perpaus elkartuetan, nagusiko gertaerak diren *esate* edo *erantzute* horiek eta mendekoaren *besarkatze* edo *erakuste* direlakoek, erabateko denborakidetasuna daukate elkarrekin, ez baitago komuna ez den denbora-tarterik.

Gaur eguneko usadioari begira behintzat, badago aipatu beharreko hirugarren erabilera bat: *-ez* mendekoak nagusiaren ondorioa adierazten duenekoa (3).



- (3) a Horri esker, bihotz taupadak bizkortu eta indartu egiten dira oxigenoa bizkorrago igorritz (SZ.01.351)
- b Bihotz taupadak indartuz, oxigenoa bizkorrago igortzen da
- c Bihotz taupadak indarturik, oxigenoa bizkorrago igortzen da
- d Bihotz taupadak indartuta, oxigenoa, bizkorrago igortzen da
- e Bihotz taupadak indartu eta oxigenoa bizkorrago igortzen da

Hain zuzen (3a) bezalako mezu berezituak emateko unean *-ez* mendekoak gaitzestea da lan honen helburu nagusietako bat: arnas edo zirkulazio-fisiologiaren berri zehatzik ez duen irakurleak, *-ez* mendekoa erabili delarik, berdin uler dezake bihotz-taupaden indartzeak oxigeno-igorpenaren bizkortzea dakarrela, edo alderantziz, oxigeno-igorpenaren bizkortzeak azkartu egingo duela bihotz-taupaden erritmoa. Jakintza-esparru honetan jantziak direnek badakite ordea lehenengoa dela benetan gertatzen dena eta bigarrena erabat zentzugabea dugula. Beraz, *-ez* mendekoa egin beharrean, bestelako taiuketa bat hautatuko dute aipaturiko adituek, ondorioa den hori aditzera emateko. (3b) egoki horretaz gainera, *-rik* eta *-ta* mendekoak ere aztertuko ditugu hemen, (3c-d) bezalako irtenbideak edota itzulingeruak eskaintzeko asmoz.

(3a) bezalakoen egokitasun eza, behin eta berriro aldarrikatu da bibliografian (EITB 1992, Egunkaria 1992), baina hala ere, gure idazlerik onenek ere egiten dutela gogoan izanik, oso ardura handiz zehaztu behar da noiz eta zertarako izango litzatekeen (3a) hori ezegoki. Berez, lan honetan zehar *-ez* mendekoak eta *-rik* eta *-ta* mendekoak aztertzerakoan, aspektuarekiko hurbilketa azaleko bat egingo dugu. Aspektu-balioak hiztegi eta morfosintaxi mailetan gauza daitezkeelarik, eta areago, morfosintaxi-gertaeren sorta zabal baten eragile direlarik, lan honen mugak erabat gaindituko lituzkeen ikerkuntza-esparru oso baten beharra aitortu behar dugu hemen besterik egin baino lehen. Horrela izanik ere, oinarritzko adigai batzuk erabiliko ditugu lerrootan (bereziki 3. sailean eta hiztegi-aspektuari begira), gutxienez mendeko batzuen eskasia zertan datzan agerian uzteko xedeaz. Balio beza, adibide gisan, (2b)ko *erantzun lerakutsi* eta (3)ko *indartu ligorri* bikoteen miaketak. Aditz guztion oinarritzko aspektuezaugarriak geureganatuta garbi ikusiko dugunez, *erakutsi* aditzak darman aspektuak, hau da, denbora-mugarik ez duen gertaera horrek, zilegiztatu egiten du *erantzun* aditzarekiko denborakidetasuna; horren aldamenean, *indartu* eta *igorri* aditzek ez dute elkarrekin denborakideak izaterik eta (3a)koan ez bezala, literatur tradizio nagusian bigarren guneko mendekoak nagusiarekiko denborakidetasuna adierazten duela ikusiko dugu. (3b) ordea, erabat ados dago tradizio horrekin: modua adierazten duelarik, lehenengo guneko mendekoak ez du nagusiarekiko denborakide-

tasunik izan behar. Literaturaren argitan, era berean, (3c-d) alderak erabat erroturik daudela egiaztatuko dugu.

Beraz, hiru mendekoez literatur tradizioan izan duten erabileratik abiatuta, gaur egun ustez dauden desbiderapenak finkatu nahi ditugu, hizkuntza berezitueta azaltzen diren eragozpenak gainditzeko asmotan.

1. sailean, Odriozolaren (1993) lanaren emaitzak bilduko ditugu abiapuntu gisan: 11. azpisailean hiru mendekoei buruz ohiko gramatiketan esandakoaren berrikustapena, eta 12. azpisailean, Axularren testuko *-ez* eta *-rik* mendekoen azterketa sakona. Lan horren arabera, *Gero* horretako *-ez* mendekoak, modua (4) eta zergatia (5) adieraz ditzake, baina egilearen esanetan, zergatia eta modua nekez bereiz daitezke zenbaitetan elkarrengandik (6).

- |   |             |
|---|-------------|
| (4) otoitz eginez, behar du salbatu   | (AX.00.149) |
| (5) eskiribatu zion Mezenas bere adiskideak, eta igorri eskutik eskura, bera jendartean urrun egonez, gutun labur bat | (AX.00.211) |
| (6) anitz galdu dela, bere buruari etorkizunaz soberaz prometatuz   | (AX.00.036) |

Era berean, lan horretan *-rik* mendekoaren modu (7), zergati (8), kontzesibotasun (9) eta aurretiazkotasuna (10) direlako balioak aurkitu ziren, eta emendiozko harremantzat jo litekeenaren zirriborro bat ere (11) azaldu zen.

- |   |             |
|---|-------------|
| (7) su bat zerutik igorriker erre zituen  | (AX.00.093) |
| (8) esperantza ero baten biserak jantzirik... engaina ahal zintezke                     | (AX.00.004) |
| (9) eta han anitz trabailu iraganik, kontrakara izanik, ekarri zenuen... erremedioa     | (AX.00.101) |
| (10) Eta zama bat eginik, lotu zuenean, hasi zen entseiatzen ea jasan ahal zezakeenentz | (AX.00.058) |
| (11) eta igor iezadazu Lazaro, hark bere eri puntaz urean bustirik, mihian uki nazan    | (AX.00.384) |

2. sailean, gure literatur hustuketaren ondorioak azalduko ditugu. Esan beharrekoa da *-ez* mendekoaren erabilera Axularrenean baino apur batez zabalagoa eta era berean ilunagoa eriden dugula. Izan ere, zergatia eta modua direlakoez gain, denborakidetasuna ere testu klasiko horretan baino askoz ere errazago aurkitu dugu (12-13), oso erabilera estandar gisan ez bada ere.

- |   |             |
|---|-------------|
| (12) Esan itzazu mez-emaileaz batera Aita gureko zazpi eskariak, eskaturik zeugatik | (AÑ.00.116) |
| (13) zuzentasunaren aldekoa mintzatu zen, ezkontza-nahasleak salatuz                | (ET.15.310) |

Edozelan, azpimarratzekoa da gure mendera heldu arte guk geuk nekez aurkitu dugula ondorio garbia adierazten duen *-ez* mendekorik: zergatia eta modua, eta aurretiazkotasuna eta denborakidetasuna baizik ezin dira sumatu. Hori guztia, 21. sailean ikusiko dugu. Bestalde, 22. sailean *-rik* eta *-ta* aztertuko ditugularik, adberbio-esanguren aukera sorta zabalak ikusteko beta izango dugu.

3. sailean, ikuspegi pragmatiko hutsaz arituko gara, alde zurretik aurkezturiko hustuketako modu, zergati, aurretiazkotasun edo denborakidetasuna bezalako edukiak formalizatzeko asmoz. Alegia, garbiki finkatu nahi ditugu eduki horietako bakoitzaren inguruko zehaztasunak; horrela, gure aburuz, laguntza handia emango diegu hiztun-idazleei, mezu (zail) bat igorri nahi dutenean, benetan zer adierazi nahi duten eta zein morfosintaxibaliabide hautatu behar duten finkatzeko unean.

31. azpisailean, modu eta zergatiaren arteko bereizkuntza iluna argitzeari ekingo diogu. Izan ere, lehenengo hurbilketa batean bi perpausen gertaerak berariaz sortaraziak direnean (14a), moduaren esparruan ari gara, eta bietatik bat gutxienez berariaz sortarazi ez denean (14b), zergatia adierazten ari garela ikusiko dugu.

- (14) a Disoluzio indargetzailea erabiliz, pH-a egonkortu egiten dugu
- b Disoluzio indargetzaile bat egonik, pH egonkorra dago

Hala ere, borondatezkotasun delako hori ez da behin-betiko irizpidea eta azpimarratu egin beharko dugu inolako borondatezkotasunik adierazi nahi edo behar ez denean ere, modu/zergati bereizkuntza ondo gauza daitekeela: inolako borondaterik ez duten subjektu bizigabeek ere moduzko mendekoak osa ditzakete, mendekoan eta nagusian subjektu berbera ezartzen denean behinik behin (15a). Horren aldean, borondatezkotasunik adierazten ez duten subjektu bat baino gehiago dagoenean zergati hutsa adierazten dela ikusiko dugu (15b).

- (15) a Mintzak, jatorrizko egitura galduz, egoera berriarekiko moldapena lortzen du
- b Kanpo-konposatu horrek jatorrizko egitura galerazirik, mintza ioiekiko iragazkor bihurtzen da

Edonola, zergatiaren eta moduaren arteko bereizkuntza testu teknikoetan igorri nahi den mezua guneetako bat dela gogoratuko dugu 31. azpisail horretan.

32. azpisailean, Axularren testuan eta euskal literaturan zehar batez ere *-rik* mendekoak maiz hartzen duen eduki semantiko berezi bat aztertuko dugu: argudiozko harreman modura izendatuko duguna. Harreman hau bereziki garrantzitsua da hain zuzen ere argudiozko testu berezietan. Ikusiko dugunez, horrelakoetan mendekoa hurbil dago zergatia bezalako

eduki batetik, baina garrantzi handi samarra izango du horrelako esapideek daramaten ñabardurak (16).

- (16) a Oxigeno kantitatea altuagoa zela ikusirik, saioa berriro ilunpean egitea erabaki zuen
- b Oxigeno kantitatea altuagoa izanik, saioa berriro ilunpean egitea erabaki zuen

Izan ere, *ikusi*, *konturatu* edo *atzeman* bezalako aditz mendekoak azaltzen direlarik, bi perpausek elkarren artean duten subjektu komunak jorratu izan duen argudio-bide bat ematen da aditzera. Bere aldetik mendeko konpletibo bat daraman *-rik* mendeko hori (16a), egokiagoa da (16b) bezalako adierazpide bakunagoak baino.

33. azpisailean, sakonkiago aztertu nahi dugu Odriozolaren (1993) lanean zirriboratu egin zen beste esangura-harreman bat; hemen emendiozko harremana esango diogu horrelakoari (17a). Izan ere, lan horretan Axularren *-rik* mendekoen artean zenbaitetan ohiko eduki adberbialetatik bat ere ezin suma zitekeela eman zen aditzera (17c-d)<sup>4</sup>. Horrelakoetan, *eta* juntagailuan oinarrituriko itzulingurua baizik ez dugu zilegi (17b). Itzulingurua hori, dena dela, zilegi da aurretiazkotasuna (18b-c) edo zergatia (19b-d) adierazi nahi denean ere.

- (17) a Molekula hau Krebs zikloan sarturik, guztiz eraldatzen da
- b Molekula hau Krebs zikloan sartu eta guztiz eraldatzen da
- c #Molekula hau Krebs zikloan sartu eta gero, guztiz eraldatzen da
- d #Molekula hau Krebs zikloan sartzen denez, guztiz eraldatzen da
- (18) a Bigarren molekula sintetizaturik, beste metabolismo-bide bat jartzten da abian
- b Bigarren molekula sintetizatu eta beste metabolismo-bide bat jartzten da abian
- c Bigarren molekula sintetizatu eta gero, beste metabolismo-bide bat jartzten da abian
- d #Bigarren molekula sintetizatzen denez, beste metabolismo-bide bat jartzten da abian
- (19) a Kontzentrazioa jaitsirik, nekez betetzen du jatorrizko zeregina
- b Kontzentrazioa jaitsi eta nekez betetzen du jatorrizko zeregina
- c #Kontzentrazioa jaitsi eta gero, nekez betetzen du jatorrizko zeregina
- d Kontzentrazioa jaisten denez, nekez betetzen du jatorrizko zeregina

34. azpisailean, *-ez* mendekoaren inguruan dagoen eragozpenik garrantzitsuena berriro aztertzeari ekingo diogu. Berez, esana dugunaren arabera, aurrean ikusitako (2) bezalako perpaus elkartuak estandar samarrak dira,

---

<sup>4</sup> Perpaua ondo eratua izan arren adieraren aldetik guztiz egokia ez dela adierazteko erabiliko dugu (#) ikurra. Perpaus jakin baten gramatikaltasun eza adierazteko, bestalde, ezaguna den (\*) ikurra erabiliko dugu.

baina (3) bezalako perpaus elkartuak oso nahasgarri gerta daitezke. Bien arteko bereizkuntza, morfosintaxiari egokitu gabe, pentsamendu-antolaketaren edo esanguraren zehaztasun zorrotz bati loturik doa: (2)ko perpaus elkartua literatur tradizioarekin bat dator, zeren eta bi perpausetako gertaerak denbora-tarte batean behintzat denborakidetzat jo baitaitezke. Hori dela eta, sarrera honen lehenengo lerroetan esana dugu batez ere aspektu-ezauzgarri oinarritzkoak erabiliko ditugula, ez arau orokor eta sendoak gauzatzeko asmoz, baina bai funtsean gertatzen diren desbiderapen nagusiak zertan dautzan agerian uzteko helburuz.

Aditzek, txertatzen direneko sintaxi-baliabidearen arabera edo oinarrian daramaten esangura motaren arabera, zenbait gertaera mota adieraz ditzakete: iraupenik gabeko gertaerak (aurrerantzean «lorpenak»: *desagertu*), mugadun gertaera iraupendunak (aurrerantzean «gauzaketak»: *bete*), mugarik gabeko gertaera aktiboak (aurrerantzean «jarduerak»: *zaindu*) eta mugarik gabeko gertaera ezaktiboak (aurrerantzean «egoerak»: *egon*). Perpaus elkartuez ari garelarik, zergatia, modua eta bereziki denborakidetasuna direlako esangurak ulertzeko edo adierazteko aukerak, aditz nagusiak eta mendekoak aspektu-ezauzgarri horietan oinarriturik duten harremanaren pean daude erabat.

341. azpisailean ikusiko dugun legez, denborakidetasun hau ondo ztertuz gero, ereduzko denborakidetasunaren aldamenean (20), zehatzagoak diren bestelako batzuk ere ikus daitezke. Alde batetik, denborakidetasuna ez ezik modua ere adierazten duen *-ez* mendekoa dugu (21), baina batez ere, beste denborakidetasun mota bat atzeman daiteke literatur tradizioaren eskutik; izaerakidetasuna esango diogu harreman horri (22).

- (20) eta ixilik egin genuen gainerako bide guztia, irratia entzunez (AT.00.391)
- (21) hortzak gordez eta beheko ezpain diztiratsua erakutsiz egiten zuen irribarre (SZ.01.405)
- (22) Ostarteetan azalduz, eguzkiak briztadak ateratzen zizkien (AT.00.091)

Erraz ikus daiteke (20)ko *bidea egite* eta *irratia entzute* horiek, hurrenez hurren, «gauzaketa» bat eta «jarduera» bat direla. Horren arabera zilegiztatu da hain zuzen denborakidetasun delako adiera berezi hori, bi gertaerek gainezarria baitute beren denbora-tarte osoa. (21) perpaus, *irribarre egin* «jarduera» dugu, eta *erakutsi* aditza «egoera» zein «jarduera» izan daitekeelarik ere, zilegiztatuta dago (erabateko) denborakidetasuna. (21-22)koek ordea, azterketa zorrotzagoa behar dute: *azaltzea* eta *briztadak ateratzea* ongi bereiz daitezke beren adigaien aldetik, baina bestalde, izaerakidetzat hartu behar ditugu, hau da, fisikoki edo denboran zehar nekez bereiz ditzakegun gertaerak dira. Horrelako irakurketa bideragarria izateko, jakina, denborakidetasun berezi hori eramateko ahalmena eskaintzen duten ezaugarriak eraman behar dituzte aditzek. Behin eta berriz esango dugunez, horrek guztiak berebiziko garrantzia izango du testu teknikoetan:

(21-22) literatur adibideak, ederki eginak izateaz gain, hizkuntzatik kanpoko ezaguera arruntak lagunduta datoz ondo ulertzeko unean. Hizkuntza berezitu-tuko (23-24) direlakoak ulertzeko aldiz, hizkuntzaren laguntza soila dugu.

- (23) Erreakzioaren urrats guztietan hartzen du esku, entzima modura jokatuz
- (24) Lotura bikoitz bat eratzen du, propeno bihurtuz
- (25) #Ura gaineratzen da, lotura bikoitza apurtuz

(23)an, nahiko ereduakoa den perpaus elkartua eratu delarik, bi «jardueren» arteko denborakidetasuna eta modua adierazten dira. (24) dela eta, kimikariek ondo dakite *lotura bikoitza eratzea* eta *propanoa zena propeno bihurtzea*, gertaera izaerakideak direla: lotura bikoitzik gabekoari propano deritzo, eta lotura bikoitzunari propeno; hau guztia, jakina, bi gertaerak («lorpenak» edo «gauzaketak») erabat denborakideak direla ulertzeko aukeraren menpe dugu. Zer esanik ez, (25)ekoa ezegokitzat joko dugu literatur tradizioari jarraituz eta gure gogoeta pragmatikoei eutsiz ere: «lorpena» den *loturaren apurketa* delakoak ez bide darama oso denborakidetasun garbirik *ura gaineratzea* delako «lorpena» edo «gauzaketa-ekin».

342. eta 343. azpisailetan, berrikusi egingo ditugu «gauzaketa», «lorpen», «jarduera» eta «egoera» direlako gertaera hauen ezaugarriak. 342 azpisailean, ezaugarri horietan oinarriturik perpaus elkartuen hasieran kokatu ohi diren *-ez*, *-rik* eta *-ta* mendeko batzuen aurretiazkotasuna aldarrikatuko dugu, denborakidetasunetik ondo bereizteko, eta batez ere *-ta* mendekoei eta *eta* juntagailuaren bidezko koordinazioek daramatzaten zerbait zehaztasun ahalik eta hobekien geureganatzeko. Izan ere, hizkuntza arruntean bezala (26-28), hain gardenak ez diren hizkuntza berezietan ere (29-31), gurutzamendu korapilatsua dago esanguren, aspektu-ezaugarrien eta mendeko perpaus moten beraien artean: (26) eta (29) aurretiazkotasuna adierazteko dira baina ez modua adierazteko; (27) eta (30), moduzkoak dira eta funtsean nola edo halako aurretiazkotasuna egon arren, ez da hori adierazi den mezua gunea. (28) eta (31) perpausen arabera, *eta* juntagailuaren bidez antolaturiko koordinazioek edozein adiera iradokitzeke balio dutela dirudi.

- (26) a Izaskunekin hitz eginda/hitz eginik, erabaki bat hartuko dut  
a Izaskunekin hitz egin eta gero, erabaki bat hartuko dut  
b #Izaskunekin hitz eginez, erabaki bat hartuko dut
- (27) a Izaskun lasaituta/lasaiturik, Jose ere lasaituko duzu  
b #Izaskun lasaitu eta gero, Jose ere lasaituko duzu  
c Izaskun lasaituz, Jose ere lasaituko duzu
- (28) a Izaskunekin hitz egin eta erabaki bat hartuko dut  
b Izaskun lasaitu eta Jose ere lasaituko duzu
- (29) a OH taldeak ugarituta/ugariturik, bigarren erreakzioan hartzen du esku  
b OH taldeak ugaritu eta gero, bigarren erreakzioan hartzen du esku  
c # OH taldeak ugarituz, bigarren erreakzioan hartzen du esku

- (30) a OH taldea galduta/galdurik, alkoholen desabantailak saihestu egiten ditu
- b #OH taldea galdu eta gero, alkoholen desabantailak saihestu egiten ditu
- b OH taldea galduz, alkoholen desabantailak saihestu egiten ditu
- (31) a OH taldeak ugaritu eta bigarren erreakzioan hartzen du esku
- b OH taldea galdu eta alkoholen desabantailak saihestu egiten ditu

342. azpisaila, azkenik, sarrera honen hasierako (3) adibideaz esan duguna zehazteko tokia izango da: (32a) bezalako esapideak baztertzeko komenigarritasuna aldarrikatuko dugu, beti ere aditzen aspektu-ezaugarriak ikusmiran izanik:

- (32) a #Alkoholak bigarren erreakzioan hartzen du esku, aldehido bihurtuz
- b Alkoholak bigarren erreakzioan esku hartu eta/harturik/hartuta/hartuz, aldehido bihurtzen da

Mendekoaren gertaerak, «lorpena» delarik, ez dauka nagusiaren «jarduera» horrekiko denborakidetasun garbirik, gertaera horren ondorio garbia baita (hizkuntzatik kanpoko ezagueraren arabera). Honen ondoan (33)koak egokiak direla azpimarratu beharko da ordea.

- (33) Alkoholak bigarren erreakzioan hartzen du esku, OH taldea erabiliz

Berez, mendekoaren gertaera «jarduera» da eta nagusiaren «jarduerari» begira, denborakidetasuna edota modua adierazten du; bien arteko denborakidetasun nabaria dago gainera.

Laburbilduz, esparruan oso bazterrekoak diren kontzesibotasuna eta baldintzak alde batera utzirik<sup>5</sup>, lan honetan ondo deskribaturik utzi nahi ditugu denborakidetasun, izaerakidetasun, modu, zergati, aurretiazkotasun eta ondorio direlako adberbio-esangurak, batez ere testu teknikoen idazkerari begira eta *-ez*, *-rik* eta *-ta* direlako mendekoen eremuan. Horretarako literatur tradizioan oinarrituko garelarik, esanahi-harreman horien funtsean dagoena azaldu eta funts hori kontuan ez izateak dakarrena salatzeke saioa egingo dugu azken finean.

## 1. BIBLIOGRAFIA ZER ESAN DEN

### 1.1. Ohiko gramatiketan

Mendeko hauek dituzten esanguren tirabiren auziari eusteko, gaztelaniaren gerundio eta partizipioen esparrua gogora genezake lagungarri gisa. Gerundioak, gaztelaniaren Alarcos Llorach-ek (1994) esan duenaren

<sup>5</sup> ■kus Odriozola (1993) eta Odriozola (1996).

arabera, iraupena adierazten du oro har eta beraz, gerundio bakunaren kasuan, nagusiaren gertaerarekiko denborakidetasuna atzematen da horrelakotetan (33). Hala ere, denborakidetasuna tarte jakin bati bakarrik dagokionean, aurretiazkotasun hurbila da nagusi. Hori guztia, are nabariagoa da mendekoaren gertaera eta nagusiarena nabariki aurkakoak direnean (34).

- (33) Paseando por el campo, vi aterrizar un avión
- (34) Paseando por la plaza, le detuvo el policía

Hala ere, denbora- edo aspektu-eduki hau adizkiari ezinbestez loturik bide doa, zeren eta, testuinguruaren arabera, zergatia (35a), modua (35b), baldintzapena (35c) edo kontzesibotasuna (35d) suma baitaiteke batzuetan (Gili Gaya 1985).

- (35) a Nada temo estando vosotros aquí
- a' Estando vosotros aquí no tengo miedo
- b Por todas las vías posibles procuraban animarle, diciendo el bachiller que se animase y levantase
- b' Diciendo que se levante le animarás
- c Ayudando todos, acabará pronto la tarea
- d Siendo tan fácil el problema, pocos lo han resuelto al primer intento

(a'-b') aldaerak, geuk gaineratu ditugu zenbait zehaztasun agerian uzteko asmotan: zergatia edo modua adierazten duen gerundioa, nagusiaren aurrean zein atzean koka daiteke, ezaugarri pragmatiko batzuen arabera.

Gerundio konposatua, ez da iluna denborakidetasun/aurretiazkotasun delako bereizkuntzari dagokionez eta nagusiaren gertaerarekiko aurretiazkotasun nabaria gaineratzen die aurrean aipaturiko iraupen orokorreari eta gainontzeko ñabardurei. Hala eta guztiz, ikus bedi bestelako ñabardurak eta bereziki zergatia ukaezinezkoak direla gerundio konposatuko egitura hauetan ere (36).

- (36) Habiéndose incendiado el registro, fue imposible determinar su fecha de nacimiento

Gili Gaya-k (1985) eta Alarcos Llorach-ek (1994) berak, zuzen-zuzenean gaitzetsi dituzte nagusiaren gertaerarekiko gerokotasuna adierazten duten gerundioak (37). Gauza bera dugu, nagusiari erantsi behar zaionak alborakuntza-jatorria duenean (38). Gerundio bakunean oinarrituriko perpaus elkartuak ordea, egokiak dira gerokotasun hori berehalakoa izanda edo nolabaiteko denborakidetasuna izanda nagusiaren atzean kokatzen denean (39).

- (37) a #las tropas se hicieron fuertes en un convento, teniendo pronto que retirarse después de una inútil aunque vigorosa resistencia
- a' Habiéndose hecho las tropas fuertes en un convento, tuvieron que retirarse después de una inútil aunque vigorosa resistencia



- b #El agresor huyó, siendo detenido horas después
- b' Habiendo huido el agresor, fue detenido horas después
- (38) #Los ministros se hallan reunidos, creyéndose en los círculos políticos que ya no volverán a reunirse hasta la semana próxima
- (39) Entró en la casa dando un portazo

Hemen ere, geuk gaineratu ditugu (a'-b') itzulinguruak: (37)ko sortaren bigarren kokaguneko perpausari gerokotasuna dario eta beraz, gerundioa ez da onargarria (37a-b). Lehenengo gertaerak ordea, aurretiazkotasuna darama eta beraz, bigarren perpausa nagusi modura gauzatzen delarik, gerundioa onargarria da lehenengo kokagunean (37a'-b'). Gogora bedi bestalde, (35)eko sortaren arabera, zergatia/modua adierazten duten perpausak ondo onartzen dutela gerundio bakuna, lehenengo zein bigarren kokagunean. Azpimarratzekoa da beraz (35a-b) eta (37-38) direlako sorten arteko erkaketa: ikus (40) sorta, non parentesien artean esangura nagusiaz gain suma daitekeen bigarren mailako esangura azalduko baita.

- (40) a Zergati edo moduzko (+ aurretiazkotasunezko) gerundio bakuna +  
+ (gerokotasunezko) nagusia
- a' (Gerokotasunezko) nagusia + zergati edo moduzko (+ aurretiazkotasunezko) gerundio bakuna
- b Aurretiazkotasunezko (+ zergati edota agian moduzko) gerundio konposatua + gerokotasunezko nagusia
- b' #Aurretiazkotasunezko nagusia + gerokotasunezko gerundio konposatua

Partizipioak bere aldetik, nagusiaren gertaerarekiko aurretiazkotasuna adierazten du (40).

- (40) Terminada la alocución, el general fue muy aplaudido

De Miguel-ek (1991) eskainiriko partizipio bilduma handian, egitura hau maiz azaltzen da *una vez* edo *recién* bezalako adberbio-adierazpideekin batera (41a-b)<sup>6</sup>, baina bereziki azpimarragarria da aurretiazkotasunaz gain zergatia dela esangura ugariena (41c). Zenbaitetan modua ere uler daiteke nola edo hala (41b), eta aurrean aipaturiko bibliografian, bestelako ñabardura morfosintaktiko eta semantiko batzuk ere badira (41b-c).

- (41) a Recién ascendido el Huesca, se supo que había comprado a todos los árbitros para lograrlo
- b Una vez atrasado el reloj, el asesino procedió a revolver los papeles
- c Bajada la marea, los barcos quedaron varados
- b Continuas las conversaciones en un nuevo escenario tras el fracaso inicial, finalmente se alcanzó un acuerdo

---

<sup>6</sup> Lan honen aztergai bakarrak diren *-ez*, *-rik* eta *-ta* mendeko horietaz gain, ikus bedi *gero* edo *behin* bezalako aditzondoaren zeregina Odriozolaren (1993) lanean.

- b La obra, si bien retocadas algunas escenas, podría representarse con éxito
- c Se presentó, erguida la cabeza, ante el tribunal que había de juzgarle

De Miguel-ek (1991), aspektuak gaztelaniaren morfosintaxian eta lexikoan dituen zereginak aztertu zituelarik, agerian utzi zuen partizipio absolutuko egitura hauek «gauzaketak» (42a) edo «lorpenak» (42b) adierazten dituzten aditzek bakarrik adierazten dituztela: mugadun denboratartea adierazten dutenak. Denbora-mugarik ez daramaten «jarduerak» (42c) eta «egoerak» (42d) ez dira bideragarriak gaztelaniaren egitura honen kasuan (ikus 34 sailean lau aspektu-mota nagusi hauen berri zehatza goa)<sup>7</sup>.

- (42) a Construidos los edificios de viviendas, empezaron a urbanizar los alrededores
- a' Habiendo construido los edificios de viviendas, empezaron a urbanizar los alrededores
- b Rechazada la propuesta, pasaron a considerar la posibilidad de una nueva ley
- b' Habiendo rechazado la propuesta, pasaron a considerar la posibilidad de una nueva ley

---

<sup>7</sup> Marín-ek (1996) oso zehaztasun garrantzitsuak aurkitu ditu murriztapen honetan. Izan ere, menpeko hauen baitan izen-sintagma ageri (i) edo isilaren (ii) agerpenak izan dezakeen eragina aztertu du. Izen-sintagma ageririk ez dagoelarik, «lorpena» (ia) eta «gauzaketa» (ib) horietaz gain, «jarduerak» (ic) eta «egoerak» ere (id) zilegi dira. Ikus bitez (ii)ko sortan, izen-sintagma ageriak ematen dituen ohiko ondorioak.

- (i) a Los turistas, pillados por sorpresa, dijeron que lo que más les gustaba era la vida nocturna de la ciudad
- b Los turistas, entrevistados ante las cámaras, hablaron maravillas del casco viejo de la ciudad
- c Los turistas, muy bien tratados por la gente de la ciudad, sonreían una y otra vez
- d Los turistas, encantados con el museo más famoso de la ciudad, no paraban de hablar de su grandiosa estructura
- (ii) a Pillados por sorpresa los turistas, dijeron que lo que más les gustaba era la vida nocturna de la ciudad
- b Entrevistados los turistas ante las cámaras, hablaron maravillas del casco viejo de la ciudad
- c \*Muy bien tratados los turistas por la gente de la ciudad, sonreían una y otra vez
- d \*Encantados los turistas con el museo más famoso de la ciudad, no paraban de hablar de su grandiosa estructura

Gure lan honetan ez dugu zuzenean aztertu (i-ii) horien pareko hitz-hurrenkerak euskararen barruan izan dezakeen garrantzia. Odriozolaren (1993) lanean ere ez da jaso maila horretako gogoetarik, baina bai argitarapen horren oinarrian dagoen doktorego-tesian. Honekin guztiarekin batera loturik dagoen sintagma isil edo agerien kontua ere, azterturik dago plazaratu gabe ko lan horretan eta bai, neurri batean, plazaratutakoan ere.

- c \*Cantado Jon (durante media hora), se sintió mejor
- c' Habiendo cantado Jon durante media hora, se sintió mejor
- d \*Amada a Sonia (durante tres años), rompió la relación inesperadamente
- d' Habiendo amado a Sonia durante tres años, rompió la relación inesperadamente

«Jarduera» eta «egoera» horien kasuan, *durante media hora tres años* bezalako adberbio-baliabideek, denbora-muga bat ezartzen dute, baina hala ere, azpimarratzekoa da ezin dutela hobetu eskutartean dugun per-pausa —adibideak geureak dira—. Era berean, gerundio konposatuaren itzulinguruak ez ditu «gauzaketak» (42a') edo «lorpenak» (42b') hobetzen, baina onargarri bihurtzen ditu «jarduerak» (42c') eta «egoerak» (42d'). Bibliografian agerian ez badago ere, pentsatzekoa da gerundio konposatuaren aspektu-ezaugarriak bat datozela partizipioaren ezaugarriekin: denboramugadun tartea adierazten dute. Hori dela eta, lehenengo begirada batean, partizipioa bideragarria den guztietan gerundio konposatua ere ahalbidetzen dela dirudi. Areago, aurrean aipaturiko aspektu-murriztapenak direla bide, partizipioak ondorio ezgramatikalak ematen dituenean ere, gerundio konposatua onargarria izaten da. Bukatzeko, partizipioak zenbaki- eta genero-komuntadura gauzatzen du, baina gerundio konposatua bete-betean sarturik dago aditz-paradigman eta ez dauka komuntadurarik.

Gaztelaniaren mendeko perpauk hauen balioak laburtuko ditugu beraz, geroago aztergai izango dugun euskal esparrua hobeto ulertzeko xedeaz: 1) Gerundio bakunak iraupena adierazten du eta bai oro har nagusiaren gertaerarekiko denborakidetasuna ere. 2) Nagusiaren gertaera iraupen horren barruan egotea gerta daitekeelarik, gerundio bakunak aurretiazkotasun hurbilaren tarte bat ere adieraz dezake eta era berean, nagusiaren gerokotasun hurbileko esanahai darama zenbaitetan; aurretiazkotasun edo gerokotasun direlako esangura edo esangura-ñabardura hauek aditz bien aspektu-ezaugarrien mendekoak direla iradoki da zeharka. 3) Gerundio konposatuak beti adierazten du aurretiazkotasuna. 4) Partizipioak ere beti adierazten du aurretiazkotasuna. 5) Aurreko denbora- edo aspektu-balio nagusiei testuinguruak zergati-, modu- edo kontzesio-kutsuak gaineratzen dizkie; kutsuok oso era ezegonkorrean azaltzen dira baina edonola ukaezinezkoak ditugu batzuetan. 6) Batez ere zergatia edo modua adierazten duten gerundio bakunak, nagusiaren aurrean edo atzean koka daitezke, baina horretaz gain azpimarratzekoa da bigarren kokagunean doan gerundio bakuna, ondorioa adierazten duelarik, gaitzetsi beharrekoa dela. Partizipioak eta gerundio konposatuak azkenik, zergatia modua baino errazago adierazten bide dute.

Euskararen esparruan, Odriozolak (1993) egin zuen berrikustapenaren arabera, *-rik*, *-ez* eta *-ta* mendekoen aipuak ez dira urriak ohiko euskal gramatiketan. Ithurrik (1920) *-rik* mendekoari gaztelaniaren gerundio bien balioak esleitu zizkion, baina gainontzeko egileak ez datoz horrekin bat.

Villasanteren (1980) arabera, *-rik* mendekoak gaztelaniaren gerundio bakunaren balioa izango luke. Letamendiak (1980) azkenean aurretiazkotasuna baizik ez du sumatu mendeko hauetan. Bestalde Altunak (1980) eta Arejitak (1982) aurreko adierez gain zenbaitetan kontzesibotasuna ere uler daitekeela gogorarazi dute. Lafitte-k (1944), azkenik, eduki zergatizkoak eta moduzkoak aldarrikatu ditu.

-*Ez* mendeko soilari, bestetik, modua eta zergatia onartu zaizkio (hurrenez hurren Azkue 1925, Txillardegi 1978, Goenaga 1980, Arejita 1982 eta Euskaltzaindia 1987 batetik, eta Altuna 1979, Lhande 1926, Lafitte 1944, Ithurry 1920, Arejita 1982 eta Goikoetxea 1978 bestetik). Lan honen azken helburutik hurbilago dagoen esparrura jotzen badugu, bi argitalpen ditugu aipagai: Egunkaria (1992) eta EITB (1992). Biak ere bat datoz, gaztelaniaren esparruan bezala aurretiazkotasuna, denborakidetasun edo gerokotasun hurbilak eta modua aldarrikatu eta gerokotasun hutsa gaitzes-tean (43).

(43) #Lege bat onartu dute, laurehun etxebizitza berri eraikiz

Berez, bibliografi berrikustapen honetan nabaria da argitalpen mota bi ditugula eskutartean: ohiko gramatiketan (43) bezalakoak aipatu eta baztertu behar direla esateko beharrik sumatu ez bada ere, hizkuntzalaritza aplikatuari bide dagozkion beste argitalpen (berriago) horietan agerian utzi dira (42)ko desbideratzeak komunikazioari jar diezazkiokeen oztopoak. Hori dela eta, dagoeneko esana dugu gure lana azken lerro honetatik joanda literatur tradizioa aztertu eta hizkuntza teknikoaren erabilerak hobetzea dela.

## 1.2. Axularren *Gero*

Euskaltzaindiaren lanaren zain gaudela berriro gogoratu behar dugularik, *-rik* eta *-ez* mendekoen esparruan Odriozolak (1993) Axularren liburuan egindakoaren berrikustapenari tarte bat eskaintzea komenigarria izan daitekeela dirudi: batetik, bertan daude gure oraingo lan honetan bereziki eduki semantikoei begira egin nahi genituzkeen gogoeta guztien zirriborroak; bestetik Axularren testuak gure oraingo euskara estandarraren oinarriako eskaini duena ukalezina da, edozein ikuspegitatik aztertuta ere; azkenik, testu honek agerian ditu gaur egun (batez ere hizkuntza jasoan) mantendu behar genituzkeen banaketa sintaktiko-semanticoko batzuk. Berrikustapenari ekiteko, lan horretako adibideak hautatzean, gure oraingo kode-sistema erabiliko dugu (ikus 2. sailaren sarrera).

-*Rik* mendekoek, lanaren egileak azpimarratu zuen bezala, zenbaitetan nagusiaren gertaerarekiko aurretiazkotasun nabaria adierazten dute (44); beste zenbaitetan zergatia (45a) edo modua (45b) adierazten dute, eta azkenik kontzesibotasuna ere (46) nabari daiteke perpaus bakan batzuetan.

- (44) mundu honetako itsaso honen tormenta guztiak iraganik azken finean salbamenduko portura salborik helduko zarela (AX.00.400)
- (45) a jan ezazu bada neurri,... ase eginik oka ez dagizun (AX.00.090)  
 b su bat zerutik igorrikerre zituen (AX.00.093)
- (46) urte honetan gaizto izanik... prestuko zarela diozu (AX.00.101)

Hauetaz gain, Axularren testuko zenbait kasutan emendiozko harreman zabal bat adierazten da (47a); izan ere, Odriozolak garbi utzi zuen bezala, horrelakoetan ezin uka daiteke aurretiazkotasuna dagoenik, baina bestalde, *eta gero* bezalako batean oinarrituriko itzulginguruak ez lirateke oso dotore geldituko (47b).

- (47) a behar dela arrazoinaren arauaz bizi, gaizki egitea utzirik, Jainkoarekin eduki eta hari bere faltak aitortu (AX.00.337)  
 b #gaizki egitea utzi eta gero Jainkoarekin eduki eta hari bere faltak aitortu

Axularren *-ez* mendekoek ere modua (48) adieraz dezakete.

- (48) behar da ihes eginez eta apartatuz garaitu (AX.00.261)

Odriozolaren lanean, Axularren *-ez* mendeko bakan batzuetan zergatia ere suma daitekeela adierazi zen (49), baina moduarekiko hurbiltasunaren mugak finkatzeko zailtasunak ere agerian utzita (50):

- (49) hango dolore handiak direla kausa, hek ezin pairatuz, beti daude arneguz (AX.00.173)
- (50) ez dela zure faltaz edo zu hartako gai ez izanez huts egin (AX.00.004)

Lan honetan ez zen Axularren testuko *-ez* mendekoetan inolako ondorio-kutsurik aurkitu.

Odriozolak (1993) esparru honetan aurkitutako guztia laburtzeko bada hona hemen koadro hau:

Mendekoa	Aurretiazkotasuna	Zergatia	Modua	Kontzesibotasuna	Emendiozkoa
-(r)ik	+	+	+	+	+
-(e)z	-	+	+	-	-

## 2. EUSKAL LITERATURAN ZER EGIN DEN

*Gero* idazlan nagusiaren berrikustapenez gain, lan hau gauzatzeko, 1571.etik 1998.erako tartean dauden hogeita hamar bat liburu hustu ditugu. Lan honen bukaeran dagoen zerrendan ikus daiteke argitalpen hauen guztion berri, bai eta kasu bakoitzean erabiliko dugun kodea ere. Zer esa-

nik ez, idatzi horiek hautatzerakoan, euskal literaturaren lan garrantzitsuenen bila joan gara. Edonola, lan honen helburua berez sintaxi deskriptiboari dagokiolarik eta areago, hizkuntzaren erabilera bereziei begira dagoelarik, ez diogu egoki iritzia hemen hustuketa horren inguruko (literatur) gogoeta sakonagoak biltzeari.

Alabaina, aurrera joan baino lehen, zertxobait esateko beharrea gaude, hustuketak eskaini dizkigun adibideak hemen biltzeko erabiliko dugun bidea dela eta. Izan ere, filologoek oso ezaguna dute testu zaharrak berriro argitaratzerakoan moldapen ortografiko, fonetiko eta morfologikoen erabilera ere ematen duten lana. Oraingo honetan, filologiaz aritu beharrea, hizkuntzalaritza aplikatuaz ari gara eta lan hau irakurriko dugun testuak ere ez bide dute grina handiegirik testuen jatorrizko itxuraren berri edo euskarenean morfologikoki-bilakaeraren berri izateko. Areago, testuak dauden-daude-nean azaltzeak izugarri zailduko luke irakurketa eta ustezko irakurle horiek uxatu egingo genituzkeelakoan gaude. Hori dela eta, gure idazle handien esapideez baliatuko gara, baina horrela izanik ere, filologiaz trebatuak ez daudenei begira gaudelarik, Euskaltzaindiak gaur egun mugatua duen euskara estandarren (hots, euskara batuaren) esparrura ekarriko ditugu gauzak. Ez dago esan beharrik hizkuntzalaritza aplikatuaren eremu honetatik kanpo testu hauen jatorrizko egoera aztertzeari erabat interesgarri deritzogula eta berez, adibide bakoitzaren atzean eskaintzen ari garen kode horrek bestelako lanei aurre egiteko laguntza emango duelako ustean gaudela.

Bestalde, esan beharrekoa da 2. sail honetan mendekoon eduki semantikoak azaltzeko unean ohiko izenak erabiliko ditugula. Izan ere, 3. sail osoa ohiko izen horien berrikustate eta zehazte lanari ekingo diogu, hizkuntzalaritza aplikatuaren azken begirada baten bidez lan honi bukaera emateko.

## 2.1. Instrumental deklinabide-atzizkidun partizipioa

-Ez mendekoek, euskal literaturan zehar oso era egonkorrean adierazten dute modua. Azpimarratu beharrekoa da, ordea, mendekoak hartzen duen kokagunearen aukera zabala. Alde batetik, nagusiaren ezker aldean azal daiteke (51-52).

- |   |             |
|---|-------------|
| (51) Hola eginez nork bere buruari bidegabe handia<br>daramakio | (DU.00.050) |
| (52) buelta bihurri bat emanez itzultzen zen                    | (AT.00.060) |

Bigarrenik, mendekoa bukaeran azal daiteke inolako eragozpenik gabe (53-54).

- |   |             |
|---|-------------|
| (53) samurtzen dute igurtziak emanaz                              | (MG.05.094) |
| (54) Aski esker handia egiten zion Isabelari bere burua<br>salduz | (MR.00.037) |

(51-52) eta (53-54) ereduen artean ageri den hurrenkera-desberdintasuna, oso kontuan hartzekoa da. Berez, ikusi (53-54)koak (55)aren aldean:

- (55) emandako pausoa aurreratu zuen, komunikazio  
gunea irabaziz berriro ere (SZ.01.362)

Oraingo honetan, nagusia da modua adierazten duena eta bigarren kagunean doan *-ez* mendekoak, ondorioa darama. Eredua hau oso bazterrekoa da euskal literaturan eta esana dugu bibliografian aipatu denean gaitzesteko izan dela (Egunkaria 1992, EITB 1992).

Odriozolaren (1993) lanean zirriborraturiko bidetik aurrera joanda, zergatia atzeman daiteke *-ez* mendeko batzuen baitan, eta bertan ageri den gertaerak ez darama borondatez kotasun-kutsurik (56-57).

- (56) Amorru sakonago sartu zitzaion, Motrolotzar ikusiaz (KÑ.00.069)  
(57) jadanik etxeratuko ez zela pentsatuz... ohean sartu  
bainintzen (SZ.02.116)

Denborakidetasuna ere suma daiteke nagusiaren eta *-ez* mendeko batzuen artean. Hau ez da inola ere moduarena bezain kasu ugaria, baina horrela izanik ere, eredu honek tinko dirau euskal literaturaren une batetik aurrera, eta azaltzen den kasuetan, gardena da esangura (58-59).

- (58) sasi-masustak loratan zeuden, garauren bat gorizkatzen  
hasirikoa erakutsiaz (AG.01.114)  
(59) hari begira egoten zen, marrazkiak eta marrazkiak eginez (IR.00.024)

Denborakidetasun horren aldamenean, 3. sailean zehatzago azalduko dugun beste adiera bat ikus daiteke; izaerakidetasuna esango diogu harreman horri. Horrelakoetan, bi gertaerak denborakideak direla ikusi ez ezik, beregainak ezin izan daitezkeela ere nabari daiteke (60-61). 22. sailean ikusiko dugun *-rik* mendekoak ere adieraz dezake mota honetako harremana.

- (60) negarrez hasi zen,... malkoei libre isurtzen utziz (SZ.01.356)  
(61) maizago azalduko zion bere iritzia, bere eskubideak  
lau haizeetara aldarrikatuz (IR.00.038)

Eredua honek, adigai-mailan hain zorrotz delarik, oso garrantzi handia izango du hizkuntzaren erabilera berezituetan.

## 2.2. Partitibo deklinabide-atzizkidun partizipioa eta *eta* enklitikodun partizipioa

Modua ez da falta honelako mendekoen artean (62-63).

- (62) ongi egin uste baitut ohorezki jalgirik (DE.13.052)  
(63) zeren ondo egonik Jangoikoagaz, zoliago entzungo  
duzu bere deia (AÑ.00.079)

*-Rik* mendekoak, nahiko era garbian azaltzen du nagusiak daraman gertaeren zergatia (64-65).

- (64) Graxiusak, bere erremina ezin gorderik, honela  
ekin zion amari (ET.03.063)  
(65) Maltzurkeria txiki horrek alaiturik, irri egin zuen (MR.00.031)

Azpimarratu beharrekoa da zergati mota berezi bat oso ugaria dela erretorika- eta narrazio-testuetan: nagusiaren gertaera borondatezkoa izanda *-rik* mendekoak subjektu berak horrela jokatzeko ikusitako arrazoiak adierazten duenekoak (66-67).

- (66) berak hau egiteari gutxi iritzirik, egin zuen ahalegina...  
beste guztiei ere hau bera eragiteko (ME.01.491)  
(67) Asentaturik gure azken fina dela ailegatzea ikustera  
Jangoikoaren aurpegia, ...behar genuke jakin  
hartarako bidea (EL.OO.055)

Mota honetako harremana bideragarria da instrumentaleko mendekoaren bidez ere.

Aurretiazkotasuna eta emendioa elkarrengandik bereizteko lana 3. sailan egingo dugularik, esan dezagun oraingoz *-rik* mendekoak askotan eratzen dituela elkarren segidako gertaeren perpaus elkartuak (68-69).

- (68) Alesandre handia egun batez joan zen, Darius Persako  
erregea gerlan garaiturik, haren amaren, emaztearen  
eta alabaren, hirur prinzesa haien ikustera (TR.04.111)  
(69) eta arima gaixoa ifemura eroririk labe gorri hartan...  
egonen da (TR.03.077)

Ezaguna da *-ta* mendekoa ez dela *-rik* bezain ugaria (literaturan). Hala ere, adiera sorta ez da *-rik* mendekoarena baino askoz ere murriztagoa: zergatia (70), denborakidetasuna (71), emendioa edota aurretiazkotasuna (72-73)<sup>8</sup>.

- (70) lotsatuta, Riktrudisi begiratzea baino besterik  
ez nuen egiten (AG.01.082)

---

<sup>8</sup> *Eta* enklitikon honek, predikazio-egitura batetik (i) hurbil dagoen egitura bat ere osa dezake (ii-iii), partitiboa daramanak bezala.

- (i) Lana eginda daukat  
(ii) Zer egin behar didazu? -egin zion muzin gazteak jostorratza  
ikusita (EG.00.157)  
(iii) handik ordubetera, bostak jota beraz, oinetakoak garbitzeko  
gauzak eskatzen dituen arte (SZ.01.369)

Egitura hau, esana dugunez, lan honen aztergaietatik kanpo utziko dugu.



- (71) gogorrago jo diozu, buru-kontrolerako ariketa  
guztiak pikutara bidalita (MG.00.065)
- (72) eta meza bukatuta haurra bataiatu zenean (IR.00.039)
- (73) Abuztu hartan oporrak egin genituen aitak eta  
biok, zu amonarekin utzita (UR.00.046)

-*Ta* mendekoak eskuragarriak ditu izaerakidetasuna eta argudioa ere.

Literaturan aurkitutakoa lehenengo hurbilketa batean bilduta bada, hona hemen koadro hau:

Mendekoa	Aurretiaz- kotasuna	Zergatia	Modua	Denbora- kidetasuna	Izaera- kidetasuna	Argu dizkoa	Emendiozkoa
-(r)ik	+	+	+	+	+	+	+
-(e)z	-	+	+	+	+	+	+
-ta	+	+	-	+	+	+	+

### 3. MODUA, ZERGATIA, ARGUDIOA, EMENDIOA, DENBORAKIDETASUNA, IZAERAKIDETASUNA ETA AURRETIAZKOTASUNA ZER DIREN

Modua, zergatia, denborakidetasuna, eta aurretiazkotasuna direlako berbak, mendeko adberbialen eduki semantikoak nola edo hala izendatze-ko erabili ohi dira gramatikan. Ikusia dugu, ordea, horrelako mendekoak aztertu dituzten lanek zenbait oztopo garrantzitsu topatu dituztela. Oztopo horien inguruko esparrua jorratzeko asmotan, azken sail bat antolatuko dugu, lan honen emari nagusia eskaintzeko. 31. azpisailean, modua eta zergatia direlako berbak erabiltzeko azalezko usadio horretaz haruntzago joango gara, eta oro har maila logikoan eta bereziki hizkuntza teknikoan, moduzko eta zergatizko *-ez* mendekoak noiz ditugun finkatzen saiatuko gara. 32. azpisailean argudiozko harremana aztertuko dugu eredu-ko zergati-adieratik ondo bereizteko asmoz. 33. azpisailean zehar emendiozko harremanaren esparrua mugatzen saiatuko gara, batez ere modu, zergati edo aurretiazkotasunetik bereizi ahal izateko. 34. azpisailean, azkenik, denborakidetasuna delako adigai sakontzeari ekingo diogu, mendeko perpaus adberbialen esparru honen ezagueran aurrerako urrats bat emateko helburuz.

#### 3.1. Modua eta zergatia

Badakigu dagoeneko *-rik*, eta *-ez* (eta *-ta*) mendekoek modua zein zergatia adieraz dezaketela. Odriozolaren (1993) lanean ikusitakoaren arabera, hala ere, bi adiera horien arteko korapiloa askatzerakoan eragozpen larriak

azal daitezke, irakurleak idazle batek benetan esan nahi duena edo esan duena finkatzeko.

Alabaina, oraingo honetan alderantzizko ikuspegitik arituko gara, eta idazleak berak eduki bakoitza era garbian edo era nahasian adierazteko dituen baliabideak aztertuko ditugu, azken batean hizkuntzalaritza aplikatuari helduz.

Bidea erosoki jorratzeko, honelako ezaugarri semantikoak aztertuko ditugu perpaus elkartuetan:

1. Mendeko perpausaren subjektua eta perpaus nagusiaren subjektua izaki berari dagozkion ala ez, hau da, bi perpausok subjektu erreferentziakideak dituzten ala ez aztertuko dugu hasteko (aurrerantzean [ $\pm$  erref]). Aldez aurretik susma litekeenez, [ $-$  erref] delako ezaugarri hori nekez aurki daiteke euskal literaturan, adizki jokatu gabeko perpausok batez ere subjektu erreferentziakideak hartzen baitituzte<sup>9</sup>. Horretaz gain, zentzu hertsiko [ $-$  erref] nekez azaltzen da moduaren adierazpen garbi batean<sup>10</sup>.
2. Mendekoaren gertaera berariaz egiten den ekintza den ala ez, hots, borondatez kotasunik dagoen ala ez finkatu beharko da (aurerantzean [ $\pm$  borond]).
3. Nagusiaren gertaera (mendeko) subjektuarentzat desiragarria den ala ez ikusi beharko dugu era berean (aurerantzean [ $\pm$  desir]).
4. Mendekoaren gertaera nagusiaren gertaera lortzeko asmotan egin den ala ez, hau da, nagusiak helburua adierazten duen ala ez aztertuko dugu (aurerantzean [ $\pm$  helb]).

Lau ezaugarri hauek guztiok zenbait erataria elkartuz, agerian utziko ditugu moduari eta zergatiari loturik doazen ñabardura batzuk, eta gainera, ñabardura horiek *-ez* mendekoari ala *-rik* mendekoari lotuago ote dauden ere finkatzen saiatuko gara. Korapilatsu samarra den esparru honetan zehar irakurlea apur batez erosoago ibil dadin, literaturako adibideez gain,

---

<sup>9</sup> Lan honen esparrutik kanpo bada ere, esan dezagun adizki jokatu gabeko mendekoek oro har nagusiaren subjektu bera daukatela. Areago, haien subjektua nekez izaten da ageria eta zenbait murriztapen sintaktikoren pean soilik azaltzen da

- (i) a Propenoak, ur molekula bat gaineraturik, galdu egiten du bere lotura bikoitza  
b \*Propenoak, propenoari ur molekula bat gaineraturik, galdu egiten du bere lotura bikoitza
- (ii) Propenoak, geuk ura gaineraturik, ez du bere lotura bikoitza galdu, baina zenbaitetan berez apurtzen da

<sup>10</sup> Erreferentziakidetasuna arreta handiz aztertu behar da. Izan ere, adibidez 9. oharreko (ii)ko perpaus nagusiaren eta mendekoaren subjektuak ez dira erreferentziakideak, baina azpimarratu beharrekoa da mendekoan estalirik dagoen *propenoari* hori, nagusiko subjektuarekiko erreferentziakidea dela. Euskal literaturan inolako kide erreferentziakiderik ez duten perpaus osaturiko perpaus elkartuak aurkitzea lan latza gertatu zaigu zinez.

eguneroko hizkuntzakoak eta hizkuntza teknikokoak ere eskainiko ditugu, (a) eta (b) aldaeretan hurrenez hurren. Gainera, modu eta zergatiaren arteko aukera guztiotarako gaztelaniaren ordainak aurkitzeko saio azalezko bat egingo dugu, bestelako erdal itzulinguru batzuen artean batez ere gerundio bakuna eta konposatua erabiliz.

Ezaugarri hauen artean gertatzen diren aukerak, beraz, hurrengo zortzi hauek dira:

a) [+ *Erref*, + *borond*, + *desir*, + *helb*]: *helburudun modua eta -ez, -rik eta -ta mendekoak*

Hauxe dugu modu-harremanaren eredu garbi bakarra (74) eta izan ere, bera da bibliografian (Lafitte 1944, Goenagak 1978) moduzko perpaus eran azaldu diren adibideetan topa dezakeguna: subjektu bera daukate bi perpausak eta borondatezkotasuna eta desiragarritasuna suma daitezke (75a-b). Oso kontuan hartzekoa da [+ *borond*, + *desir*] direlakoak ditugunean bakarrik azaltzen dela nagusiaren baitan helburu bat, *-t(z)eko* menperatuan oinarrituriko itzulinguruan ikus daitekeenaren arabera (74a'). Literaturan ere oso ugariak dira horrelako adiera duten *-ez* eta *-rik* perpausak (76).

- (74) a Saizarbitoria irakurritz/irakurririk, Euskal Herriaren beste ikuspegi bat eskuratuko duzu
- a' Saizarbitoria irakurri behar zenuke, Euskal Herriaren beste ikuspegi bat eskuratzeko
- b Atomo bat ordezkatzuz/ordezkatuz, molekularen egitura agerian utzi dugu
- (75) a Kurrituz egiten da bide
- b Sardea tripan sarturik hil zuen
- c Bizitza arriskatuaz/arriskaturik etorri zen gugana
- d Burua makurtuaz pasatu zen
- (76) a Gure Jaunak bere burua zordun egin du guganat, ez deus guganik harturik, baina berak bere plazeriala promes eginik (TR.04.109)
- b hemen trukatzuz, hara bidalduz eta beste bidez egiten dituzte beren irabantzak (ME.01.221)

Esan gabe doa borondatezkotasun delako harreman hori oso era zabalean ulertu behar dela. Izan ere, bereziki entsegu-zientziez ari garelarik, subjektu bizigabeez osaturiko perpaus elkartuek ere nahiko modu garbian adieraz dezakete borondatezkotasunaren antzeko zeozer (77). Horretaz gain, desiragarritasuna bera ere oso modu zabalean ulertu behar da: (77)koak bezalako bizigabeeen kasuan ustezko desiragarritasun bat esleki dakioke subjektuari.

- (77) Metanoa, ordezkapen-erreakzio bat jasanez/jasanik, klorometanora aldatzen da

Bestalde, horrelako adierak emateko unean gaztelaniak gerundio bakuneko egitura egitera jotzen du beti (78a-b), eta gerundio konposatukoa zenbaitetan ezinezkoa (78a') eta beste zenbaitetan oso zalantzarria da (78b') —ikus 33. sailean Goenagaren (75c) euskal adibideaz esandakoa—.

- (78) a El camino se hace corriendo  
 a' \*El camino se hace habiendo corriendo  
 b Metiéndole la horca en la tripa, lo mató  
 b' #Habiéndole metido la horca en la tripa, lo mató

Azpimarratu beharrekoa da lau ezaugarrien edo modu/zergati hauen aukera honetan gerundio bakuna beti eskuragarri delarik ere gainontzeko aukera guztietan gerundio bakuna ez dela aukera bakarra edo zenbaitetan ezinezkoa dela: gerundio bakuna zein konposatua, partizipioarekin eta bestelako adizki jokagabe zein jokatuکو mendekoekin txandakatuko da. Izan ere, egia da *-ez* egoera estandarrean azaltzen den guztietan gerundio bakuna ere bideragarria dela, baina egia da halaber *-ez* hori [+ erref, + borond, + desir, + helb] ezaugarri sorta honetatik (hurrengo zazpi aukeretan zehar) urrun samar ere azal daitekeela kasu bakan batzuetan eta horrelakoetan gaztelaniaren gerundio bakuna oso txarra edo ezinezkoa dela. Edonola, 11. sailean ikusia dugu gerundio bakunak iraupena edota nagusiaren gertaerarekiko aurretiazkotasun hurbila adieraz dezakeelarik gerundio konposatuak beti ere nolabaiteko aurretiazkotasuna daramala. Era berean ikusi dugu partizipioak edota gerundioak aurretiazkotasunaz gain gehienetan zergatia adierazten dutela. Gerundio bakunaren ezaugarriak bada, bat datoz ereduzko moduaren adierarekin. Eredu hori desitxuratzu doan neurrian, partizipioak eta gerundio konposatuak hartzen dute esku.

Eredu hau, beraz, helburudun modua da eta *-ez* eta *-rik /-ta* mendekoei loturik azaltzen da literaturan. Aurrerantzean ikusiko ditugun beste aukera guztiak, modu hutsaren eredutik kanpo daude eta hertsiki hitz eginez, [+ borond] edota [+ desir] ez diren guztietan, ez dago modu garbiari ezinbestez loturik doan agentibitatea: mendekoaren subjektuak (edo bi perpausen subjektu komunak) ez dauka perpaus baten edo bi perpausen ekintzen gaineko aginterik. Hala ere, haietako zenbaitetan modu-kutsua susma daiteke eta beraz, sailkapen bat ahalik eta garbien egiteari ekingo diogu.

- b) [+ Erref, + borond, – desir, – helb]: *helbururik gabeko modua eta -ez, -rik eta -ta mendekoak*

Desiragarritasunik ez dagoenean, jakina, helburuzko adierarik ere ez da azaltzen (79a').

- (79) a Marisak, ozenki hitz eginez/hitz eginik, ikaratu egiten ditu kardantxiloak  
 a' #Marisak, ozenki hitz egiten du kardantxiloak ikaratzeko  
 b Atomo bat ordezkaturik/ordezkatuak, molekularen egitura ikusteko aukera zaildu egin dugu

Honelakoetan, zergatia nabari daiteke baina nolabaiteko modu-kutsua ere ez da gutziz baztergarria. Zergati hutsa baino zehazkiago helburu (desiragarri)rik gabeko modua dugula onar dezakegu beraz, beti ere *-ez* zein *-rik /-ta* mendekoei loturik. Ez dugu bibliografian hauen berririk aurkitu, baina literatur tradizioan ez da adibiderik falta *-ez* zein *-rik* mendekoen artean:

- (80) a bekatu mortal bat eginik, gaizki hilik, bekatuan hilik,  
sekulakotz bere arima damna dezan (TR.04.125)  
b zeren halakoekin ihardukiz makur-biderik baizen  
ez baita (DU.00.104)  
c eta koloregorritu zen hitz laburrok esanaz (ET.19.389)

Eredu honetan, hurrengo guztietan bezala, gaztelaniaz gerta daiteke gerundio bakuna ezinezkoa izatea edo gutxienez bestelako adizki batzuen aukerak eskuragarri izatea.

- (81) a Tratando con semejantes personas no puede haber más que malos resultados  
a' Habiendo tratado con semejantes personas no puede haber más que malos resultados  
b #Diciendo estas palabras, enrojació  
b' Habiendo dicho estas palabras, enrojació  
b" Dichas estas palabras, enrojació

c) [+ Erref, – borond, + desir, – helb]: *ondorio desiragarri* *dun zergatia eta -rik eta -ta mendekoak*

Oso azpimarratzekoa da helburuzko eta borondatzeko adierarik egon gabe ere nagusiak gertaera desiragarria eraman dezakeela. Ondorio desiragarri *dun zergati* honek, *-t(z)eko*, *dela bide* eta *dela kausa* itzulinguruak baztertuz (82c-d-f) eta *-ri esker* delakoa onartuz (82e), agerian uzten ditu bere ezaugarriak. Geroago aztertuko dugun ondorio desiragarri *rik* gabeko zergatiak (85), ez ditu zilegi *-t(z)eko* (85c), *dela bide* (85d) eta *-ri esker* (85e), baina bai ordea *dela kausa* (85f).

- (82) a Joseba, kalean fandango-soinu hori entzunik, alaiatu egin da  
b Ustegabeen atomo bat ordezkaturik, agerian utzi dugu molekularen egitura  
c #Ustegabeen atomo bat ordezkatu dugu, molekularen egitura agerian uzteko  
d #Atomo baten ustegabeko ordezkapena dela bide, agerian utzi dugu molekularen egitura  
e Atomo baten ustegabeko ordezkapenari esker, agerian utzi dugu molekularen egitura  
f #Atomo baten ustegabeko ordezkapena dela kausa, agerian utzi dugu molekularen egitura

Eredu hau urri samarra da, bai *-ez* mendekoenetan bai *-rik* mendekoenetan ere. Hori, hizkuntz egiturekin zerikusirik izan gabe, hizkuntzatik kanpoko errealtateari loturik doala dirudi. Bestalde eredia askoz ere oparagoa da *-rik* mendekoekin batera. *-Ez* mendekoaren kasuak ez dira erraz aurkitzen literaturan baina azpimarratu beharrekoa da azaltzen diren horien artean, bai Lafitte-renean (1948) —ikus (83c)— bai Odriozolarenean (1993) —ikus (83d-d')—, bai oro har literaturaren hustuketetan ere (83e) oso modaltasun bereziko *-ez* mendekoak azaltzen direla.

- (83) a Oihenart, esan dudan bezala buru argikoa izanik,  
argi jabetu zen (MT.00.243)  
b eta inork ezagutzen ez gintuen parajea izanik, ...  
oporretan geundela amets egin nezakeelako (SZ.02.177)  
c eri izanez ez da etorri ahal izan  
d kanpoan deus ezin izanez, bere bilduetara bildu  
behar duenean (AX.00.022)  
d' hain jaten eta erretzen duen bere baitan barrena  
bere kontzientziak ezen ezin pairatuz, joan baitzen...  
zapataginaren etxera eta han egotzi zuen (AX.00.279)  
e aspaldi atera zen Etxahuniatik hango sesio, haserre  
eta iskanbilak ezin eramanaz (ET.10.209)

Esparru honetan ere gaztelaniaren gerundio bakunak baditu aukerak (84a-a').

- (84) a No pudiendo conseguir nada fuera de ella misma, tiene que volverse hacia lo que tenía acumulado en su interior  
a' No habiendo podido conseguir nada fuera de ella misma, tiene que volverse hacia lo que tenía acumulado en su interior  
b Siendo inteligente, se dio cuenta perfectamente  
b' #Habiendo sido inteligente, se dio cuenta perfectamente

Euskal adibideetara itzulirik, mendeko aditzak *ezin* daramalarik, [+ borond] delako ezaugarria aztergaitz samarra da: nabaria da alde bate-tik subjektua nahigabe bat pairatzen ari dela, baina bestalde ere *ezin* daraman modaltasuna subjektuaren nahi (zapuztu) bati loturik dagoela pentsa daiteke. Horrela, (83c-e) adibidekoak, (83a-b) bezalakoak baino hurbilago bide daude modu-ereduetatik. Edonola, ikus bedi borondatezkotasun eza ere gehien bat oso testuinguru murriztean aurkitu dugula: *Izan* bezalako aditzek ezin hobeto adierazten dute subjektuak ez duela ekintzaren gaineko eraginik. Hori dela eta, ikus 32. saileko argudiozko harremanaz esango duguna. Dena dela, honelakoetan ondorio desiragarri-dun zergatia dugula onartuko dugu, eta modaltasun jakin batzuetatik at, *-rik /-ta* mendekoak dira literaturan nagusi (83a-b).

d) [+ Erref, – borond, – desir, – helb]: ondorio desiragarririk gabeko zergatia eta -rik eta -ta mendekoak

Begi-bistakoa da desiragarritasun eta helburu direlako horiek ez daudenean mendekoa ez dela borondatezkoa izango (85). Ikus bedi lehenago aztertu dugun ondorio desiragarriaren zergatiaren (82) itzulinguruekiko desberdintasuna.

- (85) a Ustegabeen aspaldiko lagun bat aurkiturik, ahaztu egin dut merkatura joatea  
 b Ustegabeen atomo bat aldaturik, zaildu egin dugu molekularen egitura ikusteko aukera  
 c #Ustegabeen atomo bat ordezkatu dugu, molekularen egitura ikusteko aukera zailtzeko  
 d #Atomo baten ustegabeko ordezkapena dela bide, zaildu egin dugu molekularen egitura ikusteko aukera  
 e #Atomo baten ustegabeko ordezkapenari esker, zaildu egin dugu molekularen egitura ikusteko aukera  
 f Atomo baten ustegabeko ordezkapena dela kausa, zaildu egin dugu molekularen egitura ikusteko aukera

Aukera honetan -ez mendekoak eragozpen handiak ditu eta zergati gardena dugularik, euskal literaturan -rik dugu nagusi (86a-b). -(E)z mendekoak, ondorio desiragarriaren zergatiaren ereduak jasaten dituen murriztapen berberak ditu (86c-d).

- (86) a eta asto gaixoaz oroiturik, nigarrez ari izan nauzu (ET.02.0144)  
 b Espezialistentzat egina izanik, hemen gutxirentzat liritekeen zatiak baditu (MT.00.183)  
 c Baina hain egin zuen handi ezen ezin jasanez utzi baitzuen (AX.00.058)  
 d hala arrenkurutzen da bada bekatorearen kontzientzia ere, bere bekatuen karga eta pisutasuna ezin jasanez (AX.00278)

Hemen ere, gerundio bakuna ez da aukera bakarra.

- (87) a Y acordándome del pobre burro, he estado llorando  
 a' Y habiéndome acordado del pobre burro, he estado llorando  
 b No soportándolo lo dejó  
 b' No habiendo podido soportarlo lo dejó

Subjektu bi daramatzaten eruedetan, hau da, hurrengo [-erref] direlako lau ataletan, aurreko [+ erref] direlakoan antzeko ñabardurak ditugu. Hala ere, esana dugu bortxatuak ez diren adibide arruntak nekez aurki daitezkeela (ikus 8. eta 9. oharrak).

e) [- Erref, + borond, + desir, + helb]: *helburudun modua eta -ez, -rik eta -ta mendekoak*

Esan beharrekoa da benetan elkarren artean inolako eskuhartzaile komunik ez duten nagusi eta mendekoa asmatzea zaila dela. Edonola, hertsiki subjektu komunik ez daukatenak ez dira ezinezkoak (88-89). Eredu honek, bere urritasunean, *-rik* edo *-ta* mendekoen alde egiten du (89a), baina *-ez* mendekoak, badira euskal literaturan (89b). Bestalde, (88b') bezalako batean agerian dagoenez, desiragarritasun hori ez dago loturik nagusiaren beraren subjektuarekin, mendekoaren subjektuarekin baizik.

- (88) a Gitarraren ardura Patxik hartuz/harturik, nik lasaiago abestuko nuke  
 a' Gitarraren ardura Patxik hartu beharko luke, nik lasaiago abesteko  
 b Guk laborategian lehenengo molekulan atomo bat aldatuz/aldaturik, bigarren molekulak garbiago azaltzen du bere egitura espektroskopian  
 b' Animaliak, ur-murritzapen gogorrakoak ezarriz, hil egiten dira
- (89) a Badakigu, baduela gutarik bat bederak, Jainkoak emanik, nork bere Aingeru begiratzaila (AX.00.356)  
 b aingeru gaiztoak gaiztatu ziren berak berez eta tentalerik gabe eta gizona gizonaren andrea deabruak tentatuz eta bere andrez gizon bera tentatzen zuela (ME.02.058)

Eredu hau berez bihurri samarra da eta gerundio bakuna bera ere ez da guztiz arrunta, eta horrelakoa duen perpausik asma badaiteke ere (90a), bestelako aukerak azaltzen dira nonahi.

- (90) a Preocupándose Patxi por la guitarra, yo cantaríamejor  
 a' Habiéndose preocupado Patxi por la guitarra, el instrumento está en inmejorable estado  
 b Cada uno de nosotros tiene un angel guardián, dado por Dios  
 c El hombre se hizo malo al tentar el diablo a su mujer y por medio de ella a él

Gogoratu beharrekoa da bestalde eredu hau ez dela modu estandarren [+ erref, + borond, + desir] bezalakoa, eta ezin esan daiteke mendekoaren subjektuak nagusiaren ekintzaren gaineko aginterik duenik. Hala ere, helburuaren adiera ukaezina da horrelakoetan eta subjektu erreferentziakideko ereduari ezarri diogun izen bera ipiniko diogu honi ere: *helburudun modua*, kasu honetan ere *-ez* eta *-rik /-ta* mendekoei lotua.

f) [- Erref, + borond, - desir, - helb]: *helbururik gabeko modua eta -ez, -rik eta -ta mendekoak*

- (91) a Zuk Vargas Llosaren eleberrigintza arbuiauz/arbuiaturik, bere ezezagunean iraungo du peruar gizarteak



- b Guk laborategian lehenengo molekulan atomo bat aldatuz/aldaturik, bigarren molekula ilunago azaltzen du bere egitura espektroskopian
- (92) a Goseak igorri, gertatzen da askotan, lepoa bihurtzen dutela (DU.00.156)
- b bada goretuko zara ibiliaz, uste duzun baino gehiago (MG.04.78)

Hemen ere, gerundio bakuna ez da nagusi.

- (93) a #Ocurre muchas veces que, empujándoles el hambre, vuelven la cabeza
- b Ocurre muchas veces que, empujados por el hambre, vuelven la cabeza

g) [-Erref, -borond, +desir, -helb]: *ondorio desiragarri* *dundun zergatia eta -rik eta -ta mendekoak*

- (94) a Bakoitzak bere ardurak ahazturik, hobeto atera da jaia
- b Konturatu gabe medioa berotzen utzirik, bigarren molekula garbiago azaldu du bere egitura espektroskopian
- (95) txingar batek bere baitan argi eginik, Etxegoieniako Miñikuz gogoratu zen (ET.013.265)

Hona hemen gaztelaniaz gerundio bakuna nagusia ez dela azaltzen duten adibide batzuk.

- (96) a #Olvidando cada uno sus preocupaciones, la fiesta ha ido mejor
- a' Habiendo olvidado cada uno sus preocupaciones, la fiesta ha ido mejor
- b #Dejando calentar el medio inadvertidamente, la segunda molécula ha puesto más claramente al descubierto su estructura en la espectroscopía
- b' Habiendo dejado calentar el medio inadvertidamente, la segunda molécula ha puesto más claramente al descubierto su estructura en la espectroscopía

h) [-Erref, -borond, -desir, -helb]: *ondorio desiragarri* *gabeko zergatia eta -rik eta -ta mendekoak*

Batez ere *-rik* edo *-ta* mendekoak ditugu euskal literaturan.

- (97) a Batek janzkera-eredu jakin batzuei uko eginik, jendea harritu egiten da
- b Konturatu gabe medioa berotzen utzirik, bigarren molekula ilunago azaldu du bere egitura espektroskopian
- (98) Eta neuri ere idazgura suntsiturik, logale nago (TX.UL.002.)

Gaztelaniak bere aldetik ez du ezinbestez gerundio bakunaren ordaina.

- (99) a #Y quitándoseme las ganas de escribir, tengo sueño  
 a' Y habiéndoseme quitado las ganas de escribir, tengo sueño

Laburbilduz, [+ erref, + borond, + desir, + helb] ezaugarriak biltzen dituzten perpaus elkartuek modua adierazten dute garbiki eta horrelako testuinguru semantikoetan *-ez* zein *-rik /-ta* mendekoak azaltzen dira euskal literaturan. Gaztelaniaren eremuan gerundio bakuna da ia aukera bakarra, ereduzko moduarekin ados baitago adizki jokatu gabe horrek eraman dezakeen iraupena/denborakidetasuna edota aurretiazkotasun hurbila. Eredu horretatik kanpo eta agian bereziki subjektu erreferentziakideak ez dituzten perpaus konposatuaren kasuan, gerundio konposatua, partizipioa edota adizki jokatu ko menperatuak (ere) azal daitezke, aurretiazkotasun (garbiago)ari loturik. Eredu horretatik kanpo, [ $\pm$  erref + borond – desir – helb] ezaugarrietakoek nola edo halako modua adierazten dutela onartu behar dugu baina hala ere, helburu desiragarririk gabekoak direlarik eta (mendeko) subjektuak nagusiko ekintzaren gaineko aginterik ez duelarik, zergatikutsua suma daiteke moduarekin batera: horrelakoak ere hiru mendekoen bidez gauzatzen dira euskal literaturan. [– Erref + borond + desir + helb] dituztenetan, (mendeko) subjektuak nagusiko ekintzaren gaineko aginterik ez duelarik ere, modu hutsa bide dugu, hau da, helburudun modua, eta berri ere, hiru mendekoak daude aukeran. [ $\pm$  Erref – borond + desir – helb] dugunean, ondorio desiragarriaren zergatia dugula onartuko dugu, eta literaturan batez ere *-rik /-ta* mendekoak ikus daitezke. [ $\pm$  Erref – borond – desir – helb] sortan, zergati hutsa dugu, ondorio desiragarririk gabeko zergatia alegia, eta hemen ere, *-rik /-ta* mendekoak dira nagusi. Azken zergati mota hauekin batera, *-ez* mendekoa ere azal daiteke, baina kasu askotan oso testuinguru modal murrizetan.

	Subjektu erreferentziakideak							
	+				–			
Mendekoaren $\pm$ borond.	+	+	–	–	+	+	–	–
Nagusiaren $\pm$ desir.	+	–	+	–	+	–	+	–
Nagusiaren $\pm$ helb.	+	–	–	–	+	–	–	–
Mendekoa	<i>-ez/-rik</i>	<i>-ez/-rik</i>	<i>-rik</i>	<i>-rik</i>	<i>-ez/rik</i>	<i>-ez/-rik</i>	<i>-rik</i>	<i>-rik</i>
Bien arteko harremana	helburudun modua	helbururik gabeko modua	ondorio desiragarriaren zergatia	ondorio- desiragarririk gabeko zergatia	helburudun modua	helbururik gabeko modua	ondorio desiragarriaren zergatia	ondorio- desiragarririk gabeko zergatia
Adibideak	(74-78)	(79-81)	(82-84)	(85-87)	(88-90)	(91-93)	(94-96)	(97-99)

### 3.2. Argudiozko harremana

Azpisail honetan modua edo zergatia direlako harreman semantikoaren gainean egiten den zehaztasun bat aztertuko dugu: *-ez* eta *-rik* eta *-ta* mendekoen eskutik argudiozko harremana izendatuko duguna.

Azter bitez (100a-c).

- (100) a hobeto pentsatuta, berandu zabilta eta hobe duzu zure bideari segitzea (MG.00.014)
- b Hurrengo urratsa, Flora hain zuzen ere telesailaren orduan leihora ateratzea zen... nahi beste alditan ematen dituztela kontutan hartuz, aukerak ere ugaritxo nituen (SZ.02.219)
- c baina zeuen munduko on izateari begiratuta ere, gorde behar zarete neskatiletarik (ME.03.069)

Perpaus hauen esparru semantiko-pragmatikoa, gardena da:

- a) Eredu honetako mendekoetan oso arlo murrizteko aditzak azaltzen dira: nola edo halako buru-jarduera adierazten dutenak. Aditz-zerrenda oparoa aurkitu dugu euskal literaturan, baina oro har, aditzen artean bi mota ditugu.
- a1) Alde batetik, subjektuaren borondatezkotasuna daramatenak, hau da, 32. sailean egin dugunaren arabera [+ borond] dutenak: *alderatu*, *aztertu*, *begiratu*, *jarri*, (*kontuan*) *hartu*, *mintzatu*...
- a2) Beste alde batetik, [- borond] modura sailkatu ditugunak: *atzeman*, *ezagutu*, *gogoratu* *iruditu*, *ikusi*, *jabetu*, *jakin*, *oroitu*, *konturatu*, *miretsi*, *sumatu*...
- a3) Badira gainera batera zein bestera joka dezaketenak: *ahaztu*, *ederetsi*, *etsi*, *pentsatu*, *gutxietsi*.

Edonola, errepikatu beharrekoa da kasu guztietan adierazten dela buru-jarduera baten bidez aztertu edo bereganatu egin (beharko) den gertaera bat.

- b) Beti 31. sailean erabili izan ditugun irizpideei begira, gerta daiteke perpaus nagusiak ondorio-desiragarritasuna eramatea ala ez, hots, [+ desir] gauza daiteke eredu honen baitan. Edozelan, mendeko gertaera hori ondo aztertuz edo gertaera horretaz jabetuz subjektuak aterako duen ondorioa edo egitea erabaki duena adierazten du nagusiak.

Eredu honi lotutako kasu askotan isildu egiten da subjektuaren argudio-lerroaren aipamen ageria (101) baina zenbaitetan, eredu honen funtsa agerierian dago: mendekoari dagokion nagusiak *erabaki* (95) edo *erran* (96)

bezalako aditz bat edo *uste* (97) edo *bistako* (98) bezalako predikatuak daramatza eta benetan hartutako erabakia edo ondorioztatutako ideia, nagusi horren beste mendeko perpaus batean itxuratzen da.

- (101) a neskatxa on baten dohai eta bertuteak gutxietsiz edo, bederen, ez aski ederretsiz, Petirik, Garazirekin ezkontzea erabaki zuen (ET.08.168)  
 b mundu honetako bizia bertze munduko bizitze eternalarekin konparaturik, ez da erran behar bizia dela (TR.04.086)  
 c Hau hala izanik dut salbatzeko ustea? (AÑ.00.064)  
 d Villamedianakoa gogoan hartuz bistakoa zen Crisantos nire auzoak bere bizitza guztian miserabletasuna adierazten duela (AT.00.164)

Bi mendeko eta nagusi bat daramatzen eredu honen aipamena ez da alferrik izango, batez ere 31. sailean bezala zergatia eta modua elkarrengandik bereizteko ahaleginetan aritzean. Azpimarratu beharrekoa da mendekoak ez duela zehazki nagusiaren zergatia adierazten. Izan ere, (100a-c) bezalakoetan, zergatia edo modua ez da bilatu behar agerian dauden nagusi eta mendekoaren artean, ezabaturik legokeen nagusi baten eta agerian dagoen mendekoaren artean baizik. Hau da, *pentsatu* edo *kontuan hartu* horiek ez dira ageriko nagusi horien zergatia edo modua, nagusi horren gainean legokeen buru-jarduerako perpaus batzuen zergatia edo modua baizik (102a-c).

- (102) a hobeto *pentsatuta*, berandu *zabiltzala* ikusiko duzu  
 b nahi beste alditan ematen dituztela kontutan hartuz, aukerak ere ugaritxo nituela konturatu nintzen  
 c baina zeuen munduko on izateari begiratuta ere, neskatiletarik gorde behar zaretela ondorioztatuko duzue

Hau guztia bereziki garrantzitsua izan daiteke hizkuntzatik kanpoko laguntzarik eskaintzen ez duten testuinguruetan ari garelarik (103).

- (103) a Lotura bikoitza izanik, aldehido taldearen seinalerik luzeago ez bilatzea erabaki dugu  
 a' Lotura hirukoitza dela kausa, ezin eduki dezake aldehido talderik  
 a'' Lotura hirukoitza izanik, ezin eduki dezake aldehido talderik eta beraz, aldehido talde horien seinalerik luzeago ez bilatzea erabaki dugu  
 b Ur molekula bat harturik, ez dugu luzeago lotura bikoitzirik bilatuko  
 b' Ur molekula baten harrera dela bide, apurtu egin du lotura bikoitza  
 b'' Ur molekula harturik, apurtu egin du lotura bikoitza eta beraz, lotura bikoitzik luzeago ez bilatzea erabaki dugu

(103)koak erabat arruntak badira ere, lagungarria gerta daiteke kontua zorrotz aztertzea: (103a) perpausean, lotura hirukoitza daukan karbono batek, ez dauka talde aldehido bat eratzeko beste elektroio eskuragarririk, hau da, lotura hirukoitza aldehidoa egoteko ezintasunaren zergatia da, (103a') itzulinguruan ikus daitekeen bezala. (103b) perpausean, ur molekula bat hartzea lotura bikoitza apurtzeko modua izan da, (103b') itzulinguruan agerian dagoenez. Bi mendeko hauek ez dira ordea (103a) edo (103b)ko nagusien zergatia edo modua, (103a') edo (103b')ko perpausen zergatia edo modua baizik. Izan ere, (103a-b) horietan, jakintzat eman da (103a'-b') horietan ageri den ezaguera berezitua. Nabaria da ideiak era gardenean igorri nahi izanez gero (103a"-b'") itzulinguruetan dugula aukera egokiena.

Gaztelaniak eredu hauetan bi gerundioak onartzen ditu, kasuaren arabera.

- (104) a Pensándolo mejor, se te ha hecho tarde y mejor que sigas tu camino  
 a' #Habiéndolo pensado mejor, se te ha hecho tarde y mejor que sigas tu camino  
 b Habiendo cogido una molécula de agua, no vamos a buscar por más tiempo un doble enlace  
 b' #Cogiendo una molécula de agua, no vamos a buscar por más tiempo un doble enlace

Bestalde, gogoratu beharrekoa da argudiozko harremana, berdin egoki dakioketela helbururik gabeko moduaren ereduari – (105a)ko [+ borond, – desir, – helb] ereduari– zein ondorio desiragarriaren zergatiari – (105b)ko [– borond, + desir, – helb] ereduari–. Ondorio desiragarriaren gabeko zergatia, hau da, zergati hutseko ereduari [– borond, + desir, – helb] – ez bide da oso ugaria literaturan.

- (105) a haren esanak aintzakotzat hartuz, galdetu zion (ET.011.224)  
 b Batek Bruto urrikari izango du, bere asmo garbiak politika lokatzetan iraulka ikusirik (ME.06.315)

Laburbilduz, *-ez*, *-rik* eta *-ta* mendekoetan buru-jarduerako aditz bat erabiliz, jarduera horretatik atera den ondorioa adieraz daiteke perpaus nagusian, azken finean argudiozko harremana deitu izan dugun eredu osatuz<sup>11</sup>.

<sup>11</sup> Esan beharrekoa da erabat interesgarria izan arren zergati eragile eta zergati adierazle-tarako adierazpideen arteko ezberdintasunen azterketa lan honetatik kanpo utziko dugula. Eragile/ondorio ereduaren zergatiari dagokionez, testuko (101) adibidean *lotura hirukoitza* → *aldehido eza* norabide bakarra dugu (i); adierazle/ondorioztapen ereduaren aldiz, *lotura*

### 3.3. Emendiozko harremana

Odriozolaren (1993) lanean iradoki zenez, zenbaitetan, *-rik /-ta* mendeko hauek sailkagaitz samarrak dira, adieraren ikuspegitik behintzat. Lan horretan erabili zen corpus handian ahalik eta mendeko gehien nonbait sailkatzearren, kopulatibo edo emendio modura utzi ziren *-rik* mendeko asko (106), besterik gabe *eta* juntagailuko itzulingurua onartzen zutelakoan (106b).

---

*hirukoitza* → *aldehydo eza* (iia) eta *aldehydo eza* → *lotura hirukoitza* (iib) norabideak ditugu eskuragarri.

- (i) a Lotura hirukoitza dauka eta horregatik, ezin eduki dezake aldehydo talderik  
b #Ezin eduki dezake aldehydo talderik, eta horregatik, lotura bikoitza dauka
- (ii) a Lotura hirukoitza dauka eta beraz, aldehydo talderik ezin eduki dezake(ela ondorioztatuko dugu)  
b Ezin eduki dezake aldehydo talderik, eta beraz, lotura bikoitza dauka(la ondorioztatuko dugu)

*Eta beraz* delako itzulingurua, bestetik zilegi da bai zergati eragilerako bai zergati adierazlerako ere. *Eta horregatik*, ordea, zergati eragilearen kasuan bakarrik da egokia.

Hau guztia dela eta, hemen deskribatu dugun argudiozko eredu horren barruko kasu gehienak, zergati adierazleari dagozkio, hau da, (ii)koari, (iii)an dauden (102)ko itzulinguruetan ikus daitekeen bezala

- (iii) a Haren esanak aintzakotzat hartu zituen eta beraz, galdera bat egin zion  
b Galdera bat egin zion eta beraz, aintzakotzat hartu zituen haren esanak  
c Haren esanak aintzakotzat hartu zituen eta horregatik, galdera bat egin zion  
d #Galdera bat egin zion eta horregatik, aintzakotzat hartu zituen haren esanak

Hala ere, zorrotz aztertuz gero erraz ondoriozta daitekeenez, argudiozko eredu «osatua» ageri deneko kasu askotan, hau da, (ii)ko bi mendeko daramatzaten aldaerak ditugun kasu askotan, *-ez* mendekoa nagusiaren zergati eragilea da (iv), eta beste mendekoaren zergati adierazlea (v).

Laburbilduz, eskutartean ditugun *-ez*, *-rik* eta *-ta* mendeko hauek, zergati eragilea zein adierazlea adieraz dezakete.

- (iv) a Aldehydo talderik ezin edukirik, lotura bikoitza duela ondorioztatu dugu  
b Ez dauka aldehydo talderik eta beraz, lotura bikoitza duela ondorioztatu dugu  
c Ez dauka aldehydo talderik eta horregatik, lotura bikoitza duela ondorioztatu dugu
- (v) a Ez dauka aldehydo talderik eta beraz, lotura bikoitza du  
b #Ez dauka aldehydo talderik eta horregatik, lotura bikoitza duela ondorioztatu dugu

Bukatzeko esan behar dugu zenbaitetan argudiozko harreman hau, erabiltzen den aditz nagusiaren arabera nolabaiteko modutik hurbilago dagoela era bateko edo besteko zergatitik baino.

- (106) a Zeren Szpionen konseilua utzirik, hartu zuten  
Katonena (AX.00.018)
- b Zeren Szpionen konseilua utzi eta hartu zuten  
Katonena

Gure oraingo zeregin hau garrantzitsua da, modu, zergati edo aurretiazkotasuna direlako eduki ezagunen esparrua apur bat hobeto finkatzeko ahaleginetan ibiliko baikara; horretaz gainera, ohiko ereduetatik kanpo dagoena ere finkatzen saiatuko gara. Era horretara, hizkuntzalaritza aplikatuaren ikuspegitik, agerian utziko dugu *-rik /-ta* horiek, *-ez* mendekoak ez bezala, adiera zehatzik gaineratu gabe bi perpaus elkarren ondoan jartzeko balio dutela: horrelako mendekoetan modu, zergati edo aurretiazkotasun garbirik gabeko mezua ematea zilegi dela adieraziko dugu; zer esanik ez, oso muga garbirik ez duen mezu bat ez da inola ere baztergarria, eta testu teknikoetan erraz gerta daiteke muga eza dagoen-dagoenean adierazteko nahia edo beharra.

Erabiliko ditugun itzulinguruak direla eta, honelakoak azpimarratu behar dira: Hasteko (106b)ko itzulinguru hau, onargarri gertatuko da mendeko hauek azaltzen diren kasu askotan, baina zenbaitetan, bera bakarrik izango da onargarria eta horrelakoak izango dira hain zuzen emendiozko harreman zabal bat adierazten dutenak. *-Ta* mendekoa, *eta* juntagailuaz osaturiko baliabide horrekin diakronikoki estuki loturik dago baina hala ere, bi itzulinguruen berri emango dugu hurrenez hurren (c) eta (c') aldaeretan. Bestalde, *eta gero* itzulingurua erabiliko dugu emendiozko perpaus hauek aurretiazkotasun garbia daukatenen artetik atera ahal izateko.

Hona hemen beraz gure prozedura: ohiko adierak itzulinguru hauen eskutik aztertu eta borobilduriko esparrutik kanpo geldituko direnak, emendiozko harremanekoak direlakoan utzi ditugu.

a) Modu (107a-d) edo zergati (107e-h) garbia adierazten dutenek, ondo onartzen dituzte *-ta* mendekoa (107c-107g) eta bai eta itzulingurua ere (107c'-107g')<sup>12</sup>.

- (107) a Atomo bat ordezkaturik, molekularen egitura agerian utzi dugu  
b Atomo bat ordezkaturik, molekularen egitura agerian utzi dugu  
c Atomo bat ordezkaturik, molekularen egitura agerian utzi dugu  
c' Atomo bat ordezkaturik eta molekularen egitura agerian utzi dugu  
d #Atomo bat ordezkaturik eta gero, molekularen egitura agerian utzi dugu  
e #Konturatu gabe medioa berotzen utziz, bigarren molekularak ilunago azaldu du bere egitura espektroskopian  
f Konturatu gabe medioa berotzen utzirik, bigarren molekularak ilunago azaldu du bere egitura espektroskopian

<sup>12</sup> *Eta* juntagailu soilean oinarrituriko itzulingurua, zilegi izan arren ez da *-ta* mendekoa (edo *-rik* mendekoa) bezain arrunta, modu edo zergati garbiak adierazteko unean.

- g Konturatu gabe medioa berotzen utzita, bigarren molekulak ilunago azaldu du bere egitura espektroskopian
- g' Konturatu gabe medioa berotzen utzi eta bigarren molekulak ilunago azaldu du bere egitura espektroskopian
- h #Konturatu gabe medioa berotzen utzi eta gero, bigarren molekulak ilunago azaldu du bere egitura espektroskopian

Azpmarratu beharrekoa da mendekoaren aurretiazkotasuna agerian uzten duen *eta gero* itzulinguruak oso ondorio traketsak ematen dituela kasu bietan. Modua eta zergatia adierazten denean mendekoak ezinbestez nola edo halako aurretiazkotasuna adierazi behar duela kontuan harturik, (107d-107h) hauen egokitasun ezak azterketa zorrotzagoa behar du. Hori dela eta, lagungarria gerta daiteke Goenagak (1978) (108a-b) perpausetan oinarriturik egindako bereizkuntza (bi puntuen atzeko luzapena gurea da).

- (108) a Bizitza arriskatuaz, gugana etorri zen: hiru ordu laurden Donostiatik hona
- b Bizitza arriskaturik, gugana etorri zen: egun osoan zehar autolasterketa horretan esku hartu ondoren
- (109) a #Bizitza arriskatuaz, gugana etorri zen: egun osoan zehar autolasterketa horretan esku hartu ondoren
- b Bizitza arriskatu eta gero gugana etorri zen: egun osoan zehar autolasterketa horretan esku hartu ondoren
- (110) a Bizitza arriskaturik hona etorri zen: hiru ordu laurden Donostiatik hona
- b #Bizitza arriskatu eta gero gugana etorri zen: hiru ordu laurden Donostiatik hona

Ikus daitekeenez, *-ez* mendekoak, modua garbiki adierazten duelarik (108a), ezin onar dezake aurretiazkotasunaren azalpena (109a). *-Rik* mendekoak ordea, (108b) horretan aurretiazkotasunaren testuingurua onartu du (modua baztertuz), baina (110)eko modu-testuingurua ere zilegi du. Beraz, *-ez /-rik* morfologi oposaketari esleituriko modua/aurretiazkotasuna bereizketa zorrotza dela eta, gaineratu beharrekoa da *-ez* mendekoa dela aukera markatua, modua baizik adierazten ez baitu. *-Rik* mendekoak ordea, modua zein aurretiazkotasuna adieraz dezake testuinguruaren araber.

Modu eta zergatiaren arteko iskanbilaz aritu garen 31. sailaren harira itzuliz, gogora dezagun eredu-zko modu-mendekoak gaztelaniaren gerundio bakuna duela ordain gisan (111). Ereduzko zergatikoan aldiz, gerundio bakunaz gain, gerundio konposatua eta partizipioa ere bideragarriak dira zenbaitetan<sup>13</sup>. Nabari da beraz modu-ereduetan bazterturik dagoela

---

<sup>13</sup> Alde batera utzi behar dugu lan honetan erdal adizkien komunztaduraren azterketa, baina ikus bedi gerundio konposatuak zenbaitetan ez duela zerikusirik nagusiaren adizki-denborara



*eta gero* euskal itzulinguruari eta erdal gerundio konposatuari eta partizipioari darien aurretiazkotasun ageria. Zergati-ereduetan berriz, *-rik* eta *-ta* mendekoak eta gerundio konposatua eta partizipioa dira nagusi, aurretiazkotasunaren azalpen ageritik hurbilago daudelarik. Hala ere, *eta gero* itzulingurua ez da bideragarria moduaren esparruan edo zergatiaren esparruan, eta hortaz, jakina, ez dago *eta gero* (111c/112c) gerundio bakuna/gerundio konposatua bereizketarekin (111b-b'/112b-b') parekatzerik.

- (111) a RMN bat {eginez/eginik/eginda/egin eta}, molekularen egitura ondo finka daiteke
- b Haciendo una RMN, podemos determinar perfectamente la estructura de la molécula
- b' #Habiendo hecho una RMN, podemos determinar perfectamente la estructura de molécula
- b" \*Hecha una RMN, podemos determinar perfectamente la estructura de molécula
- c #RMNa egin eta gero, molekularen egitura ondo finka daiteke
- (112) a RMNa gaizki {eginez/eginik/eginda/egin eta}, molekularen zenbait eskualde ilun gera daitezke
- b Haciendo incorrectamente la RMN, algunos aspectos de la molécula pueden quedar oscuros
- b' Habiendo hecho incorrectamente la RMN, algunos aspectos de la molécula pueden quedar oscuros
- b" Hecha incorrectamente la RMN, algunos aspectos de la molécula pueden quedar oscuros
- c RMNa gaizki-egin eta gero, molekularen zenbait eskualde ilun gera daitezke

b) Aurretiazkotasuna eta emendiozko harremana.

b1) Aurretiazkotasun hutsa.

Aurretiazkotasuna dela eta, ikusia dugu *-ez* mendekoa ez dela oso estandarra (113a), baina *-rik* eta *-ta* mendekoak eskuragarri ditugula (113b-c). *Eta* itzulingurua ere egingarria da (113c') eta jakina, *eta gero* itzulingurua dugu adierazpiderik garbiena.

---

rekin —ikus testuko (112)—. Beste zenbaitetan (i), antza, adizki horrekiko komunztaduraren arabera hautatzen da.

- (i) a #Haciendo incorrectamente la RMN, algunos aspectos de la molécula han quedado oscuros
- b Habiendo hecho incorrectamente la RMN, algunos aspectos de la molécula han quedado oscuros

(112) eta (i), hortaz, testuinguru desberdinei dagozkie, baina edonola, hemen kontuan hartzekoa dena (112)an agerian dagoen gerundio konposatuaren aukera askea da.

- (113) a #Birusa bakterio barruan sartuz, egoera geldoan mantentzen da epe jakin batean  
 b Birusa bakterio barruan sarturik, egoera geldoan mantentzen da epe jakin batean  
 c Birusa bakterio barruan sartuta, egoera geldoan mantentzen da epe jakin batean  
 c' Birusa bakterio barruan sartu eta egoera geldoan mantentzen da epe jakin batean  
 d Birusa bakterio barruan sartu eta gero, egoera geldoan mantentzen da epe jakin batean

Aurretiazkotasunari dagokion esparru honetan gaztelaniak, partizipioa edota gerundio konposatua hautatzen ditu: antza denez, *eta gero* bideragarri den kasu bakan hauetan, gerundio bakuna guztiz ezinezkoa da, aldeztatik aipatuak ditugun aspektu-ezaugarriak direla bide.

- (114) a #Introduciéndose en la bacteria, se mantiene en estado latente durante un cierto período  
 b (Una vez) introducida en la bacteria, se mantiene en estado latente durante un cierto periodo  
 c Habiéndose introducido en la bacteria, se mantiene en estado latente durante un cierto período

b2) Emendioa, aurretiazkotasuna jakintzat ematen delarik.

Jadanik ikusia dugunaren arabera, eskutartean darabiltzagun itzulinguruaren egokitasuna edo egokitasun eza, adierazi nahi den edo adierazi nahi ez denaren adierazle besterik ez dira. Horrela, espero zitekeenaren arabera, adierazi nahi denaren arabera ondorio egokiak zein traketsak gerta daitezke, mendeko perpauserako aditz bakar bat erabilirik ere. Hala ere, zenbaitetan aurretiazkotasuna suma daiteke baina *eta gero* itzulinguru bera ez da zilegi (115).

- (115) a #Birusak, zelularen mintzera helduz, zeharkatu egiten du  
 b Birusak, zelularen mintzera heldurik, zeharkatu egiten du  
 c Birusak, zelularen mintzera helduta, zeharkatu egiten du  
 c' Birusak zelularen mintzera heldu eta zeharkatu egiten du  
 d #Birusak, zelularen mintzera heldu eta gero, zeharkatu egiten du  
 e #Birusa mintzera helduz, bere egitura agerian egoten da  
 f Birusa mintzera heldurik, bere egitura agerian egoten da  
 g Birusa mintzera helduta, bere egitura agerian egoten da  
 h Birusa mintzera heldu eta bere egitura agerian egoten da  
 i Birusa mintzera heldu eta gero, bere egitura agerian egoten da

(115a-d)ko sorta honen aurrean, pentsa genezake batetik idazleak ez duela aurretiazkotasun/gerokotasun ardatzari eusteko asmorik, edo bestela, gure *eta gero* itzulinguruak (115d) huts egiten duela zenbaitetan den-

bora-harreman hori egiaztatzeko ahaleginetan. Korapiloa askatzeko, oso kontuan hartzekoa da hasiera batean behintzat honelako hau: *heldu* bezalako lorpen-aditz garbiek (ikus 34. saila), batzuetan behintzat, baztertu egiten dituzte ageriko *eta gero* bezalako baliabideak: heltzea denbora-iraupenik gabe osotasunean ulertu behar den gertaera delarik, jakintzat ematen da beste gertaera jakin batzuk geroagokoak direla. Hala ere, bide horretatik aurrera joanda, esan beharrekoa da beste zenbaitetan (115e-i), mendeko aditz berberak zilegi dutela itzulinguru hori (115i). Horrela, nagusiaren aspektu-ezaugarriak ere badu zeresanik auzian eta gure ustez, oso agerikoa da *heldu* /*zeharkatu* eta *heldu* /*lagerian egon* bikoteen arteko desberdintasuna: heltzea iraupenik gabeko gertaera da eta iraupenik gabeko edo iraupen mugatuko *zeharkatzea* argi eta garbi gertatzen da beranduago. *Agerian egotea* aldiz, mugarik ez duen gertaera da. *Heldu* eta *zeharkatu* direlakoan arteko denbora-harremana jakintzat ematen delarik ere, ez da horrelakorik gertatzen *heldu* eta *agerian egon* predikatuen artean, zehatz eta mehatz adierazi nahi baita agerian egote hori noiztik aurrera gertatu den. Azken hau (115e-i), aurreko saileko (114)rekin batera sailkatu behar da.

Aurretiazkotasun mota berezi honen esparruan, gaztelaniak *una vez* gaineratzen bide dio partizipio absolutuko egiturari<sup>14</sup>.

(116) (Una vez) alcanzada la membrana de la célula, la atraviesa

Honelakoak ez dira urriak euskal literaturan (117), eta Odriozolaren (1993) lanaren emaria osatzeko, *hartu*, *ahaztu* edo *aldatu* bezalako aditzak «lorpenak» direla kontutan harturik haietako bat hartzen duten mendekoek emendioa adierazten dutela esango dugu, betiere oinarrian dagoen aurretiazkotasun ustezko hori erabat ahantzi gabe.

- (117) a Orduan harturik bost ogiak eta bi arrainak  
benedikatu zituen (LC.09.016)
- b Eta nik zer egin dut oraindino salbatzearren?  
Ah! Ahalegin guztia joateko Infernura, ahazturik  
Zerua (AÑ.00.069)
- c eta burubidez aldaturik erromes joatea erabaki  
nuen (ET.020.393)

Dena dela, idazleak gogoan izan behar du aurretiazkotasun/gerokotasun ardatza jakintzat emate hori aldakor samarra dela hizkuntzatik kanpoko ezagueraren arabera eta hizkuntza bera erabiltzen deneko zorrotzasunaren arabera ere.

<sup>14</sup> Esan dezagun berriro *behin* eta *gero* euskal kideen berri zehatza Odriozolaren (1993) lanean ikus daitekeela.

b3) Uneko emendiozkoa.  
Azter bedi orain (118).

- (118) a #Espermatozoide jakin batek obuluaren mintza ikutuz, gainontzeko guztiak urrundu egiten dira
- b Espermatozoide jakin batek obuluaren mintza ikuturik, gainontzeko guztiak urrundu egiten dira
- c Espermatozoide jakin batek obuluaren mintza ikutu eta gainontzeko guztiak urrundu egiten dira
- c' Espermatozoide jakin batek obuluaren mintza ikututa, gainontzeko guztiak urrundu egiten dira
- d #Espermatozoide jakin batek obuluaren mintza ikutu eta gero, gainontzeko guztiak urrundu egiten dira
- e Espermatozoide jakin batek obuluaren mintza ikutu eta berehala, gainontzeko guztiak urrundu egiten dira

Hemen ere, (118a) ez da guztiz egokia. (118d) perpaus konposatuaren egokitasun eza atzemateko, ordea, kontuan hartu beharrekoa da ikutze eta urruntze horien artean ezarri nahi den aspektu-harremana (ikus 33. azpisaila). Izan ere, berehalako erantzun modura aurkeztu nahi da urruntze hori eta beraz, (118d) baliabidea ez da egoki(en)a. Zer esanik ez, *ikutu eta berehala* bezalako zeozer (118e), (118b-c) baino are argiagoa izango litzateke. Kasu honetarako, gaztelaniak duen itzulunguru garbienak *al* + infinitiboa edo *en el momento que* + adizki jokaturia bezalakoak izan litezke.

Gogora dezagun bestalde 11. sailean gaztelaniari buruz esandako hau: De Miguel-ek (1991) egiaztatu duenez, partizipio absolutuko menpekoak oso sentikorrek dira erabiltzeko dagoen aditzaren aspektu-ezaugarriekin. Har dezagun (42) adibidea, hemen (119) modura errepikatua: «lorpenak» (119a), «gauzaketak» (120a) edo joskeraren bidez mugaturiko «jarduerak» (121a) eta «egoerak» (122a) baizik ezin erabil daitezke, ez baitira berez zilegi denbora-mugarik ez duten jarduerak (121b) eta egoerak (122b). Ikusi gainera gaztelaniaren gerundio konposatuan oinarriturikoak, jardueren (119c') eta egoeren (119d') kasuan partizipioak baino askoz ere hobeto daudela.

- (119) a Construidos los edificios de viviendas, empezaron a urbanizar los alrededores
- a' Habiendo construido los edificios de viviendas, empezaron a urbanizar los alrededores
- b Rechazada la propuesta, pasaron a considerar la posibilidad de una nueva ley
- b' Habiendo rechazado la propuesta, pasaron a considerar la posibilidad de una nueva ley
- c \*Nadado Juan (durante media hora) se sintió mejor
- c' Habiendo nadado durante media hora, se sintió mejor
- d \*Amada Sonia (durante tres años), rompió la relación inesperadamente
- d' Habiendo amado a Sonia durante tres años, rompió la relación inesperadamente

Euskal *-rik* eta *-ta* menpekoek, denbora-iraupena mugatzen duten baliabideak egonda, ondorio gramatikalak ematen dituzte, bai eta jardueren (120b) eta egoren (121b) kasuan ere.

- (120) a ?Jon, igeri eginda, hobeto sentitu zen
- b Jon, ordu erdiz igeri eginda, hobeto sentitu zen
- (121) a ?Sonia maite izanda, ustekabea apurtu zuen harremana
- b Sonia hiru urtetan maite izanda, ustekabea apurtu zuen harremana

Hona hemen kontu hauek guztiak laburbilduta: 1) *Eta gero* itzulingurua, oso murriztaile gertatu zaigu eskutartean ditugun esangurak bereizteko unean: (nolabaiteko aurretiazkotasuna eraman dezakeen) modua, aurretiazkotasuna daraman zergatia, eta bigarren mailako adierarik ez daramaten beste asko ere baztertu ditu. Azken hauek, emendiozko harreman modura sailkatu ditugu. 2) *Eta* juntagailuan oinarrituriko itzulingurua, bestetik, onargarria dugu *-ez*, *-rik* eta *-ta* mendekoak azaltzen diren guztietan, baina emendiozko harremanaren kasuan, onargarria den itzulinguru bakarra da. Berezko aurretiazkotasuna eta ageriko aurretiazkotasuna berezi behar dira beraz. Izan ere, lan honetan zehar gehienetan nola edo halako aurretiazkotasuna dugu eskutartean baina horrela izanik ere, askotan berezko aurretiazkotasuna dugu, ageriko syntaxira eramaterik onarten ez duena. 3) Berezko aurretiazkotasuna eta ageriko aurretiazkotasuna direlako hauek bereizten jarraitu ahal izateko, kontuan har daiteke (nolabaiteko aurretiazkotasuna daraman) gaztelaniaren gerundio bakuna oso loturik dagoela (nolabaiteko aurretiazkotasuna daraman) moduari. Bestalde, aurretiazkotasun nabaria daramaten gerundio konposatua eta partizipioa, bere aldetik, aurretiazkotasuna daraman zergatiari loturik daude (azken honek euskaraz *eta gero* onartzen ez badu ere). 4) Zenbaitetan, *eta berehala* itzulinguruak aurretiazkotasun mota berezi bat uzten du agerian. Adiera hauek guztiok ondo geureganatzerakoan, aditzen aspektu-ezaugarriek funtsezko zeregina dute, eta hizkuntzalaritza aplikatuaren ikuspegitik ere, komenigarria da mota honetako hausnarketak egitea.

### 3.4. Denborakidetasuna eta aspektua

Azpisail honetan, bibliografian oso ondo profilatuturik ez dagoen denborakidetasuna delako eduki semantikoa sakonki aztertzeari ekingo diogu. Kontua behar bezala aztertzeke, aspektua zer den azaldu behar dugu hemen, oso gaingiroki bada ere. Horretarako, gure literatur hustuketaren zenbait adibide hartuko ditugu, oraingo honetan adberbio-harremanak ahaztu eta mendeko aditzen aspektu-ezaugarri horiek zer diren azaletik ulertzen saiatzeko.

Hasteko, aspektu-ezaugarriak hizkuntzaren maila desberdinetan azaltzen dira. Oro har aditzak berak, hiztegi-sarrera modura ezaugarri jakin bat eraman ohi du, eta bestetik, gerta daiteke sintaxi-egitura jakin batean

txertatzeko unean, jatorrizko ezaugarri horrek tinko irautea edo aldarazia suertatzea. Maila batean zein bestean dauden lau aspektu-ezaugarri nagusiak, hauek ditugu:

Denbora-iraupenik ez daramaten gertaerei, «lorpen» deritze; horrela, *desagertu* edo *hartu* bezalako aditzek hiztegi-sarrera modura, «lorpena» daramate. Nola edo hala neur eta muga daitekeen denbora-tartean hedatzen diren gertaerei, «gauzaketa» deritze; eredu gisa, hor ditugu *bete* edo *eraiki*; bai lorpenen kasuan, bai gauzaketen kasuan ere, gertaera bere osotasunean aipatzen da, edo bestela esanda, bukaeradun gertaerez ari gara. Denbora-mugarik gabeko gertaera aktiboak ere badaude, «jarduera» izenekoak, *zaindu* edo *ibili* kasu. Azkenik, denbora-mugarik gabeko gertaera ezaktiboak ditugu, «egoera» deritzenak eta *egon* edo *gorro izan* bezalako aditzei dagozkienak.

Oso gaintik ikusitako aspektu sorta honek, iradokia dugunez, berebiziko garrantzia izango du gure mendekoen eta nagusiaren arteko harremanak ondo ulertzeko unean, eta bai perpaus konposatu bat benetan ondo antolaturik dagoela bermatzean ere. Oro har, aldideberekotasuna badagoela edo ez dagoela jakiteko, aditzen edo aditz-esapideen ezaugarri hauek ondo ezagutu beharko direla aldarrikatuko dugu.

3.4.1. sailean, bi denborakidetasun mota bereiziko ditugu: alde bate-tik, haien aspektu-ezaugarriei esker denborakidetasun partziala edo osoa onartzen duten aditzen artekoa eta bestetik, kontzeptualki bakarrik bereizi ahal izan eta denboran zehar erabat gainjarriak dauden gertaeren izaerakidetasun-harremana. 3.4.2. azpisailean, aurretiazkotasun eta denborakidetasunaren arteko harremanean sakonduko dugu. 3.4.3. azpisailean, azkenik, denborakidetasuna eta gerokotasuna/ondorioa direlako harremanen adierazpen eta ulerkuntzaz arituko gara. Izan ere, gure hustuketan, bigarren gunean kokaturiko *-ez* mendekoak nagusiaren zergatia edo modua adierazten du edo bestela, (tarte bateko) denborakidetasuna; hori guztia dela eta, lan honen bukaera gisan, hizkuntza berezituetan gaizkiulertuetara eramaten ohi gaituen eta idaztankerari berari begira erabat estandarra ez den (122b) bezalakoei falta zaiena apur bat argiago azaltzen saiatuko gara aspektuaren ikuspegitik.

- (122) a Sortu den tokian edertzen da; nekez ematen du tokiz  
aldatuz (DU.00.167)  
b kaiku arraioa bere aurka oldartu zen, berebiziko  
umilaldia jasanaraziz (ET.04.080)

### 3.4.1. DENBORAKIDETASUNA ETA IZAERAKIDETASUNA

Azpisail honetan, *-rik* eta *-ta* mendekoek eta bereziki *-ez* mendekoak adieraz ditzaketan denborakidetasuna eta izaerakidetasuna aztertuko ditugu.

Ikus bitez hasteko (123a-c) adibideak.

- (123) a ...egin zuen barre Walterrek bere liburua astinduz (AT.00.320)
- b Luze egon nintzen esna, noizbehinka mihia klaskatuz (SZ.02.191)
- c Atea jo zuten bere izenez deituz (ET.20.403)

Hiru perpausotan, erabateko denborakidetasuna dago nagusiaren eta mendekoaren gertaeren artean. (123a)koan, gutxienez une bateko denborakidetasuna gertatuko da «jarduerak» diren *barre egin* eta *astindu* horien artean. (123b)ko (*mihia*) *klaskatu*, agian errepikakortzat den jardueratzat jo daiteke eta edozein eratan, nolabaiteko iraupena daukan gertaera dugu, nagusiko *egon* egoerazko iraupenaren barrukoa. Azkenean, (123c)ko (*atea*) *jo* lorpenzat jo liteke, baina era berean, nolabaiteko iraupena daukan errepikakortzat jo dezakegu, (*izenez*) *deitu* bera ere antzekoa dela onartuz; hemen ere, erabateko denborakidetasuna dagoela onar dezakegu beraz.

Aldiberekotasuna dela eta, bibliografian definitu gabe dagoen harreman semantiko berezi bat arakatzeari ekin behar diogu orain. Hona hemen (124a-c).

- (124) a makil bat hartu eta mendira joan behar nuela,  
giharrari astinaldi bat emanaz (LI.00.028)
- b haren Aita Jainkoa zela erran baitzuen, bere burua  
Jainkoaren berdin eginez (JN.05.018)
- c Uboren iritzi ona jarraituaz, frankotarrei bakean  
uztea erabaki genuen (AG.01.104)

*Mendira joate /giharrari astinaldia emate, Jaungoikoa dela esate /Jaungoikoaren berdin egite eta iritzia jarraitze /bakean uzte* direlako bikoite hauek, denborakideak ez ezik, sakonagoa den beste zeozer ere badute komuna elkarren artean: ezin izan litezke inoiz elkarrengandik beregain, hau da, baliokide edo izaerakide dira nonbait, edo bestela esanda, bi adigai izan arren, elkarrekin batera eta aldiberean gertatzen dira beti; (124a) perpausotan, mendira joatea eta giharrari astinaldi ematea ez dira gauza bera, baina mendira joaten den guztietan astinaldi bat ematen zaio muskulari edo bestela esanda, mendira joan ahal izateko, astinaldi berezi bat eman behar zaio giharrari; (124b)koan, batek aita Jaungoikoa duela dioenean, bere burua Jaungoikoaren parean jartzen du unean bertan; (124c)koan, azkenik, iritzi bati jarraitu ahal izateko, iritzi horren azpian esan zaiguna egin behar bide dugu eta egiten dugunean soilik jarraituko gaitzaizkio irizpideari.

Saia gaitezen orain testu teknikoaren esparrura denborakidetasun eta izaerakidetasun direlako hauek bertan izan dezaketengarrantzia finkatzen.

- (125) a Erreakzioa aktibatu egiten du, katalizatzaile modura jokatuz
- b Erreakzioan esku hartzen du, katalizatzaile modura jokatuz
- c Erreakzio osoan zehar parte hartzen du, katalizatzaile modura jokatuz
- d Erreakzioaren bukaeran jatorrizko egoerara itzultzen da, katalizatzaile modura jokatuz

Gauzak garbiago azaltzearen, *-ez* mendeko bera jarri dugu lau kasuetan. (125a)ko aditz nagusi den *aktibatu* «lorpena» dela jakin beharko dute igorle-hartzaileek, eta beste alde batetik, zenbaitetan katalizatzaile baten eskuhartzea erreakzio bat gertatzeko *sine qua non* baldintza dela jakin beharko dute era berean; azken finean, (125b)ko *-ez* mendekoaren aspektua edonolakoa delarik ere, une bateko denborakidetasuna azal liteke, baina garbi dago modu-harremana adierazi nahi dela. (125c)koan ordea, igorle-hartzaileek garbi jakin beharko dute katalizatzaileen jarduera erreakzioaren hasieran ez ezik erreakzio osoan zehar ere gertatzen dela; beraz, katalizatzaile modura jokatzeko eta erreakzioan partehartzea, denborakidetzat joko ditugu, baina ez ordea izaerakidetzat, zeren eta, jakina, eskuhartzea eta katalizatzaile modura eskuhartzea ez baitira baliokide. (125d)koan azkenik, perpaus nagusian katalizatzaile-jardueraren nolakotasunaren berri eman dela jakin beharko dute igorle-hartzaileek. Hots, nagusiaren eta mendekoaren gertaerak denborakideak baina zehazkiago izaerakideak dira: katalizatzaile modura jokatzeko, beste gauza batzuen artean, erreakzioaren bukaeran jatorrizko egoeran gertatzea da.

Gaztelaniari betiko gainbegirada emanda, begi-bistakoa da lehenengo hiru kasuetan gerundio bakuna dela aukera bakarra (126a-c). Laugarren kasurako, gerundioa debekatu egin da zuzen-zuzenean bibliografian. Bosgarreneko gerundio bakunari erabat egokia ez baderitzozgu ere, ez dugu haren aurkako aipurik aurkitu bibliografian. Garbi gera bedi, ordea, ondorioa edota gerokotasuna adierazten duen gerundio bakuna oso bazterrekoa dela —ikus (37b), hemen (126e) gisan jaso—.

- (126) a Activa la reacción actuando como catalizador  
 b Toma parte en la reacción, actuando como catalizador  
 c Toma parte a través de toda la reacción actuando como catalizador  
 d #Al final de la reacción, vuelve a su situación original actuando como catalizador  
 e #El agresor huyó, siendo detenido horas después

Laburbilduz, *-ez* mendekoari loturik doan denborakidetasuna ondo ulertzeko ere, aditzen aspektu-ezaugarriak kontuan hartu behar dira, eta perpaus nagusiaren eta mendekoaren ekintzen arteko harremanak, hiru eratara gerta daitezke: a) bietatik bat «lorpena» da eta une horretan dira denborakide bi gertaerak; b) biak dira «lorpenak» eta une berean egiten dira; c) biak dira «gauzaketak», «jarduerak» edo «egoerak» eta gutxienez epe batean zehar denborakideak dira. Hau guztia 343. azpisailean berriro hartuko dugu kontuan, ondorio delako ezaugarri semantikoa *-ez* mendekoaren esparrutik bazterterakoan: izan ere, mendeko honek bere atzean kokaturik dagoen nagusiaren ondorio- edo emaitza-gertaerarekiko denborakidetasun (uneko)a izan dezake —ikus geroagoko (136-145) adibideak—, baina nekez adierazten du bere aurrean kokaturik dagoen nagusiaren zergati- edo modu-gertaerarekiko denborakidetasun (uneko)a —ikus geroagoko (146-150)—. Edono-



la, batez ere testu berezitetan garrantzi handia du zenbaitetan gertaerak denborakide baina zehazkiago izaerakide direla azpimarratzea, horrelakoe-tan -ez mendekoak ondo adierazten baitu bigarren gertaera.

### 3.4.2. AURRETIAZKOTASUNA (ETA EZ DENBORAKIDETASUNA)

Aspektu-ezaugarriak apur batez sakonkiago aztertzen jarraituz, mende-koan nagusiarekiko denborakidetasun/aurretiazkotasun delako bereizkuntza erabat garbia ez daukatenak arakatzeari ekin nahi diogu oraingo honetan.

Hasteko, lehenengo hurbilketa batean aurretiazkotasuntzat<sup>15</sup> har litez-keen asko, emendiozkoak dira, 33. azpisailean esan dugunaren arabera behintzat. Izan ere, aurretiazkotasun garbia adierazten duten mendekoen aditzak, gure literatur hustuketan bederen, batez ere «lorpenak» (127-128) edo «gauzaketak» (129-130) direla dirudi. Hau da, gertaerak bere osotasu-nean azaltzen dira.

- |   |             |
|---|-------------|
| (127) Zuen arteko batzuk ondasun guztiak galdurik,<br>ibili dira Erroman            | (MG.01.049) |
| (128) gorpuaren gainean oin bat ipinirik, Ozibelzkoak<br>deiar dar egin zuen        | (AG.02.170) |
| (129) Lan laburrok eginik, zoaz Meza entzutera                                      | (AÑ.00.012) |
| (130) eta etxe guztiari berri antz handia emanik, hasi zen...<br>ogi-saleroskuntzan | (KÑ.00.103) |
| (131) ardi guztiak ongi gorderik, haren bila doala                                  | (AR.00.086) |

Garrantzitsua gerta daiteke testuinguru honetan sumatu dugun mende-ko jarduera-aditzen gabezia. Jo dezagun berriz jakinmin berezia piztu di-guten testu teknikoetara eta dakusagun (132) sorta, literatur hustuketako adibide baten ondoan (133).

- (132) a Lotura bikoitza apurturik, ur molekula bat sar daiteke  
a' Lotura bikoitza apurtu eta gero, ur molekula bat  
sar daiteke  
a" Lotura bikoitza apurtzen denez, ur molekula bat  
sar daiteke  
b Lotura bikoitza apurtuta egonik, ur molekula bat  
sar daiteke  
b' #Lotura bikoitza apurturik egon eta gero, ur molekula  
bat sar daiteke  
b" Lotura bikoitza apurturik dagoenez, ur molekula bat  
sar daiteke

---

<sup>15</sup> Aurretiazkotasuna dela eta, Odriozolak (1993) posterioritate delako berba erabili zuen, batez ere *eta gero* itzulinguru horri loturik, baina nagusiaren gerokotasuna aditzera emateko, noski. Lan honetan zehar, mendekoaren aurretiazkotasunaz mintzatu garelarik, ez dago esan beharrik azken finean mota bereko perpaus elkartuez ari garela.

- (133) a Jaungoikoari otoi eginen dut bizi naizen egunetan zure hiltzeaz lurrean oroiturik santuki bizirik eta santuki hilik mundu honetarik landa zeruko erresuma eternala eman diezazun (TR.00.008)
- b #santuki bizi eta gero zeruko erresuma eman diezazun
- c santuki bizitzeagatik zeruko erresuma eman diezazun

(132a)ko *apurturik* horrek, «lorpena» darama bere baitan, eta aurretiazkotasuna (132a') edo zergatia (132a'') adieraz dezake kasu honetan. (132b)ko (*apurtuta*)*egonik* horrek aldiz, «egoera» bat adierazten du eta (132b') perpausean ikus daitekeenez, inolako iraupen mugaturik ez duen gertaerak kasu honetan behinik behin ez du nagusiarekiko aurretiazkotasuna azaltzen: aurretiazkotasuna badagoela ulertu arren, (132b') ez da perpaus egokia eta (132b'')ko zergatia soilik gertatzen da eskuragarri. Beha bedi (133)ko sorta pare-parekoa dela. Ikus ordea (134a-b).

- (134) a Lotura bikoitza zenbait segundotan apurtuta egon eta gero, ur molekula bat sar daiteke
- b gelditzen zaizun bizitzan santuki bizi eta gero zeruko erresuma eman diezazun

(134a-b) direlakoei egokitasuna eman diena *zenbait segundotan* eta *bizitzan* adizlagunek denborari jarri dioten denbora-muga izan dela pentsatu behar dugu. Izan ere, lan honen helburu nagusia aspektuaren azterketa sakona ez delarik, ia bakarrik aditzek berez daramaten aspektu lexikoaz aritu gara. Alabaina, aditz bakoitzak sintaxi-testuinguruaren arabera, aspektubalio ezberdinak har ditzake, eta azken finean, perpaus osoen aspektu-harremanak aztertu behar dira (131b'-132b/134a-b) bezalako bereizkuntzak ondo ulertzeko, eta aurretiazkotasunak denbora-epe mugatua behar duela ondorioztatu ahal izateko.

Gerundio bakuna eta partizipio edo gerundio konposatua erabiliz, hurrenez hurren modua (135a) eta zergatia (135b) adierazten dira gaztelaniaz. Dakigunez, lehenengoak aurretiazkotasunarekiko harreman egonkorrik ez duen bitartean, bigarreneko biek argi eta garbi daramate aurretiazkotasuna bere baitan. Bestalde, partizipioa pentsaezina da (132b)ko «egoerak» azaltzeko unean

- (135) a Rompiendo el doble enlace, podemos introducir una molécula de agua
- b Roto el doble enlace, puede entrar una molécula de agua
- b' Habiéndose roto el doble enlace, puede entrar una molécula de agua

Horrela, aurretiazkotasunaren erdua garbiago utzi dugu denborakidetanaren aldean eta bai emendiozko harremanaren aldean ere. Edonola,

-*ez* mendekoak iraupena/denborakidetasuna darama eta zenbaitetan, aurretiazkotasan-tarte bat ere. -*Rik* eta -*ta* mendekoak bere aldetik, askoz ere lotuago daude aurretiazkotasunari, -*ez* mendekoaren zereginak eskuragarri badituzte ere.

### 3.4.3. DENBORAKIDETASUNA ETA ONDORIOA/GEROKOTASUNA DIRELAKOAK

Azken azpisail honetan, denborakidetasun/ondorio/gerokotasun delako hirukotean sakontzen saiatuko gara, batez ere ondorio edo gerokotasuna adierazteko unean -*ez* mendekoak dituen eragozpenak agerian uzteko asmotan. Horrela bi helburu beteko ditugulakoan gaude: alde batetik, gure pentsamenduan bertan ere sakontzeko aukera izango dugu; beste alde batetik azterketa sakon horren ondorioa era garbiago batez adierazteko ahal-bidea agerian geldituko da. Ekin diezaiozun bada erabilera horretako egokitasun eza aztertzeari, literatur hustuketaren adibideetan oinarriturik.

Hasteko gogora dezagun -*ez* mendekoak bigarren gunean kokaturik ere ondo adierazten duela modua (136-137).

- (136) Jezabel honen senar Israelko errege Acab-ek eskatu  
zion erosiz beraren jauregi bazterrean bizi zen  
Nabothi-ri bere ardantze-mahasti bat (ME.01.263)
- (137) nahiko lotsa-gai ematen zion bere leinuari, hogeita  
hamar urteetara heldurik eta beti ere lan egin gabe  
bizi izanaz, gurasoek utzi zioten diru apurra janaz (MR.00.012)

Bestetik, esan beharrekoa da bigarren gunean azaltzen den kasu askotan, nola edo halako denborakidetasuna adierazten dela. Hala ere, denborakidetasuna berrikusteko beharra daukagu hemen (138-139).

- (138) hitz egiten ere dio beraren Semeari, lehen haurra  
zenean eman zion bularra agertuz (ME.02.172)
- (139) herririk herri zebilen Jesukristoren legea zabaltzen  
bere gazetako gaiztokeria guztiak aitortuaz (AG.02.182)

(138)ko *agertu* aditzak, kasu honetan behintzat «jarduera» adierazten du eta ondo atzeman daiteke denbora-mugarik gabeko gertaera adierazten duen nagusiarekiko denborakidetasuna dagoela. (139)ko *aitortuaz* horrek kasu horretan adiera errepikakorra izan lezake eta bestalde *ibili* jardueraditza bide da. Beraz, denborakidetasuna zilegiztaturik dago kasu horretan ere.

Hirugarren urrats bat emanda, ilunagoak diren perpauk konposatuak ere ugari dira literaturan (140-143).

- (140) Horretarako egin zen Maestru, erakutsiz zeruko bidea (EL.00.183)
- (143) *dautso*, *daust* erabili behar omen dira Bizkaian, *deutso*,  
*deust* zokoratuaz, «orainaldiak a behar duelako» (MT.00.073)

- (144) esaldi azkenean erabiliko nituzke, horretan frantsesa  
hobetsiz, gainerako Europako hizkuntzekin bat  
datorrenez gero (MT.00.102)
- (145) Joakinek ez zidan hitzik egin nahi izan ez zela ezertaz  
fidatzen adieraziz (AL.00.064)

Hauen aspektu-testuingurua garbi utzi behar da, gerokotasuna eta on-dorioa argi adierazten dutenak baztertu nahi baditugu behinik behin. Izan ere, (140)ko *maestru egin lerakutsi* bikoteari loturik doan harremana iluna da, eta ezin esan daiteke ziurtasun osoz mendekoak gerokotasuna edo on-dorioa daramanik. Gauza bera esango dugu gainontzeko *erabili lзорату*, *erabili lхобети* eta *egin lадieras* bikoteez eta azken finean, guztietan ere berma daitekeen bakarra nola edo halako denborakidetasuna da. Areago, ikus bedi (140 = 145) hauek izaerakidetasuna daukatela ere onar litekeela (ikus 341. saila). Eredu hau oso arrunta da gure literaturan.

Oso bazterrekoa da ordea gerokotasun garbia daraman *-ez* mendekoare-na, inoiz (bereiziki mende honetako lanetan) aurki badaiteke ere (146-148). Honelako adierazpideak ez dira ezgramatikalak eta hizkuntzaren erabilera arruntetan edo literarioan ez dute eragozpen handiegirik azaltzen, ulerkuntzaren aldetik bederen. Areago, gure uste apalean oso jantziak dauden idaz-leen lanetan ere aurki daitezke:

- (146) Hegazkinak,... alde egin zuen, beraien aldekoa zenaren  
ustea indartuz (EG.00.15)
- (147) zigaro bat atera du boltsilotik, izeki eta kea putz  
eginaz (SA.00.087)
- (148) harkaitz puntak haragi bizian sartu zitzaizkion, itxura  
kupidagarri hartan geldituz (ET.01.033)

Azkenik (146-148)ko gerokotasunezkoak baino are era urriagoan, on-dorio garbia adierazten duten *-ez* mendeko gutxi batzuk badira (gehien ba-tez mende honetako literaturan hauek ere):

- (149) sei urte zituenean ahuntz bat jo zuen buruan bertan  
seko utziz (AT.00.035)
- (150) Lanbro horrek, gainera, malgutu egiten du karrikako  
zarata, Mikelen inguruan lasaitasun umil bat bat sortuaz (SA.00.084)

Ondoriozko hauek ere, ez dute testuinguru arruntetan ulertzeko ozto-porik agertzen eta adierazi beharrekoa da bai gerokotasunezkoak bai on-doriozkoak ere literaturan ez ezik, bestelako hizkuntz maila guztietako ekoizpen (idatzi) guztietan ere gaur egun ugari samarrak direla.

Oso bestelako gogoetak egin behar dira ordea, hizkuntzaren erabile-ra berezitueta joz gero. Berez, lan honetan zehar behin baino gehiagotan esan dugu horrelako hizkuntz mailetan hizkuntzatik kanpoko eza-

guerak askotan oso laguntza motela eman diezaiokeela hartzaileari. Hau da, batzuetan, hizkuntz baliabide hutsetan oinarrituko gara mendekoan adierazten den gertaerak nagusiarekin daukan harremana zein den finkatzeko. Hori dela eta, garbi dago testuinguru ilunetan *-ez* mendekoak modu-kutsua (edo denborakidetasuna) iradokiko digula eta beraz askoz ere zuhurragoa dela ondorioa (edo gerokotasuna) adierazteko ez erabiltzea. Ikus (151-152)

- (151) Uste zenaren arabera, enbrioi-genomaren gene batzuk ezabatzen dira, zelulen desberdintzapena eraginez
- (152) Kloroplastoak argizatzen dira, medioan ATP ekoitiz
- (153) Nukleotidoak partzialki hidrolizatzen dira, Fosfato taldea galaraziz

*Geneak galdu ldesberdintzapena eragin, kloroplastoak argiztatu lATP ekoitzi edo nukleotidoak hidrolizatu lFosfato taldea galarazi* bikoteetatik ondorioztapen zuzena ateratzeko unean, hizkuntz baliabideak ditugu hemen laguntzaile bakarrak, eta (151-153) direlako eredu horietan, alde aurretik gai honetaz oso jantzita ez dauden euskaldun gehienek mendekoek modua adierazten dutela ulertzea joko lukete. Ez da hori egia, eta mendeko horietan adierazi diren gertaerak, nagusien ondorio ditugu. Ez dago esan beharrik (151-153) baztertu eta (154-156) bezalakoak gauzatu behar genituzkeela.

- (154) Uste zenaren arabera, enbrioi-genomaren gene batzuk ezabatuz, zelulen desberdintzapena eragiten da
- (155) Kloroplastoak argiztatuz, medioan ATP ekoitzen da
- (156) Nukleotidoak partzialki hidrolizatuz, Fosfato taldea galarazten da

Behin eta berriro esan dugu, gainera, (151-153)koen parean, gaztelaniaz gerundio bakuna oso bazterrekoa dela.

Hortaz, azpimarratu beharrekoa da mota honetako harremanaren berri eman nahi denean, ondorioa adierazten duena nagusi modura eta moduzkoa *-ez* mendeko gisan gauza daitezkeela.

#### 4. ONDORIOAK

2. sailean ikusi dugunaren arabera beraz, euskal literaturan nagusiki honelako erabilera sorta eman eta ematen zaie hiru mendekoei: *-Rik* eta *-ta* mendekoek ondo adierazten dute modua (i), zergatia (ii), denborakidetasuna (iii) eta aurretiazkotasuna (iv). Azken hauetako bat ere azaltzen ez denean, emendiozko harremana dugula onartu dugu. *-Ez* mendekoak ordea, modua (i) eta denborakidetasuna (ii) adierazten du era garbian. Ez du zergati garbia oso era erosoan adierazten (v), baina, ñabardurak ñabardura, ez dauka adiera hori guttiz debekaturik; halaber, *-ez* honen bidez ondo-

ria adierazteko saioek, oso gaizkiulertu larrietara eraman gaitzakete (vi), nahiko bazterrekoak izateaz gain. Parentesien barruan, adiera nagusiaren gainean suma daitekeen bigarren mailako denbora- edo aspektu-adierak doaz.

- (i) a Moduzko (+ aurretiazkotasunezko / denborakidetasunezko) *-ez /-rik /-ta* mendekoa + emaitzazko (+ gerokotasunezko/denborakidetasunezko) nagusia
- b Emaitzazko (+ gerokotasunezko/denborakidetasunezko) nagusia + moduzko (+ aurretiazkotasunezko / denborakidetasunezko) *-ez /-rik /-ta* mendekoa
- (ii) a Zergatizko (+ aurretiazkotasunezko) *-rik /-ta* mendekoa + ondoriozko (+ gerokotasunezko) nagusia
- b Ondoriozko (+ gerokotasunezko) nagusia + zergatizko (+ aurretiazkotasunezko) *-rik /-ta* mendekoa
- (iii) a Denborakidetasunezko *-ez /-rik /-ta* mendekoa + denborakidetasunezko nagusia
- b Denborakidetasunezko nagusia + denborakidetasunezko *-ez /-rik /-ta* mendekoa
- (iv) Aurretiazkotasunezko *-rik /-ta* mendekoa + gerokotasunezko nagusia
- (v) a (#)Zergatizko (+ aurretiazkotasunezko) *-ez* mendekoa + ondoriozko (gerokotasunezko) nagusia
- b (#)Ondoriozko (+ gerokotasunezko) nagusia + zergatizko (+ aurretiazkotasunezko) *-ez* mendekoa
- (vi) #Moduzko (+ aurretiazkotasunezko edo denborakidetasunezko) nagusia + emaitzazko *-ez* mendekoa

Bukatzeko, lagungarri gerta daiteke gaztelaniari eman diogun azalezko begirada. Izan ere, gerundio bakunak batez ere iraupena adierazten duelarik, denborakidetasuna eta tarte bateko aurretiazkotasunaren aukerak ere baditu: *-ez* mendekoaren pare-parekoa da, modua adierazteko unean. Gerundio bakuna, zorrozki gaitzetsi da ondorio edo gerokotasun-baliabideak gauzatzeko unean, eta horretan ere bi hizkuntzak bat datoz. Ereduzko moduetatik urrunduz eta ereduzko zergatirantz hurbilduz goazen neurrian, aurretiazkotasunari era garbiagoaz loturik doazen partizipioa eta gerundio konposatua azaltzen dira.

## 5. HUSTURIKO LITERATUR LANAK

Oharra: Zerrenda honetan, hustu eta gero lanerako ondorio orokorrak lortzerakoan kontuan hartu ditugun idazlan guztiak daude. Zenbaitetatik ordea, ez dugu adibiderik atera behin-betiko testua gauzatzekoan. Eranskin honetan ere ez dugu eskainiko testuan txertatu ez dugunaz gaineko adibiderik.

Kodea	Idazlana
AG-liburukia-orria	AGIRRE, D., (1898). <i>Auñamendiko lorea</i> . Colección Auñamendi. Bilbo 1966
AÑ-00-faksimilaren orria	AÑIBARRO, P., (1802). <i>Esku liburua, eta berean eguneango kristinau zerginak</i> . Hordago. Donostia 1978
AX-00-atala	AXULAR, P., (1643). <i>Gero</i> . Euskaltzaindia, faksimila. Bilbo 1988
AR-00-orria	ARETI, G., (1965). <i>Mundu munduan</i> . Erein. Donostia 1985
AT-00-orria	ATXAGA, B., (1989). <i>Obabakoak</i> . Erein. Donostia
DE-olerkiaren zenbakia-paragrafoa	DETXEPARE, B., (1625). <i>Linguae Vasconum Primitiae</i> . Euskaltzaindia. Euskaltzaindia. Bilbo 1995
DU-00-orria	DUVOISIN, J.P., (1858). <i>Laborantzako liburua</i> . Kriselu. Zaratutz 1986
EG-OO-orria	EGAÑA, A. (1998). <i>Pausoa noiz luzatu</i> . Alberdania Donostia
ET-atala-orria	ETXAIDE, J., (1955). <i>Joanak joan</i> . Gipuzkoako Aurrezki Kutxa probintziala. Donostia 1980
IR-00-orria	IRIGOEN, J.M., (1993). <i>Consummatum est</i> . Elkar. Donostia
KÑ-00-orria	KIRIKIÑO, (1928). <i>Abarrak</i> . Mensajero. Bilbo 1987
GT-atala-paragrafoa	LEIZARRAGA, J., (1571). <i>Jesus Christ gure jaunaren Testamentu berria</i> . Hordago. Donostia 1979
AD-atala-paragrafoa	adbertimendu
MT-atala-paragrafoa	S. Mattheu
MR-atala-paragrafoa	S. Marc
LC-atala-paragrafoa	S. Luc
JN-atala-paragrafoa	S. Joan
AP-atala-paragrafoa	Apostolu Sainduen acteac
PL-atala-paragrafoa	S. Paul
GL-atala-paragrafoa	Galatianoe
EP-atala-paragrafoa	Ephesianoe
PL-atala-paragrafoa	Philippianoe
CL-atala-paragrafoa	Colossianoe
CN-atala-paragrafoa	LEIZARRAGA, J., (1571). <i>Othoitza. Catechisme. Kalendrea. ABC edo Christinöen instructionea</i> . Hordago. Donostia 1979. Cenaz
OR-atala-paragrafoa	Orationeaz
LZ-00-orria	LIZARDI, (1934). <i>Itz-lauz</i> . Edili. Donostia 1972
EL-liburukia-orr.	LIZARRAGA, J. Elkanokoa, (1748-1835). <i>Doctrina Christianoaren Catechima</i> . Euskaltzaindia. Iruña 1979
AL-00-orria	LERTXUNDI, A., (1983). <i>Hamaseigarrenean, aidanez</i> . Erein. Donostia 1983
ME-liburukia-orria	MENDIBURU, S., (1708-1782). <i>Idazlan argitaragabeak</i> . Ediciones Mensajero. Bilbo 1982
MG.00.orria	MENDIGUREN, X., (1996). <i>Berriro igo nauzu</i> . Elkar. Donostia
MR-00-orria	MIRANDE, J., (1970). <i>Haur besoetako</i> . Erein. Donostia 1993

Kodea	Idazlana
MT-00-orria	MITXELENA, K., (1972). <i>Mitxelenaren lan hautatuak</i> . Ediciones Mensajero. Bilbo 1972
MG-saila-orria	MOGEL, J.A., (1881). <i>Peru Abarka</i> . Editorial La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo 1981
SZ-01-orria	SAIZARBITORIA, R., (1995). <i>Hamaika pauso</i> . Erein. Donostia
SZ-02-orria	SAIZARBITORIA, R., (1996). <i>Bihotz bi</i> . Erein. Donostia
SA-00-orria	SARRIONANDIA, J., (1983). <i>Narrazioak</i> . Elkar. Lizarra
TR-saila-orria	TARTAS, J., (1666). <i>Ontsa hiltzeko bidea</i> . Jakin. Oinati 1975
TX-urtaroa	TXILLARDEGI, (1957). <i>Leturiaren egunkari ezkutua</i> . Leopoldo Zugazaga editor. Durango 1977
(Ul, Ud, Uz, Ne)-saila	URRETABIZKAIA, A., (1998). <i>Koaderno gorria</i> . Erein. Donostia

## 6. BIBLIOGRAFIA

- ALARCOS LLORACH, E. (1994). *Gramática de la Lengua Española*. Espasa Calpe. Madrid, 1995.
- ALVAREZ, J.L. (1978). *Euskal Gramatika*. Ediciones Vascas. Bilbo.
- AREJITA, A. (1982). *Euskal joskera*. Leopoldo Zugazaga ed., Durango.
- DE MIGUEL, E. (1991). *El aspecto verbal en una gramática generativa del español*. Doktorego-tesia. Universidad Autónoma de Madrid.
- EGUNKARIA (1992). *Estilo-liburua*. Donostia.
- EITB (1992). *Euskarazko Albestegietarako esku-liburua*. Grupo Industrial de Artes Gráficas.
- GILI GAYA, S. (1961). *Curso superior de sintaxis española*. Spes. Barcelona, 1973.
- GOENAGA, P. (1978). *Gramatika bideetan*. Erein. Donostia, 1980.
- GOIKOETXEA, J.L. (1978). *Ortografia. Deklinabidea. Sintaxia*. Elkar. Bilbo.
- ITHURRY (1920). *Grammaire basque*. Ediciones vascas argitaletxea. Donostia, 1979.
- ITURRIOZ, J.L. (1985). «La función de la -a y de la -ta a la luz de la dimensión de individuación». *Euskera*, 30(1): 175-213.
- LAFON, R. (1943). *Le système du verbe basque au xv<sup>e</sup> siècle*. Elkar. Donostia, 1980.
- LAFITTE, P. (1944). *Grammaire basque (Navarro-Labourdin littéraire)*. Elkar. Donostia, 1979.
- LETAMENDIA, J.A. (1980). «Leizarragak partitiboz dakartzan partizipioak Duvoisinien ordainekin alderaturik». *Euskera*, 25 (2): 455-482.
- MARÍN, R. (1996). «Aspectual Properties of Spanish Absolute Small Clauses», *Catalan Working Papers in Linguistics* 5(2): 183-212.
- ODRIOZOLA, J.C. (1993). *Axularren kasu-markadun adizkiak*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.
- ODRIOZOLA, J.C. (1996). «Euskal baldintzazko adizkiak eta euskal baldintzapenak». *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa: 193-224*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.
- ODRIOZOLA, J.C. & I. ZABALA (1993). «Normatibizazioari buruzko zenbait gogoeta». *Euskera*, 37 (3): 1.225-1.247.



- REBUSCHI, G. (1982). *Structure de l'enoncé en basque*. Doktorego-tesia. Parisko Unibertsitatea, VII.
- ZABALA, I. (1993). *Predikazioaren teoriak gramatika sortzailean (euskararen kasua)*. Doktorego-tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- VILLASANTE, L. (1973). *Axularren hiztegia*. Jakin. Oinati.
- VILLASANTE, L. (1976). *Gero (Axular)*. *Argitarapen elebiduna*. Jakin. Oinati.
- VILLASANTE, L. (1979). *Sintaxis de la oración compuesta*. Ed. Franciscana de Aránzazu. Oñati.



# Izen-sintagma konplexuak: adjektiboen eta izenlagunen segidak<sup>1</sup>

*Igone Zabala*

Euskal Herriko Unibertsitatea. Zientzia Fakultatea

## 0. SARRERA

Hizkuntza teknikoaren berezitasun nabarienteko bat izen-sintagmen konplexutasuna da:

a) Testu tekniko-zientifikoan izenburuak, askotan, lan osoaren laburpena oso era trinkoan egiten duten aditzik gabeko segida luze eta korapilatsuak izaten dira.

- (1) Zooplanktonaren ingurune-estresaren aurreko erantzunaren ebaluazioa kutsadura antropogeniko handiko estuario-sistema batean (Bilboko itsasadarra), kutsadura maila baxuko sistema batekin (Mundakako itsasadarra) erkatutik

b) Bestetik, oso maiz erabiltzen diren irudi, argazki, grafika eta eske-men oinak ere, adierazpen grafikoaren edukia laburtzen duten aditzik gabeko segida korapilatsuak izaten dira.

- (2) III.9 irudia: Energi galeraren probabilitate lokala (lerro etena) eta ez-lokala (lerro jarraitua), gainazaleko plasmoiaren  $w_s$  energiako,  $B = 2Z_0 w_s/v$  talka-parametro laburbildurako eta Al/hutsa gainazalarekiko paraleloki 100 KeV-ko energiaz mugitzen ari den elektroirako

---

<sup>1</sup> Lan honen hasierako bertsioren inguruan egin dizkidaten ohar ezin interesgarriagoengatik eskerrak eman behar dizkiet Xabier Artiagoitia, Juan Carlos Odriozola eta Elixabete Perezi. Bestetik, eskerrak eman behar dizkiet Miren Azkarate, Patxi Goenaga, eta Ibon Sarasolari Unibertsitate Titularitatea lortzeko azaldu nuen ikasgaiari lan honen zati bat azaldu nuenean egin dizkidaten iruzkin interesgarriengatik. Lanean egon daitezkeen alde okerren erantzule bakarra neu naiz, jakina.

c) Hirugarrenik, testu tekniko-zientifikoaren barruan ere, oso ohikoa izaten da honelakoetan dagoen joseraren trinkotzeko joeraren ondorioz, testuan ageri diren zenbait perpaus nominalizatzea edota adjektibatzea. Prozesu hau, gainera, testu-lotura bideratzeko baliabiderik erabilienetako bat da halako testuetan.

- (3) Azalaren pigmentazioa aldakorra da bai gizabanako-mailan, bai populazio bateko gizabanakoen artean eta bai populazioen artean ere, populazioen arteko aldakuntzak Antropologiarako nabariagoak eta garrantzitsuagoak badira ere  
...Populazioen barruko aldakuntzari dagokiolarik,...

d) Azkenik, terminoak beraiek ere, askotan hitz bakarrekoak izan gabe, izen-sintagma konplexuak izaten dira.

- (4) a goi-maiztasuneko korrante eroalearen lurrerako ihesa  
b mineralen gogortasun-graduaren araberako sailkapena  
c Drude-ren funtzio dielektrikoa

Horrenbestez, testu tekniko-zientifikoetan aurki ditzakegun izen-sintagma hizkuntza arruntean erabil ditzakegunak baino askoz ere korapilatsuagoak dira eta askotan arazoak sortzen dizkiete idazleei. Izen-sintagma teknikoaren konplexutasunaren lehen iturria da buru modura jokatzeko duen izena askotan izen elkartua dela. Hitz elkartuaren gune modura jokatzeko duen izena, eskuinekoa izan ohi da, baina hitz elkartu motaren arabera, ezkerrekoa ere izan daiteke batzuetan<sup>2</sup>. Edonola, lortzen den izenak izen bakunetan banaketa bera duela esan dezakegu:

- (5) a [landare-zelula]  
b [b klorofila]  
c [*Mitilus edulis* espeziea]  
d [ugal-aparatua]  
e [arroka ama]  
f [landare parasitua]

Izen elkartu gehienetan, mugatzaile modura jokatzeko duen osagaia ezkerrekoa da eta eskuinekoa mugakizuna edo hitz elkartuaren ardatza da. Salbuespentzat har daitezke atribuziozko hitz elkartuak eta beste kopulatio batzuk ere: eskuineko osagaiak, izena denean ere, adjektiboaren antzeko funtzioa betetzen du (5e-f). Bereziak dira, bestalde, (5c-d) bezalako aposizioak, eskuineko izen arruntak adierazten duen izaki multzoaren barruan izaki edo izaki mota jakin bat adierazten duen ezkerreko izen propioa ere funtsezkoa baita izen elkartu osoaren esangurarako. Izan ere, batzuetan

---

<sup>2</sup> (5) sortako adibideetan beltzez dagoena da erreferentzia-gunea. Hau da, *landare-zelula* zelula mota bat da baina *arroka ama*, arroka mota bat da eta *ez ama* mota bat.

izen arrunta ezaba daiteke esangura gehiegi aldatu gabe: *Mitilus edulis* espezia = *Mitilus edulis* /b klorofila ≠ b.

Izen bakunak eta elkartuak laguntzen hainbat motatako osagaiak aurki daitezke: alde batetik, adjektiboak eta izenlagunak<sup>3</sup> eta bestetik, perpausak.

## 1. IZENA LAGUN DEZAKETEN KATEGORIAK

### 1.1. Kokapenaren arabeko sailkapena

Euskaltzaindiak (1985) «adjektibo» terminoa erabili du izena laguntzen duten kategoriak biltzeko eta suprakategoria honen barruan bi mota bereizi ditu laguntzen duten izenarekiko kokagunearen arabera:

a) Izenondoak izenaren eskuinean kokatzen dira.

- (6) a eremu *zabala*
- b mikroskopio *elektronikoa*

b) Izenlagunak izenaren ezkerrean kokatu ohi dira.

- (7) a *Afrikako* espezieak
- b *eremuaren* mugaketa
- c *tenperaturarekiko* mendekotasuna

Izenlagunek gainera beti eramaten dute *-ko* edo *-(r)en* atzizkia; izenondoek aldiz, ez dute inolako lotura-atzizkirik behar. Sailkapen horren arabera, zalantzarriak dira ordea *-dun* eta *-tar* atzizkiak daramatzaten adjektiboak, izenaren ezker zein eskuinaldean joan baitaitezke<sup>4</sup>. *-ko* atzizkia daramaten zenbait adjektibo ere zalantzarriak dira sailkapen honen arabera (8c)<sup>5</sup>:

- (8) a *europar* espezieak = espezie *europarrak*
- b *akastun* DNA = DNA *akastuna*
- c *oinarrizko* baliabideak = baliabide *oinarrizkoak*

---

<sup>3</sup> Bistan da hemen Euskaltzaindiaren (1985) terminologiatik urrundu garena, honek «adjektibo» terminoa «izenondoak» eta «izenlagunak» biltzen dituen suprakategoria bat adierazteko erabiltzen baitu.

<sup>4</sup> Adjektibo hauei dagokienez, esan beharrekoa da gaur egun hedatuen dagoen erabilera ez datorrela bat literatur tradizioan aurki daitekeenarekin. Gaur egun oso hedaturik daude «*akastun* DNA / *espezie europarra*» erabilera, tradizio sendoagoa duen erabilera alderantzizkoa bada ere («*DNA akastuna* / *europar espezieak*») (Sarasola, 1997). Edonola, izen-sintagma antolatzeko orduan aukera guztiez balia gaitzke, ahalik eta ulergarriena egitearren.

<sup>5</sup> Ikus Odriozola eta Cantero (1992) eta Zabala eta Odriozola (1994).

Hona hemen eskema moduko laburpen bat:

Izenlagunak	IZENA	Izenondoak
magmaren lurrazaleko karbonatozko eguzkitiko	hozte(a) tenperatura arroka argi(a)	gogor metamorfiko aitzindari
oinarrizko (?) fosfatodun (?) kretazeaz (?)		oinarrizko (?) fosfatodun (?) kretazeaz (?)

**1. eskema:** Izenaren laguntzaileen izenarekiko kokapenaren arabera sailkapena Euskaltzaindiaren (1985) arabera

Euskaltzaindiak darabilen terminologiak zenbait arazo ditu gure iriziz. Hasteko, gramatika-kategoriak eta joskera-betebeharrak nahasten ditu eta bereizketa hau oso garrantzitsua da hizkuntzalaritzan. Bigarrenik, nazioartekoa den termino bat erabiltzen du, «adjektibo» alegia, nazioartean erabiltzen ez den bezala. Izan ere, «adjektibo» terminoa gramatika-kategoria nagusietako<sup>6</sup> bat adierazteko erabiltzen da nazioarteko terminologian baina Euskaltzaindiaren gramatikan «izena laguntzen duten katego-

	SEH	EHM	3000H
akastun	<i>izond.</i>	<i>adj.</i>	<i>izlg. eta izond.</i>
horzdun	<i>izond.</i>	<i>adj.</i>	<i>izlg. eta izond.</i>
lapurtar	<i>iz. eta izlg.</i>	<i>iz. eta adj.</i>	<i>izlg. eta izond.</i>
hamartar	<i>izlg.</i>	<i>adj.</i>	<i>izlg. eta izond.</i>
oinarrizko	<i>izlg.</i>	<i>izlg.</i>	<i>izlg.</i>
benetako	<i>izlg.</i>	<i>izlg.</i>	<i>izlg.</i>

**2. eskema:** Euskaltzaindiaren terminologiaren arabera kategoria zalantzarria duten zenbait hitzi hiru hiztegitan esleitzen zaien kategoria. Sarasolaren *Euskal Hiztegia* (SEH) Elhuyarren *Euskal Hiztegi Modernoa* (EHM) eta Bostak Bat taldearen *3000 Hiztegia* (3000H)

<sup>6</sup> Gramatika-kategoria nagusiak ondokoak dira: «izena» (N), «aditza» (V), «preposizio/postposizioa» (P) eta «adjektiboa» (A). Gaztelania bezalako hizkuntzek izenaren ezkerrean kokatzen diren «preposizioak» dituzte eta Euskara bezalako hizkuntzek aldiz, izenaren eskuinaldean kokatzen diren «postposizioak»: Gazt: *por calor* /Eusk. *beroagatik*.

riak» biltzeko erabiltzen da termino hori, hau da, funtzio bat adierazteko. Azkenik, egiten duen sailkapenean izena laguntzen duten hainbat elementuren gramatika-kategoria zalantzagarriztat uzten du; izan ere, euskal hiztegieta elementu horien kategoriei begiratu gero, ezadostasun handiak aurkituko ditugu<sup>7</sup>.

## 1.2. Gramatika-kategoriaren arabera sailkapena

Hertsiki hitz eginez, izena laguntzen duten elementuen artean bi gramatika-kategoria bereiz ditzakegu: alde batetik, adjektiboak, hiztegitik izenaren laguntzaile bezala<sup>8</sup> datozkigunak alegia; bestetik, postposizio-sintagma, hots, izenaren laguntzaile modura jokatu ahal izateko postposizio baten *-(r)en* edo *-ko* laguntza behar dutenak. Azken hauek sintaxian bertan eratzen ditugu izen-sintagma edo postposizio-sintagma bat izen batekin lotu nahi dugunean eta beraz, haien kategoria hertsiki hitz eginez, postposizio-sintagmarena bada ere, batzuetan, erosotasunagatik, betebeharrari erreferentzia egiten dion terminoa ere erabiliko dugu hauek aipatzeko, «izenlagun» alegia. Izan ere, postposizio-sintagmek «izenlagun» edo «adizlagun» funtzioa bete dezakete eta lan honetan funtzio horiek bereizi beharko ditugu hainbatetan. Hau da, «izenlagun» esango dugun bakoitzean, izenlagun betebeharreko postposizio-sintagmaz arituko gara.

- (9) a eremu *zabal*
- b mikroskopio *elektroniko*
- c espezie *europar* = *europar* espezie
- d *akastun* DNA = DNA *akastun*
- e oinarrizko baliabide = baliabide *oinarrizko*
- f Afrikako espezie
- g eremuaren mugaketa
- h tenperaturarekiko mendekotasuna

Hortaz, euskaraz adjektibo gehienak izenaren eskuinaldean kokatzen diren arren, badira izenaren ezker aldean joan daitezkeen zenbait adjektibo eta beraz, *-dun* edo *-tar* atzizkia daramaten hiztegi-sarreraren kategoria ez da zalantzarria: adjektiboak dira, atzizki horiek ez baitira postposizioak atzizki eratorleak baizik. Zalantza gehiago sortuko dizkigute *-ko* atzizkia daramaten zenbait laguntzailek: atzizki hau, zenbait hizkuntzalariren iritziz,

---

<sup>7</sup> Bistan da Sarasolak hitz horien kokagunerik ohikoena edo tradizio handienekoa hartu duela kontuan eta horrexegatik hartu dituela *-dun* atzizkia daramatenak izenondotzat eta *-tar* eta *-ko* daramatenak izenlaguntzat. Elhuyarrekoeak eta Bostak bat taldekoek aldiz, *-tar* edo *-dun* atzizkiak daramaten hitzek bete ditzaketen bi kokagunak hartu dituzte kontuan baina era desberdinetara zehatu dute: Bostak Bat taldekoek, *izond.* eta *izlg.* kategoriak aipatu dituzte eta Elhuyarrekoeak berriz, *adj.* suprakategoria erabili dute horien berri emateko. Azkenik, *-ko* daramaten hiztegi-sarrerak, hiztegi guztietan hartu dituzte izenlaguntzat.

<sup>8</sup> Adjektibo batzuek predikatu modura ere joka dezakete baina lan honetan izena laguntzeko betebeharra da batez ere interesatzen zaiguna.

postposiziotzat har daiteke zenbaitetan eta beste zenbaitetan aldiz, atzizki eratorletzat hartu behar da. Euskaltzaindiaren «izenondo» terminoa agian izenaren eskuinaldean baino ezin joan daitezkeen adjektiboeri erreferentzia egiteko erabil liteke, hots, adjektiboen barruko azpikategoria bat adierazteko.

Postposizio-sintagmak (izenlagunak)	Adjektiboak	IZENAK	Adjektiboak	
				«izenondoak»
magmaren lurrazaleko karbonatozko eguzkitiko oinarrizko (?)	fosfatodun kretazeaz	hozte(a) tenperatura arroka argi(a)	oinarrizko (?) fosfatodun kretazeaz	gogor metamorfiko aitzindari

**3. eskema:** Izenaren laguntzaileen gramatika-kategoriaren araberrako sailkapena

### 1.3. Semantikaren araberrako sailkapena

Izena laguntzen duten adjektiboen eta postposizio-sintagmen artean, bi mota bereiz daitezke semantikaren ikuspuntutik<sup>9</sup>:

- a) Izenak adierazten duen izakiaren ezaugarriak zehazten dituzten adjektibo edo izenlagunak (tasunezkoak)
- b) Izenak adierazten duen izakia beste izaki batekin harremanetan jartzen duten adjektibo edo izenlagunak (erreferentziazkoak)<sup>10</sup>.

(10) sortako adibideetan, tasunezko laguntzaileak ditugu, laguntzen duten izenaren ezaugarriak ematen baitituzte. Ikus daitekeenez, tasunezko balioa duten izenaren laguntzaileen artean baditugu argi eta garbi adjekti-

<sup>9</sup> Adjektiboen motei buruz datu gehiago izateko ikus Zabala (1997).

<sup>10</sup> Erreferentziazko adjektiboeri buruzko literaturan zenbait proba sintaktiko erabili ohi dira tasunezko adjektiboak erreferentziazkoetatik bereizteko. Hona hemen froga horiek (i) sortako adibideei aplikaturik: *zehatza* tasunezko adjektiboa *izan* aditzarekin ager daiteke eta gainera, *oso* bezalako zenbatzaileak ere onartzen ditu. Bestetik, *zehatzasun* kualitate-izen abstraktua erator daiteke adjektibo horretatik hasita. *Elektroniko* delako erreferentziazko adjektiboak os-tera, huts egiten du proba horien guztien aurrean.

- (i) a neurgailu zehatza // neurgailua (oso) zehatza da  
Neurgailuaren zehatzasuna kontuan hartzekoa da
- b neurgailu elektronikoa // \*neurgailua (oso) elektronikoa da  
\*Neurgailuaren elektronikotasuna kontuan hartzekoa da

Edonola, proba hauek huts egiten dute beste adjektibo batzuk bereizteko orduan eta beraz, izenarekiko duten harreman semantikoaz dugun intuizioaz baliatuko gara froga sintaktikoez baino gehiago.



boak direnak (10a,b, c) eta *-ko* atzizkia eramateagatik adjektiboen edo posposizio-sintagmen artean sailkatzeko zalantzak sortzen dizkigutenak (10d, e, f). Edonola, tasunezko balioa duten laguntzaileen artean ez dago *-(r)en* postposizioa daraman laguntzailerik.

- (10) a metodo zehatza
- b sistema egonkorra
- c lurzoru fosfatoduna
- d ile luzeko espezieak
- e benetako banaketa
- f karbonatozko plataforma

Izenarekiko harremana bestelakoa dute, ordea, (11), (12), (13) eta (14) sortetako adibideetan ageri direnek, erreferentziazkoak baitira. Batzuk izenak adierazten dituen izakiak sailkatzeko erabiltzen ditugu (11):

- (11) a neurgailu *elektronikoa*
- b arroka *metamorfikoak*

Sailkatze-modu berezizat har daiteke (12) segidako adibideetan ageri dena. Izan ere, sailkapen-irizpide modura erabiltzen dena, izakien denbora- edo toki-jatorria da. Edonola, (11) eta (12) sortetakoei erreferentziazko adjektibo (edo izenlagun) sailkatzaileak esango diegu<sup>11</sup>. Kasu honetan ere, argi eta garbi adjektiboen kategoriakoak diren laguntzaileak ditugu (12a) eta postposizio-sintagmak direnak (12b,c). Erreferentziazko izenlagun sailkatzaileak ere, beti izaten dira *-ko* atzizkia daramatenetakoak.

- (12) a *europar* espezieak
- b *Europako* espezieak
- c *antzinako* ingurunea

Bestetik, buru modura ekintza- edo ondorio-izenak dituzten izen-sintagmetan, izenlagunek ekintza horren partehartzaileak adierazi ohi dituzte (egilea edo jasalea) (13a, b) edo aditz horrek adieraziko lukeen gertaerari buruzko zehaztapenak eman ditzakete, esate baterako, gertaera hori noiz, nola, zergatik... suertatu den (13 c, d, e). Subjektuari eta osagarri zuzenari dagozkienek beti hartzen dute *-(r)en* postposizioa; laguntzaile adberbialek ostera, *-ko* atzizkia hartzen dute dagokien deklinabide-markaren (*-gatik, -tik, -ra,...*) ondoren. Erreferentziazko izenlagun tematikoak<sup>12</sup> esango diegu *-(r)en* daramaten izenlagunei eta erreferentziazko izenlagun sailkatzaileen artean utziko ditugu balio adberbialekoak.

- (13) a *uhinen* hedapena
- b *elektroien* garraioa
- c *hutsean zeharreko* hedapena

---

<sup>11</sup> Bosque (1993) eta Bosque eta Picallo-ren (1996) sailkapenari jarraiki gatazkaizko sailkapen honetarako.

<sup>12</sup> Sailkapenaren bigarren atal honetarako ere, ikus Bosque (1993) eta Bosque eta Picallo (1996).

- d *lurruntzeagatiko* galera
- e *entzima bidezko* polimerizazioa

Azkenik, magnitude edo parametro bat eta horren bidez kuantifikatzen den izakia harremanetan jartzen dituzten izenlagunak edota «osoa/zatia» harremana adierazten dutenak ditugu (14). Hauek ere, *-(r)en* atzizkia behar dute eta erreferentziatzko izenlagun tematikoen artean sartuko ditugu.

- (14) a *partikularen* abiadura
- b *Lurraren* nukleoa

Hortaz, *-(r)en* daramaten izenlagunek beti adierazten dute izenaren argumentu bat, hau da izenak adierazten duen ekintzaren partehartzailetako bat edo izenak ezinbestean eskatzen duen «osagarri» bat; adibidez, «zattia» adierazten duten izenek «zeren zattia» diren zehaztea eskatzen dute eta era berean, magnitude-izenek zer neurtzen ari garen zehaztea. Izenlagun tematikoak esan diegu hauei. Beste erreferentziatzko adjektibo eta izenlagunei erreferentziatzko adjektibo eta izenlagun sailkatzaileak esan diegu eta horien artean aparteko azpisail batean bilduko ditugu balio adberbialeko izenlagunak (13c, d, e). Azken hauek bereziak dira beste erreferentziatzko izenlagun sailkatzaileekin erkatzen baditugu, izenaren eskuinaldean adizlagun modura (*-ko* gabe) gauza baitaitezke. Bestelako sailkatzaileek berriz, *-tar* daramaten adjektiboek edo izen elkartuak dituzte ordain modura.

- (15) a uhinen hutsean zeharreko hedapena
- b uhinen hedapena hutsean zehar
- (16) a lehorreko espezieak
- b # espezieak lehorrean
- c lehortar espezieak
- d lehor-espezieak

Hona hemen laburbilpen bat:

TASUNEZKOAK	ERREFERENTZIAZKOAK	
	TEMATIKOAK	SAILKATZAILEAK
(metodo) zehatza (sistema) egonkorra (arroka) fosfatoduna ile luzeko (espeziea) benetako (banaketa) karbonatozko (plataforma)	uhinen (hedapena) elektroien (garraioa) partikulen (abiadura) Lurraren (nukleoa)	(neurgailu) elektronikoa (arroka) metamorfikoa europar (espeziea) Europako (espeziea) antzinako (ingurune)a
		BALIO ADBERBIALEKOAK
		hutsean zeharreko (hedapena) lurruntzeagatiko (galera) entzima bidezko (polimerizazioa)

**4. eskema:** Izenaren laguntzaileen semantikaren araberako sailkapena

## 1.4. Perpausak diren laguntzaileak

Badira izena laguntzen duten perpausak, erlatiboazko perpausak eta konpletiboak alegia. Honelakoak, izenaren ezkerrean kokatu ohi dira eta izenak adierazitakoa zehazten dute. Haien artean bereizi beharrekoak dira (17a) bezalako erlatiboak eta, hizkuntza teknikoaz ari garelarik behintzat, *hipotesi*, *ideia*, *teoria* ... bezalako izenekin batera doazen konpletiboak (17b).

- (17) a [itsasora edo beste ibai batera isurtzen den] ur-lastera  
 b [kontinenteak urrunduz doazelako] hipotesia<sup>13</sup>


Erlatiboazko perpausak izenaren eskuinaldean ere joan daitezke mugatzailea gaineratzen bazaie; izan ere, hauxe da hiztegien definizioetarako erruz erabiltzen den formula. Konpletiboek berriz, ez dute honelako aukerarik (17').

- (17') a ur-lastera [itsasora edo beste ibai batera isurtzen dena]  
 b \*hipotesia [kontinenteak urrunduz doazelakoa]

## 2. IZENLAGUNAK

### 2.1. Izenlagunak eta adizlagunak

Izenlagunek beti eraman behar dute genitibo bat: *-(r)en* edo *-ko* atzizkia. Hona hemen Goenagak (1980, 1981) ematen duen araua: izenlagunak izen-sintagma bati edo adizlagun bati erlazio-atzizki bat (*-ko* edo *-(r)en*) gaineratuz lortzen dira. Izen-sintagma soilei *-(r)en* edo *-ko* gaineratzen zaie kasuan kasu, baina adizlagunei beti gaineratzen zaie *-ko* atzizkia. Goenagaren formulazioan gramatika-kategoriak eta funtzioak nahasirik ageri zaizkigunez (18a), ondoin bi horiek bereizita egindako birformulazioa eskaintzen dugu (18b).



<sup>13</sup> Euskara tekniko-zientifikoa agertu ohi diren mendeko perpaus hauek ez dira oso arruntak euskara osoari begira. Arruntagoak dira ondokoak:

- (i) Dirua lortzeko beharra  
 (ii) Hortik aterako ez naizen beldur

Hona hemen bi adibide: (19a) eta (20a) adibideetan perpausak ditugu eta *apurtu* aditzaren subjektuak eta balio adberbialeko laguntzaileak absolutiboa (*molekulak*) eta kausatiboa (*higaduragatik*) hartzen dute hurrenez hurren. Modifikatzaile horiek izen batekin doazenean, izen horrekin duten harremana aditzarekin dutenaren antzekoa izanik ere, genitibo-atzizki bat (*-(r)en* edo *-ko*) behar dute (19b, 20b), aditzarekin batera daramaten deklinabide-atzizkia onartezina baita (19c, 20c)<sup>14</sup>.

- (19) a Molekulak apurtu egin dira  
b molekulen apurketa  
c \*molekulak apurketa
- (20) a Arrokak higaduragatik apurtu dira  
b higaduragatiko apurketa  
c \*higaduragatik apurketa

Hizkuntza teknikoan erruz agertzen dira adizlagunak eratzen dituzten «izen-postposizioen»<sup>15</sup> gainean (*-an zehar*, *-en bidez*, *-en artean*, *-en araber*, *-ri buruz*..) eraikitako izenlagunak ere:

- (21) a hutsean zeharreko hedapena  
b pikor-tamainaren araberako sailkapena  
c suntsipenen kausei buruzko hipotesiak

Edonola, badira (18) arauaren salbuespenak diren zenbait atzizki, bai izenarekin bai eta aditzarekin joan daitezkeenak. (22) eta (23) adibideetako *-rako* eta *-rekiko* atzizkiak bateragarriak dira bai izenekin bai aditzekin ere:

- (22) a Zenbaki errealetarako, antzeko frogapena egin daiteke  
b zenbaki errealetarako frogapena
- (23) a Partikula mugitu egin da X ardatzarekiko  
b X ardatzarekiko mugimendua<sup>16</sup>

Zenbait testuingurutan badira izena lagunduz baina *-(r)en* edo *-ko* postposiziorik gabe ager daitezkeen laguntzaileak —gogoratu (15b) adibi-dea eta ikus 2.2. azpiatalean egingo dugun erabilera honen azterketa ere—. Hain zuzen ere, erabilera hori da laguntzaile hauen artean erreferentziazko

<sup>14</sup> Ikus Goenaga (1980) eta Odriozola eta Zabala (1992).

<sup>15</sup> Euskaltzaindiak (1985) *-an zehar*, *-ri buruz* eta *-(r)en* gainean bezalakoei «postposizio» deritze. Edonola, «postposizio» terminoa «preposizio» terminoaren pareko gramatika-kategoriarako erabili dugu lan honetan eta ondorioz, arazoak sortzen zaizkigu izen edo adberbio baten laguntzaz antzeko joskera-betebeharrak dituzten hauei erreferentzia egiteko. Hortaz, «izen-postposizio» terminoa erabiltzea erabaki dugu. Termino hau ez da erabat zehatza *-an zehar* postposizioaren kasuan, *zehar* izena gabe adberbioa baita. Edonola, terminologia ez korapilatzearren termino bakarra erabiliko dugu «izen-postposizio» alegia.

<sup>16</sup> *-kiko* atzizkiari buruz ikus liburu honen lehenengo artikulua (Makazaga, 1999).

izenlagun adberbialak eta erreferentziazko beste izenlagun sailkatzaileak bereizteko modu bat.

- (24) a energi galerak ekorketa-mikroskopia elektronikoan
- b \*eskeletoa karbonatoz / karbonatozko eskeletoa

## 2.2. Izenlagunak testuinguruaren arabera gauatzeko moduak

Hizkuntza teknikoan izen-sintagmak bi testuingurutan agertzen dira nagusiki (Zabala, 1996):

- a) Irudi edo grafiken oinetan edo zerrendetan isolatuta aditzik gabe.
- b) Esaldi batean sartuta, sintaxi-funtzio bat betetzen dutelarik.

### 2.2.1. ADITZIK GABEKO IZEN-SINTAGMAK

ISa isolatuta dagoenean, hots, segidan inolako aditzik ez dagoenean, bi aukera ditugu: batetik, laguntzaile guztiak izenlagun modura gauza ditzakegu izenaren ezker aldean (25a) edo bestela, adizlagunetatik datozen laguntzaile adberbialak (postposizio-sintagmak = IS-P), izenaren eskuinaldean gauza ditzakegu *-ko* atzizkirik gabe. Ikus buru modura *handitze* duten (25)eko adibideak.

- (25) a Ibai-isurien euriteengatiko handitzea
- b Ibai-isurien handitzea euriteengatik

Esan gabe doa «IS + *ren*» motako izenlagunak ezin gauza daitezkeela izenaren eskuinaldean aditzarekin batera eramango luketen deklinabide-atzizkia hartuta.

- (25') \*Euriteengatiko handitzea ibai-isuriak

Gainera, *-ko* daramaten izenlagunak ezin jar daitezke eskuinaldean (25" a), ez eta *-ko* atzizkirik gabeko laguntzaileak ezker aldean ere (25" b).

- (25") a \*Ibai-isurien handitzea euriteengatiko<sup>17</sup>
- b \*Ibai-isurien euriteengatik handitzea


---

<sup>17</sup> Onargarria da, ordea, izenlaguna eskuinaldean jartzea, mugatzailea gaineratzen bazaio:

- (i) ibai-isurien handitze euriteengatikoa

Honelako eraikuntzak literaturan aurkitzen badira ere, gaur egun markatu samar gertatzen zaizkigu eta ez dira oro har erabiliak, ez euskara batuaren esparru orokorrean, ez euskara tekniko-zientifikoarenean ere.

Hona hemen onargarriak diren aukeren eskema moduko adierazpena: (26a) eta (26b) eskemak (25a) eta (25b) adibideei dagozkie hurrenez hurren.



Izenaren eskuinaldean zein ezkerraldean joan daitezke *-ko* duten zenbait laguntzaile, atzizki hori galdu gabe. Berriro ere, (18) arauaren salbuespentzat hartu ditugun *-rako* eta *-(r)ekiko* dira.

- (27) a Abiaduraren denborarekiko deribatua  
 b Abiaduraren deribatua denborarekiko
- (28) a Teoremaren zenbaki errealetarako frogapena  
 b Teoremaren frogapena zenbaki errealetarako

Edonola, bi kokagunetarako aukera hau, azpian adizlagunak dituzten izenlagunetan baino ez da suertatzen. Tasunezkoztat hartu ditugun (10d,e) adibideen kasuan, ezinezkoa da eskuineko kokapena *-ko* atzizkirik gabe, nahiz *-ko* jarrita ere; eskuineko kokapena onargarria izateko, mugatzailea behar da:

- (29) a \*espezieak ile luze  
 b \*espezieak ile luzeko  
 c espezie ile luzekoak
- (30) a \*banaketa benetan  
 b \*banaketa benetako  
 c banaketa benetakoa
- (31) a karbonatozko plataformak  
 b \*plataformak karbonatoz

Honek adierazten diguna da izenaren tasunezko eta erreferentziatzko laguntzaileek (bereziki balio adberbialekoek) laguntzen duten izenarekiko harreman desberdina dutela, hau da, azpikategoria desberdinetan bil daitezkeela. *-Ko* daramaten erreferentziatzko laguntzaile sailkatzaileen artean ere ikusi dugu badirela *-ko* atzizkia *-an* inesiboari lotuta dagoenean ere izenaren eskuineko kokagunea onartzen ez dutenak. Gogoratu azpian errepikatu ditugun (16)ko adibideak:

- (16) a lehorreko espezieak  
 b #espezieak lehorrean

## 2.2.2. IZEN-SINTAGMA PERPAUS BATEAN TXERTATURIK DAGOENEAN

Izen-sintagmak perpaus baten parte izateagatik deklinabidearen atzizki bat behar duenean, (26b) zalantzarri bihurtzen da. Izan ere, ISak perpau-saren barnean funtzio bat bete behar duenean, funtsezkoa da buru modura jokatzeko duen izena ISaren gainerako osagai guztiak baino eskuinalderago agertzea.

- (32) a [Ibai-isurien euriteengatik handitzeak ] uholdeak ekarri ditu  
b ?[Ibai-isurien handitzeak ][ euriteengatik ] uholdeak ekarri ditu

ISaren osagaien hurrenkera hori egokiagoa da ISak agerpen morfolo-giko garbirik ez duen absolutiboa hartu behar duenean ere:

- (33) a [Dinosauruen Kretazeoan zeharreko suntsipena] hainbat hipotesi-ren sortarazlea izan da  
b ?[Dinosauruen suntsipena] [Kretazeoan zehar] hainbat hipotesiren sortarazlea izan da

## 2.3. Noiz *-(r)en* eta noiz *-ko*?

Ez dira gutxi *-(r)en* eta *-ko* atzizkiek sortzen dizkiguten zalantzak eta egia da zenbaitetan bata edo bestea erabili behar ote den finkatzea zaila dela. Edonola, zalantzen artean, hiru multzo bereizi beharko lirateke:

- Literatur tradizioan eta hizkuntzalarien deskripzioetan garbi egon arren zenbait hiztunek nahastu ohi dituzten erabilerak: argi eta gar-bi *-ko* eskatzen duten segidak eta zalantzarri gabe *-(r)en* eskatzen dutenak.
- Itxuraz behintzat bi atzizkiak onartzen dituzten segidak.
- Bazterrekoak izateagatik edota azterketa teorikoetan kontuan hartu ez diren irizpideak behar direlako zalantzarriak diren kasuak.

### 2.3.1. *-(R)EN* ETA *-KO* BEREIZTEKO ERABILI OHI DIREN IRIZPIDEAK

Bi atzizki hauek bereizteko erabili izan diren irizpideetako bat + bizi-dun / – bizidun bereizketa izan da. Bien artean *-ko* da markatua [– bizidu-nak] eskatzen baititu<sup>18</sup>.

- (34) a gizonaren etxea  
b etxearen jabea  
c etxeke gizona  
d \*gizoneko etxea

<sup>18</sup> Ikus adibidez, Lafon (1965), Villasante (1978) eta Mitxelena (1986).

Bigarrenik, *-(r)en* atzizkiaren azpian «jabetza» edo dagoke eta *-ko* atzizkiaren azpian berriz, «kokapena». Hortaz, ulergarria da hurrenez hurren «-k duen» eta «-an dagoen/bizi den/ jaio den...» itzulingerua onartzea<sup>19</sup>.

- (35) a Euskal Herriaren adiskideak  
 «Euskal Herriak dituen adiskideak»  
 b Euskal Herriko adiskideak  
 «Euskal Herrian dauden edo bizi diren adiskideak»

Hirugarrenik, *-(r)en* atzizkia izen-sintagma soilei lotzen zaie (36a), *-ko* atzizkia IS soilei zein PSei (36b,c), hau da «IS + P» motako segidei lotzen zaie<sup>20</sup>. Zenbait kasutan, *-ko* soila agertzen bada ere, *-ko* hori inesibodun IS bati lotu zaiola onartu ohi da (36e), alegia, ondoko ezabaketa-araua erabiltzen dugula: *-an + -ko → -ko*<sup>21</sup>.

- (36) a eguzkiaren argia  
 b eguzkitiko energia  
 c tamaina handiko eguzkia  
 d \*eguzkitikaren argia  
 e Europako espezieak

Laugarrenik, hainbat hizkuntzalarik defendatu izan dute *-ko* atzizkia flexio-atzizkia gabe, eratorpen-atzizkia dela<sup>22</sup>. Euskaltzaindiaren arabera (1987), numero-aldaketa onartzeagatik deklinabide-atzizkitzat hartu behar den *-ko* bat ez ezik, numero-aldaketarik ez onartzeagatik eratorpen-atzizkitzat hartu behar den (edo diren) *-ko* bat (edo batzuk) ere badira. Erkatu (37) eta (38) sortetako adibideak:

- (37) a Euskal Herriko seme naiz  
 b Zein herritako seme zaitugu?  
 c Gure mendietako zuhaitzak ihartzen ari dira  
 (38) a hanka luzeko mahaia  
 b \*hanka luzeetako mahaia  
 c lau hankako mahaia  
 d ??lau hankatoko mahaia

Edonola, eratorlea datekeen *-ko* atzizki honek beti ematen ditu izakien ezaugarriak edo sailak adierazten dituzten «adjektiboak»<sup>23</sup>. Aitzitik, *-(r)en*

<sup>19</sup> Ikus adibidez, Villasante (1978) eta Goenaga (1981).

<sup>20</sup> Adberbioei, postposizioei eta partizipioei ere lot dakieke. Ikus Trask-ek (1985) ematen dituen adibideak:

*hemengo, atzoko, nahitaezko, hitzez hitzeko, eguneroko, gerra ondoko, erositako...*

<sup>21</sup> Ikus Goenaga (1980), (1981) eta Rijk (1993).

<sup>22</sup> Ikus adibidez, Trask (1985), Mitxelena (1986), Azkarate eta Altuna (1992).

<sup>23</sup> Lafonek (1965) berak egin du ideia honen alde: «Les formes en *-ko* ont donc une valeur plus concrète que le premier génitif [*-en*]; le deuxième génitif [*-ko*], comme le premier, détermine; mais il le fait avec plus précision; il qualifie en classant; il définit une classe qui n'appartient



daramaten izenlagunek, ezaugarriak edo sailkapen baten atalak gabe, erreferentzia jakin bat duten izakiak adierazten dituzte: egileak, jasaleak, jabeak, ... Ikusi Euskaltzaindiak (1985) ematen dituen zenbait adibide<sup>24</sup>:

- (39) a gizonaren lana (EGILEA-ekintza)  
 b etxearen erosketa (OBJEKTUA-ekintza)  
 c aitaren etxea (JABEA-objektua)  
 d liburuaren azala (OSOA-zatia)

Izen-postposizioak laguntzen dituzten izenekin ere, *-(r)en* ager daiteke, baina inoiz ez *-ko*. Honen azalpena *-(r)en* atzizkiaren joskera-loturarako balio hutsa dateke<sup>25</sup>.

- (40) a Lurraren barnean  
 b \*Lurreko barnean

Hona hemen azkenik laburpena.

Bereizketarako irizpideak	-ko	-(r)en
[+ bizidun] izenei lotzen zaie	–	+
[– bizidun] izenei lotzen zaie	+	+
<i>-k duen</i> itzulingurua	–	+
<i>-n dagoen</i> / <i>lbizi den</i> itzulingurua	+	–
Izen-sintagma soilei lotzen zaie	+	+
Adizlagun funtzioak lotzen zaie	+	–
Izakiak sailkatzen ditu, nolakoak diren edo zein azpisailetakoa diren adieraziz	+	–
Erreferentziadun izakiak adierazten dituzten izenei lotzen zaie	–	+
Joskera-lotura hutsa	+	+
Atzizki eratorlea	+	–

**5. eskema:** *-(r)en* eta *-ko* atzizkien jokaera bereizteko erabili ohi diren irizpideak

### 2.3.2. ZALANTZARIK GABE *-(R)EN* ESKATZEN DUTENAK

Aurreko atalean eskainiriko irizpideek beraiek eramaten gaituzte *-(r)en* atzizkiaren erabilera argi eta garbi eskatzen duten kasuak bereiztera. Ino-

pas au monde des êtres animés. Il exprime un caractère distinctif, une qualité ... le suffixe *-ko* est donc bien un suffixe de dérivation.»

<sup>24</sup> Objektuaren kasuan behintzat, Mitxelenak (1986) ere ez du inolako zalantzarik *artoaren ereilea, kateen birrintzailea, kristauen salataria* egin behar dela.

<sup>25</sup> Ikus Lafon (1965), Goenaga (1981) eta Euskaltzaindia (1985).

lako zalantzarik ez dute sortzen izen-postposizioak dituzten kasuak, hauekin doan izenak ez baitu inoiz ere hartzen *-ko* atzizkia.

- (41) a Lurraren barruan/ azpian /gainean...  
b baldintza aldakorren pean

Ezinbestean hartu behar dute *-(r)en* jabegoa adierazten duten izenlagunek, bai eta jabego intelektualaz ari garenean ere (42b)<sup>26</sup>:

- (42) a otsoaren gordelekua  
b Coulomb-en legea<sup>27</sup>

Jabegoaren kasu berezitat har daitekeen «osoia/zatia» harremana dagoenean ere, *-(r)en* behar da, baita zatitzat hartzen duguna figuratua denean ere (43c). Era berean, *-(r)en* behar dute *irudi* eta *argazki* bezalako izenekin doazenek (43e).

- (43) a Lurraren mantua  
b zelularen mintza  
c Lurraren erradioa  
d landarearen zurtoina  
e Lurraren argazkiak

Buru modura jokatzeko duen izena magnitude bat denean eta izenlaguna magnitude horrek neurtzen edo kuantifikatzen duen izena denean ere, *-(r)en* behar da zalantzarik gabe.

- (44) a elektroien energia  
b animalien pisua  
c anioien kontzentrazioa

Azkenik, *-(r)en* behar da buru modura jokatzeko duen izena ekintza-edo ondorio-izena denean eta izenlagunak ekintza horren egilea edo jaslaria adierazten duenean.

- (45) a molekulen apurtzea (molekulak apurtu egiten dira)  
b elektroien garraioa (elektroiak garraiatu egiten dira)  
c entzimaren jardura (entzimak jarduten du)  
d Errektorearen erabakia (Errektoreak erabaki du)

---

<sup>26</sup> Euskaltzaindiaren (1985) EGLU-I gramatika hizkuntza arrunteko adibideak aurki daitezke.

<sup>27</sup> Honelakoak askotan inolako atzizkirik gabe txertatzen dira (*Joule efektua*). Badirudi inguruko erderei jarraitu gatzazkiela besterik gabe euskal ordainak emateko orduan eta inguruko hizkuntzetan *de* edo *'s* agertzen denean *-(r)en* jarri dugula euskaraz: (*Coulomb's law*, *ley de Coulomb*, *loi de Coulomb* / *Joule effect*, *efecto Joule*, *effet Joule*). Ikus Ensunza (1997).

Aurreko adibide sortetan ageri diren harremanak daudenean erreferentziatzko adjektiboak erabiltzeko joera handia dago inguruko erderetan: *manto terrestre, membrana celular, radio terrestre, energía electrónica, rotura molecular, transporte electrónico, actividad enzimática, decisión rectoral*. Bestelako kasu batzuetan euskaraz erreferentziatzko adjektibo mailegatuak ezinbestekoak badira ere (*neurgailu elektronikoko* bezalako kasuetan adibidez), azpisail honetan aipatu ditugun harremanak daudenean euskaraz ez da inola ere egokia erreferentziatzko adjektibo horiek geureganatzea (Zabala, 1997). Azpimarratzekoa da, bestalde, *-(r)en* daramaten izenlagun guztiak erreferentziatzko izenlagun tematikoak direla.

### 2.3.3. ZALANTZARIK GABE *-KO* ESKATZEN DUTENAK

Oro har *-ko* erabili behar da izenlagunaren funtzioa, laguntzen duen izena espazioan edo denboran kokatzea denean (Euskaltzaindia, 1985). Izen-sintagma horiei parafrasi bat egokituz gero, inesiboa daraman adizlagun bat (NON, NOIZ) agertuko zaigu. Izan ere, ondoko adibideetan ditugun *Europako* eta *Kretazeoko* izenlagunen azpian «Europan + ko» eta «Kretazeoan + ko» dagoela defendatu dute hainbat hizkuntzalarik<sup>28</sup>:

- (46) a Europako espezieak  
= Europan bizi diren espezieak
- b Kretazeoko eguraldi-baldintzak  
      = Kretazeoan zeuden eguraldi-baldintzak

Era berean, *-ko* behar dute postposizio-sintagmetatik eratorritako izenlagunek. Honelakoetan, bi deklinabide-atzizkia agertuko zaizkigu, alegia, barruko postposizio-sintagmari dagokiona (*-z, -gatik, -rentzat, -rekin, -tik, -ra, ...*) eta *-ko* atzizkia.

- (47) a eguzkitiko energia  
      = eguzkitik datorren energia
- b kaltziozko plataformak  
      = kaltzios osaturik dauden plataformak

Postposizio arruntei ez ezik, izen-postposizioei ere lotzen zaie *-ko* atzizkia:

- (48) a hutsean zeharreko hedapena  
      = hutsean zehar gertatzen den hedapena
- b suntsipenei buruzko hipotesiak  
      = suntsipenei buruz kaleratu diren hipotesiak
- c laginketaren ondoko azterketa  
      = laginketaren ondoren egindako azterketa

<sup>28</sup> Ikus adibidez, Lhande (1926), Lafitte (1944), Mitxelena (1972 a, b), Wilbur (1979), Goenaga (1980, 1981).

Izena deskribatzeko, hau da, izenak adierazten duen izakiak dituen ezaugarriak txertatzeko ere erabiltzen da *-ko* atzizkia. Ezaugarri horiek neur daitezkeenean zenbaki bati eta unitate-izen bati lotuta agertuko da *-ko* atzizkia. Kasu honetan, buru modura jokatzen duena izen arrunta (49b) edo magnitude baten izena (49c) izan daiteke.

- (49) a ile luzeko aldaera
- b 20 cm-ko makiltxo
- c 6 m-ko luzera

Azpimarratzekoa da (49) sortako adibideetan ageri den *-ko* atzizkia ez dela leku-genitibo esaten zaion deklinabide-atzizkia<sup>29</sup>, beti baitu itxura bera eta beraz, ez da aldatzen singular, plural eta mugagaberako (Trask, 1985; Euskaltzaindia, 1987, 1995). Hortaz, *6m-tako luzera* bezalakoak euskara batutik baztertzea erabaki du Euskaltzaindiak. Edonola, hemendik ez dugu ondorioztatu behar zenbaki bat dugunean ez zaizkigula *-tako* edo *-etako* atzizkiak agertuko. Erkatu (50) sortako adibideak: (50a)an, fosil jakin baten adina zehazten du *20 milioi urte* laguntzaileak eta beraz, izakien ezaugarriak txertatzeko balio duen *-ko* atzizki (aldaezin)a dugu. (50b) eta (50c) adibideetan berriz, hainbat fosil hurrenez hurren denbora-tarte batean eta espazioan kokatzeko balio dute izenlagunek (azken 20 urte hauean eraturiko fosilak / hiru kontinentetan aurkituriko fosilak). Horrenbestez, mugatu plurala (*-etako*) eta mugagabea (*-tako*) erabili behar ditugu hurrenez hurren.

- (50) a 20 milioi urteko fosil bat
- b azken 20 urteetako fosilak
- c hiru kontinentetako fosilak

Azkenik, lexikalizatutzat har ditzakegun zenbait izenlagunetan (*benetako*, *ohiko*, *batez besteko*, *benetako*, *antzeko*...) ere agertzen zaigu *-ko* atzizkia<sup>30</sup>.

- (51) a batez besteko abiadura
- b ohiko metodologia

---

<sup>29</sup> Bada izenak sortzen dituen *-ko* eratorle bat ere, gorputz-atalen izenei lotuta soinean eramaten den arropa edo apaingarrria zein kolpea adierazten duten izenak sortzen dituena: *soineko*, *gerriko*, *ipurdiko*, ... Edonola, kasu hauek lan honen interesgunetik kanpo daude eta, beraz, ez ditugu aztertuko.

<sup>30</sup> Azken urteotan antzekoak diren eta instrumentala (-z) daramaten zenbait izenlagunen (*egiazko*, *oinarritzko*) analogia eginez, joera handia dago instrumentala gaineratzeko eta *benetazko* eta *ohizko* bezalakoak egiteko. Euskaltzaindiak erabaki du *benetako* dela era estandarra eta *ohiko/ohizko* aldaerak aukeran utzi baditu ere, *ohiko* da gomendatu duena (Euskaltzaindia, 1994).

Zenbait kasutan izenondoei ere gaineratzen zaie *-(z)ko* atzizkia (52). Kasu honetan bi kokagune desberdinetan dauden bi laguntzaile horiek izenarekiko duten harremana berdintsua dela dirudi; tasunezkoztat har daitezke biak.

- (52) a aldaketa izugarria
- b izugarritzko aldaketa

Ikus daitekeenez, *-ko* daramaten adjektiboen artean batzuk tasunezkoztat har daitezke (47b, 49, 51), eta beste batzuk aldiz, erreferentziakotzat hartu behar dira (46, 47a, 48).

#### 2.3.4. *-KO* ZEIN *-(R)EN* ONARTZEN DUTEN KASUAK

Euskal gramatika-lanek askotan azpimarratu dute badirela *-ko* zein *-(r)en* onarten duten kasuak<sup>31</sup>. Aukera bat baino gehiago duten kasu hauek erraz azal daitezke 2.3.1. azpiataleko irizpideak kontuan hartuta. Hasteko, badira biziduntzat zein bizigabetzat hartu ahal izateagatik, *-ko* zein *-(r)en* onartzen dutenak. Edonola, kasu batean eta bestean lortzen den irakurketa ez da berbera:

- (53) a Elizaren isiltasuna
- = Eliza (erakunde gisa) isilik dago
- b Elizako isiltasuna
- = Elizan (eraikin gisa) dagoen isiltasuna
- (54) a Herriko plaza
- = Herrian dagoen plaza
- b Herriaren plaza
- = Herriarena (gizaki multzo gisa) den plaza

Edozein modutan ere, honek ez du esan nahi edozein testuingurutan biak erabil daitezkeenik: Mitxelenak (1986) azpimarratu duen bezala, *Herriko plaza* segida gaizki erabilia dago «La place du peuple» esateko, horren esangura «La place de la ville» baita. Beste zenbaitetan, izenaren eta izenlagunaren artean dagoen harremana, jabegekotzat edo lekukotzat har daiteke eta hortik dator bi atzizkiak erabili ahal izatea:

- (55) a etxeke jabea
- = etxean dagoen jabea
- b etxearen jabea
- = etxeak duen jabea

---

<sup>31</sup> Ikus adibidez, Goenaga (1981), Euskaltzaindia (1985).

Aurreko irizpideen arabera azal daitezkeen kasu hauetaz gain hiztunengan horren erraz ezin azal daitezkeen zalantzak daude. Hona hemen Euskaltzaindiak (1991) bilduriko zerrenda<sup>32</sup>:

- a) *multzo baten lbateko elementuak: familiaren lfamiliako burua; hirugarren artikulua-ko 5. zenbakiarenl-ko bigarrenl-eko paragrafoa.*
- b) *Erakunde eta gisakoen ekintzak aipatzean: Euskaltzaindiarenl-ko bilera; Elhuyarrenl-ko lankideak; Estatuarenl-ko kontseilua; Lehendakariaren l-ko idazkaria; Alkatetzaren l-ko bandua; udalaren l-eko aurrekontuak*
- c) *Batzuetan ez dago ez inesibo ez ergatiborik: latinekol-aren l-(e)zko l Ø eskola, liburu, irakasle; morfologiako l-arenl-(e)zko lØ kasuak; Zuzenbide Kanonikokol-arenl-(e)zko Kodea; Filosofiakol-arenle)zko l Ø Fakultatea*
- d) *Unibertsitateko l-aren errektorea; fakultatearen l-ko dekanoa; kontseiluaren l-ko burua*
- e) *Bizkaiaren l-ko hiriburua*
- f) *Elizako l-aren Gurasoak; Elizako l-aren Aitak*
- g) *Euskal Herriaren l-ko historia*

Hiztunok *-(r)en zein -ko* erabili ohi dugun kasu hauen artean, hainbat motatakoak daudela dirudi. Villasantek (1978) eta Mitxelenak (1986) *-(r)en* eta *-ko* atzizkien artean markatugabea eta beraz gehiagotan erabil daitezkeena *-(r)en* dela esan badute ere, egia da hiztunok *-ko* erabiltzeko joera nabaria dugula. Mitxelenak (1986) lehen aipatu dugun *Herriko plaza* eta *Ur-lia eta Sandia Galeko kitzikariak* bezalakoetan ageri diren erabilerak argi eta garbi baztertzekoak direla esan du<sup>33</sup>. Badirudi leku eta erakundeen izenak direla zalantza hauetako askoren eragileak.

—Batzuetan, zaila dirudi «kokapena» eta «osoa/zatia» harremanak bereizteak. Zalantza honen barruan sar litezke ondokoak. Honelako kasuak bietara uler daitezkeela dirudi: *Elhuyar erakundean dauden lankideak/ Elhuyar erakundea osatzen duten lankideak; hirugarren artikuluan aurki daitezkeen 5. zenbakia / hirugarren artikulua osatzen duten zenbakien artean dagoen 5.a.; Bizkaian dagoen hiriburua / edo Bizkaiaren zati berezia den hiriburua.*

- (56) a familiaren/ -ko burua  
b hirugarren artikulua-ko 5. zenbakia  
c Elhuyarren/-ko lankideak

<sup>32</sup> Zerrenda honetako adibideak eta beste batzuk Euskaltzaindia (1993) gramatikan ere aurki daitezke.

<sup>33</sup> Hona hemen Mitxelenaren hitzak «Guztiok dakigu, arteka marteka ahaztu egiten bazaigu ere, *-(r)en* dela atzizki zuzen bakarra horrelakoetan. Euskalki guztietan, nik uste, labur-surrean ez gabiltzanean elkarte moldez jokatu, *artoaren ereilea* esaten da, *kateen birrintzilea, kristauen salataria* eta abar eta abar.»

- d Lehendakartzaren/-ko idazkaria
- e Estatuaren/-ko kontseilua
- f Unibertsitateko/-aren errektorea, fakultatearen/-ko dekanoa; kontseilaren/-ko burua
- g Bizkaiaren /-ko hiriburua

Euskara teknikoan bi adigai horien bereizketa komenigarria dela uste dugu:

- (57) a ozeanoko animaliak  
= ozeanoan bizi diren animaliak
- b ozeanoaren hondoa  
= ozeanoaren zatietako bat den hondoa
- (58) a zelulako energia-gordekinak  
= zelulan metatu diren energia-gordekinak
- b zelularen nukleoa  
= zelularen osagaietako bat den nukleoa

—Euskaltzaindiak berak (1993) azaltzen ditu zenbait kasu, jendeak munduari buruz kontzeptualizazio desberdinak egiten dituela argudiatuz. Zehazkiago «egilea edo jabea» / «kokapena» dirateke kasu hauetan jokoan sartzen direnak:

- (59) a Euskal Herriaren historia (= Euskal Herriak duen historia)
- b Euskal Herriko historia (= Euskal Herrian gertatu den historia)
- (60) a Euskaltzaindiaren bilkura (= Euskaltzaindiak egin duen bilkura)
- Euskaltzaindiko bilkura (= Euskaltzaindian egin den bilkura)

Oro har erakundeen izenekin kontzeptualizazio mota desberdinak izateko aukera dagoela dirudi.

- (61) a Alkatetzaren/-ko bandua
- b Udalaren/-eko aurrekontuak
- c Elizaren/-ko gurasoak

—Era berean, irizpideak falta zaizkigu (62)ko adibideetan. Nolabaiteko jakintza-esparrua adierazten duten izenak dira horietan guztietan falta zaizkigunak. Areago, kasu hauetan, *-(e)zko* atzizkia eta inolako atzizkirik gabeko izenak ere sartzen dira lehian.

- (62) a latineko/-aren/-zko/ Ø eskola, liburu, irakasle
- b morfologiako/-aren/-zko/Ø kasuak
- c Zuzenbide Kanonikoko/-aren/-zko Kodea
- d Filosofiako/-aren/-zko/Ø Fakultatea

### 2.3.5. IRIZPIDE BERRIAK *-(R)EN* ETA *-KO* ATZIZKIEN ARTEKO BEREIZKETARAKO

Trask-ek (1985) eskainiriko kontraste batetik abiatuko gara *-(r)en* eta *-ko* atzizkien artean dagoen ezberdintasun garrantzitsu bat azpimarratzeko. Hona hemen Trask-en hitzak:

«...*hiru urteko umea* da forma eta ez \**hiru urtetako umea*. Baina goian ikertu ditugun formen ibilera desberdina da: *hiru herritatik pasatzen den laisterketa* adierazteko, *hiru herritako laisterketa* esaten da eta ez \**hiru herriko laisterketa*. Iruditzen da, beraz, *-ko* atzizkia hartzen duena ez dela izen sintagma mugagabe bat, ezta ere adizlagun bat, baizik eta beste zerbait. Eta hau zer da? Nere ustez, argi dago: izen multzoa behar du. Izen multzoa (ingelesez: N-bar) deitzen zaio kategoria sintaktiko bati, izena baino handiagoa baina izen sintagma baino txikiagoa baita...»

Oso garrantzitsua da ideia hori; *-ko* atzizkia numerorik gabeko izen-sintagma soilari lot dakiok<sup>34</sup>. Lan honetan haruntzago joango gara ondoko baieztapena eginez: *-(r)en* atzizkiak numero-aldaketarik badu ere, *-ko* atzizkiak ez du inoiz numero-aldaketarik. Azken honek numero-aldaketa duela ematen duenean, esate baterako (37 eta 50b,c) adibideetan, numero-aldaketa barruan dagoen adizlagunarena da, ez *-ko* atzizkiarena.

- (63) a gure etxeko atea -an + -ko → -ko (MUGATU SING)  
 b etxe hauetako atea -etan + -ko → -etako (MUGATU PL)  
 c hainbat etxetako atea -tan + -ko → -tako (MUGAGABEA)  
 d ile luzeko txakurra ∅ + -ko (NUMERORIK GABEA)  
 e benetako txakurra ∅ + -ko (NUMERORIK GABEA)  
 f atzoko txakurra ∅ + -ko (NUMERORIK GABEA)  
 g zirt-edo-zarteko umea ∅ + -ko (NUMERORIK GABEA)  
 h eguneroko umea ∅ + -ko (NUMERORIK GABEA)  
 i zu bezalako umea ∅ + -ko (NUMERORIK GABEA)  
 j aipatutako umea ∅ + -ko (NUMERORIK GABEA)  
 k lotsa gabeko umea ∅ + -ko (NUMERORIK GABEA)

Erkatu (63) adibide-sortan ageri den eta mugatu, mugagabe zein numerorik gabea izan daitekeen *-ko* atzizkia, aurreko hiru aukerak baizik ez dituen *-(r)en* atzizkiarekin. Batzuetan ez da erraza, ordea, numerorik ga-

<sup>34</sup> Gramatika Sortzailearen esparruan gaur egun badugu Trask-en ideia zehazteko modua. Abney-ren (1997) «Determinatzailearen Hipotesiaren» arabera, aditz-sintagmak Inflexio-sintagma isla dezakeen bezala, izen-sintagmak (IS), determinatzaile-sintagma (DS) isla dezake. Determinatzaile-sintagma hori da numero-tasunak daramatzana eta beraz, *-(r)en* atzizkia determinatzaile-sintagmari lotzen zaion bitartean *-ko* atzizkia barruan izen-sintagma daraman postposizio-sintagmari zein izen-sintagmari lot dakiokela esan dezakegu. Ikus Artiagoitia (1998).

- (i) a [<sub>DS</sub> [<sub>IS</sub> liburu] -a] -ren  
 b [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> [<sub>IS</sub> herri] -a] -n] -ko  
 c [<sub>IS</sub> ile luze] -ko



beko izen-sintagmari lotu zaion *-ko* eta mugatu singularreko inesibo markadun adizlagunari lotu zaion *-ko* bereiztea (ikus 62a) eta (62d) adibideetan forma bera (*-ko*) agertzen zaigula. Goenagak (1981) ondoko adibideak (64) erkatu ditu ildo honetatik: lehenengoak «neskak bihotz ona du» esan nahi du baina bigarrenak ez du esan nahi «neskak etxe ona du», «neska etxe onean jaio da» baizik. Hortaz, bigarrenaren azpian *-an* inesiboa dagoela ondorioztatu du.

- (64) a Bihotz oneko neska da Edurne  
b Etxe oneko neska da Edurne

Ez dugu uste ordea, inesiboa daraman itzulingurua egotzi ahal izatea izenlagun honen azpian adizlagun bat dagoela agerian uzteko nahikoa denik. Askoz ere argigarriagoa izan daiteke, numero-aldaketa onartzen ote duten egiaztatzea:

- (65) a Etxe { \*onetako/oneko } neskak dira Edurne eta Itziar  
b Bihotz { \*onetako/oneko } neskak dira Edurne eta Itziar

Ez batean ez bestean ez da onargarria plurala egitea eta honek agerian uzten digu ez batean ez bestean ez dugula inesiborik eta beraz, bietan *-ko* atzizkia numerorik gabeko izen-sintagmari lotu zaiola. (64b) bezalakoetan *-ko* daramanak, laguntzen duen izenaren kalitate bat txertatzen du; (64a) bezalakoetan berriz, nesken artean «mota» bat adierazteko balio digu *-ko* daraman laguntzaileak; «jatorria» da sailkapen horren irizpidea. Edonola, bietan lotu zaio *-ko* atzizkia numerorik gabekoa den eta beraz generikoa den izen-sintagmari; *-(r)en* atzizkia aldiz, beti lotzen zaio numeroa daraman zerbaiti, determinatzaile-sintagmari alegia (ikus 34. oharra) eta beraz, ez du inoiz ere ematen irakurketa generikorik:

- (66) a baserriko produktuak  
(i) mota bateko produktuak, jatorria edozein baserritan dutenak (GENERIKOA)  
(ii) baserri jakin batean jatorria duten produktuak  
b baserriaren produktuak  
(i) Ø  
(ii) baserri jakin batean jatorria duten produktuak

Erkatu (66) sortako adibideak: lehenengoak bi irakurketa (generikoa zein mugatua) ditu; bigarrenak aldiz, irakurketa bakarra du (mugatua). Ikusi ondoko adibideak ere:

- (67) a familiako buruaren argazkia [DS] m.s. + -aren  
b familiako guztien argazkia [DS] m.p. + -en  
c familiako zenbait kideren argazkia [DS]m.g. + -ren  
d Europako ministroen familia-argazkia [IS] +Ø (NUMERORIK GABEA)  
= Europako ministroen familiako argazkia  
≠ Europako ministroen familiaren argazkia

-(R)en atzizkia daraman sintagma beti ulertu behar dugu mugatu edo mugagabe modura, ezinezkoa da numerorik gabekotzat, hau da, generikotzat ulertzea. Zehazkiago, -(r)en erreferentzia jakin bat daukaten determinatzaile-sintagmei lotzen zaien kasu-marka dateke (ikus 34. oharra), eta -ko aldiz, erreferentziaren beharrik ez duten laguntzaileak sortzen dituen atzizkia. Izan ere, (67d) adibidearen ordeztan ez litzateke pentsaezina *Europako ministroen familiako argazkia* eta «familiako argazkia» argazki mota bat adieraziko luke. *Europako ministroen familiaren argazkia* esaten dugunean berriz, ministroek familia bat osatzen dutela edo bestela, ministroen familiari argazkiak egin zaizkiela ulertu behar dugu, «familiaren argazkia» ezin baita hartu argazki motatzat.

Horrela azal daiteke agian, (62) adibideetako jakintza-esparruak adierazten dituzten izenekin ere -ko daraman izenlaguna (*latineko/latinezko irakaslea*) edo bestela izen elkartua (*latin-irakaslea*) -(r)en baino egokiagoa iruditzea. Izan ere, izen horiek ez dira erreferentzia jakin bat duten izakiak, irakasle, liburu eta eskolen artean sailak egiteko erabiltzen ditugun erreferentziazko laguntzaileak dira nonbait. -Ko honek inolako balio semantikorik gaineratzen ez duela dirudi, eta antzekoa esan daiteke zenbait testuingurutan ager daitekeen -zko atzizkiari buruz. Izan ere, esana dugu azken atzizki hau zenbait izenondori lotzen zaiela izenaren ezkerrean erabili ahal izateko eta inolako esangura-aldaketarik eragin gabe (68):

- (68) a aldaketa izugarria  
b izugarritzko aldaketa

Lotura hutseko funtzioa bete dezakete -ko zein -(r)en atzizkiek zenbait kasutan, inolako esangurarik gaineratu gabe. Horrexegatik ager daitezke leku-izenak adierazten dituzten aposizioen barruan. Hona hemen Euskaltzaindiak (1993) aipatzen dituen zenbait adibide, itxuraz kontrako esanahia dutenak.

- (69) a Pasaia herria  
b Pasaia herria  
c \*Pasaia herria  
d Pasaia
- (70) a Felipe Ederraren plaza  
b \*Felipe Ederreko plaza  
c \*Felipe Ederra plaza  
d ≠ Felipe Ederra
- (71) a Santa Maria eliza  
b Santa Mariaren eliza  
c Santa Mariako eliza  
d Santa Maria

Hiru motatako aposizioak ditugu hemen: (69) bezalakoetan, izen propioak eta aposizio osoak erreferentzia bera dute, adierazten duten lekua

alegia (*Pasaia herria = Pasaia*). (70) adibidean berriz, izen propioak aposizioaren barruan hartzen duen funtzio izen-emaileaz gain, badu bestelako erreferentzia bat, errege jakin bati dagokiona; hortaz, *Felipe Ederraren plaza ≠ Felipe Ederra*. Azkenik, (71) adibidean duguna, bien nahastea da, *Santa Maria* eliza-izen modura edo Ama Birjinari erreferentzia egiteko erabiltzen den izen propio modura uler baitaiteke.

Zenbait izen-postposizioen kasuan ere (*aurre, atze, arte, aurka, gain, azpi barne, ondo, alde*) *-(r)en* erabili behar da eta ez *-ko*. Honen arrazoia bide beretik aurki daiteke: izen-postposizioa lotzen zaion izena ezin da ulertu generikotzat eta beraz, ezin erabil daiteke hori lotzeko lotura hutseko *-ko* atzizkia.

- (72) a etxearen aurrean  
b \*etxeko aurrean

Atzizkia ken daiteke, ordea, zenbait kasutan, alegia izena bizigabea denean eta izenondorik gabe ageri denean. Bestela, ondorio ezgramatikalak ematen ditu atzizkiaren ezabaketak (Euskaltzaindiak, 1993): izen-sintagma argi eta garbi mugatua denean, *-(r)en* atzizkia behar da zalantzarik gabe<sup>35</sup>.

- (73) a etxeurrean/etxe aurrean  
a' etxe(aren) aurrean egon naiz  
a'' oso etxeurre zabala dugu  
b \*Koldo aurrean  
b' Koldoren aurrean  
c \*etxe handi ondoan  
c' etxe handiaren ondoan

Bestetik, erakundeek ekintzak adierazi behar ditugunean, erakunde horiek ekintzaren «egiletzat» hartzen dituzte zenbait hiztunek eta beste batzuek, ekintza horien «jatorritzat». Ikusi alde nabaria dagoela erakundearen izenetik ezinbestean egiletzat hartu behar den izen batera iragaten garenean:

- (74) a Lehendakaritzaren erabakia (= Lehendakaritzak hartu duen erabakia)  
b Lehendakaritzako erabakia (= Lehendakaritzatik datorren erabakia)  
(75) a Lehendakariaren erabakia (= Lehendakariak hartu duen erabakia)  
b \*Lehendakariko erabakia

Azkenik, aipatu beharrekoa da izen elkartua egitea ezinezko egiten zaigun zenbait kasutan sortzen zaigun zalantza. Hitz elkartua ezinezko bihurtzen diguten kasuak sortzen zaizkigu hiru hitzeko hitz elkartua egiten

---

<sup>35</sup> Ikus Odriozola (1999), (73a) bezalakoek izatera bikoitzaren eta (73b) bezalakoek izatera bakarren berri zehatzagoa lortu nahi izanez gero.

behar dugunean edo mugatzailea izenondo batez lagundurik dugunean eta *-ko* atzizkia hobeto sartzen zaigu horietan *-(r)en* atzizkia baino:

- (74) a simetria-zentroa  
 b erradio-simetriako zentroa  
 c ?? erradio-simetriaren zentroa
- (75) a dinosuru-hortz  
 b dinosuru haragijaleko hortz  
 c ???dinosuru haragijaleen/haragijalearen/haragijaleren hotz

Kasu hauetan *-(r)en* atzizkiak huts egiten du numerorik gabeko izen (generiko) bati lotu behar diogulako. Izan ere, (75b) adibidearen kasuan, [+ biziduna] den izen bat izanda ere, ez dirudi *-(r)en* atzizkia erabil daitekeenik<sup>36</sup>. Hona hemen azkenik, *-(r)en* eta *-ko* atzizkien banaketaren laburpena.

	-ko	-(r)en
JABEGOA	*amako libura	amaren liburua
OSOAZATIA	*liburuko azala	liburuaren azala
<i>Irudi ...BEZALAKO IZENAK</i>	*Lurreko argazkia	Lurraren argazkia
IZAKIA/MAGNITUDEA	*mahaiko luzera	mahaiaren luzera
IZEN-POSTPOSIZIOAK	*etxeke aurrean	etxearen aurrean
EGILEA	*lehendakari erabakia	lehendakariaren erabakia
OBJEKTUA	*harremanetako apurketa	harremanen apurketa
KUALITATEA	ile luzeko txakurra	*ile luzearen txakurra
	bi urteko haurra	*bi urteren haurra
JATORRIA	etxe oneko neska	*etxe onaren neska
	dinosauru haragijaleko hortza	??dinosauru haragijaleren hortza
KOKAPENA	Europako espezieak	*Europaren espezieak
	Kretazeoko eguraldia	??Kretazeoren eguraldia
LOTURA HUTSA (GENERIKOA)	erradio-simetriako zentroa	??erradio-simetriaren zentroa
	zirt-edo-zarteko erabakia	*zirt-edo-zarteren erabakia
	izugarritzko aldaketa	*izugarriren erabakia
	matematikako irakaslea	??matematikaren irakaslea
	matematikazko irakaslea	
	matematika-irakaslea	
LOTURA HUTSA (toki-aposizioa)	Santa Mariako eliza	Santa Mariaren eliza
	Santa Maria	

<sup>36</sup> Ildo beretik ari da Artiagoitia (1998) ondoko baieztapena egiten duenean: «...hiztun batzuek «Urlia unibertsitateko errektorea da» zein «Urlia unibertsitatearen errektorea da» onartu arren, IS hutsa erabiltzean nekezago onartzen dute posesiboa...

- (i) a Jon [unibertsitateko errektore] izendatu dute  
 b Miren [saileko buru] hautatu dute  
 c ??Jon [ unibertsitatearen errektore] izendatu dute  
 d ?? Miren [sailaren buru] hautatu dute»

	-ko	-(r)en
	Pasaiako herria	*Pasaiaren herria
	Pasaia	
	*Felipe Ederreko plaza	Felipe Ederraren plaza
	*Felipe Ederra	
LOTURA HUTSA	*Golgiko aparatua	Golgiren aparatua
(pertsonea-aposizioa)	Golgi aparatua	
KOKAPENA vs.	familiako burua	familiaren burua
OSOAZATIA	Bizkaiko hiriburua	Bizkaiaren hiriburua
KOKAPENA vs. EGILEA;	Euskaltzaindiko bilkura	Euskaltzaindiaren bilkura
JABEA	Euskal Herriko historia	Euskal Herriaren historia
JATORRIA vs. EGILEA	Lehendakaritzako erabakia	Lehendakaritzaren erabakia

6. eskema: *-(R)en* eta *-ko* atzizkien banaketa

### 3. NOIZ *-DUN* ETA NOIZ *-KO*?

Zalantza handiak sortzen dizkigute atzizki hauek eta bibliografian zehar egozten zaien banaketa nahasgarri samar gertatzen da zenbait kasutan. Azkarate eta Altunak (1992) argi apur bat eman diote kontuari alde zuzenetik esandakoa bilduz eta zenbait kasutan emandako arauak askotan literaturan agertzen denarekin bat ez datozela agerian jarritz. *-Ko* eratorpen-atzizkitzat hartu izan da hainbat lanetan (Mitxelena, 1986; Euskaltzaindia, 1987; De Rijk, 1988; Azkarate, 1991) eta *-dun* eratorpen-atzizkitzat hartu izan da batzuetan (Azkue, 1923; Villasante, 1974; Azkarate, 1991) eta beste batzuetan, hitz elkartu sintetikoen mugakizuntzat (Euskaltzaindia, 1991). Edonola, flexio-atzizkitzat nekez har daitezkeela garbi badago ere, atzizki eratorle modura ere bereziak dira bi hauek, hitz soilei lotu beharrean, goragoko kategoriei (izen-multzoari<sup>37</sup> edo zehazkiago izen-sintagmari) ere lotzen zaizkielako.

- (76) a [fosfato]dun lurzorua  
 b [iraupen laburre]ko prozesua  
 c [hiru urte]ko ikerketa-egitasmoa  
 d [bost urte baino gutxiago]ko jarduera  
 e [20 °C-ko tenperatura]dun ganbera

#### 3.1. Oinarri modura izena dutenak

Ez da erraza *-ko* eta *-dun* atzizkien banaketa finkatzea. Lan batzuen arabera, joera nagusia dateke *-dun* izen soilei lotzea eta *-ko* goragoko ka-

<sup>37</sup> Euskaltzaindiaren (1985) terminologia erabiltzen ari gara hemen.

tegoriei lotzea (Altube, 1929; Euskaltzaindia, 1987; Azkarate, 1991). Edonola, badira *-ko* izen soilari lotuta daramaten zenbait adibide (77c):

- (77) a horzdun, akastun, baimendun, fosfatodun...  
b \*horzko, \*akatseko, \*baimeneko, \*fosfatoko...  
c itxurako, edadeko, hitzeko...

Honelako adibideei dagokienez, Euskaltzaindiak (1987) azpimarratu egin du *-ko* daramaten izenek abstraktuak izan behar dutela. Edonola, badira abstraktuak izanik ere *-dun* hartzen dutenak (78). Hauetan, kontuan hartzekoa litzateke Azkarate eta Altunaren (1992) arabera «edute» harremana, *gabe(ko)* daramaten aurkakoak izateak agerian uzten duena (Altube, 1929).

- (78) a fededun/fedegabe, bihoztun/bihozgabe  
b \*fedeko, \*bihotzeko

Gure iritziz, azken ezaugarri hau da bi atzizki hauen arteko bereizgarria: *-dun* tasun bat edukitzearen ezaugarria, hots, «edutea» adierazten duen bitartean, *-ko* atzizkiak «nolakotasuna» adierazten du. Hau da, *edadeko pertsona* edo *itxurako gizona* ez da edozein edade edo edozein itxura duen pertsona, edade handia eta itxura ona duena baizik. Hau da. (77c) adibideak (77'c) sortakoen parekoak dira:

- (77') c itxura oneko, edade handiko, hitz fidagarriko

Hortaz, nolabaiteko lexikalizazioa gertatu da adibide horietan atzetik beharko litzatekeen adjektiboa soberazkoa egiten duena. Edonola, dauden kasuak gutxi dira hain zuzen bide emankorra ez delako. Funtszkoa deritzogu hemen «edutea» eta «nolakotasuna» deritzegun harremanez aritzea. Edutea adierazten dugunean, tasun diskreto bati buruz ari gara, hau da, zenbait balio mugatu dituen aldagai batez (X dunak / X gabeak). Batzuetan aldagai hori balio bakarrekoa ere izan daiteke: *betaurrekodun*, *bibotedun* eta *haurdun* baditugu, baina nekez izango ditugu *#bibotegabe*, *#haurgabe* eta *#betaurrekogabe*. Izen soiletatik eratorritako adjektiboetan «edutea» da adieraz dezakegun ideia bakarra, lexikalizatu diren eta nolakotasuna adierazten duten kasuak alde batera utzirik.

Azpimarratzekoa da *-dun* atzizkia erabili ahal izateko, «x duen» parafraasiak, hots, «edutea» agerian uzten duen itzulinguak posible izan behar duela.

- (79) a hortzak dituena  $\Rightarrow$  *horzdun*  
b \*itxura duena  $\Rightarrow$  \**itxuradun* / *itxurako*

### 3.2. Oinarri modura [izena + izenondoa]<sup>38</sup> dutenak

Kasu honetan ez datoz bat Altube (1927) eta Euskaltzaindia (1987). Lehenengoaren arabera *-dun* behar da oinarrian dagoen izenak aldi bateko objektua adierazten duenean eta *-ko* ordea, izakiak bere-berekoa duen zerbait edo zerbait abstraktua denean. Hortaz, ez da egokia izango *-dun* gorputz-atalei lotuta eta ez *-ko* handi samarrak diren pertsonaren atalei lotuta ere (80c):

(Altube 1929)

- (80) a bizar gorridun, urrezko belarririkodun,  
b osasun ederreko mutila, bihotz biguneko andrea  
c ??beso luzedun, ??azal zuriko

Euskaltzaindiaren (1987) arabera oster, [izena + izenondoa] oinarria dagoenean, joera nagusia *-ko* erabiltzekoa da (81a), nahiz eta salbuespenak ere badiren (81b). Edonola, esaten dute ezin dela *-dun* erabili gorputz-atalen izenekin, hauek zentzu figuratuan erabilia badaude (81c):

Euskaltzaindia (1987)

- (81) a gorputz handiko, jite txarreko, begi urdineko, jantzi gorriko  
b begi urdindun, bizar zuridun, teilatu gorridun, alkondara zuridun  
c \*pilotari beso ederdun, \*ehiztari begi ondun, \*ume bihotz gaiztodun

Azkarate eta Altunak (1992) agerian utzi dutenez, ez dago inola ere garbi oinarria izen-multzoa denean joera nagusia *-ko* erabiltzekoa denik, ez izena gorputz-atala denean (82a), ez jantzia denean (82b), ez zentzu aldatua duen gorputz-atala denean ere. Oinarriaren izena abstraktua denean berriz, salbuespenak salbuespen, *-ko* da atzizkirik erabiliena (82d).

Azkarate eta Altuna (1992)

- (82) a aurpegi ederdun, begi argidun, bizar zuridun = ...-ko  
b jantzi zuridun, zapi zuridun, praka zahardun = ...-ko  
c bihotz garbidun, bihotz handidun = ...-ko  
d itxura gaiztoko, zori oneko, iraupen laburreko / grina txardun, on-uste osodun

Azken hizkuntzalari hauek eskainitako datuek ezeztatu egin dituzte non-bait Euskaltzaindiak eta Altubek egindako bereizketak. Izan ere, bereizketa horiek nolabait aurreko atalean ikusi dugun «edutea» / «nolakotasuna» bereizketan oinarriturik daudela pentsa genezake: izaki batek bere-berea due-

---

<sup>38</sup> Nahita erabili dugu hemen «izenondo» terminoa, honelakoetan ageri direnak argi eta garbi izenaren eskuinaldean agertu ohi diren adjektiboetakoak baitira.

nak izaki hori nolakoa den esateko balio dezake baina behin-behinean duen zerbaitek ez du balio nolakoa den esateko.

Edonola, izenondoa dugunean bereizketa hori desitxuraturik dagoela ondoriozta dezakegu Azkarate eta Altunak eskainiriko adibideen arabera: oinarrian izena eta izenondoa batera ditugunean, adjektibo eratorriak adierazten duena, hau da, ezaugarri bat edukitzea, «edutetzat» edo «nola-kotasuntzat» har daiteke eta beraz, *-dun* edo *-ko* erabil daitezke. Bestetik, *-dun* erabili ahal izateko lehen aipatu dugun baldintza betetzen da kasu hauetan:

- (83) a azal zuria duena ⇒ azal zuridun / azal zuriko
- b beso luzeak dituena ⇒ beso luzedun / beso luzeko
- c itxura txarra duena ⇒ itxura txardun / itxura txarreko
- d zapi zuria duena ⇒ zapi zuridun / zapi zuriko

Edozein modutan ere, esan beharrekoa da laguntzailearen esangura «eduterantz» lerratu eta beraz nolakotasuna adieraztea zailagoa egiten den heinean, orduan eta zailagoa dela *-ko* atzizkia erabiltzea. Soinean daramatzagun gauzez aritu beharrean guregandik kanpo dauden objektuak direnean zail samarra da atzizki hau.

- (84) a auto gorria duena ⇒ auto gorridun /\*auto gorriko
- b etxe dotorea duena ⇒ etxe dotoredun / \* etxe dotoreko

### 3.3. Oinarri modura [zenbatzailea + izena (+izenondoa)] dutenak

Altuberen arabera, izakiak ezinbestekoak ez dituen objektuak direnean, *-dun* erabiltzen da, eta ezinbestekoak zaizkionak direnean, *-ko*.

Altube (1929)

- (85) a lau seme-alabadun alarguna, gerriko bidun gizona
- b hiru urteko haurra, libra biko ogia, zortzi puntako zapia

Euskaltzaindiaren (1987) arabera, ordea, *-ko* da zenbatzaileekin batera erabiltzen duguna:

Euskaltzaindia (1987)

- (86) urte bateko haurra, ehun ardiko artaldea, bi ugazabako etxea

Azkenik, Azkaratek eta Altunak denetariko adibideak aurkitu dituzte:

Azkarate eta Altuna (1992)

- (87) arrautza bi goringodunak, zortzi urtedun neska, lau zangodun eho-makina, lau langadun ateka... = *-ko*



Hauen bidez adierazten direnak ere «edutetzat» edo «nolakotasuntzat» har daitezkeela dirudi eta beraz, bi atzizkiak erabil daitezke. Ikusi kasu gehienetan «x duena» itzulingurua onargarria dela:

- (88) a zortzi urte dituen neska  $\Rightarrow$  zortzi urtedun neska / zazpi urteko neska  
 b bi gorringo dituen arrautza  $\Rightarrow$  arrautza bi gorringoduna /bi gorringoko arrautza  
 c zazpi punta dituen zapia  $\Rightarrow$  zazpi puntadun zapia / zazpi puntako zapia

Murritzapenak berehala ikus ditzakegu ordea:

a) «Eduite» hutsa adierazten dutenak, hau da, nolakotasuna adierazteko balio ez dutenak, ez dirudi-ko atzizkiaren bidez eman daitezkeenik:

- (89) lau seme-alabadun alarguna  
 \*lau seme-alabako alarguna

b) Bestetik, -ko atzizkiari lotuta doana «unitate-izena» denean, ezin erabil daiteke -*dun*; ezintasun honekin batera gertatzen da, gainera, «x duena» itzulingurua doitzeko zailtasuna:

- (90) a bi librako ogia  
 \*bi libradun ogia  $\Rightarrow$  ? bi libra dituen ogia  
 b bi kilometroko bidea  
 \* bi kilometrodun bidea  $\Rightarrow$  ?bi kilometro dituen bidea

Kasu honetan maiz gertatzen da buru modura jokatzeko duena «magnitude-izena» izatea. Orduan, are garbiagoa da -*dun* atzizkiaren ezintasuna:

- (91) a 20 °C-ko tenperatura  
 \*20 °C-dun tenperatura  $\Rightarrow$  \*20 °C dituen tenperatura  
 b 200 m<sup>2</sup>-ko azalera  
 \* 200 m<sup>2</sup>-dun azalera  $\Rightarrow$  \*200 m<sup>2</sup> dituen azalera  
 c 60 W-ko potentzia  
 \* 60 W-dun potentzia  $\Rightarrow$  \* 200W dituen potentzia

#### 3.4. -(R)en + izena + -ko / -ko + izena + izenondoa +-*dun*

Nolabaiteko erkaketatzat har daitezkeen (92)koak bezalakoetan, Euskaltzaindiak (1987) eta Azkarate eta Altunak (1992) ematen dituzten adibideen arabera, -ko erabili ohi da eta hau espero izatekoa da, erkaketarekin batera «nolakotasuna» baitoa. (93) sortakoetan berriz, «edutea» da nagusi eta -*dun* agertzen da.

- (92) a Afrikarren itxurako aurpegia  
 b Azeriaren irudiko mutur  
 (93) a Buruko ile luzedunak  
 b Elurrezko esku zuridun

Mota honetakoak dira [zenbatzailea + unitate-izena + *-ko* + magnitude-izena + *-dun* + izena] duten segidak, eta magnitude-izenari lotuta doana *-dun* izan daitekeela dirudi. Edonola, *-ko* atzizkia ere erabil daiteke honelakoetan.

- (94) a 300 m<sup>2</sup>-ko azaleradun etxea / 300 m<sup>2</sup>-ko azalerako etxea  
b 22 °C-ko tenperaturadun ganbera / 22° C-ko tenperaturako ganbera

### 3.5. Laburbilpena (*-ko* / *-dun*)

a) Izen soilei *-dun* atzizkia gaineratzen zaie. Kasu bakan batzuetan baino ez da agertzen *-ko*, eta nolabaiteko lexikalizazioa jaso duten kasuak dira gainera (ikus 95c).

- (95) a pieza horzduna, DNA akastuna, denda baimenduna  
b \*hartzeko pieza, \*akatseko DNA, \*baimeneko denda  
c edadeko gizona (= edade handiko gizona)

b) Oinarria [izena + izenondoa] denean, bi atzizkiak dira onargarriak.

- (96) a ile luzeko espeziea = ile luzedun espeziea  
b etiketa gorriko lagina = etiketa gorridun lagina  
c itxura txarreko liburua = itxura txardun liburua

c) Oinarria [zenbatzailea + izena] denean, izenaren arabera batzuetan gertatzen da *-ko* zein *-dun* erabili ahal izatea eta beste batzuetan, *-ko* erabili behar da ezinbestean. *-Dun* atzizkia erabiltzeko ezintasuna, bat dator «X duena» itzulingurua egokitzeko ezintasunarekin.

- (97) bost hilabeteko kumea = bost hilabetedun kumea  
(bost hilabete dituen kumea)

Buru modura jokatzeko duen izena, abstraktua denean, eta bereziki, magnitude-izena denean, ezinezkoa da *-dun* atzizkia:

- (98) a bost segundoko iraupena = \*bost segundodun iraupena  
(\*bost segundo dituen iraupena)  
b 60 W-ko potentzia = \*60 W-dun potentzia  
(\*60 w dituen potentzia)

Ildo beretik, oso zalantzagaria da *-dun* atzizkia, atzizkiari lotuta doan izena unitate-izena denean, buru-izena edozein izanda ere.

- (99) a 8.000 metroko mendia = ?? 8.000 metrodun mendia  
b 22 °C-ko tenperatura

d) Erkaketa adierazten duten  $[-(r)en + izena]$  segidei lotuta *-ko* ager-tzen da.

(100) azeriaren irudiko mutur / \*azeriaren irudidun mutur

e) «Zenbatzailea + unitatea + magnitude-izena» motako segidak ditugunean *-dun* erabili ohi da. Edonola, *-ko* ere erabil daiteke.

(101) 20 °C-ko temperaturadun ganbera / 20 °C-ko temperaturako ganbera

Hona hemen, azkenean, *-ko* eta *-dun* atzizkien banaketaren laburpena.

Oinarria	-dun	-ko
IZENA	horzdun, akastun, fosfatodun, haurdun horzgabe, akatsgabe, fosfatogabe, *haugabe	edadeko, itxurako, hitzeko (BEREZIAK: itxura, oneko...) *horzko, *akatseko, *fosfatoko, *haurko
I. + Izond.	azal zuridun presio handidun etiketa gorridun	azal zuriko presio handiko etiketa gorriko
ZENB. + I + (Izond.)	bost urtedun (mutila) lau zangodun (ehomakina) bi hanka luzedun (animalia) fosfato ugaridun (lurzorua) UNITATE IZENAK ???8.000 metrodun (mendia) MAGNITUDE IZENEKIN *20° C-dun (tenperatura) *2.000 km-dun (sakonera) *60 atm-dun (presioa)	bost urteko (mutila) lau zangoko (ehomakina) bi hanka luzeko (animalia) fosfato ugariko (lurzorua) UNITATE IZENAK 8.000 metroko (mendia) MAGNITUDE IZENEKIN 20° C-ko (tenperatura) 2.000km-ko (sakonera) 60 atm-ko (presioa)
-REN + IZENA		afrikarren itxurako (aurpegia) azeriaren irudiko (mutur)
-KO + IZENA + Izond.	buruko ile luzedun (neska) elurrezko esku zuridun (panpina)	
Zenb. + unitate-izena + + -ko + magnitude-izena	22° C-ko temperaturadun (ganbera)	22° C-ko temperaturako (ganbera)

**7. eskema:** *-ko* eta *-dun* atzizkien banaketa

### 3.6. *-(E)zko /-dun*

Altubek (1929) bi atzizki hauen artean egiten duen bereizketa hizkuntza teknikorako garrantzitsua izan daiteke nonbait. Altuberaren arabera, (102a) adibidean adierazten dena zenbait neurtitz dituen liburua da, eta (102b) adibidean adierazten dena berriz, erabat neurtitzez osaturiko libu-

rua. Azkarate eta Altunak (1992) azpimarratu dute (102c) bezalakoak ere badirela euskaraz eta agian egokiagoak izan daitezkeela kasu askotan.

- (102) a neurtitzdun liburua
- b neurtitzezko liburua
- c neurtitz-liburua

Honelako adibideak agertzen zaizkigu hizkuntza teknikoaren hainbat esparrutan. (103a) adibidearen kasuan oso portzentaia handian karbonatoz osaturik dauden sistemak adierazten dira; (103b) adibidearen kasuan berriz, beren osagaien artean fosfatoa duten lurzoruak adierazten dira baina edonola, fosfato horiek proportzio txiki samarrean agertzen dira bestelako osagaiak ere kontuan hartuta.

- (103) a karbonatozko plataformak
- b lurzoru fosfatodunak

Hitz elkartuen bidea ere gogorarazi nahi izan digute Azkarate eta Altunak. Edonola, azpimarratu beharrekoa da bide hori egokia izan daitekeela (103a) bezalako adibideetarako baina ez (103b) bezalakoetarako.

- (103') a karbonato-plataformak
- b ??fosfato-lurzoruak

Azpimarratu beharrekoa da era berean izen elkartuek adierazten dituzten adigaiak ez direla adjektiboek edo izenlagunek adierazten dituztenak bezain gardenak, izen elkartuen bi osagaien artean dauden harreman semantikoak era askotakoak izan baitaitezke. Esate baterako (104) adibidean ageri den terminoaren esangura ez da zehazki «buztinez osaturik dauden mineralak», «buztinen antzeko osaera duten mineralak» baizik.

- (104) buztin-mineralak

### 3.7. Bestelako aukerak

Desegokiak diren hitzak sortzen ditugu askotan euskaldunok inguruko hizkuntzetako hitzak era mimetikoan kalkatuz. Horrelako kasu bat da Sarasolak (1997) salatzen duena: *lantegi baimendua* segidaren ordez, *lantegi baimenduna* esan beharko genuke. Hizkuntza teknikora itzuliz, erabat baztergarria da (105b) segida eta horren ordez, (105c) adibidekoa beharko litzateke: *-tzaile* atzizkia edozein ekintzaren subjektuari soilik lot dakioke eta beraz, *mutatzailea* mutazio bat eragiten duena da eta ez mutazio bat duena.

- (105) a cepa mutante
- b \* andui mutatzailea
- c andui mutazioduna

Bestetik, ez da ahaztu behar *-dun* eta *-ko* atzizkiak daramatzaten adjektiboen ordeztu, izenondo eratorri exozentrikoak (bahuvrīhi elkarteak) ere erabil ditzakegula.

- (106) a aurpegi-luze (= aurpegi luzeko = aurpegi luzedun)  
b gona-motz (= gona motzeko = gona motzdun)  
c ehunhosto (ehun hostoko = ehun hostodun)

Azkenik, *-dun* atzizkia baino egokiagoa da askotan erlatibo osoa daraman esapidea:

- (107) a IHESa duten gaixoak  
b ? gaixo IHESdunak

#### 4. -TAR ATZIZKIA

##### 4.1. Oinarria, esangura eta eratorrien kokapena

Atzizki honen oinarriak leku- edo gizaki-izen propioak dira nagusiki. Lehen kasuan lortzen den irakurketa, «jatorria» da eta bigarrenean berriz, «jarraitzailea».

- (108) a albaniar, andaluziar, azpeitiar, holandar,...  
b darwindar, luterotar, sabindar,...

Izen arruntei ere lotzen zaie eta lortzen diren eratorriak «jatorria» eta «zalea» esanguren artean banatzen dira. «Zalea» delako esanguran *-liar/-tiar* delako atzizkiarekiko interferentzian sartu da (Azkarate, 1991). Izan ere, *-(t)ar /-dar* eta *-liar/-tiar* atzizki bakarraren aldaeratzat hartu ditu Villasantek (1974). Azkuek (1923), Uhlenbeck (1909) eta Azkaratek (1991) ordea, bi atzizki bereizi dituzte<sup>39</sup>.

- (109) kanpotar, mundutar, goiztiar, itsastar, eskuindar, menditar, baserriar, eliztar

Honelako eratorriak, adjektibotzat hartu ditugu 1.2. azpiatalean. Edonola, hauek adierazten dutena ez da inola ere «nolakotasuna» eta beraz, nekez har daitezke tasunezko adjektibotzat. Erreferentziazko adjektiboak direla esan dezakegu. Hau dela eta, azkenaldian ugariak dira ohiko erabileratik urrun dauden *-tar* atzizkiaren bidez eratorritako adjektiboak; urruntze hau

---

<sup>39</sup> Atzizki hau mota guztietako izenei lotzen zaie eta lortzen den irakurketa da «aldekoa, jarraitzailea» edo, zenbait kasutan, «oinarriko izenak adierazten duen jatordu edo ospakizunerako gonbidatua»: *baketiari, elizatiari, erregetiari, etxetiari, goiztiari, gerotari, bazkaltari, ihestiari, ...*

bai esangurari (110a), bai oinarriaren kategoriari dagokie (110b). Izan ere, gaztelaniaren *angular*, *neperiano*, *binario* eta *decimal* bezalako izenondoek euskal ordainak emateko asmatu dira eta *-tar* atzizkiaren ohiko erabilera nabariki zabaldu dute.

- (110) a angeluar (abiadura), nepertar (logaritmo)
- b bitar (sistema), hamartar (zenbaki)

#### 4.2. Erreferentziazko adjektibo tematikoak eta sailkatzaileak

Adjektiboen artean, esana dugunez, bi sail egin ohi dira: «tasunezkoak», hots, izakien ezaugarriak edo «nolakotasuna» adierazten dutenak eta «erreferentziazkoak», hots, izakiei erreferentzia egiten dietenak. 8. oharrean ikusi dugun bezala, erreferentziazko adjektiboei buruzko literaturan bi proba sintaktiko erabili ohi dira adjektiboen erreferentziazkotasuna agerian uzteko: *izan* lotura-aditzaren bidezko predikazioa eta *-tasun* atzizkiaren bidez izen abstraktuak emateko ahalmena<sup>40</sup>:

Erreferentziazko adjektiboek ondorio okerrak eman ohi dituzte bi proba sintaktiko hauek ezartzen zaizkienean, ez baitituzte ezaugarriak adierazten. Hizkuntza teknikoan erabili ohi diren *-tar* atzizkidun izenondoek nekez onartzen dituzte proba horiek eta, lehenago esan dugunez (ikus 10. oharra), erabat erabakigarriak ez diren arren, semantikaren aldetik dugun intuizioaren alde egiten dute kasu honetan.

- (111) a sistema egonkorra
- b Sistema hau (oso) egonkorra da
- c Sistema honen egonkortasuna handia da
- (112) a bitar sistema / sistema bitarra
- b \*Sistema hau oso bitarra da
- c \*Sistema honen bitartasuna handia da

Bestetik, erreferentziazko adjektiboen artean ere, bi mota bereiz daitezke: buru modura duten izenaren argumentuak direnak batetik, «erreferentziazko adjektibo tematiko» deritzegunak alegia, eta bestetik, izena eremu batean kokatzen dutenak «erreferentziazko adjektibo sailkatzaileak» alegia. Azken hauek dira hiztegieta askotan «X-ri dagokiona» parafraasiaren bidez definitu ohi direnak.

Aztergai ditugun *-tar* atzizkidun hauek, sailkatzaileak bide dira, baina dakusagun auzia polikiago hurrengo bi azpisailetan.

---

<sup>40</sup> Adjektiboen motei buruz ikus Zabala (1997) eta erreferentziazko adjektiboen euskal ordainei buruz, Ensunza (1989), Loinaz (1995), Zabala (1997) eta España (1997).

#### 4.2.1. ERREFERENTZIAZKO ADJEKTIBO TEMATIKOAK

Erreferentziazko adjektibo tematikoak dira buru modura jokatzeko duen izenak adierazten duen ekintzaren subjektua edo objektua adierazten dutenak eta izen horrek adierazten duen izakiaren zati bat adierazten dutenak ere. Hona hemen gaztelaniaren adibide batzuk.

- (113) a transporte electrónico
- b infección vírica
- c manto terrestre

Honelakoak euskaraz beti ematen dira *-(r)en* atzizkia daramaten izenlagunen bidez edo izen elkartuen bidez.

- (113') a elektroi-garraioa /elektroien garraioa
- b birus-infekzioa
- c Lurraren mantua

Nekez eman daitezke honelakoak euskaraz *-tar* atzizkiaren bidez.

- (113'') a \*elektroiar garraioa
- b \*birustar infekzioa
- c \*lurtar mantua

Oinarrian dagoena gizaki-izen propioa denean ere, zail samarra da «egilearen» edo «jasalearen» interpretazioa. Horrela (114a) adibideko segida onargarria da baina adierazi nahi duena ez da «Darwin-ek asmatutako teoria», «Darwinen ideiei jarraituz asmatutako teoria» baizik. Era berean, «Newtonen asmatutako legeak» adierazteko, pentsaezina da (104b) adibideko segida, (114c) adibidean bezala gauzatu behar dugu izen-sintagma.

- (114) a darwindar teoria<sup>41</sup>
- b \*newtondar legeak
- c Newtonen legeak

Era berean, pentsaezina da (115a) esapidea (115b) delakoaren orde.

- (115) a \*eleiztar agindua
- b Eleizaren agindua

---

<sup>41</sup> Odriozola eta Canteroren (1992) arabera, gentilizioak ez diren *-tar* bukaerako adjektibo hauek nekez joan daitezke izenaren ezkerrean, argi eta garbi adjektiboak direlako (*?darwindar teoria* /*teoria darwindarra*). Nik neuk, ez dut ikusten *bilbotar* eta *darwindar* kategoriatan desberdinetakoak direla pentsatzeko arrazoirik eta Sarasolaren (1997) arabera literaturan ohikoena den hitz-hurrenkera hautatu dut adibide hauetarako ere. Izan ere, Sarasolak *Euskal Hiztegiaren* izenlagun kategoriatan egotzi die *hamartar* eta *bitar* sarrerei, eskainiriko adibideetan eskuinaldean azaltzen badira ere.

Leku-izen propioak ditugunean, posible da batzuetan «egilearen» interpretazioa, ez «jasalearena» ordea:

- (116) a Israelen Palestinaren aurkako erasoa
- b Palestinaren aurkako israeldar erasoa
- c \*Israelen palestinar erasoa

Zatia adierazten duten adjektiboak ere ez dira posible leku-izen propioei loturiko *-tar* atzizkiaren bidez (117a). Onargarriak dira, ordea, izakien kokapena adierazten duten adjektiboak (117b).

- (117) a \*europar mendebaldea / Europaren mendebaldea
- b europar basoak / Europako basoak

#### 4.2.2. ERREFERENTZIAZKO ADJEKTIBO SAILKATZAILEAK

Erreferentziako adjektibo sailkatzaileak dira, beraz, *-tar* atzizkiaren bidez sor ditzakegun gehienak. Izenaren eta izenondoaren artean dagoen harremana, «jatorria», «jarraitzailea» edo «zalea» edo besterik gabe «mota» izan daiteke.

- (118) a espezie europarrak (Europar aurkitzen diren espezieak)
- b teoria darwindarrak (Darwinen ideiei jarraituz eraikitako teoriak)
- c angeluar abiadura (abiadura mota)
- d gautar espezie (espezie mota)
- e bitar sistema (sistema mota)

Adjektibo hauek sailkatzaileak dira, kategorien barruan egin daitezkeen sailei izena jartzeko balio baitute.

- (119) a europar/afrikar/amerikar ... espezieak
- b darwindar / lamarck-ar /... teoriak
- c angeluar/ linear... abiadura
- d gautar espeziea / egutar espeziea ...
- e bitar sistema / hamartar sistema

#### 4.3. *-Tar* / aposizioa

Zenbait kasutan gaztelaniaz erreferentziako izenondoa erabiltzen bada ere, egokiagoa da euskaraz aposizioa edo leku-izena besterik gabe:

- (120)    Continente europeo
- a    ??Europar kontinentea
- b    Europa kontinentea
- c    Europa



(120) adibideko segida emateko nahikoa izan daiteke batzuetan besterik gabe *Europa* erabiltzea, kontinentearen adigaia azpimarratu nahi badugu, (120b) adibideko aposiziora jo dezakegu, baina inolako zentzurik ez dauka (120a) adibidean ageri denak.

#### 4.4. *-Ar* bukaera duten erreferentziazko erdal adjektiboak

Erdal adjektiboen artean oso ugariak dira *-ar* bukaera dutenak:

- (121) ciliar, foliar, molar, polar, glandular, pendular, molecular, nuclear, celular, circular, cardiovascular, muscular, particular...

Hauen artean guztiek ez dute erreferentziazko adjektibo modura jokatzeko, edo ez beti behintzat<sup>42</sup>. Bestetik, erreferentziazko adjektibo modura jokatzeko dutenean ere, askotan izenlagunen bidez edo izen elkartuen bidez konpontzen ditugu hauek euskaraz (122).

- (122) a área foliar / hosto-azalera  
b actividar glandular / guruinen jarduera  
c membrana celular / zelula-mintza

Zenbait kasutan adjektiboa mailegatu behar dugu ordea. Kasu hauetan buruan izan behar duguna da adjektiboa mailegatzeko ari garela eta hori duguna ez dela euskal *-(t)ar* atzizkia. Hortaz, badirudi adjektiboa ezin jar daitekeela izenaren ezker aldean<sup>43</sup>:

- (123) a europar espezie = espezie europar  
b \*nuklear erreaktore = erreaktore nuklear  
c \* polar aminoazido = aminoazido polar  
d \*zirkular orbita = orbita zirkular

Erreferentziazko adjektibo mailegatuak eta *-tar* atzizkidunak «dvandva» moduko izenondo elkartuetan batera ager dakizkiguke. Ikusi (124) eta

<sup>42</sup> *Circular* eta *polar* adibidez, tasunezko izenondoak ere izan daitezke.

<sup>43</sup> Ikus Odriozola eta Cantero (1992). Hitzunek joera handia dute erreferentziazko adjektiboak izenaren ezker aldean jartzeko. Behin eta berriro zuzentzen dugun joera hori deigarri samarra da gaztelania eta frantsesa bezalako hizkuntzetan honelako adjektiboak beti jartzen baitira eskuinaldean. Adjektiboen azpikategoriez hausnarketa sakonagoa egiten ari garelarik, zer pentsatua ematen digu euskararen barruan sortzen diren erreferentziazko laguntzaileak (*-tar* daramatenak) eta aspaldian mailegaturikoak (*frantses*) hain zuzen izenaren ezker aldean jarri ohi direnetakoak izatea: *lapurtar idazle, frantses porru...* Baliteke hiztunen intuizioaren azpian dagoena erreferentziazko adjektibo/tasunezko adjektibo delako azpikategorien bereizketa izatea, eta egiten duten hurrenkera hori lotuta egotea. Hori horrela balitz, gramatikariek egindako zuzenketa litzateke oker ibiliko litzatekeena eta ez hiztunen joera. Edonola, askoz ere azterketa sakonagoa beharko lukeen arazoa da hau eta beraz, utz dezagun bere horretan.

(125) kasuak oso desberdinak direla: (124) adibidean duguna, benetako «dvandvua» elkarte da; lehen osagaia *glaziar* erreferentziazko adjektibo mailegatua da eta bigarrena *itsaso* + *-tar* eratorpenaren bidez sorturiko erreferentziazko euskal adjektiboa. Osagaien artean *glaziar* izenondo mailegatua izateak zalantzarri egin lezake ezkerreko kokapena (124b); adjektibo elkartuaren beste osagaia euskarazkoa izateak aukera hau ematen digula dirudi ordea. (125) adibidean duguna berriz, ez da benetako dvandva: *-ar* atzizkiaren erroak izan daitezkeen *eusko* eta *kantauri* lotu ditugu lehen-dabizi eta ondoren *-ar* atzizkia gaineratu diegu. Edonola, izenaren ez-kerraldean zein eskuinaldean ager daiteke, *-ar* atzizkiaren bidez eratorritako euskal adjektiboa baita<sup>44</sup>.

- (124) sistema glaciomarino
  - a sistema glaziar-itsastar
  - b ??glaziar-itsastar sistema
- (125) cuenca vascocantábrica
  - a euskokantauriar arroa
  - b arro euskokantauriarra

## 5. ADJEKTIBOEN ETA IZENLAGUNEN KATEAMENDUAK

### 5.1. Izenarekiko distantzia: adjektiboak eta izenlagunak bereizteko beste irizpide bat

Aurreko ataletan ikusi dugun bezala, zail samarra da batzuetan adjektiboak eta izenlagunak bereiztea, izenaren eskuin zein ezkerraldean joan daitezkeen adjektiboak baitaude eta *-ko* atzizkiak hainbat motatako laguntzailak ematen baititu. Edozein modutan ere, *-tar* edo *-dun* atzizkietako bat daramaten adjektiboez eta tasunezko balioa duten *-ko* atzizkidun laguntzailak beti joan behar dute izenetik hurbilago, *-(r)en* atzizkia daramaten izenlagunek eta adizlagunen antzeko irakurketa duten izenlagunek baino.

- (126) a partikula baten angeluar abiadura  
/\*angeluar partikula baten abiadura
- b prezipitazioen batez besteko balioa  
/\*batez besteko prezipitazioen balioa
- c minbizidun zelularen akastun DNA  
/\* akastun minbizidun zelularen DNA
- e A geruzako kretazear materiala  
/\*kretazear A geruzako materiala

<sup>44</sup> Gaizki eratuta legoke *\*euskal-kantauriar* izenondoa, *euskal* ez baita izenondoa, izen elkartuen lehen osagai modura joka dezakeen izena baizik eta gainera ez baita *-tar* atzizkiak izan ditzakeen oinarrietakoa.

- f frogapen erraza zenbaki errealetarako  
 /\*frogapen zenbaki errealetarako erraza

Hortaz, bi geruza nagusi bereiz ditzakegu izenaren inguruan. Izenetik hurbilago egon behar duten laguntzaileen artean hauexek daude: tasunezkoak eta erreferentziazko (mailegu)ak, *-tar* eta *-dun* atzizkien bidez erazten direnak eta *-ko* atzizkiaren bidez eratzen diren tasunezko baliokoak. Hauei guztiei «adjektiboak» esango diegu. Izenetik urrunago dagoen geruzan berriz, *-(r)en* daramaten izenlagunak eta adizlagunen antzeko irakurketa duten izenlagunak ditugu.

Hona hemen mota desberdinetako adjektiboen hurrenkeraren azken gainbegirada:

izenlagunak elektroiaren entzimaren euriagatiko ardatzarekiko zenbaki errealetarako	adjektiboak		adjektiboak	izenlagunak ardatzarekiko zenbaki errealetarako
	akastun europar batez besteko ile luzeko	IZENA	akastun europar gogor handia metamorfiko	

8. eskema: Mota desberdinetako adjektiboen eta izenlagunen hurrenkera

## 5.2. Erreferentziazko eta tasunezko adjektiboen hurrenkera

«Adjektibo» deritzegun horien artean ere, hurrenkera ezin izan daiteke edonolakoa: alde batetik, «erreferentziazko adjektiboak» ditugu eta bestetik, «tasunezko adjektiboak: erreferentziazkoek hurbilago egon behar dute izenetik tasunezkoek baino. Baldintza hau, gainera, adjektiboak eskuinaldean doazenean zein ezkerrean doazenean bete behar da<sup>45</sup>:


- (127) a benetako europar espezieak  
 b \*europar benetako espezieak  
 (128) a arroka metamorfiko fosfatoduna  
 b \*arroka fosfatodun metamorfikoa

<sup>45</sup> Hurrenkera hau da hain zuzen Bosque eta Picallo-k (1996) gaztelania eta ingelesa bezalako hizkuntzetarako ere auresan dutena. Gaztelaniak adjektiboak izenaren eskuinean kokatzen ditu eta ingelesak berriz, ezkerrean. Hortaz, hizkuntza baten hurrenkera bestearen ispilurudia da. Euskararen kasuan, izenaren eskuinean eta ezkerrean doazen adjektiboak ditugu eta gaztelaniaz eta ingelesez ditugun kasuak batera aurkitzen ditugu hizkuntza bakarrean.

- (i) a una **comedia** musical divertida  
 b \*una **comedia** divertida musical  
 (ii) a an amusing musical **comedy**  
 b \*a musical amusing **comedy**

- (129) a arroka metamorfiko gogorra  
 b \*arroka gogor metamorfikoa
- (130) a fosfatodun kretazear arroka  
 b arroka kretazear fosfatoduna  
 c kretazear arroka fosfatoduna  
 d fosfatodun arroka kretazearra  
 e \*kretazear fosfatodun arroka  
 f \*arroka fosfatodun kretazearra

Hona hemen mota desberdinetako adjektiboen hurrenkeraren eske-  
 ma:



**9. eskema:** Mota desberdinetako adjektiboen hurrenkera

Laburbilduz, adjektiboek izenlagunek baino hurbilago egon behar dute izenetik eta erreferentziako adjektiboek tasunezko adjektiboek baino hurbilago.



**10. eskema:** Orain arte adjektiboen eta izenlagunen hurrenkerari buruz esandakoaren laburbilpena


### 5.3. Izenlagunen hurrenkera

#### 5.3.1. HURRENKERA SEMANTIKAK ERABAKITZEN DUENEAN

Euskara, informazio zientifikoa transmititzeko erabili ohi diren hizkuntzen aurkakoa da tipologiaren ikuspegitik: ingelesak eta latinetiko hizkuntzek sintagmen gunea hasieran daramate eta euskarak berriz, bukaeran. Hortaz, euskaldun gehienok buruan dugun araua dateke halako hizkuntzetako izen-sintagmak itzuli behar ditugunean jatorrizko hizkuntzaren aurkako ordena gauzatu beharra.

- (131) Composición de la membrana de la célula  
           1                  2                  3  
 (131') Zelularen mintzaren osiera  
           3                  2                  1  
 (132) Dispersión bajo el efecto de la interacción de Coulomb  
           1                  2                  3                  4  
 (132') Coulomb-en elkarrekintzaren eraginpeko sakabanatzea  
           4                  3                  2                  1

Hona hemen izenlagunen arteko harremanaren irudi bat.



### 5.3.2. HURRENKERA SINTAXIAK ERABAKITZEN DUENEAN

Aurreko estrategiak ondorio egokietara eramaten gaitu izenlagun bakoitzak eskuinaldean duen izenlaguna laguntzen duenean, baina ez da inola ere baliagarria izen berak hainbat izenlagun edota adjektibo dituenen (134) adibidean, esate baterako, bai *tenperaturaren* bai *batez besteko* adjektiboak *balio* izenari dagozkio (*tenperaturaren balioa*, *batez besteko balioa*).

- (134) *Temperaturaren batez besteko balioa*

Kasu hau sarritan gertatzen da aditzetatik eratorritako izenak ditugunean: ikusi (135') ez dela (135) segidaren alderantzizkoa.

- (135) Gasificación del carbón por medio del agua  
           1                  2                  3  
 (135') Ikatzaren uraren bidezko gasifikazioa  
           2                  3                  1

Bi izenlagun daramatzen izen bat badugu, izenlagun horietako bat *-(r)en* dutenetakoa eta bestea *-ko* dutenetakoa izanda, izenetik hurbilen egon behar duena *-ko* daramana da eta *-(r)en* daramana, urrunago (ezkerralderago) geldituko da (Eguzkitza, 1993)<sup>46</sup>. Azpimarratu beharrekoa da, *-(r)en* dara-

<sup>46</sup> Edonola, *-(r)en* daramaten izenlagunen artean hainbat motatakoak daudela ikusi dugu 2.3.2. azpiatalean. Segida batean «jabegoa», «egilea» eta «objektua» baditugu, hurrenkera horretan agertuko zaizkigu (Eguzkitza, 1993). Hona hemen Eguzkitzaren adibidea:

- (i) Monzon-en Leizarragaren bibliaren itzulpena.  
       «jabea»       «egilea»       «objektua»

(i) adibideak esan nahi duena da Leizarragak biblia itzuli zuela eta Monzon-ek baduela itzulpen hori.

maten izenlagunak «izenlagun tematikoak» direla eta *-ko* daramatenak berriz, izenlagun sailkatzaileak<sup>47</sup>; segida hauetan agertzen zaizkigunak balio adberbialekoak izaten dira gainera<sup>48</sup>.

Edonola, azpimarratu beharrekoa da *-ko* daramaten laguntzaileen artean ere, bi mota bereizi behar ditugula: alde batetik, badira tasunezko adjekti-

Irudi-izenak ditugunean, ez da pentsaezina lau laguntzaile ere izatea. Esate baterako, (ii) adibideak esan nahi duena da Peruk Mariari argazki bat egin ziola igerilekuan eta amak baduela argazki hori.

- (ii) Amaren Peruren Mariaren igerilekuko argazkia  
 «jabea» «egilea» «objektua»      «irudi-izena»

Hizkuntzak sortzeko aukera ematen badigu ere, deskodifikazioaren aldetik zailak eta anbiguoak izaten dira honelakoak eta, hizkuntza teknikoan behintzat, ez dira oso gomendagarriak. Ikus 6.3. azpiatala.

<sup>47</sup> Bosque eta Picallo-k (1996) gaztelania eta ingelesa bezalako hizkuntzetarako ere antzeko ondorioa heldu dira: erreferentziatzko izenondo sailkatzaileek hurbilago egon behar dute izenetik tematikoei baino.

- (i) a unos **residuos** atómicos soviéticos  
 b \*unos **residuos** soviéticos atómicos  
 (ii) a some Soviet atomic **residues**  
 b \*some atomic Soviet **residues**

<sup>48</sup> *-ko* daramaten izenlagun batzuek (135) adibidekoen desberdina den jokaera dutela dirudi. Ikusi Xabier Artiagoitiak eskaini dizkidan zenbait adibide:

- (i) Espaniako [zaramaren maitaleak]  
 (ii) Bilboko Museoko [margo japoniarren erakusketa]  
 (iii) Nevadako [euskal literaturaren aztertzaileak]

Kasu honetan *-ko* daraman izenlagunaren funtzioa kokapen hutsekoa da eta 46. oharrean aipatu ditugun eta «jabegoa» adierazten duten *-(r)en* izenlagunek bezala, izen-sintagmaren geruzarik kanpokoenean egon behar dutela dirudi. Ikusi (iv)ko adibidean *egongelako* izenlagunak Mirenen argazkia non dagoen esaten digula; *igerilekuko* izenlagunak berriz, argazkia non egin zen adieraziko liguke eta beraz, balio adberbialekoa litzateke; Peru, azkenik, argazkia egin zuena da, hots, izenlagun tematikoa.

- (iv) Egongelako Peruren Mirenen igerilekuko argazkia


Jabea eta kokapena konbinatuz gero, berriro ere «jabea» kanpokoagoa behar dela dirudi.

- (iii) a Amaren egongelako argazkia.  
 «jabea» «kokapena»  
 b \*Egongelako amaren argazkia  
 «kokapena» «jabea»

Hortaz, 11. eskema are zabalagoa izan liteke:

«jabegoa» adierazten duten -ren izenlagunak	«kokapena» adierazten duten -ko izenlagunak	izenlagun tematikoak -ren «egilea»-«objektua»	izenlagun sailkatzaileak balio adberbialekoak	IZENA
---	---	--	---	-------

Edonola, azken geruza hauek ez dira agertzen eskuarki euskara teknikoan eta horregatik azaldu ditugu ohar honetan.




**11. eskema:** Izenlagunen hurrenkera

boen artean sartu ditugunak (*batez besteko, benetako, ohiko, oinarritzko, egiazko, derrigorrezko...*) eta bestetik, adizlagunen antzeko balio adberbiala izanik izenlagun sailkatzaileen artean sartu ditugunak (*Bilborako, euriagatiko, uraren bidezko,...*). Horrelako bi laguntzaile izen-sintagma berean ditugunean, jakina, izenetik hurbilen egon behar duena tasunezko balioa duena da, 5.1. azpiatalean eman ditugun irizpideen arabera adjektibo baina.

- (136) a Temperaturaren urtaroaren arabera batez besteko balioa  
 b \*Temperaturaren batez besteko urtaroaren arabera balioa

Hurrengo eskeman adierazi den hitz-hurrenkera izango genuke orduan:



**5.4. Modifikatzaileen artean erlatiboetako perpausak daudenean**

Izenaren laguntzaileen artean erlatiboetako perpaus bat dagoenean, horixe da izenetik urrunen (ezkerraldean) egon behar duena. Honek jokaturiko zein jokatu gabeko erlatiboetarako balio du.



- (138) a [Euriteen ondorioz gertatu den] ibai-isuri**en** handitzea  
 b [Euriteen ondorioz gertaturiko] ibai-isuri**en** handitzea

Erlatibo hauek *euriteengatiko* izenlagunaren esangura bera dute, baina hurrenkera erabakitzen duena aukeratu dugun sintaxi-baliabidea da eta ez semantika —erkatu (138) eta (139) adibideak—. Izan ere, (138) adibideetako erlatiboak (139) adibideko *euriteengatiko* izenlagunaren itzulingu-

ruak izan litezke, baina izenetik urrunago egon behar dute izenlagunak baino.

- (139) a Ibai-isurien euriteengatiko handitzea  
 b \*Euriteengatiko ibai-isurien handitzea

Hortaz, ondokoaren antzeko hurrenkera izango dugu erlatibozko perpausak ditugunean.



12. eskema: Izena lagun dezaketen laguntzaile guztien hurrenkera

### 5.5. Izen baten bidez adierazten den ekintza edo gertaera espazioan kokatu behar dugunean

-Ko atzizkia daramaten izenlagun guztiek laguntzen duten izenaren berezko ezaugarriak adierazten dituztela dirudi. Hala ere, ISaren gunea aditz batetik eratorritako izena denean, izenaren eta izenlagunaren arteko harremana adizlagunaren eta aditzaren artean zegoena baino antzekoagoa izan beharko lukeela dirudi. Kasu honetan, ez dirudi -ko atzizkia bertan dagoen leku-harremana adierazteko nahikoa denik:

- (141) Uhinak hutsean hedatzen dira  
 (142) a ??Uhinen hutseko hedapena

Kasu honetan adizlagunetatik eratorritako gainerako izenlagunen analogikoa den arau bat (143) erabili izan da inoiz hizkuntza teknikoan (142b):

- (143) -gatik + -ko → -gatiko  
 -rekin + -ko → -rekiko  
 -tik + -ko → -tiko  
 ...  
 -an + -ko → -ango  
 (142) b ??Uhinen hutseango hedapena



Euskara teknikoan askotan erabili izan da formula hau, baina gramatikariek ez dute inoiz ere begi onez ikusi, atzizki zaharkitua baita. Konponketa *zihar* delakoaren antzeko izen-postposizioak erabiltzetik etor liteke, (142) bezalako kasuetan.

(142) c Uhinen hutsean *ziharreko* hedapena

Izen-sintagma unitate zabalago batean txertatu behar ez dugunean, leku-laguntzailea adizlagun modura gauzatzeko aukera ere badugu eta izan ere, hauxe izaten da konponketarik garbiena eta naturalena, aditzik ez duten sintaxi-testuinguruetan behintzat:

(142') a Uhinen hedapena *hutsean*  
b Uhinen hedapena *hutsean zihar*

Badira anbiguoak izan daitezkeen adibideak. Ikusi, esate baterako, (144) adibideko a eta b aldaerek esangura desberdina dutela: lehenengoak esan nahi duena da uretan dagoen kutsadura organikoa ebaluatuko dugula eta bigarrenak berriz, ebaluazio hori uretan bertan egingo dugula eta ez adibidez, ura lurrundu ondoren.

(144) a Uretako kutsadura organikoaren ebaluazioa  
b Kutsadura organikoaren ebaluazioa uretan

(144b) izen-sintagma perpaus baten barruan bagenu, ezinbestekoa izan liteke *ebaluazioa* laguntzen duen *uretan* hori adizlagun modura gauzatzea. Ikus dezagun zein diren aukerak:

(145) a ??[kutsadura organikoaren ebaluazioak uretan] arazoak dakartza  
b ??[Kutsadura organikoaren uretako ebaluazioak] arazoak dakartza  
c ??[Kutsadura organikoaren uretango ebaluazioak] arazoak dakartza  
d [Kutsadura organikoaren ur barruko ebaluazioak] arazoak dakartza

## 6. IZEN-SINTAGMA GABE PERPAUSA ERABILI BEHAR DUGUNEAN

### 6.1. Izenlagunak lagundu nahi dugun izenerako egokiak ez direnean

Batzuetan, egoera bat adierazi nahi dugunean bereziki, nominalizazioa beste modu batera egiten da: aditzak izen (eratorri) bat eman beharrean, ezabatu egiten da. Orduan leku-laguntzaileak horrelako laguntzailerik onartzen ez duen izen (konkretu) bati laguntzen dio, eta ondorio ezegokiak lortzen dira. Hauxe da euskaraz nominalizazioak duen lehen muga. Kasu honetan hobe da erlatiboazko perpausa erabiltzea.

- (146) a Argipean dauden kloroplastoak
- b ? Argipeko kloroplastoak
- (147) a Hautespen-presiopean dauden aleloak
- b ? Hautespen-presiopeko aleloak

Era berean, (148b) ez da egokia, izenlagunak izen konkretu bat eta ez ekintza- edo ondorio-izen bat laguntzen duelako. (148c) berriz, guztiz ondo eratuta dago *mugimendu* ekintza-izena delako.

- (148) a [Materian zehar mugitzen ari den] elektroia
- b \* Materian zeharreko elektroia
- c Materian zeharreko mugimendua

Izen-sintagma konplexuagoa den beste IS baten barruan badago, eta horrek ekintza-izen bat badu, posible izan daiteke leku-laguntzailea horri egokitzea (149b).

- (149) a [Materian zehar mugitzen ari den] elektroiaren energi galera
- b Elektroiaren materian zeharreko energi galera

Konponketa txarragoa dute, leku-esangura ez izateagatik leku-postposizio baten laguntza hartzea onartzen ez digutenak.

- (150) Disolución de 4 mg de soluto en un litro de disolvente
- (150') a 4 mg soluturen disoluzioa litro bat disolbatzailean
- b ?? 4 mg soluturen litro bat disolbatzaileango disoluzioa

## 6.2. Nominalizazioa edo adjektibazioa nekez onartzen duten testuinguruak

*Existentzia, agerpena, presentzia,eza* edo *kokapena* bezalako izenek nekez onartzen dute leku-laguntzailerik. Kasu hauetan hobe da izen abstraktuaren ordez kasuan kasu aditza edo aditzondoa erabiltzea.

- (151) La existencia de vida en otros planetas
- (151') a \*Biziaren beste planeta batzuetako existentzia
- b Biziaren existentzia beste planeta batzuetan
- c Beste planeta batzuetan bizia egotea
- (152) La ausencia de problemas en el planteamiento
- (152') a \*Arazoen planteiamenduango eza
- b \*Arazorik eza planteiamenduan
- c Planteiamenduan arazorik ez egotea
- (153) En la proximidad de un foco de luz
- (153') a \*Argi-foku baten hurbiltasunean
- b Argi-foku batetik hurbil

Antzeko zerbait gertatzen da *-garri* duten izenondoekin, honelakoek euskaraz nekez onartzen baitute laguntzailerik:

- (154) Esta ecuación no es directamente aplicable para todos los casos
- (154') a \*Ekuazio hau ez da zuzenean aplikagarria kasu guztietarako
- b Ekuazio hau ezin aplika daiteke zuzenean kasu guztietan

### 6.3. Ekintzaren subjektua eta objektua adierazi nahi ditugunean

Ekintza-izenekin posible da ekintzaren objektua edo subjektua *-(r)en* atzizkia daraman izenlagun modura eratzea.

- (155) a Ingurunearen ustiapena
- b Bizidunen ekintza

Izen-sintagma bakarrean bai subjektua eta bai objektua adierazi nahi ditugunean, sortzen zaigun segida gramatikala da (Eguzkitza, 1993; Goenaga, 1991) baina zailtasunak ditu ulerkuntzaren aldetik. Hobe dugu, testuinguruaren arabera, subjektua erlatiboazko perpaus modura gauzatzea edo IS osoa perpaus modura eraikitzea.

- (156) La explotación del medio por los seres vivos
- (156') a #Bizidunen ingurunearen ustiapena
- b Bizidunek egiten duten ingurunearen ustiapena
- c Bizidunek ingurunea ustiatzea

Bistan da b eta c aukerak ez direla baliokideak eta testuinguruaren arabera bata ala bestea aukeratu beharko dugula. Are anbiguoagoak dira «egile» eta «objektuaz» gain «jabea» edo «kokapena» ere adierazten duten segidak (gogoratu 46 eta 48. oharretakoak) eta ez dira inola ere gomendagarriak hizkuntza teknikorako. Anbiguitatea erabat desegiten da laguntzaile batzuk erlatiboazko perpaus modura gauzatuz.

- (157) a #Houston Hegaldi Espazioletarako Zentruko astronauten Lurraren ilargitiko argazkiak
- b Houston Hegaldi Espazioletarako Zentruan dauden astronautek ilargitik egindako lurraren argazkiak

## 7. BIBLIOGRAFIA

- ALTUBE, S. (1929). *Erderismos* (1975). Indauchu Editorial. Bilbo.
- ARTIAGOITIA, X. (1998). «Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia Euskal Gramatikan». *Uztaro* 27.
- AZKARATE, M. (1991). *Irakaskuntza Proiektua*. Argitaratu gabea.

- AZKARATE, M. eta ALTUNA, P. (1992). «-Kol-dun atzizkiez». *Euskaltzaindia* (1983) *Iker-6: Luis Villasanteri omenaldia*: 91-112. Bilbo.
- AZKUE, R.M. (1923). *Morfología Vasca*. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo, 1969.
- BOSQUE, I. (1993). «Sobre las diferencias entre los adjetivos relacionales y los calificativos». *Revista Argentina de Lingüística* 9: 9-48.
- BOSQUE, I. eta PICALLO, C. (1996). «Postnominal adjectives in Spanish DPs». *Journal of Linguistics* 32: 349-385.
- BOSTAK BAT (1996). *3000 Hiztegia. euskara-gaztelania/gaztelania-euskara*. Bilbo.
- EGUZKITZA, A. (1993). «Adnominals in the Grammar of Basque». José Ignacio HUALDE eta Jon Ortiz DE URBINA ed. *Generative Studies in Basque Linguistics*: 163-187. Amsterdam: John Benjamins Publishing Company.
- ELHUYAR-ELKAR (1994). *Euskal Hiztegi Modernoa*. Donostia.
- ENSUNZA, M. (1989). «Erdal adjektibo erreferentzialetarako euskal ordainak». *Euskera* 1989 (2): 577-596.
- ENSUNZA, M. (1997). «Doppler efektua eta Ohm-en legea. Aposizioa vs. genitiboa fisikaren terminologian». *Nazioarteko Terminologia Biltzarreko aktak*: 763-769.
- ESPAÑA, E. (1997). «Gaztelaniazko adjektibo erreferentzialen euskal ordainak eta erabilera». *Nazioarteko Terminologia Biltzarreko aktak*: 349-370.
- EUSKALTZAINDIA (1985). *Euskal Gramatika Lehen urratsak I*. Iruñea.
- EUSKALTZAINDIA (1987). *Euskal Gramatika Lehen urratsak I (eranskina)*. Iruñea.
- EUSKALTZAINDIA (1991). *Euskaltzaindiaren Euskara Batuko Batzordearen eztabaidagaiak*. Argitaratu gabeak.
- EUSKALTZAINDIA (1993). *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (1994). «Benetako, ohiko». *Euskaltzaindiaren arauak* (19. araua): 117.
- EUSKALTZAINDIA (1995). «Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia». *Euskaltzaindiaren arauak* (34. araua): 177-180.
- GOENAGA, P. (1980). *Gramatika bideetan*. Erein. Donostia.
- GOENAGA, P. (1981). «Ohizko euskal sintaxia eta sintaxi berria». *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*. Euskal Herria-4: 139-161. Universidad de Deusto. Bilbo.
- GOENAGA, P. (1991). «Izen sintagmaren egituraz» Joseba LAKARRA eta Iñigo RUIZ ARZALLUZ ed. *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum* ASJUren gehigarriak: 847-865.
- LAFITTE, P. (1944). *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. 3. argt. Elkar. Donostia.
- LAFON, R. (1965). «Les deux génitifs en basque». *Bulletin de la Société Linguistique* 60: 131-159.
- LHANDE, P. (1926). *Dictionnaire Basque-Français*. Gabriel Beauchesne. Paris.
- LOINAZ, M. (1995). «Adjektibo erreferentzialen erabilera». *Berba* 16.
- MAKAZAGA, J.M. (1999). -Kiko atzizki konposatuaz. Juan Carlos ODRIOZOLA ed. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- MITXELENA, K. (1972a). «Etimología y Transformación». *Homenaje a Antonio Tovar*. Gredos. Madrid.
- MITXELENA, K. (1972b). *Zenbait hitzaldi*. Etor. Bilbo.
- MITXELENA, K. (1986). «Eratorbidea eta deklinabidea». *Euskera* 31 (2): 535-544.
- ODRIOZOLA, J.C. eta ZABALA, I. (1992). *Izen-sintagma*. Idazkera Teknikoa. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- ODRIOZOLA, J.C. eta CANTERO, A. (1992). «Euskal izenondoaren kokapenari buruzko zenbait ohar». *Euskera* 37 (2): 1035-1048.

- ODRIOZOLA, J.C. (1999). «Postposizio-izenak» (eskuizkribua).
- RIJK DE, R.P.G. (1988). «Basque syntax and Universal Grammar». *Euskara Biltzarra I*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia: 69-88.
- RIJK DE, R.P.G. (1993). «Basque Hospitality and the Suffix *-ko*». José Ignacio HUALDE & Jon ORTIZ DE URBINA eds. *Generative Studies in Basque Linguistics* John Benjamins Publishing Company: 145-162.
- SARASOLA, I. (1997). *Euskara batuaren ajeak*: 88-89. Alberdania. Zarautz.
- SARASOLA, I. (1996). *Euskal Hiztegia*. Donostia.
- TRASK, R.L. (1985). «*-ko* atzizkia euskaraz». *Euskera XXX*: 165-173.
- UHLENBECK, C. (1909). «Suffixes du Basque servant à la connaissance de la formation des mots en Basque». *Riev. III*.
- VILLASANTE, L. (1974). *Palabras vascas compuestas y derivadas*. Oñate, Editorial Franciscana. Aránzazu.
- VILLASANTE, L. (1978). *Estudios de sintaxis vasca* Oñate, Editorial Franciscana. Aránzazu.
- WILBUR, T. (1979). *Prolegomena to a Grammar of Basque*. John Benjamins B.V. Amsterdam.
- ZABALA, I. (1996). *La traducción al vasco de los sintagmas nominales complejos del lenguaje técnico*. Actes del III Congrès Internacional sobre Traducció, UAB: 589-603.
- ZABALA, I. (1997). «Argumentu-harremana/ eremu-harremana: izenondo erreferentzialen euskal ordainen bila». *Nazioarteko Terminologia Biltzarreko aktak*: 535-556.
- ZABALA, I. eta ODRIOZOLA, J.C. (1994). «Adjektiboen eta adberbioen arteko muga zehatzik eza». *ASJU XXVIII-2*:525-541.



# Zehaztasuna eta gardentasuna


*Igone Zabala*

Euskal Herriko Unibertsitatea. Zientzia Fakultatea


## 1. ZEHAZTASUNA: HIZKUNTZA TEKNIKOAREN BEREIZGARRIA

Hizkuntzaren helburu tekniko-zientifikoetarako erabileraren ezaugarririk azpimarragarriena da erabiliriko hizkuntzak zehatza izan behar duela. Ezaugarri hori beste guztiak baino askoz ere aipatuagoa ere bada; izan ere, zehaztasuna erabiltzen da behin eta berriro, argudio gisa, hizkuntza teknikorako hitz edo termino batzuk hartzeko eta beste batzuk baztertzeko orduan. Ez dirudi, ordea, zehaztasunaren kontzeptu edo adigai hori beti behar bezain era egokian erabiltzen dugunik.

Termino bat edo esapide bat zehatza dela esaten dugunean esan nahi duguna da termino hori adigai bakarra adierazteko erabiltzen dela. Hau da, zehaztasunak adierazten duena da etiketa baten eta adigai baten arteko harreman biunibokoa dagoela.



Adigai bat adierazteko etiketa bat baino gehiago dugunean, *sinonimia* dugula esaten dugu eta etiketa beraren bidez adigai bat baino gehiago adierazten ditugunean suertatzen den egoerari, *polisemia* esaten zaio. Kasu bietan esan dezakegu zehaztasunik eza edota anbiguotasuna dugula.



Edonola, azpimarratu beharrekoa da zehaztasunak zerikusia duela etiketen eta adigaien arteko loturarekin eta ez etiketa horien itxura edo egiturarekin. Lan honetan, hain zuzen, zehaztasunean oinarrituriko arrazoiak erabili ohi diren zenbait kasu aztertu nahi ditut, huts egiten duten arrazonomenduarien argudioak agerian jartzeko asmotan. Izan ere, esparru tekniko-zientifiko bakoitzaren adituek bereiz ditzakete beste inork baino hobeto beren esparruko adigaiak eta ildo beretik, aditu horiek dira beren esparruan beharrezkoak diren etiketak edo terminoak zein diren inork baino hobeto jakin dezaketenak. Hala ere, adigaiak termino bati lotuta ikasi izanak zail samar egiten du batzuetan euskara bezalako hizkuntza baten baliabideek merezi duten aukera-berdintasuna, eta zehaztasunaren izenean, maileguen alde egiten dugu, askotan, euskal baliabideak beste hizkuntzetakoak bezain zehatzak eta batzuetan zehatzagoak ere izan daitezkeela kontuan hartu gabe.

Sarrera honetatik bertatik oso garbi utzi nahi dut, ordea, ez dudala aritu nahi aztertuko ditudan terminoak, definizioak, arrazonomendu-ildoak eta termino jakinei buruzko iritziak plazaratu dituzten hiztunen, zientzialari, hizkuntzalari edo erakundeen aurka. Alderantziz, adibide horiek lan honetarako aukeratu izanaren arrazoia da esangarritzat jo ditudala euskaldunon komunitate osoan hedatuta dauden joerak agerian uzteko, aztertzeko eta posible bada, zuzentzen saiatzeko. Hizkuntzalaritzan, zientzian bezala, aurrera egiteko modu bakarra da besteen ekarpenak aintzakotzat hartzea eta besteen lanetan ikusten ditugun puntu ahulei edo konpondu gabeko puntuei irtenbidea ematen saiatzea. Hortaz, zenbait lan edo iritzi kritikatu-ko badituzte ere, horrek ez du inola ere esan nahi baztertzeko modukotzat jotzen ditudanik; alderantziz, oso eskertzekoak jotzen dituzte iritzi eta proposamen horiek, euskaldunen hizkuntz ahalmena eta hizkuntzaren sistema bera ezagutzeko lagungarriak eta ezinbestekoak baitira.

Lehen atalean, hizkuntza arrunteko hitzen eta terminoen arteko bereizkuntzaz arituko naiz eta ildo horretatik, hizkuntza guztietan termino asko eta asko hizkuntza arruntetik harturiko hitzak direla agerian jartzen saiatuko naiz. Bigarren atalean, termino askok osagai bat, hots, hitz bat baino



gehiago dutela eta zehaztasunaz ari garenean terminoa bere osotasunean hartu behar dugula azpimarratuko dut. Hirugarren atalean, jarrera maileguzaleek eta garbizaleek<sup>1</sup> zehaztasunarekiko harreman zuzenik ez dutela agerian uzten saiaturko naiz. Laugarren atala, hitz elkartuen idaztaraueti eskainiko diet, marratxoak zehaztasunari mesede handia egiten dion kasuak eta alde horretatik inolako eginkizunik ez duen kasuak bereizteko asmotan. Bosgarren atalean, eratorpena izango dut hizpide, inoiz erabili izan den atzizki zehatzen eta ez-zehatzen arteko bereizkuntzak inolako zentzurik ez duela agerian uzteko asmotan. Seigarren atalean, erreferentziazko erdal adjektiboen euskal ordainen gai korapilatsuari begiratu azkarra botako diot zehaztasunaren ikuspuntutik. Azkenik, zazpigarren atalean testu mailari aipamen laburra egingo diot, ez baitugu ahaztu behar terminoak testuen barruan erabiltzen direla eta zehaztasunaren auzia azken batean maila honetan erabakitzen dela.

## 2. HITZAK POLISEMIKOAK DIRA ETA TERMINOEK ALDIZ, MONOSEMIKOAK IZAN BEHARKO LUKETE

Edozein hizkuntzaren hitz gehienek hainbat adiera dituzte. Kasu bakoitzean hitz batek duen esangura testuingurutik ondorioztatzen dugu neurri handian. Har dezagun, esate baterako, erabat polisemikoa den *azal* hitza eta ikus ditzagun Sarasolak (1996) *Euskal Hiztegia*n bereizi dituen adierak:

- (1) **azal** *iz.* (1562). **1.** Zuhaitz eta zuhaixken enbor eta adarren kanpoko estalkia...//fruituak eta kidekoak estaltzen dituen, berzk. gogorra ez denean...//Gizonaren gorputza estaltzen duena...//Liburu baten gaineko eta azpiko orriak, gehienetan barrukoak baino gogorragoak direnak... **2.** (~1760). Zerbaiten gaineko eta kanpoko aldea...**3.** *izond.* (1896). Azalekoa, sakontasun gutxikoa...

Ikus daitekeenez, *azal* hitza erabat polisemikoa da hizkuntza arruntean. Hala eta guztiz ere, testuinguru jakin batean erabilia, beti asmatzen dugu zertaz ari garen hitz hori agertzen zaigun bakoitzean. Hainbat adiera dituen hitz hori ez zaigu inola ere anbiguo gertatzen (3) sortako adibideetan erabiltzen dugunean:

- (3) a Sagar bat hartu eta azala kentzen hasi zen  
 b Eguzkitan ordu bete egon ondoren azala gorritzen hasi zitzaion  
 c Liburua hartu eta azalean ageri zen irudiari begira geratu zen  
 d Hori arazoaren azala baino ez da

---

<sup>1</sup> Jarrerei buruz hitz egin nahi dut eta ez pertsoneri buruz, guztioi gertatzen baitzaigu hitz batzuen aurrean jarrera maileguzalea izatea eta beste batzuen aurrean aldiz, jarrera garbizalea-  
 goa azaltzea.

Hizkuntza arrunteko hitzak ezinbestean erabili behar izaten ditugu testu teknikoetan eta hala ere, testu horiek ez dute anbiguoak izan beharrik. Hizkuntza orokorreko hitz horien erabilera hizkuntza arruntekoa bezalako denean, ez gaude termino baten aurrean. Hitzei termino izaera ematen diena da esparru tekniko-zientifiko batean edo bestelako esparru berezitu batean esparru horrek duen adigai jakin bat adierazteko erabiltzea. Esate baterako, *azal* eta *azalera* hitzak esparru tekniko-zientifiko gehienetan erabil ditzakegu baina *azal* hitz arrunta den bitartean, *azalera* eta *gainazal* terminotzat hartu behar ditugu: *azal* hitzak hizkuntza arruntean duen esangura bera du hizkuntza tekniko-zientifikoan erabiltzen dugunean (4a) baina *azalera* edota *gainazal* hizkuntzaren helburu berezietarako erabileretan baino ez zaizkigu agertuko (4b), zehazkiago, bi norabideko zerbaiten abstrakzioa edo neurria adierazi nahi dugunean<sup>2</sup>.

- (4) a Arrokak lurraren *azalaren* eta egiazko metamorfismoa gertatzen den sakoneraren bitartean hainbat eraldaketa jasaten ditu
- b Arroka baten *azalera*-unitateko *gainazalean* aritzen den modulu berreko eta aurkako norantzako indar-pareari esfortzu deritzo

*Azalera* eta *gainazal* terminoak dira esparru berezituetan sorturiko beharretarako asmatu direlako eta ez direlako hizkuntza orokorraren hitzak, esparru berezitu (eta ez horren berezitu) gehienetan erabiltzen badira ere. Bestetik, zehatzak dira adigai bana adierazten dutelako. *Azal* hitza ez da terminoa baina zehatza da txertaturik dagoen testua egokia eta zentzuzkoa bada behintzat.

Edonola, askotan terminoak ez ditugu asmatzen adigai berezitu baterako etiketa bilatu behar dugunean; askotan, hizkuntza arrunteko hitzak hartzen ditugu eta adigai berezitu bat adierazteko erabiltzea da termino bihurtzen dituen. Hor ditugu adibidez *indar*, *ardatz*, *toles*, *bidezidor* ... bezalako hitzak. Hitz arruntak dira hizkuntza arruntean (5) baina termino izaera ere badute fisika, matematika, biologia edo geologia bezalako esparru tekniko-zientifikoetan erabiltzen ditugunean. Mota honetako prozedurak hizkuntza guztietan erabili dira zientziaren historian zehar (ikus Gutiérrez Rodilla, 1998)<sup>3</sup>.

---

<sup>2</sup> Hitz hauen banaketaren inguruan ikus Zabala (1998).

<sup>3</sup> Oso interesgarria da Gutiérrez Rodilla-k (1998) zientziaren historiari loturik egiten duen zientziaren hizkuntzaren historia. Zientziaren jatorria Grezian dago eta hortaz, greziera izan zen zientzian erabili zen lehen hizkuntza: termino bihurtu ziren hitzak greziera arruntetik hartu zituzten eta beste asko eta asko sortu zituzten hizkuntzaren baliabideak erabiliz. Erromatarrek Grezia menderatu zutenean, haren zientzia ere bereganatu zuten eta hasiera batean zientziaz aritzeko greziera erabili bazuten ere, aurreago latinez idatzi zituzten testu zientifikoak, hasiera batean teknizismo gehienak grezieratik mailegatuz baina aurrerago, latinetik ateratako terminoak sartuz joan ziren. Hitz berriak sortu ez ezik, erromatarrek adiera berriak gaineratu zituzten latinak jadanik zituen hitzei. Azkenean, latina zientziaren hizkuntza bihurtu zen, Berpiz-

- (5) a Mutiko honek *indar* handia du
- b Gurdi-*ardatz*aren hotsa entzun dut
- c *Ardatz*az iruten zituzten oihal eder hauek
- d Zapian hiru *toles* egin zituen
- e Erantzun ezazu zuzen eta *tolesik* gabe
- (6) a *Indarra* magnitude fisikoa da
- b Bi *ardatz* optiko eta hiru errefrakzio-indize nagusi dituen kristalari biaxiko deritzo
- c Ezkata tektonikoak fosarantz bergenteak diren *toles* konplexudun sedimentu-multzoak dira

Badira hainbat esparrutan erabiltzen diren terminoak, esparru bakoitzean esangura desberdina dutenak. Edonola, honek ez die zehaztasuna kentzen termino horiei, testu tekniko-zientifikoak esparru jakin batean kokaturik idazten eta irakurtzen baitira eta beraz, esparru bakoitzaren barruan zehatzak baitira. Ikus adibidez *foku* hitzak izan ditzakeen erabilerak<sup>4</sup>: Optikari buruzko testu batean, esate baterako, inori ez zaio bururatuko *foku* hitza ikusten duenean, infekzio baten edo sismo baten fokuz ari garenik pentsatzea.

- (7) **foku**: iz. **1.** Argi zuzen eta indartsua igortzen duen lanpara **2.** FIS. Jatorriz paraleloak diren izpiak islapenaren edo errefrakzioaren ondoren elkartzen diren puntua. **3.** MAT. Zuzen batekiko erlazioan (zuzentzailearekiko), koniken definizio geometrikoa egitea ahalbidetzen duen puntu finkoa. **4.** MED. Gaixotasun baten gunea den organismoaren leku edo aldea: *infekzio-fokua*.....**5.** ...GEOL. *sismo baten fokua*: lurrikara edo itsasikara sortzen den puntua

Askotan gertatzen da zenbait hizkuntzatan adigai baterako etiketa bat baino gehiago egotea (sinonimia). Egoera hau hizkuntza teknikoaren zehaztasunaren aurkakoa da eta hain zuzen ere horren aurka doa erdal etiketa bakoitzerako euskal ordain bat bilatu nahi izatea ere. «Abono mineral» eta «abono kimiko» sinonimoak dira gaztelaniaz eta hala ere, bakoitzerako ordain bat ematen du UZEIren *Ekologia Hiztegiak*: *ongarri kimiko*, *ongarri mineral*. Batekin nahikoa litzatekeela esan genezake. Bestela jokatzten du hiztegi horrek ordea «abono» = «fertilizante» sinonimoekin, *ongarri* ematen baitu ordain bakar gisa. Gaztelaniaz sinonimoak diren lau etiketetara-

---

kundean garatuz zihoazen latinetikoko hizkuntzei lekua utzi behar izan bazien ere. Gizakien historian zehar boterea herrialde batetik bestera joan zen (Alejandria, mundu islamikoa...) eta testu zientifikoak siriakora, arabierara eta ondoren, arabieratik latinera eta latinetikoko hizkuntzetara itzuli ziren. Hizkuntza horiek guztiek beren ekarpena egin zioten terminologia tekniko-zientifikoari.

<sup>4</sup> Hasierako lau adierak *Elhuyar Hiztegi Entziklopedikotik* hartu ditut. Bosgarrena berriz, neuk gaineratu dut.

ko, bakarra behar dugu euskaraz eta etiketa bakarra izatea hobeto moldatzen zaio hizkuntza teknikoak behar duen zehaztasunari.

- (8) a abono químico = abono mineral = fertilizante químico = fertilizante mineral  
b ongarri kimiko<sup>5</sup>

Antzeko zerbait esan daiteke «fossil característico» = «fossil guía» edo «balance térmico» = «balance calorífico» sinonimoetarako: euskaraz nahikoa eta onena dugu termino bakarra izatea. Besterik da euskal termino horrek beste hizkuntza batzuetan ordain bat baino gehiago duela ikasi behar izatea.

Goian deskribatu diren bi kasuen nahastea da Kimikan erabili ohi den «medio acuoso» eta Ekologian erabili ohi den «medio acuático» terminoen kasua. «Acuoso» zein «acuático» izenondoek urari egiten diote erreferentzia eta termino biak egin daitezke euskaraz *ur-ingurune*<sup>6</sup>. Norbaitek aurrean lezakeen anbiguotasuna ez da benetan gertatzen, termino hori erabiltzeko dugun esparruak eta testuak berak ezabatuko baitituzte nahasteetara eraman gaitzaketen bide guztiak.

### 3. TERMINOAK GEHIENETAN EZ DIRA HITZ BAKARREKOAK

Terminoak gehienetan ez dira hitz bakarrekoak, izen elkartuak, izena + izenondo segidak edo sintagma osoak izan ohi dira. (9) sortako adibideetan, esate baterako, erabat arruntak diren *iturri*, *zubi*, *geruza*, *eraso* eta *ur* bezalako hitzak daramatzaten terminoak ditugu. Edonola, inork ez luke zalantzan jarriko termino horien egokitasuna, ez itxuraren ez eta zehaztasunaren ikuspuntutik ere. Horrelako hitzek, *energia*, *hidrogeno*, *elektroi*, *argi*,... bezalako izenekin edo *konkordante*, *nuklear*, *freatiko*, *puntual*, *solido*... bezalako izenondoekin lotzen ditugunean lortzen dute termino izarra. Zehaztasunaz ari garenean, kontuan hartu behar duguna termino osoa da eta ez terminoaren osagaiak beren aldetik.

- (9) a energia-iturri  
b hidrogeno-zubi  
c elektro-geruza  
d geruza konkordante  
e energia nuklear  
f eraso-angelu

---

<sup>5</sup> *Kimiko* edo *mineral* izenondoetako bat hautatzearekin nahikoa da. Ingeleseztan eta frantseseztan *kimiko* izenondoaren ordaina erabili dute horretarako eta beraz, nazioartekoagotzat har daiteke.

<sup>6</sup> Inoiz *ingurune urtsu* eta *ingurune urtar* erabili dira hurrenez hurren adigai horiek adierazteko. Terminu horiek *ur-ingurune* baino desegokiagoak dira argi eta garbi.

- g inertzi ardatz
- h ur freatiko
- i ur gazte
- j lurpeko ur
- k argi-iturri puntual
- l erabilpen anitzeko sistema
- m hiri-hondakin solido
- n lurpeko gasifikazio

Areago, goiko sortako hainbat terminotan duguna erabat arruntak diren hitzen batzea baino ez da eta hala ere, esparru berezitu baten adigai baterako etiketa ezinhobeak dira. Ikus adibidez *ur gazte* edo *lurpeko ur* terminoen osagai guztiak ezin arruntagoak direla. Izan ere, *lurpeko gasifikazio* edo *ur freatiko* terminoetan itxura teknikoa duen osagai bana dugu, *gasifikazio* eta *freatiko* alegia, baina *ur gazte* eta *lurpeko ur* horiei hitzen uztartzetik eta adigai jakin bati lotuta egotetik baizik ez datorkie termino itxura egokia.

Idea hau sarritan ahazten dugu euskaraz ditugun edo sortzen ditugun hitzak terminologiarako erabiltzerakoan. Behin baino gehiagotan entzun dugu *zelulanitz* izenondoa ez dela egokia «pluricelular» izenondoaren ordain modura ez baitigu «plurizelularitateak» eragiten dituen konplexutasun, integrazio eta espezializazioaren ezaugarrien berri ematen: organismoak ez ezik, koloniak ere izan daitezke zelula anitzekoak baina lehenengoen baizik ez dute «plurizelularitatearen» ezaugarria. Argudio-ildo hau itxurazkoa baizik ez da: *zelulanitz*, «pluricelular» bezala, izenondoa da eta izen bati lotuta egon behar du beti: *organismo zelulanitz* bezalako segidan, konplexutasun, integrazio eta espezializazioaren berri ematen diguna *organismo* izena da edo agian, izena + izenondoa segida osoa. *Kolonia zelulanitz* esango bagenu berriz, berehala ulertuko genuke kolonia hori osatzen duten zelulek ez dutela organismo bat osatzen dutenen integrazio-maila. Edonola, ez dut uste *zelulanitz* izenondoa kolonia horrekin erabiltzekoa denik, pentsaezina baita *kolonia zelulabakarrrik* egotea. *Organismoen* artean *zelulabakarrak* eta *zelulanitzak* bereiz ditzakegu baina koloniei buruz hitz egingo dugunean, *zelula-koloniak*, *animalia-koloniak* eta *landare-koloniak* bereiziko ditugu gehienez ere. Hortaz, terminologia fikzioa egitea da *zelulanitz* izenondoa izan ditzakeen irakurketez aritzea izenondo hori nola erabiltzen den kontuan hartu gabe. Bestelako arrazoiak egon daitezke izenondo hori ez onartzeko baina ez zehaztasunarekin zerikusia dutenak behintzat.

Azkenik, terminoen esangura adigai batekin lotzetik dator eta ez osagai desberdinen esangurak elkartzetik ondoriozta genezakeenetik. Ezaguna da, esate baterako, *karniboro/haragijale* eta *herbiboro/landarejale* terminoen inguruan aspaldian dagoen eztabaida<sup>7</sup>. Euskal hiztegiei begiratu

---

<sup>7</sup> Esate baterako Sarasola (1997):113-114 eta Altonaga (1998a, b).

besterik ez dugu egin behar joera hori argi eta garbi ikusteko. Hona hemen, adibide gisa *Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoan herbiboro* eta *belarjale* sarreretan ikus ditzakegun definizioak:

- (10) **herbiboro.** *iz.* eta *izond.* EKOL. Landareak, bereziki hauen zurtoin eta hostoak, janez elikatzen dena.  
**belarjale.** *iz.* eta *izond.* **1.** Belarra jaten duena. **2.** EKOL. Herbiboroa.

Zaila da *belarjale* inoiz «belarra jaten duena» esateko erabili denik onartzea. Izan ere, *Orotariko Euskal Hiztegiak* «herbívoros» ematen du *belarjale* sarreraren ordain modura eta eskaintzen dituen adibideek argi eta garbi eramaten gaituzte ordain horretara: *Fosilak ematen duten kontuan, belar jale ziran aldi aietako animalia geienak, Ugaztunen elikadura.* [...]. *Ardi, behi, zaldi eta horrelako abereak belar-jale dira.*

Edonola, *Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoak belarjale* horretarako ematen digun lehen adieraren arrazoiak erraz uler daiteke Sarasolaren *Euskal hiztegi*an ageri den definizioa ikusita:

- (11) **belarjale.** *izond.* eta *iz.* (\*1916, 1958). Aberez eta animaliez mintzatuz, batez ere belarrez elikatzen dena. *Ardia, zaldia eta behia belarjaleak dira. Ugaztun belarjaleak. Belarjaleen hortz-haginak.*

Hiztegi honetan huts egiten duena definizioa da, Sarasolaren iritzia ezagututa (Sarasola, 1997: 113-114) garbi baitago harentzat *belarjale* «herbívoros» hitzaren ordaina dela *Orotariko Euskal Hiztegitik* ondoriozta daitekeen bezala. *Euskal Hiztegiak* eskaintzen duen definizioa hitzaren osagaiak aztertetik dator eta ez hitza erabili duten idazleek horren bidez adierazi duten adigaiak islatzeko saio batetik. Hortaz, garbi dago *belarjale* hitzaren definizioak *herbiboro* hitzaren definizio bera beharko lukeela. Bi hitz hauen artean hizkuntza teknikorako bata edo bestea hautatzeko orduan bestelako arrazoiak egon daitezke baina ez zehaztasunarena, *belarjale* hitzak, *herbiboro* hitzak bezala, esangura bakarra baitu.

Bestelakoa da erdal hitz bakarrari dagokion ordainak hitz bat baino gehiago duenean horrek sortzen dizkigun «arazoak»: oso hedaturik dago hainbat hitzeko segidari behar bezain zehatza ez iriztea, erdaraz hitz bakarra badugu behintzat<sup>8</sup>. Horrela, *ardatzbiko, zelulabarruko, batezbesteko...* bezalako idazkerak aurkitzen ditugu euskaraz bi hitzekoak beharko genituzkeen tokian (*ardatz biko, espezie arteko, zelula bakarreko, batez besteko...*). Idazkera baten edo bestearen alde egiteko, erosotasuna edo bestelako arrazoiak eman litezke baina edonola, garbi izan behar duguna da idazkerak ez diela terminoen osagaiak diren segida hauei zehaztasunik ematen ez eta kentzen ere.

---

<sup>8</sup> Ikus Alberdi, García eta Ugarteburu (1997) gai honi dagokionez.

#### 4. MAILEGUZALETASUNAK ETA GARBIZALETASUNAK EZ DUTE ZERIKUSIRIK ZEHAZTASUNAREKIN

Mailegutaz ari garela, denok gatoz bat puntu batean: maileguak, beharrezkoak direnean soilik hartu behar ditugu; gure hizkuntzaren hiztegi-ondarean adigai bat adierazteko egokia den hitza badugu edo hitz berri bat ondo tajutzeko bidea asmatzen badugu, ez dugu horretarako mailegurik hartu behar. Kasu jakin baten aurrean gaudenean, adostasuna berehala desagertzen da ordea. Izan ere, baten iritziz ezinbestekoa den mailegua erabat baztertzekoa izan daiteke beste baten arabera. Honelako kasuetan maileguaren alde egiteko erabili ohi den arrazoa «zehaztasuna» izaten da, euskal hitzak adierazi nahi den adigaia zehazki adierazten ez duela alegia.

«Fluido viscoso» terminoaren ordaina eman nahi dugunean, batek *fluido likatsu* egin nahi izango du eta beste batek aldiz, *fluido biskoso*. Bigarrenaren argudioa izango da *likatsu* izenondoak ez duela «viscoso» izenondoak segida horretan duen esangura: *likatsu* hitzak «itsaskorra» esan nahi du eta ez «jariakortasun txikia duen fluidoa». Gaztelaniaren Akademiaren hiztegiara jotzen badugu, honelako definizioa aurkituko dugu, ordea, «viscoso» sarrerarako: «pegajoso, glutinoso». Beraz, ez dirudi «viscoso» izenondoak gaztelania arruntean duen esangura oso urrun dagoenik euskara arruntean *likatsu* izenondoak duen esanguratik. Izenondo horri esangura berezitua eman diona izan da Fisikaren esparruan adigai jakin bati lotuta erabilia izatea eta ez dirudi euskal izenondoarekin gauza bera egiteko arazorik egon daitekeenik. Euskal hitzek ez al dute merezi erdal hitzek beren esangura zabaltzeko izan dituzten aukera berberak? Izan ere, fisikaren esparruan ez du inolako zehaztasun-arazorik sortzen euskal izenondo hori erabiltzeak.

Bestelakoa da termino horren izenari dagokion kontua: *fluido* eta *jariakin* sinonimo modura ageri dira UZEIren Fisika Hiztegian. Gustu kontua izan daiteke euskaraz adigai bati izena emateko hitzik ez dugunean etiketa mailegatzea edo euskararen hiztegi-sorkuntzarako bideak erabiliz hitza asmatzea<sup>9</sup>. Edonola, ez dirudi egokia izan daitekeenik adigai bakarretarako bi (edo hiru: ikus 10. oharra) hitz izatea. Adostasun batera heldu behar ko genuke sinonimiari aurre egiteko. Izan ere, kontu honetan ez du gehiegi laguntzen jadanik erabat finkatuta dauden hitzetarako, egokiagoak edo hobeto eginak direlakoan, aukera berriak plazaratzeak<sup>10</sup>.

---

<sup>9</sup> *Jariakin* hitza ez da azaltzen Sarasolaren *Euskal Hiztegian*. *Jariakari* ageri da baina 1992ko data jarri dio eta beraz *jariakin* baino are berriagoa litzateke. Bestetik Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan *jariakin* ageri da baina ez *jariakari*.

<sup>10</sup> Ildo honetatik, ez deritzegu oso egoki Sarasolak (1997: 18-19; 113) *abiadura* edo *karbono* terminoak aldatzeko egin dituen proposamenei. Termino hauek erabiltzen hasi zirenean, beste modu batera konpondu izana egokiagoa izan zatekeen baina azken hogeitun horren usur erabili dira ezen haien existentzia ondo irabazita baitute. Ikus Odriozola (1998a).

*Jariakin* (edo *jariakari*) terminoak beste arazo bat ere sortzen digu, hiztunek bere esangura deskodifikatzeko orduan. Izan ere, *jariakin* = *jariakari* = *fluido* eta *isurkari* = *likido* sinonimo multzoak ditugu gaur egun darabiltzagun hiztegieta baina *isuri* eta *jariatu* aditzek oso antzeko esangura dutenez, oso zail eta nahasgarri gertatzen da batzuetan gai beraren barruan ager daitezkeen termino hauen esangura lehen unean deskodifikatzea. Honi gaineratu behar zaio fisikan eta bestelako esparruetan ere askotan erabili behar den *jario* «flow»<sup>11</sup> terminoa dagoela eta askotan *jariakor* izenondoa eta *jariakortasun* izen abstraktua erabili behar ditugula. Honen aurka esan daitekeena da besterik gabe euskal hitz hauen esangura ikasi behar dugula.

Edonola, zehaztasunaren irizpidea aipatzen da askotan zenbait maileguren alde egiteko, benetan azpian dautzan arazoak bestelakoak direnean ere. Esan nahi dudana ongi asko ikus daiteke Altonaga (1998b) zehaztasunaz ari denean:

«...Gune horietan garantzirik behinena kontzeptuaren zehaztasuna du, edo gauza bera dena, kontzeptu arteko bereizketa zorrotzak. Eta esan gabe doa, hizkera espezializatuek nozio eta denominazioen arteko biunibokotasuna dute tasun nagusi: hau da, kontzeptu bakoitzerako termino bat bakarra eta zehatza gomendatzen dute eskuliburuek, kanon gisara.

... Hori aditu guztiek horrelaxe-edo azaldurik egonda, lekuz kanpokotzat (edo nik ez dakit zelan) kalifikatu beharko genituzke Ibonen<sup>12</sup> behin-eta-berriroko akuilukadak: «zehaztasunaren gaitzak joa(k)» (131or.), «ezertaz jabetzen ez diren *logikoak*» (113 or.) eta nik dakita zenbat gehiago...

... Dinodanaren adibiderik beharbada berebizikoena *karniboro* sarrerarekin diharduenean ikusi dut<sup>13</sup>. Azken batean, alde explikatiboaren izaria guztiz galduta, esne desnatatuaren sindromeak<sup>14</sup> Murphy-ren lege oro-argigarriaren milaka korolarioetariko bat dirudi...»

Izan ere, puntu honetan Altonagak berak idatziriko beste lan bati egiten dio erreferentzia (Altonaga, 1998a), *karniboro* terminoaren alde egingdako argudio-ildoari alegia.

«... Panda erraldoia (eta txikia ere) «Carnivora Bowdich, 1821» ordenan sartu behar da inolako zalantza barik. Alegia, panda erraldoia karniboroa dela irakurriko dugu sarritan, eta hortik makina bat nahasketa eta ekiboko ondorioztatu da, ze, edozein ume mokordok ba dakitzu panda zuribeltza banbu-hostoez elikatzen dena: telebistako dokumentaletan-eta ikusi du hori, eta detaile osoz gainera. Arazoaren sorburua karniboro hitzaren esan-

---

<sup>11</sup> *Jario* ingelesaren «flow» esateko erabili ohi da eta *fluxu* ingelesaren «flux» esateko, hau da jarioaren neurria. Gaztelaniaz termino bakarra dute bi adigai hauetarako, «flujo» alegia.

<sup>12</sup> Sarasola (1997) liburuaz ari da.

<sup>13</sup> Puntu honetan erreferentzia egiten dio Altonagaren (1998a) lanari.

<sup>14</sup> Hemen ere Sarasolaren (1997: 77-79) liburuaz ari da.



gura bikoitzean-edo dago. Berba horrek, hortaz, adiera bi ditu, bata taxonomiaren alorrari dagokiona, eta bestea animalia-aren bizimoduari dagokiona, ekologiari azken batean. Hori dela-eta, esangura biak elkarretik bereizi nahian ingelesez berba oso antzeko bi erabiltzen dira: *carnivore*, Carnivora ordenako ugaztuna izendatzen duena, eta *carnivorous*, animaliez elikatzen den biziduna (animalia zein landarea) kalifikatzen duena. Izan ere, esangura biak argiro adieraztea garrantzi handikoa izan daiteke sarri askotan, esaldi nahasgarriek komunikazio zientifikoa ez oztopatu aldera...»

Hitz hauen arrazoa erraz uler daiteke LUR *Eskolako Hiztegi Entziklopedikora* joz gero, hauxe irakur baitaiteke *panda* sarreran:

- (12) **panda**. *iz.* Zool. Hartzaren antzeko ugaztun haragijalea. Bi mota bereizten dira: ...

Berehala ulertu dut Altonagak esan nahi duena dela hiztegi honetan nahastu egin dituztela gatzelaniaz «carnívoro» hitzak dituen bi adierak, dietarekin eta taxonomiarekin zerikusia dutenak alegia, eta *haragijale* erabili dutela *karniboro* behar zen tokian. *Haragijale* hitzaren definiziora jo dudanean, ordea, ikusi dut hiztegi honetan aipaturiko bi adierak onartu zaizkiola hitz horri eta beraz, *panda* hitzaren definizioa anbigua bai baina okerra ez dela.

- (13) **haragijale**. *izond.* eta *iz.* Haragia jaten duena. // Haragiz elikatzen diren animaliez esaten da batez ere. *ik.* haragizale<sup>15</sup>.
- Zool. **Haragijaleak**. Letaginak oso garatuak, ebakotzak txikiak eta molarrak haragia txikitze moldatak dituzten ugaztunen ordena. Neurri guztietakoak dira, eta biziera ere oso desberdina dute batzuek eta besteek. Gehienak haragia janez elikatzen dira, baina badira arrain jaleak, eta baita orojaleak direnak ere.
  - Bot. **Landare haragijalea**. Intsektujale ere esaten zaie, intsektuak eta beste animalia txikiak jaten baitituzte landareok ...

Argudio-ildoaz jabetu ondoren, benetan sinistuta nengoen Altonagak bi terminoren beharra aldarrikatuko zuela: bata, dietarekin zerikusia duen ize-na lortzeko eta bestea Carnivora ordenako animaliei erreferentzia egiteko. Nire harridurarako, ordea, Altonagak agertu duen iritzia oso bestelakoa da, *karniboro* terminoa proposatzen baitu bietarako. Areago, anbiguotasun-kasu hauek bestelako animalia batzuetan ere gertatzen direla azpimarratu du eta hala ere, kasu hauetan ere, termino bakarra proposatu du bi adieretarako:

«... Harrigarri baina, panda erraldoiaren estenofagia banbu-hostoetan espezializatu da. Hau da, panda erraldoia ez da karniboro karniboroa, ez da eta haragijalea, karniboro herbiboroa baino, landarejalea baita.

---

<sup>15</sup> *Haragizale* sarreran hauxe irakur daiteke hiztegi berean: «*izond.* Haragiari, okelari zale-tasun handia diona, haragi asko jaten duena...»

... Esate baterako, ugaztunen multzoan segitzen dugularik, badago beste ordena bat “Insectivora Cuvier, 1817” deritzona, kirikinoa, satorra, satitsua eta beste espezie asko biltzen dituena.

... Oraingo honetan ere, aurreko kasuan bezalaxe, intsektiboro berbaren esangura bikoitzaz mintzatu beharko ginateke. Batetik, intsektiboroa Insectivora ordenako edozein kide izango da dieta gora behera; bestetik, intsektuez elikatzen den bizidunari aplikatzen zaion adjektiboa da. Eta zer esanik ez, dietaz intsektiboro asko daude taxonomiaz intsektiboro ez direnak...».

Hortaz, ugaztunen artean behintzat kasu batean baino gehiagotan gertatzen zaigun polisemia-arazoa da gaztelaniaz bi adigai (dieta eta taxona) adierazteko hitz bakarra (*carnivoro*, *insectivoro*) izatea. Zehaztasunaren izenean bi hitz beharko lirateke baina, hala ere, Altonagak hitz bakarra proposatzen du, polisemikoa den gaztelaniari jarraiki eta ez bi, ingelesez (*carnivore* / *carnivorous*; *insectivore* / *insectivorous*) kasuan behintzat egiten den bezala. LUR hiztegiaren bideak arazoak dakartza zehaztasunari dagokionez, baina Altonagaren bideak antzeko arazoak ditu. «Hartzaren antzeko ugaztun karniboroa» esaldia LUR hiztegiak dakarrena bezain anbigua da, taxonomiaz gauza handirik ez dakienarentzat behintzat. Edonola, aitortu beharrekoa da *haragijale* terminoa, euskal osagaiak dituelarik, gardenagoa dela *karniboro* terminoa baino eta errazago eraman gaitzakeela dietaz ari garela pentsatzera. Aukera baten eta bestearen azpian dagoe-na garbizaletasuna/maileguzaletasuna da eta ez zehaztasunarekin zerikusia izan dezakeen edozein arrazoi. Edozein modutan ere, esapide zehatzak lor daitezke bai bide garbizaletik bai maileguzaletik, taxonomiaz ari garenean *ordena* hitza gaineratuz.

- (14) a Haragijaleen ordenako ugaztun (belarjale)a  
b Karniboroen ordenako ugaztun (herbiboro)a

Ikusi edozelan ere, esapideari zehaztasuna ematen diona *ordena* izena gaineratzea dela (15), bestela *haragijale* zein *karniboro* hitzak neurri batean edo bestean anbiguoak bailirateke. Bestalde, taxonaren kasuan latinezko izena erabil liteke testu jasoago batean erabili nahi izanez gero:

- (15) a Carnivora ordenako ugaztun (belarjale)a  
b Carnivora ordenako ugaztun (herbiboro)a

Azkenik, adigai desberdinetarako termino desberdinak erabiltzea ere erabaki genezake eta izan ere, euskaraz bi termino ditugu aukeran, bi hitz erabili baitira honelakoak adierazteko: *karniboro* eta *haragijale*<sup>16</sup>. Bakoi-

---

<sup>16</sup> Orotariko Euskal Hiztegiak *haragijale* hitzaren bi erabilera aipatzen ditu:

«**haragijale**: (El) que come carne, carnívoro. Cf. Lar. “Antropófago, giza aragi jalea”. *Nork hausten diú manú haur eta zergatik da? Eri ezpadira, bi egún hoietan* [ostrialian eta neskenegúnian] *aragi ialek*. BpI 111. *Ontsa, dio otsoak tristerik, /*

tzari esparru bat esleitu behar badiogu, logikoena litzateke taxonomiaren esparruko hitzerako latinezko izenetik eta nazio arteko hitzetatik hurbilen dagoena (*karniboro*) hautatzea<sup>17</sup> eta dietari erreferentzia egiteko, euskal hitza erabiltzea, alegia *haragijale*. Beste horrenbeste esan genezake, *intsektiboro/intsektujale* bereizketari dagokionez.

	ADIGAIAK		ZEHAZTASUNA
	«Taxonomiari dagokiona»	«Dietari dagokiona»	
ETIKETAK	haragijale(ak)	haragijale	--
	karniboro(ak)	karniboro	-
	karniboroen ordenako EDO Carnivora ordenako	karniboro	+
	haragijaleen ordenako EDO Carnivora ordenako	haragijale	+
	karniboroak EDO karniboroen ordenako EDO Carnivora ordenako	haragijale	++

Edonola, Altonagak *karniboro* terminoaren alde egiteko orduan estetikara jotzen du, dietaren inguruan garatu den terminologia izugarri zabala

[...] *Aragi jalia/ Ni nundian, / Aragi jale egon behar nian/ Barbertu gabetarik. Arch Fab 169. \_ Aragia gutxitan jaten degula?, [...] ikusi izan ditugu, alegia!, Ameriketatik itzulitako gizon aragi-jaleok, baina zer?, oiek ere masailezurra, gure antzera, zorrotza daukate. A Ardi 13. Nundik etorri zara, haragi-jalea?/ Madarikatua izan zaitez betiko! Arti Maldan B200. Belar-jalerik baldin bada, nunbait belarra ere ba-dagoelako izango da. Aragi-jaleak, berdin, nun edo nun aragia aurkitzen dela adierazten du. Vill Jaink 114. [Animali ugaztun] haragijaleetatik bi adar berezi ditezke: solipedoak eta zetazeoak. SGarm Lurraren kondaira 154. En DFrec hay 2 ejs. de haragijale.»*

Hortaz, *haragijale*, *belarjale* ez bezala, dieta jakin bat duten animaliei buruz hitz egiteko ez ezik, gizaki haragizaleei erreferentzia egiteko ere erabili izan da inoiz. Edonola, honek ez dio zehaztasunik kentzen hitzari, Zoologiari buruz ari garela, sekula ere ez da ambigua izango (gogoratu 2. atalean egin ditugun kontsiderazioak). Gainera, bi adiera horien artean dagoen urratsa minimoa da, azken batean, gizakiok ere animaliak gara eta *haragijale* eta *belarjale* (edo *barazkijale*) hitzak gizakiei buruz hitz egiteko erabiltzen ditugunean ere, dieta-motei buruz ari gara. Azken erabilera honetarako, gainera, egokiagoa izan liteke *haragizale* hitza.

<sup>17</sup> UZEIk (1984) ere bide hau proposatzen du taxonen izenak euskarara trankribatzeko.

eta berezitua dela azaldu ondoren. Hona hemen bere iritziz, eredu garbizaleari jarraiki suertatzen zaizkigun esaldiak (16), berak ontzat ematen dituenen ondoan jarrita (17); eredu maileguzalea esango diogu azken honi:

(16)	<b>Eredu garbizalea</b>	(17)	<b>Eredu maileguzalea</b>
	a Panda haragijale belarjalea da		a Panda karniboro herbiboroa da
	b Panda erraldoia haragijale txikijale kimukaria da		b Panda erraldoia karniboro mikrofago kimukaria da

(Altonaga, 1998a)

Zehaztasunaren ikuspuntutik bi aukerak parekotzat hartu beharko genituzke eta beraz, arrazoi estetikoak dira nagusi baten edo bestearen alde egiteko. Edonola, hizkuntz mailen inguruan hausnarketa egiteko aukera ere ematen digute hauek. Gorago, zehaztasunarekin zerikusia duten arrazoiak ikusi ditugu *karniboro/haragijale* (eta era berean *itsektiboro/ intsektujale*) terminoen arteko bereizketa egiteko. Dietaz ari garenean, *haragijale* erabiltzen badugu, komenigarria litzateke antzeko mailako terminoak ere bide horretatik egitea: *haragijale*, *belarjale*, *orojale*. Honek ez du esan nahi argi eta garbi askoz ere berezituagoak diren «mikrofago», «macrofago», «autotrofo», «heterotrofo» e.a. bezalako terminoak bide beretik konpondu behar ditugunik: gaur egun edozein umek daki dinosaurus haragijaleak eta belarjaleak izan zirela garai batean baina ez dut uste edozein hiztun arruntak dakienik zer den *mikrofago* edo *heterotrofo*. Izan ere, *belarjale* eta *haragijale* hiztegi arruntetan aurki ditzakegun hitzak dira. Termino berezitzen kasuan aldiz, ez ditugu lehen aipaturiko anbiguotasun-erazoak eta beste hizkuntz maila batean erabiltzekoak direnez, *mikrofago*, *makrofago*, *autotrofo*, *heterotrofo* e.a. hautatuko genituzke. Azkenik, UZEIren (1987) *Ekologia Hiztegia kimakari* ageri da, *kimatu* aditzetik eratorri dena alegia, eta ez *kimukari*. Edozelan ere, *kimakari* hitza ere ez dut uste ondo eratuta dagoenik, *-kari* atzizkiak ondorioa adierazten baitu ekintza baten egilea baino gehiago<sup>18</sup> eta hemen adierazi nahi dena da «kimuak jaten dituen»<sup>19</sup>. Adigai honetarako nazioarteko terminorik ez dagoenez, ingelesezko *browser* hori *kimujale* egin genezake euskaraz. Hona hemen, zehaztasunean, erabilera-esparruetan eta euskararen baliabideen erabilera zuzenean oinarrituriko aukera. Ikus zehatzak ez ezik, aukera

<sup>18</sup> Ikus Euskaltzaindia (1994: 1.047).

<sup>19</sup> UZEIren *Ekologia Hiztegia* ageri den definizioa hauxe da: «**Kimakari**: Zuhaitz, zuhaiska eta muluen kimu eta puja berriak janez elikatzen dena. Adib. ahuntza kimakaria da.

e. ramoneador  
f. broutant  
I browser»

hauek estetikaren aldetik ere egokiak direla, (16) eta (17) baino egokiagoak direla esaten ere ausartuko naiz:

- |        |                               |  |   |
|--------|-------------------------------|--|---|
| (18) a | Panda karniboro belarjalea da | EDO  | Panda Carnivora ordenako belarjalea da                        |
|        | b                             | Panda erraldoia karniboro mikrofago kimujalea da | EDO Panda erraldoia Carnivora ordenako mikrofago kimujalea da |

## 5. HITZ ELKARTUEN IDAZKERA ETA ZEHAZTASUNA

Egun jadanik topikotzat jo dezakegu zehaztasunaren eta hitz elkartuen idazkeraren artean egiten den lotura: literatura idazten dutenak, estetika-arrazoiak direla eta, marratxoa saihesten saiatzen dira; zientzialariek berriz, zehaztasuna helburu dutelarik, ezinbestekotzat jotzen dute hainbat anbigutasun-kasu desegiteko balio duen tresna hau. Izan ere, bi ikuspegi elkar-tezin hauek (Euskaltzaindia, 1992: 23-26) izan ziren Euskaltzaindia (1995) mendekotasunezko izen elkartuetan marra jartzeko edo ez jartzeko aukera uztera eraman zutenak: *behi(-)esne*, *kale(-)garbitzaile*.

Egia da marratxoa ezinbestekoa dela kasu asko eta askotan baina egia da era berean, mendekotasunezko izen elkartu guztietan marratxoa jarriz gero marratxoz jositako testuak sortzen zaizkigula zenbait esparrutan. Komenigarria da, hortaz, euskara tekniko-zientifikoaren ganean lan egiten dugunok hausnarketa egitea eta benetan anbiguoak diren edo izan daitezkeen kasuak eta anbigutasun-izpirik ere ez dutenak zedarriztatzen ikas-tea: zenbait kasutan marraren aukerari sendoki eusteko beharraren alde egin ahal izateko, behar hori badaezpadaoagoa denean marraren erabilera bertan behera utzi beharko genuke. Hiru kasu nagusi bereiz ditzakegu honen inguruan:

- a) Bi motatako eraikuntzei lotuta bi adigai ditugunean.
- b) Adigai bakarra adierazteko bi motatako izen elkartuak aukeran ditugunean.
- c) Oro har anbigutasunik sortzen ez duten izen elkartuak.

### 5.1. Bi motatako eraikuntzei lotuta bi adigai ditugunean

Izena edo izenondo izan daitezkeen hiztegi-sarrerek anbigutasun-kasu ugari sortzen dituzte: *azido*, *parasito*, *mineral*, *fosil*, *hartzaile*... Berziki azpimarratzekoak dira «egile elkarte sintetikoan»<sup>20</sup> mugakizuna izan ohi diren *-tzaile* atzizkiaren bidez aditzetatik eratorritako izenak. Ho-

<sup>20</sup> Euskal hitz elkartuen sailkapenerako ikus Azkarate (1990) eta Euskaltzaindia (1992).

nelako izen/izenondo bat beste izen baten ondoan ikusten dugunean, bi irakurketa izan ditzakegu: batetik, «izena + izenondoa» segidari dagokiona eta bestetik, «izena + izena» moduko izen elkartuari dagokiona. Anbiguotasuna erabat desegiten da izen elkartuari marratxoa jartzen badiogu.

- (19) ***Eguzki-lore bezalako hitz-elkartea / izena + izenondoa***  
a landare-parasittoa / landare parasittoa  
b gantz-azidoa/ gantz azidoa (ez basikoa)  
c buztin-minerala / buztin minerala (ez organiko)
- (20) ***Kale-garbitzaile bezalako hitz-elkartea / izena + izenondo***  
molekula-hartzailea/ molekula hartzailea

Batzuetan, jakintza-esparru batean bi aukerak ager daitezke. Esate baterako, *landare parasito* (landare bat, beste bizidunen kontura bizi dena) eta *landare-parasito* (parasito bat landareen gainean bizi dena eta landare, animalia zein mikroorganismoa izan daitekeena) parasitismoari buruzko testu batean ager dakizkigukeen terminoak dira eta marratxoa erabiliko ez bagenu, testua ulertezina gerta lekiguke. Beste horrenbeste esan dezakegu *molekula-hartzaile* (molekulak hartzen dituen beste molekula bat) eta *molekula hartzaile* (elektroiak hartzen dituen molekula) bikoteari buruz.

Beste batzuetan aldiz, posible diren bi adigai horietatik bat bakarrik agertzen da jakintza-esparru jakin batean (*gantz-azido*; *buztin-mineral*, *olio mineral*); edonola, kasu hauetan ere, lagungarria gertatzen da «marratxoa / bereiz» bereizketa, terminoa, gardenagoa eginez, irakurleari deskodifikatzen laguntzeko.

*Fosil izen/izenondoa* berezia da: zenbaitetan izen elkartuak eta izena + izenondoa segidek oso antzeko esangura dute (21a). Beste zenbaitetan aldiz, garrantzitsua da idazkera eta marratxorik gabekoa bakarrik da onargarria. Izan ere, (21b) adibidean esan nahi duguna da Trilobiteak suntsitu ziren artropodo taldea direla eta beraz, gaur egun bizirik aurkitzen ez direla.

- (21) a intsektu-fosil ≈ intsektu fosil  
b Trilobiteak artropodo fosilak dira/#Trilobiteak artropodo-fosilak dira

## 5.2. Adigai bakarra adierazteko bi motatako izen elkartuak aukeran ditugunean

Zenbaitetan, adigai bakarra adierazteko bi motatako hitz elkartuak izaten ditugu aukeran. Kasu honetan mota bateko edo beste mota bateko hitz elkartua erabiltzeak ez dakar anbiguotasun-arazorik, etiketa batetik edo bestetik abiatuta adigai berberera heltzen baikara.

a) Kasu batzuetan, mendekotasunezko izen elkartutzat edo aposizioztzat har dezakegu segida. Idazkera da aukera horren adierazle baina edo-

nola, adigai bakarria dago bi idazkeren atzean eta aldatzen den gauza bakarria da hitzunik adigai horren esangura zatitzeko duten modua. Honelakoetan marratxorik ez erabiltzeko aukera paregabea dugu, marraz jositako testuetan izugarri eskertzekoa dena.

- (22) **Eguzki-lore hitz-elkartea = aposizioa**  
a DNA-molekula = DNA molekula  $\approx$  DNA  
b berotze-prozesu = berotze prozesu  $\approx$  berotze  
c fisiologia-maila = fisiologia maila  $\approx$  fisiologia  
d likido-egoera = likido egoera  $\approx$  likido

Esate baterako (22a) adibidean DNA substantziazat har dezakegu eta hortaz, *DNA-molekula* idatziko dugu, substantzia horren molekula adierazteko edo bestela, DNA egitura eta osaera jakin bat duen molekula baten izena dela ulertu eta *DNA molekula* ( $\approx$  DNA izeneko molekula  $\approx$  DNA) idatz dezakegu<sup>21</sup>. Era berean, *berotze*, *fisiologia* eta *likido* hurrenez hurren *prozesu*, *maila* eta *egoera* motak direla ulertu eta aposizio modura idatz ditzakegu edo likidoei, fisiologiari edo prozesuei dagokien zerbait direla ulertu eta marratxoa gainera diezaiekegu<sup>22</sup>.

Arretaz jokatu behar da hauetan, ordea, zenbaitetan ez baitago aposiziozat hartzeko aukerarik. Erkatu (22b) eta (23a): *berotze prozesua* «berotzea» da baina *eboluzio-prozesua* ez da «eboluzioa» espeziak eboluzio-narazten dituen prozesu bat baizik. Era berean (22c) eta (23b) ez dira parekagarriak: fisiologia mailari buruz ari garenean, azken batean fisiologiari buruz ari gara baina energia-mailak energiaren neurria da.

- (23) a eboluzio-prozesu  
b energia-maila

b) Izenondoen antzeko funtzioa izan ditzaketen izen «sasipredikatu» batzuk dira bi hitz elkartu mota aukeran izatearen bigarren eragileak. Izen elkartua mendekotasunezkatat edo atributu-elkartetzat har daiteke<sup>23</sup>. Honen hitz-hurrenkera desberdinerara eta marratxo/bereiz idazkera desberdine-

---

<sup>21</sup> Ikus Odriozola (1998b).

<sup>22</sup> Arrazoi pedagogikoak eman daitezke *likido egoera* bezalako segiden aurka: zenbait kasutan, hizkuntza teknikoan batez ere, hitzunik izenondoa izenaren ezkerrean jartzeko ohitura dute (\* *ekonomiko arazoak*) eta hemen proposaturiko idazkerak joera txar horiek areagotu litzake, norbaitek pentsa bailezake *likido* goiko terminoan izenondoa dela. Puntu honi dagokionez, Gutierrez Rodilla-ren (1998) ideia bat aipatuko dut, nirea eginez: teknolektoek hizkuntz kontzientziaren parte hartze handia eskatzen dute, ikasketa-prozesu berezia behar duena. Hortaz, hitz elkartu hauen erabilera eta idazkera seguruenik, ikasketa horretan sartu beharko liratenkeen puntuetako batzuk dira.

<sup>23</sup> Euskaltzaindiak (1992): 84, atributu-elkartetzat hartzen ditu bai *harri zilindro* bezalakoak, bai *bonba-kotxe* bezalakoak ere. Izan ere, bi osagaien artean dagoen harremana berdintsua da bietan. Edonola, *bonba-kotxe* bezalakoak mendekotasunezkatat ere har daitezke, erreferentzia daraman osagaia eskuinekoa dela kontuan hartuta.

tara eramango gaitu baina edonola, adigai bakarrera garamatzate bi mota hauetako hitz elkartuek. Ondoko adibideetan esate baterako *ama-arroka* eta *arroka ama* terminoek, beste arroka batzuen sorrerarako «ama» edo abiapuntu modura jokatzen duen arroka adierazten dute. Gauza bera esan daiteke *gida-fosil* eta *fosil gida* terminoen inguruan, biek adierazten baitituzte geologian egituren adina finkatzeko gida modura erabiltzen diren fosilak.

(24) ***Eguzki-lore hitz-elkartea = atributu-elkartea***

- a ama-arroka = arroka ama
- b gida-fosil = fosil gida

Gustu-kontua izan liteke hemen mota bat edo bestea aukeratzea, bata bestea bezain zehatza baita. Edonola, atributu-elkartea aukeratuz gero, marratxo batzuk saihestuko ditugu eta hau onuragarria izango da testuaren estetikarako<sup>24</sup>.

### 5.3. Oro har anbiguotasunik sortzen ez duten izen elkartuak

Anbiguotasunik sortzen ez duten izen elkartuak izaten dira mugakizun berezia daramatenak. Alde batetik, mugakizun berezia duten eguzki-lore moduko izen elkartuak ditugu: *mota*, *kopuru*, *kantitate*, *itxura*, *forma*, *eite*, *zati*, *talde*, *multzo*,... Honelakoei hertsiki aplikatu ohi zaie, zientzialarien artean, mendekotasunezko izen elkartuek marratxoa behar dutelako onarpena baina bistan da ez direla 5.1. sailekoak bezalakoak<sup>25</sup>.

a) Alde batetik, honelako izen bereziek ezinbestean eskatzen dute izen elkartuaren mugatzailea, izen hori haien osagarria delako eta beraz, ezinbestekoa delako haien esangura osorik islatzeko. Hau da, *kantitate* edo *mota* batez ari garenean ezinbestekoa da zerbaiten kantitate edo mota izatea. Hau ez zaigu gertatzen, ordea, mendekotasunezko izen elkartuen osagai diren beste izen batzuen kasuan.

- (25) a ??Arroka honek hainbat mota ditu
- b Arroka honek hainbat mineral(-)mota ditu
- (26) Arroka honek hainbat osagai ditu

Honelako osagaiak dituzten izen elkartuak beste arrazoi batengatik ere bereizten dira. Izan ere, eguzki-lore moduko gainerako izen elkartuek baino errazago eman ditzakete hiru osagaiko izen elkartuak (Euskaltzaindia, 1992: 44). Hiru osagaiko izen elkartuak ditugunean ez dugu eskuragarri izango marratxoa eta beraz, egokiagoa izan daiteke kasu guztietan ere marratxorik gabe

<sup>24</sup> Bestetik, esan genezake mugatzailea eskuinean jartzea batzuetan eskertzekoa dela, izen-sintagma konplexuetan izenaren ezkerrekoa zamatu egia azaltzen baitzaigu askotan.

<sup>25</sup> Mugakizun berezia duten izen elkartuen inguruan ere, ikus Azkarate (1990), Euskaltzaindia (1992) eta Zabala (prestakuntzan).



idaztea. Ikusi (27b) eta (28b) adibideen idazkera bat etorriko litzatekeela (27a) eta (28a) adibideetako *arroka mota eta etengune mota* idazkerek.

- (27) a arroka(-)mota  
b faila-arroka mota
- (28) a etengune(-)mota  
b etengune estratigrafiko mota

Gainera, honelako mugakizun bereziak maiz agertzen dira «mugatzai-  
learen koordinazio-hedapenetan» (Euskaltzaindia, 1992). Honelakoetan  
marratxoaren ezinbestekotasunari eutsiko bagenio, marratxoa jarri behar-  
ko genuke bi mugatzaileetan (29a); mugakizun berezi hauek bereiz idaz-  
tea erabakiko bagenu aldiz, estetikaren ikuspuntutik askoz ere segida ego-  
kiagoak lortuko genituzke (29b):

- (29) a titanio- eta burdina-kantitate  
b titanio eta burdina kantitate

b) Aipatzeko moduko beste termino mota bat da ikertzaileen izenak  
daramatzaten aposizioak. Genitiboaren marka jarri ala ez jarri izan ohi da  
hauen inguruan sortzen zaigun zalantza, hau da, (30a) adibidean bezala  
ala (30b)an bezala idatzi behar al ditugu? Genitibo honek ez du ezer gai-  
neratzen zehaztasunaren aldetik eta izan ere, hizkuntza batetik bestera al-  
dakorra izaten da kontu hau termino bererako ere<sup>26</sup>. Euskararen kasuan,  
genitiboa lotzeko marratxoa jarri behar dugu gainera. Hortaz, genitiboa eza-  
batuz (30b), irabazia nabaria da estetika eta erosotasunaren aldetik, zehazta-  
sunari ezer ere kendu gabe.

- (30) a Mosh-en eskala; Mohorivicic-en etengunea; Golgi-ren aparatua ...  
b Mosh eskala; Mohorivicic etengunea; Golgi aparatua ...

c) Azkenik, *-a* itsatsia gal dezaketen kasuak aprobeitza ditzakegu tes-  
tuetan marratxo batzuk gutxiago izateko<sup>27</sup>. Honelakoetan, ez da ezer gal-  
tzen zehaztasunaren aldetik (31b) bezalako idazkera bultzatuz, bukaerako  
bokalaren galera izen elkartu baten aurrean gaudela agerian uzten baitu<sup>28</sup>.

- (31) a energia-galera; burdina-hobi  
b energi galera; burdin hobi

---

<sup>26</sup> Ikus Ensunza (1997).

<sup>27</sup> Gogoratu Euskaltzaindiak (1995: 136-137) bi kasu hauetan soilik onartu duela *-a* itsa-  
tsiaren galera:

- (i) Mugatzailearen bukaera *-ia* denean
- (ii) Mugatzailea *burdina, eliza, natura, hizkuntza, literatura* edo *kultura* denean.

<sup>28</sup> Edonola, egia da jokaera hau ez dela oso pedagogikoa, berez hedatuz doan *-a* itsatsiaren  
galera areagotzen baitu. Gogoratu 23. oharrean hizkuntzaren erabilera tekniko-zientifikoetara-  
ko erabilerak eskatzen duen hizkuntz kontzientziari eta ikasketari buruz esan duguna.

Bestelakoa da formulazio kimikoaren kasua. Euskaratik begiratuta mendekotasunezkoak lirateke formulazio kimikoaren bidez sortzen diren hainbat izen. Kasu honetan nazioartean erabiltzen den idazkerari eusten diogu eta beraz, ez dugu marrarik jartzen (32a) baina formulazioari ez dagozkion antzeko izenak ditugunean, egokiago deritzogu marratxoari eusteari (Odriozola, 1998b) (32b).

- (32) a kaltzio karbonato  
b sodio-gatz

## 6. ERATORPENA ETA ZEHAZTASUNA

Hizkuntza tekniko-zientifikoaren bereizgarrien artean dago aditzen nominalizazioaren eta adjektibazioaren maiztasun altua<sup>29</sup>. Maiztasun hau aldatu egiten da hizkuntza batetik bestera baina edonola hizkuntzaren erabilera arruntean baino usuagoa izaten da honelako esparru berezituetan. Izenen eratorpenari lotuta, behin baino gehiagotan entzun dugun ideia da halako atzizkia beste hori baino zehatzagoa dela edota halako esangura duela. Mota honetako baieztapenak ez dira inola ere zuzenak, esangura-unitaterik txikiena hitza baita eta beraz, hitzak baitira adigai bati lot daizkiokeen hizkuntz unitaterik txikiak. Azpiatal honetan zehaztasunaren argudioaren erabilera okerrera eraman ohi gaituzten kasu bi aztertuko ditugu: alde batetik, ekintza- edota ondorio-izenak ematen dituzten *-tze*, *-keta*, *-pen* eta *-zio* bezalako atzizki izen-sortzaileak eta bestetik, *-garri* eta *-kor* atzizki izenondo-sortzaileak.

### 6.1. Ekintza- edota ondorio-izenak sortzen dituzten atzizkiak

Aditzetik eratorritako izen askok eta askok ekintza eta ondorioa edota ekintza-modua ere adieraz dezakete. Adibidez, *itzulpen* izenak itzultzearen ekintza eta ondorioa adierazten du. *Sarrera* izenak ere hiru adiera ditu: batetik sartzearen ekintza; bestetik, sartzeko tokia; eta azkenik, objektu-izenaren interpretazioa ere badu, *txartel* izenarena bezain konkretua alegia, emanaldi baterako sarrerei buruz ari garenean esate baterako. Aditzetatik eratorritako izen hauen interpretazio-aniztasuna ohikoa da mota desberdinetako hizkuntzen artean eta hizkuntza teknikoaren barruan ere maiz erabiltzen dira maila honetako «anbiguotasuna» duten hitzak. Testu baten barruan erabat zehatzak gertatzen dira ordea.

Batzuetan, edozein hizkuntzatan baino zehatzagoak izan nahi dugularik, maila honetako adigaien arteko bereizketa egiteko tentazioa izan de-

---

<sup>29</sup> Ikus, esate baterako, Kocourek (1982).

zakegu. Honelako «ultrazehaztasuna» izan da, esate baterako, garai batean Geologiaren esparruan *ukipen/kontaktu* hitz-bikotearen beharra aldarrikatzeko arrazoa: erdal «contacto» hitzak ukitzearen ekintza zein ukipena gertatzen den tokia adieraz dezakeenez, euskaraz adigai biek termino bana behar bide zuten. Edonola, Sarasolaren *Euskal Hiztegi*a jotzen badugu, *ukipen* hitzak, gaztelaniazko «contacto» hitzak bezala, aipaturiko bi esangurak dituela ikusiko dugu.

- (33) **ukipen**. iz. (\*1965, 1977) Bi gauza edo gehiagok elkar ukitzea eta horren ondorioa; elkar ukitzen dauden gauzen egoera. *Ukipen egoera*.

Behin baino gehiagotan entzun dut *-tze* atzizkia hizkuntza teknikorako egokia ez dela eta *-keta*, *-pena* eta *-dura* bezalako atzizkiak aldiz, zehatzagoak omen direnez, askoz ere egokiagoak direla. Egia da *-tze* atzizkiak murriztapen gutxiago dituela mota guztietako aditzei lotzeko orduan *-keta* edo *-pen* atzizkiek baino. Izan ere, azken hauek duela gutxi arte, behintzat aditz iragankorre baido ez zaizkie lotu. Hizkuntza teknikoan *-tze* atzizkiak dituen arazoak sortzen diren hitzek esangura bakarra izatean datza, hots, zehatzegiak izatean. Lehenago ikusi dugunez, *itzulpen*, *sarrera* edo *ukipen* izenek hainbat esangura dituzte; *itzultze*, *sartze* eta *ukitze* izenek berriz, esangura bakarra dute: hurrenez hurren, *itzultzearen*, *sartzearen* eta *ukitzearen* ekintza soila. Honek, beste hizkuntza askotan sarrera bakarra eskatzen duten terminoetarako euskaraz bi sarrera edo gehiago ematea eskatzen digu<sup>30</sup>.

## 6.2. **-GARRI** eta **-KOR** atzizki izenondo-sortzaileak

Erabateko parekatzea egin dugu gaztelaniaren «-ble» atzizkiaren eta *-garri* euskal atzizkiaren artean: «-ble» = *-garri*. Parekatze honek okerreko ondorioetara eramaten gaitu askotan, «-ble» guztiak ezin baitira *-garri* atzizkiaren bidez eman (34) eta *-garri* guztiek ez baitute «-ble» duen izenondo baten ordainik (35).

<sup>30</sup> Arazo handia sortzen digute aditzetik eratorritako izen hauek. Izan ere, euskal hiztegiak, hala nola, Sarasolaren *Euskal Hiztegi*ak *-tze* atzizkia daramaten hitzetan gramatika-kategoria baino ez dute zehazten: «x-tze: x aditzaren aditz izena». Hortaz, ez dugu modurik jakiteko izen horren bidez zer nolako eduki semantikoak adierazi diren orain arte: ekintza, ondorioa, objektua, ekintza eta ondorioa ...? Areago «aditz izen» horrek kategoriari buruz ere ez digu gauza handirik esaten: zer esan nahi du termino horrek, aditz kategoriako zerbait izenen antzeko zerbait ezaugarri dituen (gure irizpideen arabera *aditz izena* idatziko genukeena) edo aditzetik datorren izenaren kategoriako zerbait (*aditz-izena* idatziko genukeena). Izan ere, *apurtze* bezalako hitzek aditz modura edo izen modura joka dezakete:

- (i) *Gobernuak bat-batean negoziazioak apurtzea* (apurtze → ADITZA)
- (ii) *negoziazioen bat-bateko apurtzea* (apurtze → IZENA)

- (34) a «factible» egingarri  
 b «estable» egonkor
- (35) a kezkarri «preocupante»  
 b hilgarri «mortal»  
 c gorrotagarri «odioso»  
 d eskuragarri «alcanzable»

Bi atzizki erabiltzen ditugu nagusiki euskaraz aditzetatik izenondoak eratortzeko: *-garri* eta *-kor*. Oro har, *-kor* argumentu bakarreko aditzei gaineratzen zaie, hau da, aditz iragangaitzei eta *-garri* aldiz, bi argumentuko aditzei, hots, aditz iragankorrei.

- (35) a Material hau erraz hausten da  
 b material hauskorra
- (36) a Jendeak liburu hori eskura dezake  
 b liburu eskuragarri

Bi irakurketa suertatzen dira *-garri* atzizkia daramaten izenondoen artean: bati, «pasiboa» esan ohi zaio (37a, b) eta besteari, «aktiboa» (37c)<sup>31</sup>.

- (37) a ideia eztabaidagarria (eztabaida daitekeen ideia) PASIBOA  
 b toki ikusgarria (ikustea merezi duen tokia) PASIBOA  
 c substantzia hilgarria (hil egiten duen substantzia) AKTIBOA

Gaztelaniaren «-ble» atzizkiak ez du inoiz balio aktiborik eta lehenago aipatu dugun identifikazioagatik ahaztu egin zaigu (37c) bezalakoak zeudela euskaraz; ondorioz, balio aktibo horietarako *-kor* atzizkia erabiltzen hasi gara: #*substantzia hilkor*, #*kontu erabakior* egin ditugu *substantzia hilgarri* eta *kontu erabakigarri* behar den tokian.

Erabilera oker honetaz jabetzen hasi garelarik, ordea, *-garri* atzizkia duten izenondoen artean bi motatako irakurketak daudenez, izenondo horiek, terminologia tekniko-zientifikoan behintzat erabat anbiguoak eta saihestekoak direla ondorioztatu dute zenbaitek. Ez nator bat azken ondorioztapen honekin: *-garri* atzizkiak ematen duen irakurketa erabakitzen duena neurri handian oinarri modura erabiltzen den aditzaren argumentu-egitura da, hau da, aditz horrek adierazten duen ekintzaren partehartzaileen mota semantikoak, eta gehienetan, irakurketa bakarra du izenondoak.

Aktibotzat hartu ohi diren izenondoek modifikatzen dituztenak ez dira benetan «egileak», «kausak edo eragileak» edo «bitartekoak» baizik. «Kausak» bizigabeak izan ohi dira eta «egileak» aldiz, bizidunak dira beti. Hona

<sup>31</sup> Ikus Azkarate eta Gràcia (1995).

hemen Artiagoitiak (1995) bere lan bikainean bereizketa hau argitzeko ematen dituen adibideetako bat:

- (38) a Jonek emaztea ito zuen
- b \*Jon itogarria izan zen (\*«egilea»)
- (39) a. Etxeko giroak emaztea itotzen zuen.
- b Etxeko giroa itogarria zen («kausa»)

Hortaz, *-garri* atzizkia NOR-NORK motako aditzei lotzen zaielarik, aditzak adierazten duen ekintzaren partehartzaileak «egile-gaia» motakoak badira, *-garri* atzizkiak xurgatzen duen irakurketa gaiarena da eta inoiz ez egilearena. Hortaz, *egingarri* bakarrik izan daiteke egin daitekeena eta *kartografiagarri* bakarrik izan daiteke kartografiatzen dena, aditz hauen subjektuak ezinbestean «egilea» izan behar baitu.

«Psikologiko» izenaz ezagutzen direnetakoak dira *-garri* hartzen duten aditzetako asko. Hauen artean bi mota daude hainbat hizkuntzaren jorkaera deskribatzen duten lanen arabera:

- a) «esperimentatzaile-gaia» modukoak: *arbuia*, *desiratu*, *maitatu*...  
NORK: «esperimentatzailea», hots, desira, maitasuna e.a. pairatzen duena  
NOR: «gaia», esperientzia horren deskateatzailea

Atzizkiak beti xurgatzen du gaiaren irakurketa: *maitagarria*, *arbuigarria*, *desiragarria* ... da maitasuna, mesprezua edo desira eragiten duena.

- b) «kausa- esperimentatzaile» modukoak: *beldurtu*, *erakarri*, *kezkatu*, *lasaitu*.  
NORK: «kausa», hots, beldurra, erakarpena, kezka eragiten duena.  
NOR: «esperimentatzailea», hots, horiek pairatzen dituen.

Atzizkiak beti xurgatzen du kausaren irakurketa: *beldurgarri*, *erakar-garri*, *kezkagarri*, *lasaigarri* beti da beldurtzen, erakartzen, kezkatzen edo lasaitzen duena. Beraz, *-garri* atzizkiak ez du inoiz esperimentatzailearen interpretazioa xurgatzen.

Badira, NOR-ZEREZ motako zenbait aditz ere *-garri* har dezaketenak. Kasu honetan, «zerez (= gaia edo baliabidea)» da beti atzizkiak xurgatzen duena: *fidatu*, *baliatu*,... Zerbait fidagarria edo baliagarria dela esaten badugu, esan nahi duguna da horretaz fida edo balia gaitzkeela.

Azkenik, «bitarteko-tema» moduko aditz iragankorrek ditugu: *freskatu*, *apaindu*, *hil*, *lagundu*. Hauetan «bitartekoa» da xurgatzen dena: *freskagarri*, *apaingarri*, *hilgarri*, *lagungarri*... freskatzeko, hiltzeko, apaintzeko edo laguntzeko erabil daitekeena da.

NOR-NORK eta NOR txandakaketa duten aditzen kasuan, *-garri* hartu ohi du lehen aldaerak eta *-kor* bigarrenak:

- (40) a gizona hil da / gizona hil dute  
b gizakiak hilkorrak dira / substantzia hau hilgarria da
- (41) a beira erraz hausten da  
b beira hauskorra da

Hortaz, *-garri* atzizkiaren bidez sorturiko izenondoek pentsa litekeena baino irakurketa gutxiago izan ditzakete. Edonola, kontuan hartu beharrekoa da izenondoak beti erabiltzen direla izen baten ondoan eta izen hori oso lagungarria izango dela termino osoaren interpretaziorako.

Adibide bat ematearren, kartografia batek «egile» bat behar du ezinbestean, gizakia izan behar duen «egile» bat alegia. Hortaz, *kartografia egin* aditz-esapideak «egile-tema» moduko argumentu-egitura izango luke. Izenondoak xurgatzen duen irakurketak temarena izan behar du ezinbestean. Edonola, *gorputz sedimentario kartografiagarri* segida erabiltzen dugunean, ezinbestean ulertu behar dugu kartografia daitekeen zerbait, gorputz sedimentario batek ezin egin baitezake kartografiarik.

Arazo gehiago sor ditzakete *ebaki* bezalako aditzek, bi erabilera izan baititzakete:

- (42) a Gizon horrek arrokak ebakitzen ditu («egile-tema»)  
b Tresna honek arrokak ebakitzen ditu (= tresna hau arrokak ebakitzeko erabiltzen da).  
(«baliabide-tema»)

Lehen kasuan *ebakigarri* izenondoak «tema» xurgatuko luke eta beraz, «ebaki daitekeena» litzateke haren esangura. Bigarrenean, «baliabidea» xurgatuko luke eta «ebakitzeko erabil daitekeena» litzateke irakurketa. Edonola, bi izenondo horiek testuinguru desberdinetan erabiliko genituzke. Mineral baten propietateak deskribatzen ari garenean, beraz, *ebakigarri* bakarrik izan daiteke ebaki daitekeena.

- (43) a Mineral hori ebakigarria da  
b Arroka hori ebakigarri modura erabil daiteke

*Substantzia hilgarri* bezalakoak desberdinak dira ordea, ez baita ezinbestekoa pertsona batek erabiltzea hilgarri izateko (kausa da bitartekoa edo baliabidea baino gehiago). Hala eta guztiz ere, substantzia bizigabea izanik, pentsaezina da *substantzia hilgarri* pasibotzat, hots, hil daitekeen substantzia balitz bezala interpretatzea. Hortaz, honelako izenondo batek interpretazio bat baino gehiago izan dezakeenean ere, nekez gertatzen da anbiguotasunik izenondo hori dagokion izenarekin batera konbinatzen denean<sup>32</sup>.

---

<sup>32</sup> Atzizki honen bidez ere sintetikoak era daitezke eta beraz, marratxoaren laguntza ezinbestekoa izaten da batzuetan anbiguotasunak desegiteko: *intsektu hilgarri* (bere ziztadaren bidez hil dezakeen intsektua) / *intsektu-hilgarri* (intsektuak hiltzeko erabiltzen den substantzia)

Arazorik larrienak, agian, kimikan sortzen zaizkigu: «oxidante» eta «reductor» esate baterako *oxidagarri* eta *erreduzigarri* egin beharko genituzke eta inoiz «oxidable» bezalako zerbait erabili beharko bagenu, *oxidakor* egin beharko genuke. Era berean, «disolvente» terminoa *disolbagarri* izan liteke eta «soluble» aldiz, *disolbakor*. Gauzak euskararen sistemak eskatzen duen bezala egiteak interpretazio-arazoak dakarzkie, ordea, hainbat hiztuni: gorago aipatu dudan gaztelaniarekiko interferentzia dela eta, *oxidagarri*, *erreduzigarri* eta *disolbagarri* bezalakoak «oxidable», «reducible» eta «soluble» bezala ulertzeko joera handia dago gaur egun. Hortaz, ahalegin berezia egin behar dute hiztunek atzizki hauen jokaera berrikasiko badute<sup>33</sup>.

## 7. ERREFERENTZIAZKO ERDAL ADJEKTIBOAK ETA ZEHAZTASUNA

Euskararen eta inguruko erdaren tipologia erkatzeko orduan behin baino gehiagotan entzun dugun ideia da izen bat beste batekiko harremanetan jarri behar duenean, euskarak betidanik hartu duen bidea «izen elkartuen» edo «izenlaguna + izena» moduko segidena dela eta ez erdara horiek askotan erabiltzen duten «izena + erreferentziatzko adjektibo» delako hori. Ikus esate baterako Ensunza (1989), Euskaltzaindia (1992), Loinaz (1995), Zabala (1997b).

- (44) a «transporte electrónico»  
elektroi-garraio  
b «radio terrestre»  
Lurraren erradio(a)  
c «energía solar»  
eguzkitiko energia

Esate baterako, (44) sortako adibideetan, «electrónico», «terrestre» eta «solar», hurrenez hurren, elektroiei, Lurrari eta Eguzkiari egiten diete erreferentzia eta euskaraz horiek emateko ez genuke adjektiborik erabiliko izen elkartuak (22a) edo izenlagunak (44b, c) baizik<sup>34</sup>. Edonola, garbi dago hainbat kasutan erreferentziatzko adjektiboak mailegatu egin behar ditugula esate baterako bi izenen arteko harremana oso urruna denean (45a) edo zientziei edota teknologiei erreferentzia egin behar diegunean (45b):

- (45) a zentral nuklear  
b neurgailu elektroniko

<sup>33</sup> Euskaltzaindiak *Hiztegi Batuan* berrikasketaren bide hau aukeratu duela dirudi. Beste aukera bat ere egon liteke ordea, hots, antzinako sistema galdutzat eman eta gaztelaniaren sistematik hurbilago dagoen gaur eguneko sistema onartzea.

<sup>34</sup> Euskaraz, erreferentziatzko adjektiboak sortzeko balio duen atzizki bakarra *-tar* atzizkia da eta bistan da horren erabilera-esparrua oso murrizta dela. Ikus Zabala (1997b) eta lan honen aurrean kokaturik dagoen lana, hain zuzen ere adjektiboei buruzkoa.

Edonola, erreferentziako erdal adjektibo bat mailegatzea ala ez mailegatzea auzitan jarritakoan, askotan erabiltzen den arrazonamendua izaten da erdaren erreferentziako erdal adjektiboa zehatzagoa dela edozein euskal baliabide baino. Oso zabaldurik dagoen ideia hori ez da inola ere zuzena. Izan ere, oso maiz morfologia bakarra duen erdal adjektibo batek erreferentziako erabilereiz gain tasunezko erabilerak (46) ere izaten ditu eta erreferentziako erabileren artean ere, mota desberdinetakoak izkuta daitezke izenondo beraren atzean (47)<sup>35</sup>.

- (46) a «aguas cristalinas»  
ur gardenak
- b «brillo cristalino»  
kristal-distira; distira kristalkara
- c «caliza cristalina»  
kare-harri kristaltzu
- (47) a «estado cristalino»  
kristal egoera
- b «estructura cristalina»  
kristal-egitura
- c «clase cristalina»  
kristal-klase
- d «red cristalina»  
kristal-sare
- e «sistema cristalino»  
kristal-sistema; ? kristaltze-sistema
- f «defecto cristalino»  
kristal-akats
- (48) «kvarzo kriptokristalino»  
kvarzo kriptokristalino

Erdal segida horietako bakoitzean izenaren eta adjektiboaren artean dagoen harremana aztertuz gero, euskal ordainik egokiena zein izan daitekeen ikusiko dugu eta hainbatetan harreman hori euskal izen elkartuen osagaien artean egon ohi denaren parekoa dela ikusi ahal izango dugu. Goiko adibideetan, esate baterako, (48) adibideko aurrizkidun izenondoa-  
ren kasuan baizik ez dugu mailegatzeko beharrik. Hala ere, erdal eta euskal segidak erkatzen baditugu, erdal adjektiboa euskal izen elkartuen (kasu gehinetan eman dugun ordaina) lehen osagaia baino askoz ere balioanitzagoa da. Hortaz, goiko terminoei zehaztasuna ez datorkie (erabat balioanitz den) erreferentziako adjektiboetatik, «izena + adjektiboa» segida bakoitza adigai eta definizio jakin batekin lotzetik baizik. Izan ere, kristalografiaz ezer gutxi dakien edozein hiztunak nekez ulertuko ditu goiko segidak definizioa eskaintzen ez bazaio. Euskal izen elkartuek ere bide beretik lortzen dute zehaztasuna, definizio batekin lotuta egotetik alegia.

<sup>35</sup> Ikus Zabala (1997).



Balioaniztasun honetaz gain, erreferentziazko erdal adjektibo artean askotan gertatzen da izen berari erreferentzia egiten dioten bi adjektibo egotea (49) edota adjektibo bakarrak izen bati baino gehiagori erreferentzia egitea. Kasu hauetan, jakina, terminoaren zehaztasuna ez dator erreferentziazko adjektibotik, termino osoa definizio batekin lotzetik baizik.

- (48) «balance térmico» = «balance calorífico»
- (49) a «conductividad térmica» (conductividad del calor)
- b «comportamiento térmico» (comportamiento frente a la temperatura)

## 8. ZEHAZTASUNA TERMINOLOGIATIK KANPO

Zehaztasuna eskatzen diogu etengabeki terminologiari baina askotan ahaztu egiten dugu terminoak testuen barruan erabiltzen direla. Ezer gu-txi egiten dugu oso terminologia zehatza erabiliz termino horiek erabil-tzen dituzten testuak egokiak ez badira. Hasteko, terminoak nagusiki izen (edo izen-sintagma) kategoriakoak izaten dira eta gehienetan aditzekin konbinatu behar ditugu esaldiak eraikitzeke. Adierazi nahi dugun ekin-tza edo egoera adierazteko egokiena den aditza hautatzea garrantzi han-dikoa izaten da<sup>36</sup>. Badira zenbait erdal aditz testu teknikoan bereizgarri-tzat hartzen ditugunak eta ezinbestean mailegatu behar ditugula iruditzen zaigu. Honek dakarrena izaten da testuaren itxuran eragin handia duten eta beharrezkoak ez diren mailegu ugari hartzea baina, gainera, testuak zehaztasunean ere galtzen du askotan. Izan ere, (50) sortako adibideen antzeko guztietan eta beste askotan ohikoa izaten da *kontsideratu* maile-gua erabiltzea. Euskal aditzak, egokiagoak ez ezik, zehatzagoak ere badi-ra askotan.

- (50) a Eskualde hori oso arriskutsutzat *daukagu*
- b Tenperatura konstantetzat *jo* dugu
- c Tenperatura ere *kontuan hartu* dugu
- d Orain eskualde horren ezaugarriez *aritu*ko gara

Beste zenbaitetan, maileguak gabe zenbait euskal aditz dira «tekniko-tzat» hartu eta behar baino gehiago erabiltzen ditugunak. Horrek, jakina, zehaztasuna galtzera garamatza. *Ekidin* aditza da horietako bat, gaztela-niazko «evitar» aditzaren adiera guztietarako erabili ohi dugu, askotan adie-razi nahi dugunaren arabera *saihestu*, *itzuri*, *ihes egin*, *eragotzi*, *galarazi*, *oztopatu*, *aurre egin* edo *zaildu* aditzak askoz ere egokiagoak eta zehatza-goak lirartekeen testuinguruetan.

---

<sup>36</sup> Gai honen inguruan ikus Zabala (1995).

- (51) a Hauspeatzea *eragotzi* behar dugu, disolbatzaile gehiago gaineratuz  
 b Ingurugirorako kaltegarriak izan daitezkeen metodoak erabiltzea *saihestu* behar dugu  
 c Zortzigarren eguna beranduegi da liztorraren immunitate-sistemak birus-inbasioari *aurre egin* diezaion

Testu-lotura ere bereziki garrantzitsua da irakurleak nahi dugun adigai uler dezan. Alde batetik, erreferentzia-sareen arazoa dugu: komenigarria da euskara tekniko-zientifikorako anbiguotasun gutxien sortzen duen sistema aukeratzea. Esate baterako, ezaguna da *bere/ haren/ beraren* izenordainen erabilera nahas samartua dagoela euskalki guztiak kontuan hartuta<sup>37</sup>. Edonola, komenigarrien dirudien erabilera litzateke (52) eta (53) adibideetan islatu dena, zehatzena baita: *bere* izenordainak dagoen esaldiaren aditzean islaturik dagoen argumentu batetik hartu behar du erreferentzia: Hortaz, (52a) esaldian *bere* jarri beharko dugu Williams-en lanari buruz ari bagara, baina *haren* beste baten lanari buruz ari garenean.

- (52) a Williams-ek<sub>i</sub> bere<sub>i</sub> lana aurkeztu du<sub>i</sub>  
 b Williams-ek<sub>i</sub> haren<sub>k</sub> lana aurkeztu du

Bereziki korapilatsuak dira izenordainari erreferentzia ematen dion elementua izen-sintagma zabalago baten barruan dagoenean, kasu honetan aditzean islaturik dagoena izen-sintagma osoa baita (*Williams-en lankideak*) eta ez *Williams* bere aldetik. Hortaz, Williams-en lankidearen lanari buruz ari bagara, *bere* erabili beharko dugu (53a) baina Williams-en lanari buruz ari bagara, *haren* erabili beharko dugu (53b).

- (53) a [Williams-en lankideak]<sub>i</sub> bere<sub>i</sub> lana aurkeztu du<sub>i</sub>  
 b [Williams-en<sub>i</sub> lankideak] haren<sub>i</sub> lana aurkeztu du<sub>i</sub>

Beste alde batetik, lokailuak testua osatzen duten esaldien eta paragrafoen arteko harreman logikoak agerian uzten duten elementuak dira eta bezaraz, testu teknikoan helburua zehaztasuna delarik, komenigarria da mota ho-

<sup>37</sup> Izenordain hauen banaketari dagokionez, ikus Zabala (1996). Hemen emango ditugun adibideen artean, *haren* eta *bere* baizik ez ditugu aipatuko. *Beraren* izenordaina, *haren* izenordainaren aldaera intentsiboa da baina erreferentziakidetasunen aldetik, *haren* izenordainaren banaketa bera du.

S.	Pl.	Erreferentzia esaldi beraren aditzean islaturik
Bere	Beren	+
Haren	Haien	-
Beraren	Beraien	-

netako elementuak erabiltzea<sup>38</sup>. Izan ere, horrela irakurlea ez dugu behartzen harreman logiko hori berak aurkitzen eta errazago ziurta dezakegu guk nahi dugun arrazonamendua segituko duela. Gainera, komenigarria da lokailuen artean anbiguotasunik txikiena dutenak erabiltzea. Esate baterako ez da oso komenigarria *alabaina* edo *bestela* bezalako lokailuak erabiltzea irakurketa bat baino gehiago izan baitezakete eta beraz, irakurleak ondorioztatu behar baitu irakurketa posible horien artean irakurtzen ari den testuan zein den benetan lokailu horren bidez adierazi nahi duguna. Bistan da (54) sortako adibideetan ziurtatuago dagoela irakurlea nahi dugun harremana ondorioztatzeraz helduko dela *osterantzean* edo *gainerakoan* erabiliz, *bestela* lokailua erabiliz baino. Zer esanik ez, askoz ere egokiagoa izango da aurkaritzako edo kausazko harremana islatzeko hurrenez hurren *hala ere* eta *izan ere* lokailuak erabiltzea, irakurketa biak onartzen dituen *alabaina* lokailua erabiltzea baino.

- (54) a CO<sub>2</sub>-a kloroplastoen barnealdera eraman behar da; {*bestela/osterantzean*}, ez litzateke fotosintesirik gertatuko  
b Entzimek ekoitziriko tokian bertan eragiten dute; {*bestela/gainerakoan*}, hormonak bezala, bizidunek ekoitziriko molekula proteikoak dira

Mendeko perpausei dagokienez ere, komenigarria da anbiguotasunik txikiena dakarten hitz-hurrenkerak eta perpaus motak erabiltzea. Bereziki zaindu beharreko kontua da erlatibozko perpausak irakurleak aurrekariarekin erraz harremanetan jarri ahal izateko moduan moldatzea. Perpaus adberbialen artean ere ezagutu beharrekoak dira mota bakoitzeko perpausak izan ditzaketan irakurketak zein diren anbiguotasun posibleei aurrea hartzeko edo irakurleari nahi dugun irakurketara ahal den eta bide laburrentetik eramateko. Edonola, esangurarik zabalena duen perpaus mota aukeratzeko dugu, harremana horren ondo zehaztu nahi ez dugunean; ...

## 9. ONDORIOAK

Lan honetan, hizkuntzaren erabilera berezituaren zehaztasun-beharraren inguruan guztion ahotan dabilzan zenbait adigaitan sakondu nahi izan dugu, alde batetik gauzak esan ohi den bezain errazak ez direla agerian uzteko, eta areago, zenbaitetan seguraski esan ohi denaren alderantzizkoak direla aldarrikatzeko.

Lehenik, kontuari buruz dagoen bibliografiarekin bat etorri eta garbi utziko dugu termino bat hizkuntzaren hitz-ondare arruntetik lor daitekeela. Hala egin dute bestelako hizkuntzetan eta gurean ere, hala egin dezakegu kasu askotan eta askotan, batez ere zehaztasuna terminoari adituak adigai

---

<sup>38</sup> Ikus Makazaga (1996).

batekin lotzen duenean esleitzen diola gogoan badugu. Berez, hizkuntza arrunteko hitzek anbiguotasun-zama bat izango dute gehienetan, eta terminoak, hizkuntzaren helburu berezietarako erabileraren poderioz lortuko du zehaztasuna. Horrela, maileguzaletasunak eta garbizaletasunak ez dute zerikusi zuzenik zehaztasunarekin, eta estetika-sentikortasun desberdinen arabera eutsiko zaio batari edo besteari.

Bigarrenik, ahazturik edo egon da askotan terminoak oro har ez direla hitz bakarrekoak eta zehaztasunaz ari garenean hitz bat baino gehiagoko segidez hitz egin behar dugu. Hau horrela izanik, ustez zehaztasunik gabekoak izateagatik baztertu diren baliabide eta hitz jator asko berreskuratu egin beharko genituzke, zeren aldamenean azalduko diren ondo aztertu eta gero.

Hitz elkartuek zehaztasunaren inguruan beste hausnarketa bat egiteko aukera eskaini digute. Izan ere, zehaztasun-auzi batzuk marraren bidez konpon daitezkeela garbi badago ere, lan honetara ekarri nahi izan dugun ideia berria, marraren gehiegizko erabilerari loturik dago: beharrezkoa denean erabiltzea zilegiztatzeko, beharrezkoa ez denean agian erabili beharko ez genukeela esan dugu azken finean. Horrela, adigai bera emateko hurrenez hurren marraz eta bereiz idatziko liratekeen hitz elkartu bi ditugunean, bereiz idaztearen aukera erosoari (eta hizkuntza arruntean estetikoagoa gertatuko denari) eutsiko diogu. Bereiz idatz genitzake halaber, soilik era batera uler daitezkeen hitz elkartuak.

Izen elkartuek eskaini diguten hirugarren hausnarketa-gunea, erdaren erreferenziazko adjektiboen esparruari loturik dago: berez, mendekotasunezko izen elkartuak edo eta izenlagunak, erreferenziazko erdal adjektiboen ordain ezin hobeak dira, eta beste hizkuntzen adjektibo horiek dauden-daudenean mailegatzeak, zehaztasuna ez bermatzeaz gain, euskararen egitura morfosintaktikoetan osagai arrotzak alferrik sartzea dakar.

Hitz eratorriak direla eta, aurrean baliabide sintagmatikoaren laguntzaz esandakoaz gain, garbi utzi izan dugu atzizkiek eta oinarri gisa erabiltzen diren hitzek (aditzak kasu), azalean susma daitekeena baino ezaugarri korapilotsuagoak dituztela, eta hasiera batean zehatzagotzat daukaguna hain zuzen ere zehaztasun txikiena eskain dezakeena izatea gerta daitekeela.

Bukatzeko, zehaztasuna azken batean testuan erabakitzen dela eta beraz, maila honek ere arreta berezia eskatzen duela azpimarratu dugu.

## 10. BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, J., GARCÍA, J. eta UGARTEBURU, I. (1997). «“Erdal hitz bakarra: euskal hitz bakarra” jokamolde mimetikoak euskal terminologian». *Nazioarteko Terminologia Biltzarren aktak*: 307-332.
- ALTONAGA, K. (1998a). «Pandaren dieta eta hiztegi-kontuak». *Elhuyar*. 129 zk.: 30-35.
- ALTONAGA, K. (1998b). «Ajeak eta ajeak ez direnak». *Berba* 26 zbk.
- ARTIAGOITIA, X. (1995). «*Garri* atzizkiaren izaera bikoitzaz: Zergatik den maitagarria bezain mingarria». *ASJU XXIX-2/3*: 355-405.

- AZKARATE, M. (1990). *Hitz elkartuak euskaraz*. Mundaiz.
- AZKARATE, M. eta GRÁCIA, LI. (1995). «Agentivity and modality in deverbal adjectives in Basque and Catalan» (eskuizkribua).
- BOSTAK BAT (1988). *Sinonimoen hiztegia antonimoduna*. Adorez. Bilbo.
- SARASOLA, I. (1997). *Euskara batuaren ajeak*. Alberdania. Zarautz.
- SARASOLA, I. (1996). *Euskal Hiztegia*. Kutxa Fundazioa.
- EUSKALTZAINDIA (1992). *Hitz-elkarketak/4 Hitz elkartuen osaera eta eta idazkera*. Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (LEF batzordea) (1994). «Eratopenaz». *Euskera* 1994 (3): 1039-1058.
- EUSKALTZAINDIA (1995). «25. araua Hitz elkartuen osaera eta idazkera». *Euskaltzaindiaren Arauak*.
- EUSKALTZAINDIA (1996). *Euskaltzaindiaren arauak*. 48. araua (Hiztegi Batua: *arraun-azuzena*).
- ELHUYAR (1993). *Hiztegi Entziklopedikoa*. Usurbil.
- ELHUYAR-ELKAR (1994). *Euskal Hiztegi Modernoa*. Donostia.
- ENSUNZA, M. (1997). «Doppler efektua eta Ohm-en legea. Aposizioa vs. genitiboa fisikaren terminologian» *Nazioarteko Terminologia Biltzarreko aktak*: 763-769.
- KOCOUREK, R. (1982). *La langue française de la technique et de la science*. Zürich. Oscar Brandstetter Verlag GMBH&CO.KG.
- LUR (1991). *Hiztegi Entziklopedikoa*. Lur. Gallarta.
- LUR (1996). *Eskolako Hiztegi Entziklopedikoa*.
- LUR (1998). *Entziklopedia Tematikoa (Matematika)*. Lur. Gallarta.
- MAKAZAGA, J.M. (1997). «Perpauen arteko testu-mailako lotura: testu zientifikoak sortzen». I. ZABALA ed. *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknika*. EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- MITXELENA, K. (1990). *Orotariko Euskal Hiztegia*.
- ODRIOZOLA, J.C. (1998a). «Euskara Batuaren Ajeak: zaharren gaixotasun arinak eta gazteen astelehen goizeko nagia». *Campus* 47 zenb. 1998ko otsaila.
- ODRIOZOLA (1998b). «Elkarketen idaztarauak: oxigeno elementu baina oxigeno-molekula». *Ekaia* 8.
- UZEI (1979). *Fisika Hiztegia*.
- UZEI (1984). *Biologia /1. Landare eta animalien izenak. Izendegia*.
- UZEI (1987). *Biologia /3. Ekologia Hiztegia*.
- ZABALA, I. (1995). «Aditzen hautapena euskara teknikoan». *Ekaia*:3: 123-134.
- ZABALA, I. (1997a). «Testu-lotura: lotura tematikoa eta erreferentzia-sareak testu teknikoetan». I. ZABALA ed. *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknika*. EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- ZABALA, I. (1997b). «Argumentu-harremana / eremu-harremana: izenondo erreferentzialen euskal ordainen bila». *Nazioarteko Terminologia Biltzarraren aktak*: 535-556.
- ZABALA, I. (1998). «Azal/ gainalde/ azalera/ gainazal». *Ekaia* 9.
- ZABALA, I. (1999). «Izen-sintagma konplexuak: adjektiboen eta izenlagunen segidak», J.C. ODRIOZOLA ed. EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- ZABALA, I. (1999). «Mugakizun bereziko izen elkartuen idazkera» (prestakuntzan).

# EUSKARA INSTITUTA

## Hizkuntza

Lan sorta hau, jadanik euskara teknikoaren inguruan plazaratu diren beste zenbait lanen bide bera jorrazteko asmoa gauzatu da.

Lehenengo lanean euskara teknikoan eta zehazkiago terminologian oso emankortasun handia azaltzen ari den *-kiko* atzizkiaren ezaugarri zehatzak eman dira, euskal literaturan nabari daitekeen usadioa aztertuz eta hizkuntzaren gaur eguneko erabiltzaile berezituak izan ditzaketen beharrak tradizio-ildo horretatik bideratuz.

Bigarren lanean ere, literatur tradizioa hartu da abiapuntu, gaur eguneko testu teknikoetan *-(e)z* instrumental edo *-(r)ik* partitibo deklinabide-atzizkia daramaten mendeko perpausak euskararen erabilera berezituetan izan dezaketen ekarpena finkatzeko edota garatzeko.

Hirugarren lanak, izen-sintagmaren esparruari eutsi dio, hizkuntza teknikoak ekoizten dituen adjektibo-segida korapilatsuak aztertuz.

Laugarren lanak, hizkuntza teknikoaren muinean dagoen gaia jorratu du, oso lagungarri gertatuko den ikuspegi orokor bat eskaintzeko: erabilera bereiztu honek behar dituen zehaztasun eta gardentasunaren bideak.